

MASEN ERREBOLTA

José Ortega y Gasset

D. José Ortega y Gasseten Masen errebolta, nazioartean egundoko sona izan duena – zenbait hizkuntzataraz itzulirik dago–, 1930ean argitaratua, oraindik ere gaztelaniaz idatziriko soziologi obra irakurriena da, nahiz eta balioespen zeharo diferenteak izan bere lehen ediziotik gaur arteko hirurogei urte pasatxotan. Ortegaen beste hainbeste obrak bezala, aldezturik El Sol egunkarirako 1926an egindako artikuluetan du sorrera. Denboran aurretik etorri zen Espainia ornogabea (1921), eta bietan kontzeptu oso antzekoak ageri dira. Bi obrak izan beharko ditugu kontuan sarrera honetan. “Masak”, jakina, behin eta berriz agertzen den gaia du bere obran; baina nola “masa” eta “masa-gizaki” (baita “masa-klase” bera ere) beti esanahi berarekin agertzen direnez gero, aski izango da Espainia ornogabea eta Masen errebolta konparatzea.

Nahiz eta Ortega ez izan bere liburuak idazten ari zen garaiaz aurreko edo aldi bereko beste autoreen aipua egitera oso emana, ezin dezakegu hemen ahaztu gerra bitartean sortu zen “masa” eta “minoría” edo “elitei” buruzko literatura ugaria Ortegaen obra bere garaiko europar testuinguruan kokatzen ahalegintzeko.

Bestalde, nola Masen errebolta obrak soziologiko bezala bere burua agertu nahi izan zuen, ezin dugu obra hori Gizakia eta jendea lanarekin (1953an argitaratutako autorearen lehen obra postumoarekin) erlazionatzeko utzi, eta nola soziologi tratatu (osatu gabe) horretan Ortegak oso hurbiletik segitzen dion Emile Durkheim soziologoari, ahaleginak egingo ditugu azaltzen zer harreman dagoen frantses soziologoaren eta espainiar entsegulariaren artean. Baina liburu postumo horretan “masa” eta “gutxiengo hauta” (edo baliokideak) ez dira agertzen. Argitaratu gabekoaren programak ez dauka bere baitan gai horien aipamena egiten duen irakaspenik.

Azkenik, Historia unibertsalaren interpretazio bat (1956) beste obra postumo batek, A. Toynbeeren A Study of History obraren ildotik, Erromatar Inperioaren eraikuntza eta suntsiera-prozesua aztertzen ditu funtsean, eta lehen aipaturiko Ortegaen liburuak Espainiaren errealitatearen inkorporazio eta desintegrazioari buruzkoak dira; prozesu hori bera Ortegak oso begikoa zuenez gero, egoki deritzogu bi prozesu historikoak konparatzeari, zeren autorea bera baita, eta kontzeptuak eta teoriak ere berak dira.

Espainia ornogabea eta Masen errebolta obren edukia, lehen aditzera eman dugunez, egunkari-artikuluetarako sortuak izateak, eta Gizakia eta jendea eta Historia unibertsalaren interpretazio bat obrak ere aurrean hitzaldi gisa (azken horiek “Instituto de Humanidades”-en) sortu izanak 1946an ohar bat eranstera behartzen du Ortega, eta bertan dio: “Abagune honetaz baliatzen naiz eskuzabalki nire obrei buruz idazten duten eta batzuetan beren lehen agerpenaren data zehazteko zailtasunak izaten dituzten atzerritarrei ohartarazteko, ia nire obra guztia kazeta-artikuluen antifaza erabiliz munduratu dela.”¹ Ez dut oso ongi ulertzen zer esan nahi duen Ortega “antifaz” hitzarekin; bere artikulua eta hitzaldiek lantzen ari zen obra “ezkututzen” zutela esan nahi zuen agian. Baina nola Masen Errebolta-ko lehen oharrean zehazten duen, liburuak kazeta-artikulu eta hitzaldietan duen jatorria ukatu gabe, “Nire oraingo asmoa da dagoeneko esanda daukadana bildu eta osatzea, horretara gure garaiko gertakari

¹ La rebelión de las masas, 150 or. IV tomoa. Ortegaen liburu guztien aipua Obras Completas, Madrid, 1966, seigarren edizioaren (lehena 1947koa da) arabera eginak dira. Bada geroago Obra horien edizio bat (jakinaren gainean jartzen dut irakurlea) baina ez da Sarrera honetan kontuan hartzen.

garrantzizkoenari buruzko doktrina organiko bat gerta dadin” (143. or. azpimarra gurea da), 1994ko urte honetan galde dezakegu ea doktrina organiko bat den, ea gure garaiko gertakari garrantzizkoena den, baita soziologi liburu bat ote den ere.

Gaztelaniaren eremuan bere garaian oso hedatua izan zen obra batean, zeren Mexikoko Fondo Cultura Económica-k argitaratua baitzuen, gizarte-pentsamenduaren historiari buruz, bere autoreak H.E. Barnes eta H. Becker, honela mintzo dira aurkezten ari garen obraz: “José Ortega y Gasset, filosofo literario batek “masen erreboltari” buruzko liburu bat sortu du Le Bon, Pareto eta Spengler nahastuz, bere erretorika propio bikainarekin, baina zizka-mizka horiek, nahiz eta oparo gatzozpinduak izan, ez dira soziologoek gustukoak”. Epai hori 1938an eman zen, beraz, oso hurbil zegoen Ortegaren liburuaren argitalpenetik². Ikusten denez Masen errebolta-k lortu zuen hedapen handiak, ez zuen izan harrera onik soziologi komunitatean. Filosofi komunitatean ere ez zuen izan eta horren adibide izan liteke Henry Bergsonek Ortegaz esandakoa: “Filosofotzat dauka bere burua, baina kazetari txispaduna besterik ez da”:

Baina gauza bat dago argi: lehen eta orain ere bai jendeak erruz irakurtzen den liburua dela. Esan beharra daukat nik neuk lehen aldiz irakurri nuenean, beti izan diodan errespetua batere murriztu gabe –batez ere nire unibertsitate-urteetako testuinguruan, zeren altuera intelektual apur bat zeukan bakarra baitzen, eta ia eskusiboki--, Masen errebolta ez nuen gogoko izan, zeren oso sinpletzailea iruditu baitzitzaidan, baita obra hori 98koen Belaunaldiko autoreen obrari baturik –horienak baitziren nire irakurgai gustukoak--, berehala konturatu nintzen haiek guztiek –beren literatur kalitateari izpirik kendu gabe-- demokrazi oinarrien kritika porrokatzaile burutu zutela, zeinen ondorioak ziren aurrez aurre neukan diktadurazko errealitatea. Eta libururik ezkorrenetako bat, zentzu horretan, Masen errebolta izan zen hain zuzen ere.

Ortegak Espainia ornogabea-n dituen ideietan sartuz, gero Masen errebolta-n errepikatu direnetan, eta kontuan izanik autoreak unitate historikoen inkorporazio- eta desintegrazio-prozesuekiko duen interesa, eta beste behin erromatarrek adibidetzat harturik, honela idazten du:

“Inkorporazio-prozesuaren estadioek goranzko lerro miresgarria eratzen dute (...): Erroma hasierakoa, Erroma bikoitza, federakunde latindarra, batasun italiota, inperio koloniala. Eskema hori aski da erakusteko inkorporazio historikoa ez dela hasierako gune baten hedapena, baizik eta aurretiko gizarte-unitate asko egitura batean antolatzea. Hasierako guneak ez ditu irensten pixkanaka menperatuz doan herriak, eta lehen zuten bizi-unitate propioen izaera ezeztatu ere ez du egiten”³.

Hau da, erromatar inperioa deritzogun batasun politikoa. Espainiaren batasun politikoa bezala, unitate-inkorporaziozko prozesu bat da, zeinak unitate nagusiari gehitze historikoan, Ortegaren iritziz, “aurretiazko gizarte-unitate asko egitura berri batean antolatzea areago diren”, aurreko aipuan irakurri berri dugunez. Eta aurreko doktrina Espainiari aplikatuz, honako baieztapenak egitera darama Katalunia eta Euzkadiri buruz:

² H. E. Barres eta H. Becker, *Historia del pensamiento social*, México, Fondo de Cultura Económica (Lehen edizio ingelesa 1938koa da). Aipua II bolumeneko 313. orrialdeari dagokio.

³ *España invertebrada.- Bosquejo de algunos pensamientos históricos* (1921), Obras Completas, III tomoa, 53. or.

“Jendearen parterik handienarentzat kataluniar eta euskal “nazionalismoa” artifiziozko mugimendu bat da, hutsetik aterea, kausa eta zio sakonik gabe, supituki duela zerbait urte hasia. Pentsatzeko era horren arabera, Katalunia eta Vasconia ez ziren mugimendu horren aurretik gizarte-unitate Gaztela edo Andaluziatik bereziak. Espainia masa homogeneoa zen, desjarraitasun kualitatiborik gabea, parte batzuek besteekiko barne-mugarik gabea. Orain erregioez, herri diferenteez, Kataluniaz, Euzkadiz hitz egitea masa homogeno bat labanaz ebakitzea da eta gorputz bakanduak bolumen trinko batean trenkatzea” (60. or; gure azpimarra).

Barka biezat irakurleak Ortegaren pentsamenduan sarrarazteko zirrarako dutxa bat eman izana. Baina sarrera honetan, urratsez urrats, masei buruzko bere “doktrina organikoaren” xehetasun guztiak aletu ezin ditudanez gero, ezer baino lehen doktrina horren barne-muinean murgilarazteari iritzi diot egokien. Izan ere, Ortegarentzat, Espainia, Erroma bezala, inkorporazio eta desintegrazio-prozesu bat da; hala ikusten du berak. Eta azken horretan masek dute erantzukizuna. Nahiz eta aipaturiko testuetan ez garbi egon “masa” kontzeptua –“masa homogeno” eta “bolumen trinko” gisa--, terminoak ez du balioespen txarreranzkorik; zerbait esatekotan alderantzizkoa esan liteke, baina bere pentsamenduan, “masa”-k, “gutxiengo hauta” bati kontrajarria den heinean, badu. Ikus dezagun Espainia ornogabea-ko beste aipu bat, nazionalismoa eta masen arteko harremanaz, zeina gehiago hurbiltzen zaion izatez Ortegak masez duen kontzeptuari:

“...argi dago arinkeriatzat daukadala katalanismoa eta bizkaitarrismoa banaka batzuen apeta pribaturik jaiotako mugimendu artifiziozko gisa. Alderantziz, gure herria erori deneko deskonposatze-egoeraren agerkari nabariena besterik ez da; berorietan luzatzen da duela hiru mende hasiera emandako barreiatze-jestua. Teoria nazionalistak, erregionalismoaren egitarau politikoak, beren gizonen esaldiek ez dute interesik eta neurri handi batean artifiziozkoak dira. Baina mugimendu historiko horietan, masa-mekanika direnetan, esaten dena aitzakia hutsa izaten da beti, lantze artifizial, iraizeko eta fikziozkoa, balio sinbolikoa baizik ez duena arima kolektiboaren estalkipean diharduten emozio sakon, esanezin eta ilunen adierazpide konbentzional gisa eta ia beti desegoki gisa” (67-8 orr.).

Biribila bezain hauskorra den hau guztia ulertzeko, gogora ekarri behar da nazioen inkorporazio eta desintegrazio historikoaren eredua Mommsenen⁴ Erromaren Historia-n oinarritzen dela, non autoreak hasiera ematen dion Ortegaren doktrinarentzat atarikotzat hartzen diren hitz hauekin; “Nazio ororen historia, batez ere nazio latindarrarena, inkorporazio-sistema zabal batena da⁵”. Bere Historia unibertsalaren interpretazio bat obra postumoan Mommsenen planteamendura itzultzen denean –inkorporazio eta desintegrazioa--, Masen errebolta-ko bere aipu bat tartekatzen du –bata eta bestearen

⁴ Teodoro Mommsen. *Historia de Roma*, A. García Morenoren itzulpena, Madrid 1876, Francisco Góngora, editorea.

⁵ Mommsenen aipu hori egitean, Ortegak honako ohar hau eranstean dio (51. or.): “Edizio alemanean ez da “inkorporazio” aipatzen, “synoikismo” baizik. Ideia bera da: *synoikismo*-k bizikidetza esan nahi du zehazki, egoitzen bilketa. Frantses itzulpena berrikustean, Mommsenek hain teknikoa ez zen hitz bat nahiago izan zuen. Arazoa ez datza termino itzulia teknikotasun gehiago edo gutxiagokoa izatean, nik neuk ikusten ez dudana *synoikismo* “inkorporazio”-ren baliokidea ez izatea da, zeren eta hitz horrek ez baitu derrigorrean inkorporatuaren borondatezko onarpenik eskatzen, eta Erromaren kasuan, argi dago, inkorporazioak gerren bidez egiten ziren.

artean berrogeita zazpi urte igaro dira, eta horrek adierazten du autorearen oso ziur dagoela esaten duenaz-- eta honela dio:

“Interesgarri eta baliagarri litzateke azterketa honen pean jartzea batez besteko espainolaren izaera indibiduala. Eragiketa, halere, gogaikarria eta, nahiz baliagarria izan, deprimigarria izango litzateke; horregatik uzten dut alboratu; baina ikustekoa litzateke zeinen barnedesmoralizazio, zitaltze-dosi eskerga sortzen duen gure herrialdeko batez besteko gizonarengan agintea eta obedientziaren auzian kontzientzia zikin batekin, duela mendeak, bizi den nazioa izateak Espainia. Zitaltzea zera besterik ez da, irregulartasun bat egoera ohiko eta eratzat onartzea, onartzen den bitartean desgokitzat irizten zaiolarik. Nola ezinezkoa den normaltasun zindo bihurtzea funtsean kriminal eta anormal dena, gizabanakoak bera behar ez dena moldatzea hautatzen du, arrastaka daraman krimen edo irregulartasunarekiko erabat homogeno bihurtuz (...) Nazio guztiek izan dituzte aldiak, zeinetan beraien gain agindu nahi izan duen agindu behar ez zuenak; baina instintu sendoa batek bilarazi zizkien bat-batean indarrak, agintea nahi irregular hura kanporarazteko. Iraizeko irregulartasuna errefusatu eta beren moral publikoa berreraiki egin zuten horrela. Baina espainolak alderantzizkoa egin du: bere barne-kontzientziak arbuiazen duen hori inperatzaile edukitzeari kontrajarri beharrean, bere izatearen gainerako guztia faltsutu nahiago izan du hasierako iruzur hartara egokitze. Honek gure herrialdean dirauen bitartean alferrik da gure arrazakoengandik ezer espero izatea.” (242-243 orr.; Masen errebolta, loc. cit.)

Oso nekez onar liteke hain orakulu ezkorra batez besteko espainolaz, hain pesimismoz betea eta itxaropenez gabetua. Pentsa bedi orakulua 1930. urtean egiten dela, Primo de Riveraren Diktadura erori zen urtean, eta ia segituan II. Errepublikak darraiola eta ondoren 1936-39ko gerrate zibila datorrela. eta gero Francoren erregimena, zeinean funtzionatzen duen “Instituto de Humanidades”-ek eta ematen diren Historia unibertsalaren interpretazio bat oinarritzen deneko hitzaldiak Ez al da denbora luzeegia espainol, euskaldun eta kataluniarrak petralkeria gainditzeko saiatu direlarik epai horri eusteko, eta etsipenez ez onartzeko --zuzen zein oker-- deskribatzen duen egoera? Nola ez ahalegindu ulertzen testuinguru horretan euskal eta kataluniar nazionalismoaren fenomenoak, deskribatzen duen bezalako egoera baten gainditzea, beste azalpen batzuk alde batera utzirik?

Baina sar gaitezen Masen errebolta-ren testuan, besterik ez bada ere, “masa” eta “gutxiengo hauta” kontzeptuak aurreratzeko eta bi kontzeptuen arteko erlazioari autoreak ematen dion dialektika berezia, lege gisa --lege fisiko izateraino-- politikoki antolaturiko giza taldeen dinamikan, hau da, nazioetan, berorien inkorporazio eta deskonposizio-prozesuaren berri emateko ahaleginean, lege unibertsal bihurtu nahirik.

Espainia ornogabea-n jadanik aurreratu zituen dialektika horren gakoak, esanez:

“Behar bada ez dago ezer herri bat eta bere historiako aro bakoitza egokiago kalifikatzen duenik masa eta gutxiengo gidariaren arteko erlazioen egoera baino. Egintza publikoa --politikoa, intelektuala, hezkuntzako-- bere izenak adierazten duenez, halako izaerakoa da, non gizabanakoak berak bakarrik, nolanahikoa duelarik bere jenialtasuna ere, non ezin duen eraginkortasunez burutu. Eragin publikoa edo, horrela deitu nahi bazaio, gizarte-eragina pertsona bakoitzak bere auzoarengan izan dezakeen eragin pribatuan ari diren energiaz zeharo bestelakoetatik sortzen da. Gizaki bat ez da inoiz eraginkorra bere gaitasun indibidualengatik, baizik eta masak beragan

ezarri duen gizarte-energiarengatik. Haren talentu pertsonalak zio, abagune edo aitzakia besterik ez dira izan beragan gizarte-dinamismo hori gatzatu zedin” (91. or.)

Pasarte horretan Émile Durkheimen soziologiaren eragin eztaba daezina ikusten dut, eta bereziki bere “gizarte-gertakariarena”, zeinak, soziologiaren objektu gisa, gizabanakoari esatean, pentsatzean, egitean eta abarretan hertsapenez ezartzen zaion guztia adierazten duen. Baina aurreko aipuan masa da gizarte-gertakariaren gordailudun. Eta indibidualismoaren aurkako jarrera garbian, gizarte-zientzia frantses ia guztian nagusi zenean, gizabanakoak “masak beragan ezarri duen gizarte-energiak bakarrik joka dezake”. Ez da harritzekoa eragin hori erreferentziako liburuan, zeren bertan berehalakotzat iragartzen baita Gizakia eta jendea bere soziologi tratatua, 1953an postumoki argitaratuko zena, osatu gabe, baina Durkheimen eragin nabarmenarekin, nahiz eta Ortegak ahaleginak egin hori murrizteko. Hitz batean, Ortegak dio hemen “gutxiengo gidariak” ezin duela ezer egin “gizarte-energiaren” ordezkari den masa bere alde ez badu edo bat ez badator. Ateratzen dut ez dela hori Masen errebolta-n esango duena, non gizarte-dialektika, ondoren ikusiko dugunez, ez den hainbeste “gutxiengo gidari edo hautak” masan euskarritu beharra izatea jarduteko. Alderantziz, gertatzen dena da masak ordeztu egin nahi duela gutxiengoa lehenago gutxiengo hautarentzat izaten ziren postu eta erantzunbeharrak beretzat hartuz; hortik dator errebolta, hau da, gutxiengoaren eginkizuna masak usurpatzea, masek berek gutxiengoaren eginkizun gidaria usurpatzea, boterea ezartzeko prest daudelarik.

Masen errebolta-n, horiek ez dira “gizarte-energiaren” gordailudun; aitzitik, masek ez dute bere baitatik kanpo dagoen ezer eskatzen —eta, dirudienez, lehenago “gizarte-energiak” ere gabeturik daude, zergatiaren berri ematen ez bada ere—. Eta hala dio:

“Masa-gizonak sekula ez zukeen bere baitatik kanpoko ezer eskatuko baldin eta zirkunstantziak bortxaz horretara behartu izan ez balu. Nola orain zirkunstantziak ez duen behartzen, betiko masa-gizonak, bere izaerarekiko kontsekuente, utzi egiten dio eskatzeari eta bere bizitzaren subirano sentitzen da. Aldiz, gizon hauta edo bikaina bere burutik gorago dagoen araura jotzeko barne-premia batek eraturik dago, zeinaren zerbitzuan bere burua libreki jartzen duen. Gogora bedi, hasieran, gizon bikaina eta gizon arrunta bereizten genituela esanez: hura bere buruari asko eskatzen diona dela, eta hau, ez diona ezer eskatzen, baizik den horrekin aski duela eta poz-pozik dagoela bere buruarekin” (181 or; azpimarra gurea).

Bada hemen masa eta gutxiengoaren arteko nahaste susmagarri bat, talde gisa, eta masa-gizon eta gizon hauta edo bikain, gizabanako gisa. Hori Espainia ornogabea-n egindako baieztapen batzuekiko kontrastean dago, non esaten duen:

“(…) Espainian gaur masen agintepean bizi gara. Miopeek ez dute holakorik uste, izan ere, ez baitute mutinik kaleetan ez asaltorik Banku eta ministeriotan ikusten. Baina kale-iraultza hori gizarte-masa jakin baten, proletarioaren aginteak, batzuetan, hartzen duen itxura politikoa besterik ez da(…). Ni plazaskako bihurrialdia baino askozaz erradikalago hartzen duen demonio-era batez ari naiz, askozaz sakonagoa, lausoagoa, oropresenteagoa denaz, eta ez gizarte-masa bakar batez, baizik eta guztiez, eta bereziki aginpide handiagoko masez: klase ertain eta nagusiaz” (95. or.; gure azpimarra).

Ohartarazi egin nahi dut nola pasatzen den gizarte-klase bezala harturiko masetatik —proletario, ertain eta nagusitik—, beraz gizarte-talde direnetik, masa-gizakira eta gizaki

hautatura, kategoria indibidual direneta. Nolabait esateko, alde batera utzi dugu soziologiaren esparrua eta psikologiarenean sartu gara. Inkorporatze eta disolbatze ereduari eutsi lekiokela baieztatzea –lehen partea Mommsengandik hartuari; bigarrenen –disolbatzea– masen errebolta gisa Ortega beraren doktrinatik (baina, zein masarena, taldekoena ala banakakoena?), gutxienez, , elementalegia gertatzen da garapen historikoko fenomeno bat azaltzeko. Baina, jakina, Ortegak ez du gaurkotasun gehiago edo gutxiagoko entsegu bat idazteko asmorik, baizik eta bere obran zehar arrazoi historikoaren filosofi obra bat idazteari dagokionez ekarpen bat egitekoa (besteak beste arrazoi bitala izendapena emanez), non ikasleek fokapen berri honen adibidetzat Masen errebolta jartzen duten. Arrazoi historikoa, Historia unibertsalaren interpretazio bat bere obra postumoan, honela ulertzen du Ortegak.

“Nola deitu eragiketa intelektual bati, zeinaren bitartez lortzen dugun aurkitzea, agerian jartzea, gauza bat zer den, gauza baten izatea asmatzea. Zalantzarik gabe, arrazoiak. Baina kasu honetan hitz haren izatea asmatzeko gertakari batzuk narratze guztiz sinplea beste eragiketa intelektualik ez dugu burutu (...). Nondik ateratzen den inolako ihesbiderik gabe narrazioa arrazoiaren forma bat dela izen horren terminoaren zentzurik superlatiboenean –arrazoiaren forma bat arrazoi fisikoa, arrazoi matematikoa eta arrazoi logikoaren ondoan eta aurrean. Izan ere, arrazoi historikoa: duela urte asko nik akuinaturiko kontzeptua (...) Arrazoi historikoa, zeina ez den indutzea ez deduzitzea, lainoki narratzea baizik; da giza errealitateak ulertzeko gai den bakarra, zeren berorien ehundura historikoak izatea, historizitatea baita” (108-109 orr.)⁶

Testu honetan Ortegak proposamen bat egiten digu, eztabaidagarri dena gainera, eta autoreak eman nahi dion irismenik gabea noski. Zentzu filosofikoa eman nahi die aurreko bere obra askori, besteak beste Masen errebolta-ri. Baina, jakina, arrazoi historikoa narratze egiazkoa bada, narrazioak gertakariz betea egon behar du, zeinek, ikertuak izateaz gainera, dedukzioaren eta indukzioaren argitan aztertuak ere izan behar duten. Hau da, gertakarietatik berorien esanahia atera behar da, beste gertakari batzuekiko erlaziotan, eta gertakari berak ikerketa enpirikotik indutitu behar dira. Baina hori narratuz bakarrik lortzen da? Arrazoiak hitz egiten badugu ez dela nolanahiko narrazioa ulertzen da, egon litekeela edo ez ziurtasunean edo errakuntza huts bat izan litekeela, edo baita fantasia hutsa eta lilura ere. Zein irizpide zientifikok, dedukzioa eta indukzioa alde batera utzirik, ematen digu aukera eskaintzen zaigun narrazioa egiazkoa dela ziur egoteko? Gure kasuan sartuz, zergatik onartu behar dugu egiazkotzat nazioen historiaren narrazioa inkorporazio- eta disoluzio-prozesu gisa, eta zergatik gutxiengo eta masen joko-arteak bakarrik ematen du guztiaren azalpena, arrazoiak? Nire ikusteko eraz, Ortegak ez zion inoiz neokantiar izateari utzi, hori izan baitzuen bere lehen prestakuntza, Marburgeko Eskolan⁷. Neokantismoak “ereduen” bitartez bakarrik jotzen du posibletzat ezagutzea, zeinak eragiketa intelektual bat diren, hau da, subjektu pentsatzailearena baizik ez den lan bat, eta ez gertakari-bilaketa bat, aitzitik beste eragiketa intelektual bat areago, autorearen gogamenak azarez hautaturiko gertakariak elkarri egokitzea dena, gertakariak “ereduari” moldatzen ahaleginduz. Zentzu horretan,

⁶ Ez dago sartuta esku artean darabiltzadan Ortegaren *Obras Completas*-en; *Una interpretación de las historia universal* izeneko lana, zeinaren arabera aipua egiten ditudan, Madrilén, Revista de Occidente/Alianza Editorial, 1979an egindako liburu postumoaren lehen edizioa da, Paulino Garagorriren atari-oharrarekin.

⁷ Ikus L'Ecole de Marbourg, Henri Dussort, Paris, Presses Universitaires de France, 1963

inkorporazio eta disoluzioaren gertakari historikoa “eredu” bat da eta gutxiengo-masen joko-artearen gertakari urriak beste “eredu” bat dira.

Gizakiaren izatea (ontologia) historizitatea (arrazoi historikoa) da, eta narrazioa metodo. Hori guztia oso ongi dago, zeren gauza guztiz ezagunak baitira. Gaur egun agian beste hitz batzuekin aditzera eman beharko litzateke. Baina etengabe kezkatzen nauen auzia narrazioarena da. Izan ere, zer narrazioaz ari gara hemen? Historiak, diziplina zientifiko gisa, eta historiaren filosofiak berak ere bai, beti jo izan du narraziora. Hori ezinbestekoa da. Historiak, halere, gero eta gehiago elikatu ditu bere narrazioak gertakari egiazkoetatik, edo frogatuetatik, izaera ekonomikoa, politikoa, diplomatikoa, sozial eta abarrekoetatik. Ortegaen narrazioak – eta agian bere obra hedatua-- baliteke narrazio bat besterik ez izatea, nahiz eta literatur kalitate bikain, intuizio distiratsu, erudizio zabal, egundoko jakin-min intelektualekoa, baina arazoa datza jakitean ea narrazioak ez ote dituen eduki behar, horrezaz gainera, baieztatzen duenaren frogak, eta bere narrazio historikoek izaera soziologikoa izaten dutenez, narrazio horietan baieztatzen dena egiaztatu edo gezurtatzeko aukera emango duen metodologia bat diren gizarte-zientzien barruko frogak. Azken hori ez da Ortegaen obra narratiboan gertatzen: bera oso ziur dago baieztatzen duenaz, eta gainera pentsarazi nahi du iraganak arrazoiaren ematen diola, eta etorkizunari buruzko bere igarpenak banan-banan betetzen ari direla. Eta hemen ezin gaitzeko ados etorri berarekin, izan ere bere narrazioen edukia hain da orokor eta azalekoa, non ezin lezakeen froga bakar bat ere onar. Batzuetan, Masen errebolta-n bezala, eztabaidagarria da iragartzen duen fenomenoaren gure garaiko gertakari garrantzizkoena omen delakoa bera ere, aurreko aiput batean ikusi izan dugunez.

Azken finean, badugu eskubide –eskubide zientifiko-- galdetzeko zein den narratzen duen horren balio kognositiboa. Egia da ala fantasia bat? Eta okerrena: ez ote dago horretan saihesdura ideologiko gogor bat –bide batez ondorio negargarriak izan dituenak--. Masen errebolta-n dioen guztiari egiazkotasuna kentzen diona? Zeren 1930ean gogoratu behar da ikaragarri arriskutsua izan zitekeela, eta hala izan zen, baieztatzea masen eginkizuna obeditzea zela. eta gutxiengo hauten eginkizuna agintzea. Eta nork erabakitzen du, urte haietan edo beste batzuetan, definizio narratiboak alde batera utzirik, zein den obeditzea dagokion masa, eta zein gutxiengo hauta, boterera igotzeko eskubideduna? Ez ditut aipatuko, Ortegaen zor diodan errespetuarengatik, eta berak ez zuelako izan erantzunbehar historiko zuzenik “maisutzat” eduki zutenengan, urte haietako esperientzia historikoak, izan ere, izan baitzen gutxiengo hauta sentitu zenik eta indarrez agintzeko boterea lortu zuenik, halaber indarrez behartuz obeditzera berak masatzat zeuzkanak. Hori Espainian eta munduko beste leku batzuetan gertatu zen. Ortegaen arrazoi historikoaren planteamenduan, izan zen arrazoi historikoarekin sentitu zenik botereaz jabetzeko, gutxiengo hautaren izenean, eta masak diktadoreki menperatzeko, horretarako giza bizia galarazi behar izan baziren ere. Horregatik, saihesdura ideologikoa deitu dudana hori derrigor aipatu beharra daukagu hemen, nahiz eta errespetuarengatik gaitzi zaigun. Baina gertakariak dira lekuko, eta ez dago horietatik itzurtzerik.

Guztiarekin ere, egiaren omenetan halaber, hona aldatu beharrean gaude mugimendu politiko totalitario edo autoritarioen kontra eta liberalismoaren alde Ortegaek egindako baieztapenak. Kontra honela dio “...boltxebismoa eta faxismoa bi sasi-egunsenti dira, ez dakarte biharkoaren goiza, baizik eta egun arkaiko batena, jadanik behin edo askotan usatua; primitibismo dira. Eta horiexek izango dira iraganeko honelako edo halako

zatierekin lehian hastearen sinplekerian berriz eroriko diren mugimendu guztiak, horiek digeritu beharrean”. Liberalismoaren alde: “Argi dago gainditu beharra dagoela XIX mendeko liberalismoa. Baina hori ezin du egin, hain zuzen ere, faxismoak bezala bere burua antiliberaltzat aldarrikatzen duenak. Zeren horixe baita –antiliberal edo ez liberal izatea-- liberalismoaren aurreko gizakiak egiten zuena. Eta behin hartatik garaile irten zenez gero, ezin zenbatu ahala alditan errepikatuko du bere garaipena edo dena amaituko da –liberalismoa eta antiliberalismoa-- Europaren deuseztapen batean (205 or.). Ortegak liberalismo horrek, halere, aurreko aipua ageri den Masen errebolta-ko doktrinarekin, liberalismo ez demokratiko bat bezalako zerbaitera bakarrik gida dezake, eta horrelakorik izan litekeela sinisteak lanak ematen dizkit. Dena batera esateko, larriena da saihesdura ideologiko hori, oraindik areagotzeko, lege zientifiko eran eman zen, eta halakotzat hartua izan zen; ikus dezagun ustezko lege horren formulazioa Espainia ornogabea-n:

“Nazioa gizaki hautazko gutxiengo batek antolatu, egituratutako giza masa bat da. (...) Gizarte nazional batek hartzen duen forma juridikoa nahi den beste demokratikoa izan daiteke, eta imajina daitekeeneraino bezain komunista ere bai; guztiarekin ere, bere konstituzio bizia, transjuridikoa beti egongo da gutxiengo batek masaren baitan eragiten duen egintza dinamikoan. Lege natural ezinbestekoa da, gizartearen biologian dentsitateen legeak fisikan daukanaren eginkizun antzeko duena. (...) Horrela, nazio batean masak masa izateari uko egiten diotenean –hau da, gutxiengo gidariari segitzeari--, nazioa desegin egiten da, gizartea atalkatu egiten da eta gizarte-kaosa gertatzen da, ornogabetze historikoa” (93; azpimarra gurea).

Lehenik, soziologoak onar dezake gizartea populazio antolatu bat izatea, baina, zergatik gizaki hautazko gutxiengo batek antolatua? Populazio horrek zergatik izan behar du Ortegak izendatu dizkion profil ezkorrak dituen? Gogora dezagun, aurreko aipu batean, nola ikusi dugun Ortegak sostengatzen zuela ezin duela ezer egin gizabanakoak gizarte batean, jeinua izanik ere, kontuan ez badauka gizabanako gidariarengan masak ezarri duen “gizarte-energia” gabe. Nolatan da orain berori gizarte (edo nazioa) antola dezakeen bakarra? Soziologo batentzat, gizarte-antolakuntza da bere estudiogai pribilegiatua, baina bere prezipitatua –hots, gizarte-egitura-- ez da monokausalki “gizaki hautazko gutxiengo baten” emaitza, zeren, gainera, Ortegak egiten duenez, gizartean botere politikoa erabili duten gizakiez ari bada, atzera begiratu eta azter dezagun edozein herrialdetako agintarien kalitatea iraganen edo presentean. Gizarteek antolakuntza dute, baina ez hain zuzen ezta eksklusiboki ere “gizon hauten” egintzaren emaitza gisa (batez ere Ortegak esamolde hori ulertzen zuenez: eskakizun intelektual eta moral handiko gizaki gisa). Ortegaren planteamenduarekin, lumakada batez, antolakuntzarik gabe, naziorik gabe, historiarik gabe eta, jakina, gizarte-egiturarik gabe gelditzen gara, gizarte primitiboenetatik hasi eta garatueneraino, eta lan gaitza litzateke autore gurenak –“gizaki hautak”-- bilatzea, bizi garen gizartearen egituren arduradun eksklusiboak direnak.

Nolanahi ere, ustezko lege natural ezinbesteko hori –“gutxiengo batek masaren baitan eragiten duen egintza dinamikoa”-- arrazoi historikoaz baieztatzen zuenaz erabat kontrakoa da, zeinak gogora dezagun, ez baitzuen ikustekorik ez dedukzioarekin ez indukzioarekin, ez arrazoi fisiko, matematiko eta logikoarekin, baina horrek ez dio eragozten, halere, gutxiengoak masaren baitan duen egintza “lege natural ezinbestekotzat” identifikatzea.

Behin baino gehiago aipatu dut zenbaterainoko sinpletzea den gizarte bateko antolakuntza edo egitura gutxiengo eta masetara bakarrik murriztea. Non koka eskema bipolar eta sinplista horretan, adibidez, gizarte-klaseak, gizarte-estamentu historikoak, industri edo nekazaritza-gizarteak, lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mundua, gizarte post-industrialak, eta abar luze bat, hain eskema sinplista batetik aztergaitza dena. Dagoeneko esana dugu “eredu” neokantiar peto-petoa dela, baina ekinean jarraitzen zuela, Ortega bera zioenez, kantiar izateari utzi zionean⁸.

Ortegaren neokantismoaren froga – ez baitzuen inoiz erabat bere gainetik kendu-- 1951ko testu batean daukagu eta bertan –nik uste-- Masen errebolta⁹ ideiak erlatibizatzen ahalegintzen da, oso izaera orokorreko diskisizio hauekin, baina liburu horri aplikatuz, zeren berorri buruzko hitzaldi batean agertu baitzituen. Honela dio:

“Guk Aristotelesengandik jaso dugun ideia, zeinaren arabera gizakia izaeraz den gizartekoi, egiaren alde bat bakarrik adieraztean beste aldea estalirik utzita, ideia guztiz faltsua da. Zeren egia da giza bizikidetzaren orotan badaudela, noski, sozialitate-indarrak eta –joerak-- baina berorien ondoan badaude beti disoziazio-indarrak eta -joerak, disozialak eta antisozialak”.

Idea horiek, Immanuel Kantek direnak, eta sarritan aipatu izan direnak, behin eta berriz errepikatzen dira Ortegaren azken obretan (Gizakia eta jendea obran bereziki), baina Kant espresuki aipatu gabe beti. Baina ideia horrek esan nahi badu gizakia soziablea bezain antisoziablea dela, giza izatasunaren bi aspektu horietako zeinetan kokatu behar dira gutxiengo hautak eta masak? Horietako zein da soziala eta zein antisoziala? Erantzun dezakegun gauza bakarra da, esan dugunez, Ortega kasu honetan erlatibizatu egiten dituela gizakia eta gizartea, Estatua, nazioa eta inkorporazio-disgregazio dialektikari buruzko bere baieztapen guztiak, eta, jakina, masa-gutxiengo hauta dialektika. (Parentesi artean, Aristotelesek ez dio gizakia “animalia politikoa”, izatez soziala denik, baizik eta sinplekiago polisean bizi behar duela, hau da, “ongi bizitzea” bermatzen dion unitate sozio-politikoa¹⁰.) Baina azken aipu horretan erlatibizazio bat aurkitzen dut, bere obraren inplikazio ezkorretatik ihes egite bat, agerri-agerikoak baitziren 1951n.

Zer edo zer esan nahiko genuke Ortegaren obraren testuinguruaz pentsamendu elitistaren, gerrarteko europar aldiko pentsamenduaren markoaz, non bihurtzen baita ulergarri Masen errebolta, eta horrek ez du esan nahi eztabaidagarri denik. Testuinguru

⁸ Ikus José Ortega y Gasset, Kant “Bolumen honetan Kant izenburu orokorraren azpian bi estudio daude: lehena, Mendeurren bateko gogoetak, Revista de Occidente-ko 1924ko apirila eta maiatzeko zenbakietan argitaratu zen, eta gerora foileto gisa 1929an; bigarren, Filosofia hutsa (Kant neure foiletoari ezarritako eranskina), Aldizkari beraren 1929ko uztaileko zenbakian agertu zen”. Obras Completas. IV tomoa, 25-62 orr.

⁹ Eskuizkribuz argitaratugabeak Glasgowerko Unibertsitateak doctor honoris causa aldarrikatzen Ortegak idatziriko ohar batzuk dakartza, *Masen errebolta*-ri buruzko Hitzaldi baterako, abagune hartan eskatu baitzioten. Testu hori II Eranskin gisa ageri da Paulino Garagorri paraturiko liburu horren edizioan, Madrid, 1979, Revista de Occidente, Alianza Editorialean. Aipua 287, orrialdekoa da.

¹⁰ Ikus, Aristóteles, *Política*, Edizio elebiduna eta itzulpena Julián Marías eta María Araujorena. Francisco Javier Condek zuzenduriko Clásicos políticos bilduma, Madrid 1970, Instituto de Estudios Políticos. I. Liburuaren lehen pasartean hau irakurtzen dugu: “Hiri osoa komunitate bat dela ikusten dugu eta komunitate oro ongiren bati begira eraturik dagoela, zeren gizakiak on deritzoten zerbaiti begira ari izaten baitira beti; eta guztiek ongiren baterako joera badute, nabaria da beste ezertara baino gehiago, eta ongirik nagusienera, denen artean lehenera eta beste guztiak bere baitan hartzen dituenara, hau da, hiri eta komunitate zibil deritzonera” (1. or.). “hiria eta komunitate zibila” polisa da.

horren berreraikuntza¹¹ W. Kornhauserrek burutu du, Masa-gizarte bateko politika¹² obran, non Ortega sartzen den masa-gizartearean kritikari aristokratikoen alorrean sailkaturik. Liburu horretan literatura elitista Karl Mannheimek¹³ oinarritzko demokratizazio deitu zuenaren eztabaidan kokatzen da: zeren gerrarteko aldiaren eztabaida intelektuala demokrazia errepresentatiboak, (sufragio unibertsala, alderdi politikoak, ganbara legegile errepresentatiboak giza eskubideak, eta askatasun publikoak etab.) “masa demokrazia” termino desagokiarekin onartzearen aldekoen artean zentratzen baitzen. “Oinarritzko demokratizazio” Mannheimen terminoarekin gelditzen naiz, guztientzako demokrazia esan nahi duen zentzuan. Korrante horren aurrean, literatura elitista agertzen da: ezin liteke izan masek (masakl boto-emaile diren heinean) esku hartzen duten erregimen politikorik. Zalantzarik gabe, hori izan zen soluzio ez-demokratikoaren aldeko giro intelektuala sortu zuen lur ongarritu intelektuala.

Liluragarria de, zentzu horretan, Julián Mariasen analisia Gizarte-egitura (1955) obran, Ortégaren masa eta gutxiengo hautaren arteko dialektika demokrazia errepresentatiboarekin erlazionatzeko ahaleginean. Erreferentziako dialektikaren kritika txikienik ere gabe, hau baieztatzen du: “...gutxiengo eta masa zeinahi proportziotan konbinatzen direlarik ere, oso forma desberdinak daude beraien arteko konexio eta doikuntzan; eta irismen aparteko bat, bereizgarria –nahiz eta ez izan eskusiboa- europar gizarteetan, beren egitura “errepresentatibo” deitzen dudana da. Esan nahi dut gutxiengoek ez dutela agindu, gidatu, orientatu, asmatu bakarrik egiten, baizik eta gainera gehiengo-taldearen ordezkari direla. Baina “errepresentazio” hitza elkar ukatzen ez duten bi zentzu desberdinetan har liteke, eta europar gizarteak bietan dira errepresentatibo. Lehenik, “delegazio”, ordezpen edo besteren leku-hartze bezalako errepresentazioa; gutxiengoak gehiengoen “ordez” daude, berorien delegatu gisa aritzen dira, berorien “ahaldun” dira, zeren argi baitago gehiengoek ematen dietela agintzen duten gutxiengoei aginpidea. Hala ere, hori ez da ez garrantzizkoena ez berezia ere; badago bigarren zentzu bat; “errepresentazio eszenakoarena”; gutxiengoek antzeztu, haragitu eta eszenaratu egiten dute gizartearen gehiengo-drama” (67 or., El Alción bilduma, 1972). Hau –berriz diot-- 1955ean idatzi zen Espainian. Nola ulertuko ote zen errepresentatibo hitzaren azalpen hori diktadura militarren eszenategian? Neke handirik gabe asma lezake irakurleak. Nolanahi ere, Ortégaren errepikatzaile ezen ez jarraitzaile horrek eszenategirik arriskutsuenean uzten du, agian eta diktadurarekiko erarik adostuenean masa-gutxiengo dialektika ez-demokratikoa.

Urte haietan hainbesteko oihartzuna izan zuen Max Scheler¹⁴ bezalako autore batek era berean arbuatzen zuen zientzia enpiriko naturala eta demokrazia errepresentatiboa, biak komunitate zientifikoa edo hautesle-zentsuko biztanleriaren arteko kontsentsuaren emaitza zirelako. Egiak--zientifikoa edo politikoak-- balio unibertsalen ondare eskusiboa ziren, asko edo gutxien kontsentsuarekin batere ikustekorik ez zutenak, baizik eta berezko balioa zutenak. Eta gogora ekartzea komeni Max Schelerren obra Espainian Ortégak zuzenduriko La Revista de Occidente-k hedatu izanagatik ezagutu zela.

¹¹ Asko sentitzen badut ere, bere ideologi saihesdurarengatik, kasu honetan ezin dut erabili Salvador Giner-en liburua: *Sociedad masa: crítica del pensamiento conservador*, Barcelona, 1979, Península.

¹² W. Kornhauser, *The Politics of Mass Society*, Glencoe, 1959, Free Press.

¹³ Ikus Karl Mannheim, *El hombre y la sociedad en la época de crisis*, Francisco de Ayalaren itzulpena, Buenos Aires, s.f. Ediciones Leviathan.

¹⁴ Ikus Max Scheler, *Sociología del saber*. José Gaosen itzulpena. Madrid, Revista de Occidente, 1935.

Nire susmoa da garai horretan nahastu egin zirela masei buruzko bi lan-mota: batzuk izaera psikologista zutenak eta beste batzuk saihesdura politikoa zutenak; bien nahastea leherkorra izan zen. Idatzi psikologisten artean –izatez, gizarte-psikologiakoak--, hiru obra aipatzeko baimena hartzen dut, bere testuinguruan, baliozkotzat jotzen baititut: lehenik, Masen psikologia, Gustave Le Bonena; eta bigarren, Iritzia eta jendetza, Gabriel Tarderen; eta hirugarren eta oso leku nagusian, Masen psikologia, Sigmund Freudena¹⁵. Literatura hori bere garaikoa adina gurekoa ere baden fenomeno bat aipatzen du, hau da: giza metakuntza kirolezko, kaleko manifestazio, mobilizazio, musika-ikuskizun eta abarretan, portaera pertsonal gisa esplikagarriak ez diren giza portaerak agertzen direla. Azpimarratu beharreko ezaugarria izaera inpersonala da beste ezer baino gehiago (bere egoa parentesi artean jartzen duena, bere superegoa ilaundu egiten baita eta zera (id) kontrolatzea ez baitu lortzen multzokatze bat portaera pertsonalaz bestelakoa, baina jazoerak hartzen duen denboraz bakarrik irauten duena. Horri talde iraizeko izena eman behar zaio, baina portaera bereziko taldeak dira, Ortega “masaz” ulertzen zuenarekin inolako zerikusirik gabeak.

Ortegaren masa kontzeptua frankfurtarrek masa-kultura deitzen zutenetik ere berezi egin behar da: masa-komunikabideen “publikoak” dira, zeinak H. Marcuseren iritziz, beren dimentsio kritikoa galdurik, gizon dimentsiobakar bihurtzen diren¹⁶. Beste nonbait idatzia dut “masa” terminoak zer esan nahi duen soziologikoki masa-komunikabideei buruzko literatura oparoan, nik masibo deitzera ausartu nintzena, zeren masibo hitzak komunikabide teknikoei buruzkoa da, eta ez berorien publikoei buruzkoa¹⁷.

José Jimenez Blanco
Soziologi Katedraduna
Madrileko Unibertsitate Konplutensea

Frantsesentzako Aitzinsolasa

Liburu hau -eman dezagun liburua dela- duela... Madrilgo egunkari batean hasi zen argitaratzen 1926.ean, eta ukitzen duen gaia gizakoiegia da denboraren eragina gehiegi jasan gabe irauteko. Garai batzuetan, batez ere, giza errealitatea, higikorra beti, azkartu egiten da, zorabiozko lasterketan abiatzen da. Geure garaia horrelakoa dugu, jaitsialdi eta erorialdietakoa baita. Hau dela eta, gertakariak atzean utzi dute liburua. Bertan iragartzen den asko berehala bilakatu zen orainaldi eta dagoeneko iragana ere bada. Gainera, liburu hau urte hauetan Frantziatik kanpo asko ibili denez, bere formula ugari bide anonimoz iritsi dira dagoeneko irakurle frantziarrengana eta esapide arrunt bilakatu dira. Aukera bikaina zen, beraz, egungo erruki egintzarik egokiena egiteko: alferrikako liburuak ez argitaratzea. Nik neuk eginahalak egin ditut alde horretatik -laster izango dira bost urte Stock etxeak itzulpena proposatu zidala-. Baina erakutsi didate orrialde hauetan aipatzen den ideia bilduma ez duela irakurle frantziarrak ezagutzen eta, zuzen nahiz oker, on litzatekeela haren hausnarketa eta kritikarako eskaintzea.

¹⁵ G. Le Bon, *Psicología de las masas*, Madrid, 1986, Ediciones Morata.- Gabriel Tarde, *La opinión y las multitudes*, Madrid, 1986, Taurus Comunicación- Sigmund Freud, *Psicología de las masas*, Madrid 1970, Alianza bolsillo.

¹⁶ Herbert Marcuse, *El hombre unidimensional*, Barcelona, 1968, Seix Barral.

¹⁷ José Jiménez Blanco, “La sociología de las comunicaciones masivas en los Estados Unidos”, *Revista de Estudios Políticos*, nº 127, Madrid, 1963. Artikulu horretatik *El concepto de masa* saila bereziki.

Ez dut hori gehiegi sinesten, baina haserretzeko ere ez da. Axola zait, ordea, arrazoigabeko liluraz irakurketari ez ekitea. Bego argi, hortaz, zabalkunde handiko egunkari madrildar batean argitaratutako artikulu sorta bat baizik ez dela. Idatzi dudan gehiena bezala, orrialde hauek halabeharrak aurrean jarri zizkidan espainiar zenbaitentzat idatzi ziren. Ez ote da biziki zaila nire hitzek, jasolea aldaturik, beren mezu nahia frantsesei helaraztea? Ezin dut fortuna hoberik espero, mintzatzea uste baino jardun itxuratiagoa dela sinetsita nagoenez gero; giza jardun gehienak bezalaxe, noski. Hizkuntza definitzean, geure gogoetak adierazteko bitartekoa dela esan ohi dugu. Baina definizio bat, egia bada, ironikoa ere bada, muga gordeak ditu, eta horrela ulertzen ez denean, ondorio larriak ekarri ohi ditu. Baita honek ere. Gutxienekoa da hizkuntzak geure gogoetak ezkutatzeko, gezurra esateko, ere balio izatea. Gezurra ezinezkoa litzateke berezko mintzamen arrunta egia ez balitz. Txanpon faltsua egiazko txanponak eutsita ibiltzen da. Azken finean, iruzurra sinpleziaren parasito apala da.

Ez; definizio haren arriskurik handiena entzuten duguneko eraskin baikorra da. Ez baitigu berak segurtatzen hizkuntzaren bidez geure gogoeta guztiak zehatz-mehatz adieraziko ditugunik. Ez da horraino iristen, baina ez digu egi-egia ere benetan erakusten: gizakia, elkar aditzea ezinezko zaionez, bakardade larrira kondenatua dagoelarik, hurkoarengana iristeko eginahalean akitzen da. Eginahal hauetan, hizkuntzak lortzen du zenbaitetan barruan gertatzen zaizkigunak hurbilenetik adieraztea. Besterik ez. Baina gehienetan ez ditugu muga horiek baliatzen. Alderantziz, gizona hizketan hasten denean, gogoan daukan guztia adieraziko duelakoan hasten da. Horra bada: horixe da irudipenezko lilura. Hizkuntzak ez du horrenbesterako ematen. Gogoan daukagunaren zati bat esaten du gutxi gora-behera, eta hesi iragangaitza ezartzen dio gainerako adierazbeharrari. Aski balio du matematikazko aipamen eta eragiketetan; fisikaz hitz egin orduko nahasi eta motz bilakatzen hasten da. Baina gai garrantzitsuagoez, gizatiarragoez, "errealagoez" jardun ahala, ekarrizketaren zehaztasun-eza, trakeskeria eta nahasteka, handituz doaz. Aurriritzi zaharrari jarraituta, hitz eginez elkar ulertzen dugula sinetsirik, halako fede onez esaten eta entzuten dugu non askotan azkenean oker ulertzen dugun elkar, mututurik elkarri igertzen saiatuko bagina baino okerrago.

Gehiegi ahazten dugu egiazko adierazpen orotan zerbait esan ez ezik, norbaitek norbaiti ere esaten diola. Edozein esanetan bidaltzaile bat eta hartzaile bat daude, eta ez dira hitzen adierarekiko axolagabe. Adiera aldatzen da haiek aldatzen direnean. Duo si idem dicunt, non est idem. Edozein hitz aldikoa da¹. Hizkuntza berez ekarrizketa da, eta gainerako hizketa moldeek haren ahalmena ahultzen dute. Horregatik, nire ustez liburu bat, ekarrizketa ezkutu bat dakarkigun neurrian bakarrik da ona, egileak bere irakurlea zehatz imajinatzen duela nabaritzen dugunean eta honek, lerro artetik esku ektoplasmatiko bat ateratzen edo sumatzen duenean, bere gorputza ukituz, laztandu, nahian -edota, gizalege handiz, ukabilkada bat eman nahian.

Gehiegikeriak egin dira hitzaz, eta hori dela eta ospea galdu du. Beste askotan bezala, axola gabe, tresnaren mugatasunaz ohartu gabe erabiltzeagatik gertatu da gehiegikeria. Ia bi mendez geroztik, hitz egitea, urbi et orbi hitz egitea zela uste izan da, hau da, mundu guztiari eta inori ez. Nik neuk gorroto diot hizketa-mota honi eta atsekabe hartzen dut nori mintzo natzaion oso garbi ez dakidanean.

Diotenez, gertakariaren egia bermatuegia ez badago ere, Victor Hugoren jubileoa ospatu zenean festa handi bat antolatu zuten Eliseoko jauregian eta haren omenez nazio guztietako ordezkariak agertu ziren. Poeta handia harrera areto handian zegoen, jarrera arranditsuaz harrizko irudia bailitzan, ukalondoa tximiniaren ertzean zuela. Nazioetako ordezkariak, jendearen aitzinean aurreratu eta omen egiten zioten Frantziako olerkariari. Atezain batek, Estentor-en bozaz, aurkezpenak egiten zituen:

"Monsieur le Représentant de l'Angleterre!" Eta Victor Hugok dramatiko trêmolo baten bozaz, begiak zuri, esaten omen zuen: "L'Angleterre! Ah Shakespeare!" Atezainak jarraitu zuen: "Monsieur le Représentant de l'Espagne!" Eta Victor Hugok: "L'Espagne! Ah Cervantes!" Atezainak: "Monsieur le Représentant de l'Allemagne!" Eta Victor Hugok: "L'Allemagne! Ah Goethe!"

Baina orduan jaun txiki, txaparro, lodikote eta ibilera baldarreko bati egokitu zitzaion txanda. Eta atezainak oihuka: "Monsieur le Représentant de la Mésopotamie!"

Victor Hugo ordura arte lasai eta bere buruaren jabe egon bazen ere, herabe antxa agertu zen. Haren begi niniek, irrikatsu, jira biribil handia egin zuten, kosmo guztian, aurkitzen ez zuten zerbaiten bila bailebiltzan. Baina berehala nabaritu zen aurkitu zuela eta berriro zela egoeraren jabe. Izan ere, lehengo doinu patetiko beraz, eta ez sendotasun gutxiagoz, honela esanez erantzun zion ordezkari biribilaren omenari: "La Mésopotamie! Ah l'Humanité!"

Aipamen hau, Victor Hugok bezain arranditsu ez bada ere, zera aldarrikatzeko egin dut: nik ez dudala inoiz Mesopotamiarentzat ez idatzi, ez hitz egin, eta gizadiari ere ez natzaiola inoiz mintzatu. Gizadiari hitz egiteko ohitura hau, demagogiaren era gorena eta, beraz, arbuiagarriena, 1750.aren inguruan onartu zuten intelektual desbideratuek, beren ezinak ezagutu gabe, eta ogibidez esatearen, hots, logoaren gizonak zirenez, begirune eta arretarik gabe erabili izan dute bera, hitza kontu handiz banatzeko sakramentu bat dela ohartu gabe.

II

Hitzaren eragin murrizta defendatzen duen tesia, liburu honek Europako hizkuntza gehienetan irakurleak aurkitu izanak uka lezake itxuraz. Nire ustez, ordea, gertakari hau zerbait larriagoaren agerpide da: Mendebale osoan gertatzen ari den egoera berdintasun beldurgarriarena. Berdintasun hori, liburu hau agertu zenetik eta bertan deskribatzen den mekanikaren poderioz larrikiro handitu da. Larrikiro diot, herrialde bakoitzeko egoera mingarriak sortutako etsipena, neurri gabe handitzen baita, kontinente gehiengan berbera gertatzen dela ikusita. Lehen, herrialde bateko atmosfera itxia, bestetarako leihoak zabalduta haizea zitekeen. Orain irtenbide honek ez du ezertarako balio, beste herrialdeko atmosfera bertakoa bezain itogarria baita. Hortik itolarriaren sentipen zanpagarria. Job-ek -pince-sans-rire izugarria-, honela galdegiten die bere lagunei, munduan barrena ibili diren bidaiari eta merkatariei: Unde sapientia venit et quis locus intelligentiae? "Badakizue munduko zein tokitan dagoen adimena?"

Komeni da, hala ere, egoeren etengabeko berdintze honetan bi alderdi ezberdin eta balioz kontrajarriak bereiztea.

Antzinako munduaren hondakinetatik historian gaindi hegaka abiatu zen Mendebaleko herri erlakume hau bizikera bikoitzaz ezagutu izan dugu beti. Zein bere izakera berezia osatuz zihoalarik, ideia, manera eta gogo bilduma komun bat sortzen ari zen beren artean eta beren gaintik. Areago. Une berean berdinago eta desberdinago egiten zituen halabehar hau paradoxa gisa ere har daiteke hein batez. Berauetan berdintasuna ez baitzen ugaritasunarekiko arrotz. Alderantziz: berdintasunezko joera berri bakoitzak ugaritasuna ernaltzen zuen. Kristautasunaren ideiak Eliza nazionalak sortzen ditu; Erromako Imperium-aren ereduak estatu-mota diferenteak eragiten ditu; "letren errestituzioak" literatura berexiak bultzatzen ditu XV. mendean; zientziak eta gizakia "arrazoimen hutsa" izatearen uste bateratzaileak hainbat joera intelektual sortzen dute, zeregin matematikoaren azken abstrakzioak ere modu ezberdinetara moldatzeraino. Azkenik eta muturreraino jota: XVIII. mendeko ideia xelegearen arabera herri guztiek konstituzio berdina behar dutela eta, nazionalitateen kontzientzia berezlea itzartzen da, nork bere deialdi bereziari jarrai diezaion eraginez bezala.

Izan ere, europar derizten herri hauentzat -argiro XI. mendetik, Oton III.agandik- bizi izatea, eremu komun batean mugitzea eta jokatzeko izan da. Bestela esan, bizitzea elkarrekin bizitzea zen nor berarentzat. Elkarrekin bizitze honek itxura baketsua zein gerlatsua har zezakeen. Europa barruko gerlek ia beti etxe barruko haserrearen antz handia izan dute. Etsaia ez suntsitzen saiatzen dira eta lehiak dirudite batez ere, norgehiagokak, auzo bateko mutilen artekoen gisakoak, edo familiako ondarea partitu behar duten oinordekoen liskarrak bezalakoak. Bestelatsu, baina denak gauza beraren bila. Eadem sed aliter. Karlos V.ak Frantzisko I.az zioen bezala: "Ene lehengusu Frantzisko eta biok erabat ados gaude: biok nahi dugu Milan".

Gutxienekoa da Mendebaleko jende guztiak beren etxean bezala bizi ziren eremu historiko komun horri eremu fisiko bat egokitzea, geografiak Europa deritzona. Aipatzen ari naizen eremu historikoa benetako elkarbizitza luzearen hedaduraz neurtzen da -gizarte eremu bat da. Dena den: elkarbizitza eta gizarte antzeko hitzak dira. Gizarte, elkarrekin bizi izate hutsagatik zuzen-zuzen sortzen dena da. Berez, eta ezinbestez, daritzio honi ohiturak, usuarioak, hizkuntza, zuzenbidea, botere publikoa. Pentsaera "modernoaren" -horren zipriztinak oraindik ere noiztzen ditugu- hutsik larrietako bat sozietatea eta asoziazioa nahastea izan da, ia-ia elkarren kontrakoak direlarik. Gizarte ez da nahimenen akordioz osatzen. Alderantziz: nahimen-akordio orok gizarte behar du alde aurretik, elkarrekin bizi diren jendeak, eta akordio lehendik dagoen gizarte horren elkarbizitza nola edo hala erabakitzea da, besterik ez. Gizarte itunezko elkarte gisa, juridiko gisa beraz, azaltzea, gurdia idien aurretik jartzeko inoiz egin den saiorik burugabeena da. Izan ere, zuzenbidea, "zuzenbide" errealitatea -ez horretaz filosofoak, juristak edo demagogoak dituen ideiak-, adierazpen barrokoa baliatzea zilegi bazait, gizartearen berezko sorkaria da, eta ezin da bestela izan. Aldez aurretik benetako gizartean bizi ez diren izakien arteko harremanak zuzenbideak gidatzea nahi izatea, zuzenbideari buruzko -eta barka bekit lotsagabekeria- aski ideia nahasia eta barregarria da.

Ez da harritzekoa, bestalde, zuzenbideari buruzko iritzi nahasi eta barregarri horren nagusitasuna, izan ere -eta egungo zoritxarrik handienetakoa da-, Mendebaleko jendeak oraingo gatazka publiko beldurgarriekin topo egitean, tresneria zaharkitu eta traketsaz horniturik aurkitu baitira zer den gizarte, kolektibitatea, gizabanakoa, usuarioak, legea, justizia, iraultza, eta bestelakoak adierazterakoan. Gaurko aztoramenaren zati handi bat gertakari fisikoei buruzko gurei deien bikaintasunaren eta "jakite moralen" atzerapen lotsagarriaren arteko desegokitasunetik dator. Ministroak, irakasleak, fisikari ospetsuak eta nobelagileak zera horiez izaten dituzten iritziak auzo bizarginarenak dira. Ez ote da guztiz naturala auzo bizarginak denborari bere tonua ematea?²

Baina gatozen harira. Iradoki nahi nuen herri europarrak gizarte bat direla aspaldidanik, kolektibitate bat, hitzok hura osatzen duen nazio bakoitzaz hitzegitean duten esannahi bera dutelarik. Gizarte honek agerian ditu beharrezko ezaugarriak: badaude ohitura europarrak, usuario europarrak, iritzi publiko europarra, zuzenbide europarra, botere publiko europarra. Baina gertakari sozial hauek gizarte europarraren bilakaera egoerari dagozkio, eta egoera, noski, ez dago haren osakideena, nazioena, bezain aurreratua.

Adibidez: presio sozial mota bat den botere publikoa gizarte guztietan dago, baita hura erabiltzeko organo berezirik ez dagoen atzeratuenetan ere. Botere publikoaren jarduna gomendatzen zaion organo berezi honi Estatu esan nahi bazaio, diogun zenbait gizartetan ez dagoela Estaturik, baina ezin esan dezakegu holakoetan botere publikorik ez dagoenik. Iritzi publikoa dagoen lekuan, nola faltako da botere publikoa, hau, iritzi hark bultzatutako biolentzia publikoa baino ez baita? Dena den: duela mende batzuetatik hona, iritzi publiko europar bat badagoela, gero eta indartsuagoa, -baita hari eragiteko teknika bat ere- ukatzea gauza zaila da.

Horregatik, irribarre baten malezia gordetzeko eskatzen diot irakurleari liburu honen azken kapituluetan, oraingo itxurapenen kontra, grina baten aipamen indartsu samarra aurkitzen duenean; sor litekeen Europaren batasun estatal baten aipamena, alegia. Ez dut ukatuko Europako Estatu Batuak fantasiarik neurtuenetakoa denik, eta ez nator bat hitz hauek direla eta beste batzuek pentsatu izan dutenarekin. Baina, bestalde, oso zaila da herri europarrek osatzen duten gizartea, kolektibitate heldua, bere tramankulu estatala sortzear ez egotea, beraren bidez honez gero badagoen botere publiko europarra eratzeko. Horrela pentsarazten didana ez da, beraz, irudimenaren menpeko ahuleria, ezta "idealismoarekiko" joera ere, higuin baitut eta beronen kontra borrokatu baitut neure bizitza osoan. Errealismo historikoak erakutsi dit Europaren batasuna gizarte gisa ez dela "ideal" bat, gertakaria baizik eta oso egunerokotasun zaharrekoa. Dena den: hau ikusi eta gero, europar Estatu orokor baten aukera ezinbestez inposatzen da. Bilakaera helmugara bat-batean eramanez gertakaria edozein izan daiteke: adibidez, Uralen aldetik txinar baten txirikorda agertzea edota islamiar magma handiaren astindu bat.

Nazioen gainetik Estatu horren moldea, noski, oso bestelakoa izango da orain artekoen aldean, kapitulu hauexetan erakutsi nahi dugunez, Estatu nazionala eta antzinakoek ezagutu zuten Estatu-hiria oso bestelakoak izan diren bezalaxe. Orrialde hauetan adimenak askatzen saiatu naiz tradizio europarrak proposatzen digun Estatuaren eta gizartearen ideia zehatzarekiko leial izaten jakin dezaten.

Pentsamendu grekoerromatarrarentzat ez zen inoiz erraz gertatu errealitatea dinamismo gisa ulertzea. Ezin zen ikusgarrietatik nahiz beren ordezkarietatik atera, haur batek liburu batetik irudiak baizik ulertzen ez duen bezalaxe. Muga hori igarotzeko bertako filosofoen eginahal guztiak alferrikakoak izan ziren. Ulertzeko beren saio guztietan, gutxi gora-behera, paradigma bezala, objektu gorporalak dihardu, "gauza" batik-bat haientzat. Gizarte bat, Estatu bat bakarrik ikusteko dira gai, batasunak begien bistako hurrentasuna duelarik; hiri bat, adibidez. Europarraren gogo joera alderantzizkoa da. Gauza ikusgarri oro, berez, indar ezkutu baten axaleko moztorra iruditzen zaio, hura etengabe sortzen ari dena eta haren egiazko errealitatea dena. Indarra, dynamis—a, era baterakoian ari den lekuan egiazko batasuna dago, nahiz eta begien bistan haren agerpen gisa gauza ezberdinak bakarrik agertu.

Antzinako mugatasunean erortzea litzateke, botere publikoaren batasuna, Estatu moztorra ezagunak eta sendartuak hartu dituen lekuetan baizik ez aurkitzea; hots, Europako nazio bakoitzean. Erabat ukatzen dut horietako bakoitzean ari den botere publiko erabakigarria barneko botere publiko edo nazional hutsa izatea. Behingoz konturatu behar dugu duela mende asko -eta ohartuki duela lau- Europako herri guztiak botere publiko baten menpean bizi direla eta honek bere garbitasun dinamikoagatik beragatik ezin du beste deiturarik izan jakite mekanikotik hartutakoa baizik: "oreka europarra" edo balance of power.

Horixe da benetako Europako Gobernuak, historian zeharreko hegaldian herrien erlakumea arautzen duena; erleak bezain saiatu eta borrokalariak diren herriak, antzinako munduaren hondakinetatik ihes eginak. Europaren batasuna ez da irudipena, errealitate bera baizik, eta irudipena bestea da hain zuzen ere, Frantzia, Alemania, Italia edo Espainia errealitate sendo eta beregain direla uste izatea.

Ulertzen da, hala ere, edozeinek Europaren errealitatea garbi ez antzematea, Europa ez baita "gauza" bat, oreka bat baizik. Jadanik XVIII. mendean Robertson historialariak the great secret of modern politics esan zion oreka europarrari.

Sekretu handia eta kontraesanekoa, zalantzarik gabe! Botereen oreka edo balantza pluraltasunean batez ere oinarritzen den errealitatea baita. Pluraltasun hau galtzen bada,

batasun dinamiko hura suntsitu egingo litzateke. Europa, izan ere, erlakume da: erle asko eta hegalaldi bakarra.

Europaren pluraltasun ederraren batasun honixe esango nioke nik berdintasun egokia, emankorra eta desiragarria dena, jadanik Montesquieuri honela esanarazten ziona: L'Europe n'est qu'une nation composée de plusieurs³, eta Balzac, era erromantikoagoan, harako grande famille continentale, dont tous les efforts tendent à je ne sais quel mystère de civilisation⁴ hartaz mintzarazten zuena.

III

Era europarren multzotasun hau, bere erabateko batasunetik etengabe sortzen dena eta hau gordez beragana itzultzen dena, Mendebaleko altxorrik handiena da. Gizon buru zakarrek ezin dute honelako ideia akrobatikorik asmatu, saltoka ibili behar baita, atsedetik gabe, pluraltasuna baiestetik batasunaren aitorpena, eta alderantziz. Buru astunak dira, Ekialdeko betidaniko tiranien menpean bizitzeko sortuak.

Altxor hura erabat suntsitzea mehatxatzen duen berdintasun mota bat da nagusi gaur egun kontinente osoan. Nonahi sortu da liburu honek aipatzen duen masa-gizona, presaka egindako gizona, abstrakzio banaka eta pobre batzuetan eratua eta, horregatik beragatik, berdina Europako mutur batetik bestera. Berari zor zaio kontinente osoan bizitza hartzen ari den monotonia itogarritzko itxura tristea. Masa-gizon hau, aldezturik bere historiak hustutako gizona da, iraganaren errairik gabea eta, beragatik, "nazioarteko" deituriko disziplina guztien menpeko. Gizona baino areago, giza oskol bat da, idola fori hutsez osatua; ez du "barrunberik", ez berezko intimitate menderagaitz eta alienaezinik, ez ni bat ezabatu ezinezkorik. Horregatik, prest dago beti edozein gauzaren itxura hartzeko. Irritsak besterik ez du, eskubideak dituela uste du bakarrik eta ez du betebeharririk duenik uste: behartzen duen nobleziarik gabeko gizona da -sine nobilitate-, snob.⁵

Esnobismo unibertsal honek -hain nabarmena, adibidez, egungo langilearengan- arimak itsutu ditu eta ez dira gai ulertzeko, kontinenteko bizimoduaren edozein egitura gainditzekoa bada ere, barne pluraltasunaren galera larririk gabe gainditu beharko dela. Esnobak, berezko norabideaz gabetua denez, bere burua munduan zerbait jakin eta trukeazinez egiteko sumatzen ez duenez, ezin uler dezake zeregin partikularrak eta mezu bereziak daudenik. Horregatik, liberalismoaren etsaia da, gorrak hitzarekiko duen antzeko etsaigoaz. Libertateak Europan benetan garena izateko askatasuna adierazi izan du beti. Ulertzen da, benetako zereginik ez duela dakienak, hura utzi nahi izatea.

Erraztasun harrigarritz, jende guztiek elkar hartu dute liberalismo zaharra borrokatzeko eta arbuiaitzeko. Susmagarria da. Jendeak ez baitu elkar hartzen gauza zital samarretan edo ergel samarretan izan ezik. Ez dut esan nahi liberalismo zaharra guztiz arrazoizkoa denik: Nola izango da, bada, zaharra eta ismo izaki! Uste dut, ordea, gizarteari buruzko doktrina bat dela, bere erasotzaile kolektibistek uste duten baino sakonagoa eta egokiagoa; hasteko, ezagutu ere ez baitute ezagutzen. Gainera bada bere baitan Europa izan denaren intuizio bat, oso zorrotza.

Erne behar ditugu belarriak, adibidez, Guizot-ek, europar zibilizazioa eta gainerakoak erkatzen dituelarik, hartan ez dela inoiz inolako printzipiorik egon, inolako ideiarik, inolako talde edo klaserik, erabat nagusitu denik, eta honi zor zaiola haren etengabeko hazkundera eta eite aurrekoia esaten duenean⁶. Gizon honek badaki zertaz ari den. Adierazpena ez da nahikoa ezezka emana dagoelako, baina bere hitzak hurbileko ikuspenez beteak iristen zaizkigu. Urpetik ateratzen den buzoari usain abisalak darizkion bezala, gizon hau egiazki Europaren iragan sakonetik datorrela ikusten dugu eta bertan murgiltzen jakin duela. Sinesgaitza da, egia esan, XIX. mendeko lehen urteetan, garai erretoriko eta nahaste handikoa baita, Histoire de la civilisation en

Europe bezalako bat idatzi izana. Oraindik ere egungo gizonak bertan ikas dezake askatasuna eta pluralismoa elkarrekiko gauzak direla eta biek Europaren betiko muina osatzen dutela.

Baina Guizotek prentsa gaiztoa izan du beti, doktrinarioek gehienetan bezala. Ni neu ez nau harritzen. Gizon bat nahiz talde bat erraz eta etengabe txalotua ikusten dudanean, gizon horrengan edo talde horrengan, dohain bikainekin batean beharbada, zerbait agitz satsu ote dagoen susmo bizia sortzen zait. Uste okerra da beharbada, baina bere bila ibili gabe, esperientziak nire baitan arian sortua dela esan behar dut. Nolanahi den, kemena nahi dut, nire ustez, doktrinarioen talde hau, jende guztiak barre eta iseka iruzurtiak egin badizkio ere, XIX. mendean kontinenteko politikan baliotsuena izan dela aldarrikatzeko. Bakarrak izan ziren Iraultza Handiaren ondoan European egin behar zena garbi ikusten, eta gainera beren pertsonetan keinu duin eta urrundua sortu zuten, mende hartan goraka zihoan baldraskeria eta arinkeriaren erdian. Gizarteak gizabanakoari neurria jartzeko dituen arau gehienak hautsita eta indargabetuta, ezin zuen honek duintasunik lortu bere barne-barnetik aterata izan ezik. Zaila da hau gehiegikeriarik gabe egitea, inguruak bizi zuen orgiazko utzikieratik babesteko besterik ez bada ere. Guizotek, Buster Keatonek bezala, barre gabeko gizona izaten jakin zuen⁷. Ez du inoiz etsitzen. Bere baitan biltzen dira, etengabe erne, gizarte giroan jitoan ibili ezinik, amore eman ezinik, bizi behar izan zuten protestante nimestarren hainbat belaunaldi. Azkenean sen bilakatu zitzaaien existitzea erresistitzea dela, korronteari aurre egiteko orpoak lurrean jostea. "Korronte" hutsez eta utzikieriaz beteriko gurea bezalako garai batean, on da "eramaten uzten ez dutenekin" harreman izatea. Doktrinarioak salbuespen berezia dira beren ardura intelektualagatik, hots, intelektual europarrei 1750etik gehien huts egin dienagatik, eta akats bera da egungo nahasketaren sustrai sakonetako bat.

Baina nik ez dakit, frantses irakurleentzat ari banaiz ere, doktrinarismoa magnitude ezagun gisa aipatzea ote daukadan. Lotsagarria bada ere, ez dago gizon haien pentsamendua jasotzeko asmotan egindako libururik⁸, eta, sineskaitza iruditu arren, ez dago erdipurdiko libururik ez Guizotek, ez Royer-Collar-ez mintzo denik⁹. Egia da ez bataz ez besteak ez zutela inoiz sonetorik argitaratu. Baina, nolanahi ere, oso sakon hausnartu zituzten, era originalean, Europako bizitza publikoko arazorik larrienak, eta ehunkada guztiko doktrinategi politikorik estimagarriena eraiki zuten. Ezingo da aldi horretako historia berreraiki arazo garrantzitsuenak gizon hauen aurrean nola agertu ziren oso hurbiletik ezagutu gabe¹⁰. Hauen estilo intelektuala bestelakoa da, espeziearen aldetik ez ezik baita generoaren eta esentziaren aldetik ere, European aurretik eta ondotik nagusitu diren gainerakoen parean. Horregatik ez zaie ulertu, beren argitasun klasikoa gora-behera. Eta, hala ere, baliteke etorkizuna oso antzekoak diren adimen-joerena izatea. Doktrinarioen ideiak zorrotasun sistematikoaz adierazten saiatzen denari, gutxienez ustegabeko adimen plazerak eta errealitate sozial eta politikoaz ohi ez bezalako intuizioa ziurtatzen dizkiot. Tradizio arrazoizale jatorrean gauza absolutuak bilatzeko konpromezua hartzen du gizonak bere buruarekin, eta tradizio horrek bizirik dirau beraiengan; baina, entziklopediazaleen eta iraultzaileen arrazoizaletasun linfatikoak bezala absolutua bon marché abstrakzioetan atxeman ordez, historian aurkitzen dute berek egiazko absolutua. Historia da gizonaren errealitatea. Ez du besterik. Historian egin du bere burua den bezalakoa. Iragana ukatzea zentzugabe eta lilura hutsa da, iragana baita "gizonaren berezkoa, arrapaladan itzultzen dena". Iragana ez dago hor eta ez du igartzeko lana hartu uka dezagun, guregana dezagun baizik¹¹. Doktrinarioek "giza eskubideak" arbuizatzen zituzten absolutu "metafisikoak" direlako, abstrakzioak eta egia hutsalak. Egiazko eskubideak hor daudenak dira, historian agertuz eta gotortuz joan direlako: holakoak dira "askatasunak", legitimitatea,

magistratura, "gaitasunak". Egun bizi izan balitz, greba eskubidea (ez politikoa) aitortuko zukeen eta hitzarmen kolektiboa. Ingeles bati bidezkoena irudituko litzaioke hau dena; baina kontinentekoak ez gara oraindik geltoki horretara iritsi. Beharbada Alcuinoren garaietatik gutxienez berrogeita hamar urte atzerago bizi gara ingelesak baino.

Antzeko ezjakintasuna dute oraingo kolektibistek liberalismo zaharraz, besterik gabe eta zalantza gabe, indibidualista zela uste dutenean. Esan bezala, gai hauetan guztietan irizpideak ezin nahasiago daude. Azken urte hauetako errusiarrek "Kolektiboa" esaten zioten Errusiari. Ez ote litzateke interesgarria izango jakitea nolako ideiak edo irudipenak harrotzen ziren hitz horren konjurupean gizon errusiarraren gogo lurruntsuan, zeinak askotan, Goethek aipatzen duen kapitain italiarrak bezala, bisogna avere una confusione nella testa? Horren aurrean, ondoko tesiak gogoan har ditzan eskatuko nioke irakurleari, ez onartzeko, eztabaidatzeko baizik, eta ondoren epaiaren zain gera daitezen:

Lehena: Liberalismo indibidualista XVIII. mendeko florari dagokio; zati batean Frantziako Iraultzako legegintza iradokitzen du, baina berarekin hiltzen da ere.

Bigarrena: XIX. mendearen sorkari berezia kolektibismoa izan da hain zuzen ere. Jaioberritan sortzen duen lehen ideia da eta bere ehun urteetan zehar hazi besterik ez du egiten zeruertz guztia betetzeraino.

Hirugarrena: Ideia honek jatorri frantziarra du. De Bonald eta De Maistre txit atzerakoiekin agertzen da lehen aldiz. Funtsezkoan berehala onartzen dute denek, Benjamin Constant, aurreko mendeko "atzeratua" izan ezik. Baina nagusi gertatzen da Saint-Simonekin, Ballanche-rekin, Compterekin, eta nonahi barreiatzen da¹². Adibidez: Lyongo mediku batek, M. Amard-ek, 1892.ean collectisme-a aipatuko du personnalisme-aren aurrean¹³. Irakur bitez 1830 eta 1831.ean L'Avenir-ek indibidualismoaren kontra argitaratutako artikuluak.

Baina bada hau baino garrantzitsuagorik ere. Ehunkadan aurrera goazela, liberalismoaren teorizatzaile handiengana iristen garenean -Stuart Mill edo Spencer-harrigarriro ikusten dugu gizabanakoaren ustezko defentsa ez dela oinarritzen askatasunak halakoarentzat mesede edo interesa izatean, alderantziz baizik: gizartearentzako mesede eta interesa izatean. Spencerrek bere liburuarentzako hautatzen duen izenburuaren itxura erasokorrak -Gizabanakoa Estatuaren aurka- liburuetan izenburuak baizik irakurtzen ez dituztenek setatsu oker ulertzea ekarri du. Izenburu honetan gizabanakoak eta Estatuak subjektu bakar baten -gizartearen- bi organo huts adierazten baitituzte. Eta hor gizarteko behar batzuei organo bata ala besteak erantzuten dien ondoen eztabaidatzen da. Besterik ez. Spencerren "indibidualismo" ospetsua bere soziologiako giro kolektibistaren barruan boxeoan ari da etengabe. Azken finean, bai berak eta bai Stuart Mill-ek, termitek beren kide batzuk erabiltzen dituzten krudeltasun sozializatzaile berberaz tratatzen dituzte gizabanakoak: gizendu egiten dituzte ondoren guna xurgatzeko. Halakoa zen kolektibotasunaren nagusigoa, eta haien ideiak hondo nabari horren gainean ari ziren lañoki dantzan!

Hor ikusten da, liberalismo zaharraren ene defentsa lohengrindarra, erabat desinteresatua eta dohainekoa dela. Ez bainaiz ni "liberal zaharra". Ikuspegi sozialaren, kolektiboaren, aurkikundea -goragarria eta funtsezkoa zalantzarik gabe- berriegia zen. Gizon haiek, ikusi baino areago, haztatu egiten zuten kolektibitatea eta gizabanakoa edota hauen bilduma hutsa, bestelako errealitateak direla, baina ez zekiten zer zen eta zein ziren beren tasunak. Bestalde, garaiko gizarte-gertakariak kolektibitatearen egiazko ekonomia ezkutatzen zuten, garai hartan hari gizabanakoak gizentzen aritzea komeni baizitzaion. Artean iritsigabea zen berdinketaren, ebasketaren eta banaketaren ordua maila guztietan.

Hortik "liberal zaharrak" beharrezko ardurarik gabe arnasan zuten kolektibismora irekitzea. Baina zer den arazo soziala, gertakari kolektiboa, bere soilean eta den bezalakoa, argi eta garbi ikusi ondoan, batetik onuragarria, baina, bestetik, beldurgarria, ikaragarria, norbera erabat berria den liberalismo-mota bati bakarrik atxiki dakioke, horren inozo ez eta trebeki gerlatiago den bati, zeruertzean bertan ernetzen hasia, loratzear, den liberalismo bati.

Ez zen erraza, gizon hauek horren zorrotzak izaki, beren garaiak gordetzen zizkigun larritasunak noizean behin ez susmatzea. Bestela uste izan bada ere, normala izan da historian etorkizunari antzematea¹⁴. Macaulay, Tocqueville, Comte-rengan, gure ordua aldeztetik marraztua aurkitzen dugu. Ikus, adibidez, duela laurogei urte luze, Stuart Milllek idatzi zuena: "Pentsatzaile bakoitzaren doktrina partikularrez gain, bada munduan goraka doan joera indartsu bat, gizartearen boterea gizabanakoaren gainetik zabaltzeko, bai iritzia indarraren bidez, bai legearen bidez. Eta munduan gertatzen diren aldaketa guztiek ondorioz indar soziala handitzea eta botere indibiduala murriztea eragiten dutenez, gainezkatze hau ez da berez desagertuko den gaitza, alderantziz baizik, gero eta izugarriagoa baita". Gizonen aldetik, nahiz agintari nahiz hiritar izan, besteei nork bere iritzi eta zaletasunak joka-arau bezala inposatzeko joera, hain indartsu sustraitua dago gizakien sentimentu onenetako eta txarrenetako batzuetan, non ia inoiz ez baitzaio eusten, botere ezaz baizik. Eta boterea ahultzeko gabe hazteko bidean omen doanez, uste izan behar dugu, gaitzaren aurka sendotasun moraleko hesi bat altxatu ezik, uste behar dugu, diot, munduko oraingo baldintzetan, joera honek hazi besterik ez duela egingo¹⁵.

Baina Stuart Millengan gehien axola zaiguna haren kezka da, Mendebale osoan hazten ari zen homogeneitate gaiztoa zela eta. Honek, Humboldttek gaztetan egindako gogoetan babestera darama. Gizatasuna aberasteko, gotortzeko eta erabat osatzeko, beharrezko da, Humboldten ustez, "egoera ugartasuna" egotea¹⁶. Nazio bakoitzaren barruan, eta nazioak baltsan hartuta, beharrezkoa da egoera diferenteak egotea. Horrela, batek huts egindakoan, beste aukerak gelditzen dira. Burugabekeria da bizitza europarra karta bakarrean jartzea, gizon-mota bakarrean, "egoera" berdina bakarrean. Hau horrela gertatzen ez uztea izan da Europaren asmazio ezkutua egun arte, eta ezkutuki horren kontzientzia da, argi zein motel, betiko liberalismo europarraren ezpainei eragin diena. Kontzientzia horretan balio positibotzat, ontasuntzat ez kaltetzat, hartzen du bere burua kontinenteko pluraltasunak. Hau argitu nahi nuen liburu honetan postulatu den supernazio europar baten ideia inork nahas ez dezan.

Goazen bezala goazela, "egoera ugartasunen" gero eta murrizketa handiagoan, zuzen-zuzen abiatzen gara Behe Inperiorantz. Hura ere izan zen masa eta berdintasun beldugarritzko aroa. Antoninoen garai orduko argi nabari da gertaera harrigarri bat, behar adina aipatu eta aztertu ez dena: gizonak ergelak bihurtu dira. Lehendik zetorren bilakaera. Esan izan da, aski funtsez, gertakarien aurrean buru arol eta eragilez jarri eta beraiek aztertzeke gai izan den antzinateko azken gizona, Posidonio estoikoa, Zizeronen maisua, dela. Haren ondoren, buruak itxi egiten dira, eta Alexandrinoak izan ezik, ez dute besterik egingo errepikatu eta estereotipatu baizik.

Baina Inperioaren mutur batetik bestera bizitzak hartzen duen tankeraren -berdina eta ergela aldi berean, bata bestearen ondorioz-, sintoma eta dokumentu beldurgarriena, gutxien espero zitekeen eta oraindik, nik dakidala, inork bilatu ez duen tokian ageri da: mintzairan. Bakoitzak esan nahi genukeena behar adina adierazteko balio ez digun hizkuntzak, berau erabiltzen duen gizartearen egoerarik ilunena salatzen eta aldarrikatzen du nahi gabe. Herri erromarraren zati helenizatugabearen erabiltzen den hizkuntza "latin vulgarra" da, gure erromantzeen matrizea. Ez da ongi ezagutzen herri latin hau eta, askotan, berreraikuntzen bidez bakarrik antzematen diogu. Baina

ezagutzen dena aski eta gehiegi da bi gauzarekin ikaratzeko. Bat, latin klasikoaren parean, bere gramatika egituraren xinpletasun sinesgaitza da. Klase nagusien hizkerak gordetzen zuen indo-europar konplexutasun gozoa, herri xehearen hizkerak ordezkatu zuen. Egitura errazekoa, baina aldi berean, eta horregatik beragatik, astunkiro mekanikoa, material gisa; gramatika totela eta perifrastikoa, saio eta itzulingurukoa, haurrena bezalakoa. Haur hizketa edo gaga da, egia esan, arrazoiketaren ertz fina onartzen ez duena, eta ñabardura lirikorik ere ez. Argi eta hotz-bero gabeko hizkuntza da, nabaritasun eta arima-berotasunik gabea, hizkuntza tristea, haztamuka dabilena. Hitzek brontzezko txanpon zaharrak dirudite, koipetsuak eta biribiltasunik gabeak, Mediterraneoko ardandegietan jirabiraka ibiltzeaz aspertuak bezala. A zer nolako bizitzak, berezkotasunez hustuak, erraustuak, betiko egunerokotasunera kondenatuak, igertzen diren hizkuntz tramankulu ihar horren atzean!

Herri latinaren beste ezaugarri beldugarri bat bere berdintasuna da hain zuzen ere. Dirudienez, hizkuntzalariak -hegazkilarien ondoan gutxien izutzen omen diren gizonak-, ez dira asaldatzen Cartago eta Galia, Tingitania eta Dalmazia, Hispania eta Rumania bezalako herrialde urrunduetan berdin mintzo zirela eta. Ni, berriz, lotsati samarra naizen honek, haizea kainaberak nekatzen ikusita izutzen naizen honek, ezin izaten dut bizkarmuineko hotzikara menderatu horren aurrean. Izugarria iruditzen zait. Egia esan, saiatzen naiz asmatzen nolakoa zen barrutik, kanpotik begiratuta, lasai, berdintasun itxuraz, agertzen zaigun hori; ahalegina egiten dut isla geldi horren errealitate bizia aurkitzen. Jakina da, noski, afrikanismoak bazeudela, hispanismoak, galizismoak. Baina hau egiaztatzeak hizkuntzaren enborra komuna eta berdina zela esan nahi du, nahiz eta urruntasuna, harreman urria, komunikabideen zailtasuna eta finkatuko zuen literatura baten falta egon. Nola etor zitezkeen bat zeltiberiarra, belgikarra, Hiponako bizilaguna eta Lutetiakoa, mauritaniarra eta daziarra, kamustura orokor baten poderioz, existentzia oinarrira murriztuz, beren bizitzak deuseztatuz izan ezik? Herri-latina hor dago, artxiobotan, petrefaktu zirrargarri, "egoera ugaritasun" emankorra desagertu zela eta, zabarkeriaren aginte berdintzailearen pean historia noizpait hilzorian egon izanaren lekuko.

IV

Ez liburu hau, ez ni, ez gara politikoak. Hemen aipatzen den auzia politikaren aurrekoa da, haren lurpekoa. Nire zeregina lur azpiko meatzari-lan iluna da. "Intelektual" delakoaren eginkizuna, nolabait, politikoarenaren alderantzizkoa da. Lan intelektualak, alferrik maiz, gauzak pitin bat argitu nahi izaten ditu, politikoarena, berriz, zeuden baino areago nahastea izaten da. Ezkerrekoa izatea, eskuinekoa izatea bezala, gizonak ergel izateko aukera ditzakeen era ugarietako bat da: biak, hemiplexia moralaren motak dira, hain zuzen ere. Gainera, deitura hauen iraupenak egungo "errealitatea", berez faltsua, areago faltseatzen dextente laguntzen du, dagozkien esperientzia politikoen kiribila kiribildu egin baita, egun eskuindarrek iraultzak agintzen baitituzte eta ezkertiarrek tiraniak proposatzen.

Denboraren auziez lan egin beharra dago. Hori, zalantzarik gabe. Eta nik horrela egin dut bizitza guztian. Beti aurrean izan naiz. Baina gaur esaten denez - "korronte" batek dioenez-, buru argitasunaren kaltetan bada ere, jende guztiak egin behar omen du sensu stricto politika. Beste zereginik ez dutenek esaten dute hori, noski. Eta berretsi ere egiten dute, Pascalen d'abêtissement delako agindua aipatuta. Baina denbora luzea da norbaitek Pascal aipatzean erne jartzen ikasi dudala. Higiene hutsezko ardura da.

Politizismo integrala, politikak gauza guztiak eta gizon guztiak bereganatzea, eta hemen deskribatzen den masen errebolta gauza berbera dira. Masa erreboltatuak erlijio eta ezagutza-ahalmen guztia. Bere baitan ezin du politika besterik eduki, neurriz gaineko politika, amorratua, bere onetik aterea; ezagumena, erlijioa, sagesse delakoa, ordezkatu

nahi baititu -azken finean, bere izatez giza gogoaren muina betetzeko gai diren gauza bakarrak. Politikak bakardadez eta intimitatez husten du gizona, eta horregatik politizismo integralaren predikua, hura sozializatzeko erabiltzen dituzten tekniketako bat da.

Zer garen politikan inork galdegiten digunean, edota, gure garaiko lotsagabekeriak aurrea hartuz, politika batean kokatzen gaituztenean, erantzun beharrean, berak zer uste duen dela gizona eta natura eta historia, zer den gizartea eta gizabanakoa, kolektibitatea, Estatua, usarioa, zuzenbidea, galdegin behar diogu mutiriari. Politika, argiak itzaltzen saiatzen da katu hauek guztiak arreak gerta daitezen.

Beharrezkoa da pentsamendu europarrak argi berria ematea gai hauez guztiez. Horretarako dago hor, ez biltzar akademikoetan indioilarrarena egiteko. Eta lehenbailehen egin dezala, edo bestela, Dantek zioen bezala, irtenbidea aurki dezala,

...studiate il passo

Mentre que l'Occidente non s'annera.

(Purg. XXVII, 62–63).

Hortik bakarrik itxaron liteke agian egungo masek planteatzen duten arazo itzelaren konponbidea.

Liburu honek ez du bilatzen, ezta hurrik eman ere, horren antzekorik. Bere azken hitzek adierazten dutenez, egungo gizonaren arazora lehen hurbiltze bat besterik ez da. Horretaz serioago eta sakonago hitz egiteko, leizeetako plantan jarri, eskafandra jantzi eta gizonaren sakon-sakonera jaitsi beste biderik ez legoke. Hori handinahirik gabe egin behar da, baina erabakitasunez, eta ni horretan saiatsu naiz beste hizkuntzatan laster agertuko den liburu batean, *El hombre y la gente* izenekoan.

Gaur egun nagusi den gizon-mota hau, masa-gizona deitu dudana hau, nolakoa den jabetuz gero, sortzen dira galdera oparoenak eta dramatikoak: Ba ote dago gizon-mota hau aldatzerik? Esan nahi dut: bere baitan dauden akats larriek -hain larriak non erauziko ez balira Mendebalaren hondamendia etorriko litzatekeen- zuzentzeko biderik ematen ote dute? Izan ere, irakurleak ikusiko duenez, gizon hermetikoa baita, goi mailako ezertara irekia ez dagoena.

Hau da beste galdera funtsezkoa, osasunbide guztien gakoa, nire ustez: itzar ote daitezke masak, nahi balute ere, bizitza pertsonalera? Ezin da gai izugarri hori hemen garatu, oraindik gordinegi baitago. Nola azaldu, oraindik ez da agertzen kontzientzia publikoan. Eta iraganeko garai bakoitzak giza existentziari utzi dizkion indibidualtasunezko ertz diferenteen ikerketa ez dago zirriborraturik ere. Historia aurreratu ahala, gizonari gizabanako pertsonala izateko uzten zaion tartea ere haziz doala suposatzea, Herbert Spencer ingeniari zintzo baina historialari ezdeusak uste zuen bezala, "progresismoaren" adimen inertzia hutsa baita. Ez; historia betea dago honelako atzerapenez, eta agian gure aro honetako bizikerak galarazten du gehienik gizona pertsona bezala bizi ahal izatea.

Hiri handietan, karriketako joan-etorrian edo jaialdietan eta manifestazio politikoetan pilatzen diren jendetza gaitz horiek ikusita, gogoeta hau sortzen da, setati, nire baitan: egin ote dezake gaur hogeitaz urteko gizon batek eite indibiduala duen bizi-egitaurik, nor beraren ekimenez, nor beraren eginahalaz burutu behar litzatekeenik? Irudi hau bere fantasian garatu nahi duenean, ez ote du sumatuko, ezinezkoa ez izanik ere, oso zaila dela, hura ezartzeko eta bere irizpidearen arabera mugitu ahal izateko lekuri ez dagoelako? Laster ikusiko du bere egitauria lagun hurkoarekin behatzen dela, hurkoaren bizitzak berea estutzen duen bezala. Etsipenak, adinari dagokion moldatzeko erraztasunaz, edozein egintzari ez ezik, edozein gogo pertsonalari ere uko egitera eramango du, eta alderantzizko irtenbidea bilatuko du: bizimodu standard-a amestuko

du berarentzat, desiderata komunez osatua, eta hura lortzeko besteekin batean, kolektibitatean, eskatu edo exijitu beharko duela ikusiko du. Hortik masa-ekintza.

Ikaragarria da, baina ez dut uste europar gehienek benetako egoera gehiegikeriaz azaltzen duenik. Kartzela batean, sar zitezkeen presoak baino gehiago pilatu direnean, ezin du inork bere kabuz ez besorik, ez hankarik mugitu, besteen gorputzak joko bailituzke. Horrelakoetan, batean egin behar izaten dira mugimenduak, eta arnasketaren giharrek berek ere arauzko erritmoan aritu behar izaten dute. Hauxe litzateke Europa termita-tegi bihurturik. Baina irudi krudel hau berau ere ez da irtenbidea. Giza termitategia ezinezkoa da, "indibidualismo" delakoak aberastu baitzuen mundua, eta munduan guztiak, eta aberastasun honetxek ugaltu zuen hain izugarriro giza landarea. "Indibidualismo" horren kondarrak desagertu zirenean, Behe Inperioko famelismo itzela agertu zen Europan, eta termitategiak lur jo zuen, jainko beldurgarri eta mendekari baten bafadaz bezala. Askoz ere gizon gutxiago gelditu ziren, gizonago izan zirenak, ordea.

Nahitaez, begien bistan dugun auzi honen patetismo lazgarriaren aurrean, "justizia sozialaren" gaia, errespetagarria izanagatik ere, moteldu eta ahuldu egiten da erretorikazko eta gezurrezko hasperen erromantikoa iruditzeraino. Baina, aldi berean, "justizia sozial" horretatik erdiesgarri eta zilegi dena lortzeko bideak erakusten dizkigu; dirudienek, bideok, sozializazio miserable batetik igaro gabe, solidarismo zabal baterantz doaz. Azken hitz hau, gainera, ez da eraginkorra, egun arte ez baitu bere baitan ideia historiko eta sozialen sistema indartsurik bildu, alderantziz baizik, filantropia lainotsuak besterik ez dario.

Egungo egoera hobetzeko lehen baldintza beraren zailtasun larriaz ohartzea da. Honek bakarrik eramango gaitu, gaitza benetan sortzen den barrunbe sakonetan erasotzera. Izan ere, arras zaila baita zibilizazio bat salbatzea, demagogoen agintepean erortzeko ordua iritsi zaionean. Demagogoak izan dira zibilizazioak ito dituztenak. Greziarra eta erromatarra, Macaulayri honela aldarrikarazten zion fauna nazkagarriaren eskuetan erori ziren: "Mendez mende, giza naturaren eredu zitalenak demagogoen artean aurkitu izan dira"¹⁷. Baina gizon bat ez da demagogoaren jendetza aurrean oihuka hasteagatik besterik gabe. Hau, zenbaitetan, magistratura sakratua izan daiteke. Demagogoaren benetako demagogia bere gogo barnean dago eta, berorrek erabiltzen dituen ideiekiko arduragabekeria sustraitzen da; ideia horiek ez ditu berak sortu, egiazko sortzaileengandik hartu baizik. Demagogia adimen endekatze-mota bat da, Europako historian gertakari zabal gisa Frantzian 1750 inguruan agertua. Zergatik garai hartan? Zergatik Frantzian? Hauxe da Mendebalearen halabehararen eta bereziki Frantziaren halabehararen gune neuralgikoetako bat.

Izan ere, harrezkero, Frantziak eta, horren hedaduraz, kontinente gehienak, giza arazo larriak konpontzeko bidea iraultza dela uste baitu, Leibnizek "iraultza orokorra" esatean ematen zion esanguraz¹⁸, hots, bat-batean dena eta maila guztietan aldatu nahia¹⁹. Hori dela eta, Frantzia miresgarria egoera txarrean iristen da egungo kinka zailera. Herri honek tradizio iraultzailea baitu edo duela uste baitu. Eta iraultzaile izatea berez gauza larria baldin bada, are gehiago, paradoxaz, tradizioz izatea! Egia da Frantzian Iraultza Nagusi bat egin dela, eta batzuk traketsak edo irigarriak, baina agirieta egia soilari gagozkiola, iraultza horiek Frantzia mendebetea, egun edo astebate batzuetan izan ezik, beste edozein herri baino areago, nola edo hala era politiko larderiatsu eta antiraultzaileetan bizitzeko balio izan dutela aurkituko dugu batik-bat. Batez ere, Frantziako historian gertatu zen Bigarren Inperioko hogeituroko hutsune morala, 1848.eko iraultzaileen erokeriari zor zitzaion²⁰; haietako asko, Raspaillek berak aitortu zuenez, beraren bezero ohiak izan ziren.

Iraultzetan abstrakzioak zehatza denaren aurka altxatu nahi izaten du; hau dela eta, iraultzek berezkoa dute porrota. Giza arazoak ez dira, astronomiazkoak edo kimikazkoak bezala, abstraktuak. Arras zehatzak dira, historikoak direlako. Eta beren tratamenduan asmatzeko nolabaiteko aukera eskaintzen duen gogoeta bide bakarra "arrazoi historikoa" da. Frantziako bizitza publikoa azken ehun eta berrogeita hamar urteetan zehar osotasunean begiratzen denean, bere geometrilariak, bere fisikariak eta bere medikuek, iritzi politikoetan ia beti huts egin dutela nabari da, eta historialariak, berriz, asmatu egin izan dutela. Baina arrazionalismo fisikomatematikoa ospetsuegia izan da Frantzian, iritzi publikoa bortxatugabea izateko. Malebranche-k adiskide batekin hautsi zuen haren mahaian Tuzidides bat ikusi zuela eta²¹.

Azken hilabeteotan, Parisko kaleetan bakardadeak akuilaturik, irudiak izan ezik, ez nuela inor hirian ezagutzen konturatu nintzen. Hauetako irudi batzuk, ordea, lagun zaharrak dira, nire barne-barneko antzinako eragile edo betidaniko maisu iraunkorrak. Eta norekin hitz egin ez nuenez, beraiekin mintzatu izan naiz giza arazo handiez. Ez dakit inoiz argitaratuko diren ene bizitzakoaldi mingarri eta antzu bat goxatu duten Conversaciones con estatuas direlako hauek. Horietan, quai Conti-n dagoen Condorcet markesarekin, aurrerapenaren ideia arriskutsuaz argudiatzen da. Rue Monsieur-le-Prince-ko bere departamenduan dagoen Comte-ren soin-irudi txikiarekin pouvoir spirituel-az mintzatu naiz, mandarin literarioek eta, nazioen egiazko bizitzatik at gelditu den Unibertsitateak, hain gutxi erabili duten horretaz. Aldi berean, mezu bortitz bat hartzeko ohorea izan dut, soin horrek besteari bidalia, handiari, Sorbonne-ko plazan eraikitakoari, gezurrezko Comte-ren soinari, ofizialari, Littré-koari. Baina bidezkoena, batez ere Descartes maisu gorenaren hitza berriro entzun nahi izatea zen; Europak gehien zor dion gizonarena.

Ene bizitza astintzen duen halabehar hutsak, raison-aren aurkitzaile berria Holandan 1642an bizi izan zen lekuaren aurrean idaztarazi dizkit lerro hauek. Endegeest deritzo eta bertako zuhaitzek nire leihoan egiten dute itzal; eroetxea da gaur egun. Egunean bi aldiz -eta hurbiltasun ohartarazle- ikusten ditut zoroak eta ergelak igarotzen, beren gizatasun lorrindua astiune batez kanpoan egurasten dutela.

Hiru mende esperientzia "arrazoizalez" igaro izanak raison kartesiar miresgarri haren distira eta mugez gogoeta egitera behartzen gaitu. Raison hori matematiko, fisiko, biologiko hutsa da. Naturaren gaineko bere garaipen ospetsuek, ezin asma ahal adinakoak, nabarmen uzten dute beren porrota benetako giza arazoen aurrean eta sakonago den beste arrazoi batean txertatzera daramate, hots, "arrazoi historikoa"²².

Honek, edozein iraultza orokorren hutsaltasuna erakusten digu, 89ko iraul-nahasleek nahi zuten bezala, historiari berriro ekitekotan gizartea bat-batean aldatzeko edozein saioarena. Iraultzaren bideari, egungo europarrak, bizkarrean daraman esperientzia luzearen bide duin bakarra kontrajartzen dio. Iraultzek, hain ezinegonak eskubideak aldarrikatzeko presa horretan -hipokresiaz eskuzabala-, beti bortxatu, zanpatu eta hautsi izan dute gizonaren funtsezko eskubide bat, funtsezkoa, bere muinaren definizioa delako: jarraipen eskubidea. Hauxe da gizonaren historia eta "historia naturalaren" arteko benetako diferentzia bakarra: hura ezin dela berriro hasi. Köhler-ek eta bestek erakutsi dutenez, txinpantzeak eta orangutanak gizonarekin duten aldea ez da zehazki adimena deitzen duguna, gurea baino askoz urriagoa den haien oroimena baizik. Piztia gaixoez ahaztua omen dute goizero aurreko egunean bizi izan duten gehiena, eta beren endeleguak esperientzia sorta txiki-txiki batekin egin behar du lan. Orobat, egungo tigrea orain sei mila urtekoa bezalakoxea da, tigre bakoitzak berriro hasi behar baitu tigre izaten, aurretik besterik izan ez balitz bezala. Gizonak, aldiz, oroimenari esker, bere iragana metatzen du, haren jabe egiten da eta hartaz baliatzen da. Gizona ez da inoiz lehen gizona: pilatutako iragan altuera baten gainean hasten da izaten. Horixe da

gizonaren altxor bakarra, bere pribilegioa eta seinalea. Eta altxor horren aberastasun txikiena, zuzena eta gordetzeko modukoa dirudiena da: axola duena hutsegiteen oroitzapena da, beti oker berak ez egiten irakasten diguna. Gizonaren egiazko altxorra hutsegiteen altxorra da, milaka urtetan tantaka bildutako bizi-esperientzia luzea. Horregatik dio Nietzschek gizon gorena "oroimen luzeena" duen izakia dela.

Iraganetik jarraipena etetea, berriro hasteko guraria, jaiste eta orangutana plagiatu nahi izatea da. Atsegin dut frantziar bat izatea, Dupont-White, 1860 inguruan harako hura aldarrikatzen ausartu zena: "La continuité est un droit de l'homme; elle est un hommage à tout ce qui le distingue de la bête" ²³.

Aurrean dudak egunkari batean, errege berriaren koroatzea dela eta Ingalaterran ospatu diren jaien albisteak irakurri ditut. Monarkia ingelesa erakunde sinboliko hutsa dela esan ohi da aspaldidanik. Hau egia da, baina horrela esanda ihes egiten digu onenak. Izan ere, egia esan, Monarkiak Inperio Britainiarrean ez du inolako funtzio material eta ikus daitekeenik betetzen. Haren zeregina ez da gobernatzea, ez justizia administratzea, ez Armadari agintzea. Baina, halere, ez da hutsik dagoen erakundea, zerbitzurik eskaintzen ez duena. Monarkiak Ingalaterran oso zeregin zehatza eta eragin izugarrikoa betetzen du: sinbolizatzea. Horregatik, ingeles herriak, jakinaren gainean, egundoko ospea eman dio orain koroa ezartzearen errituari. Kontinenteko oraingo nahaspilaren aurrean, bere bizitza zuzentzen duten arau iraunkorrek aitortu nahi izan ditut. Beste ikaskizun bat eman digu. Beti bezala -Europak herri samalda baten antza izan baitu beti-, kontinentekoak, jenioz beteak, baina sosegugabeak, inoiz ez helduak, beti ume antzekoak, eta azkenean, beraien atzean, Ingalaterra... Europaren nurse-a bailitzan.

Hau da etorkizunera beti lehenago iritsi izan den herria, denei aurrea hartu diena ia maila guztietan. Ia hori zinez kendu egin behar genuke. Eta horra non herri honek, dandysmo jatorrenaren mutiritasunez, zeremonia zaharkitua ikustera behartzen gaituen, eta ikustera ere nola ari diren -inoiz ez baitute gaurkotasunik galdu- bere historiako tramankulurik zaharrenak eta magikoenak, koroa eta zetroa, gure artean kartetako halabeharra baizik gidatzen ez dutenak. Ingelesa agerian uzten saiatzen zaigu bere iraganak, iragan egin delako hain zuzen ere, berari pasatu zaiolako, izaten segitzen duela berarentzat. Oraindik iritsi ez garen etorkizun batetik bere iraganaren gaurkotasun lerdana erakusten digu.²⁴ Herri hau bere denbora guztian zehar mugitzen da, bere mendeen jaun eta jabe da egiazki jabego eragilean gordetzen dituelarik. Eta hau gizaki-herria izatea da: bere atzokoan iraun ahal izatea etorkizunerako bizitzeari utzi gabe, egiazko orainaldian bizi ahal izatea, oraina ez baita iraganaren eta gertakizunaren presentzia baizik, aldi joana eta etortzekoa zinez existitzen diren lekua.

Koroatzearen ospakizun sinbolikoekin, Ingalaterrak, berriro ere, iraultzaren bidetara jarraipenarena kontrajarri dio; giza arazoak ibilian, historia, elbarri eta epileptikoen arteko borroka leinargi eta iraunkorra bilakatzen duen ikusmolde patologikoa bazter dezakeen bakarra.

V

Orrialde hauetan egun gailen den gizonaren anatomia egiten denez gero, bere kanpoko itxuratik abiatzen naiz, nolabait esan, bere axaletik, eta gero zertxobait sartzen naiz barne errailetarantz. Horregatik, lehen kapituluak dira gehien zaharkitu direnak. Denboraren axala aldatu egin da. Irakurleak, 1926-1928 urteetara jo beharko luke irakurketan. Europako krisia hasia da, baina oraindik ohiko horietako bat dirudi. Jendeak oraindik segurtasun osoan ikusten dute beren burua. Oraindik inflazioaren luxuez bizi dira. Eta, batez ere, honela zioten: Horra hor Amerika! Prosperity ospetsuaren Amerika zen.

Orrialde hauetan esandakoez nolabait harrotzen nauen gauza bakarra, orduko europar gehienek, baita ekonomilariak berek ere, izan zuten ezin sinetsizko ikuspuntu okerra

eduki ez izana da. Ez baita ahaztu behar, orduan benetako ustea zela, amerikarrek beste bizimolde bat aurkitu zutela, betidaniko giza izurriteak, krisiak alegia, behin-betiko ezabatuko zituen. Europarrek, egundaino asmatu den gauzarik handienaren asmatzaile izanda -historiaren zentzuarena-, orduko hartan horren izpirik ez edukitzeak lotsatu egiten ninduen. Amerika etorkizuna delako uste zaharrak beren oharmen zorrotza lausotu zuen lipar batez. Halako irristadari aurre egiteko kemenez, defendatu nuen, Amerika, etorkizuna ez baina, zinez, aspaldiko iragana zela, basatitasuna zelako. Eta, uste ohi denaren aurka gainera, areago zen hori, eta da, Ipar Amerika Hego Amerika baino, hispanikoa baino. Egun arazoa argituz doa eta Estatu Batuek ez dute jadanik kontinente zaharrera andereñorik bidaltzen -beretako batek esaten zidan bezala- "Europar ez dagoela deus interesgarririk egiaztatzeko".²⁵

Era berean, neure buruari gogor eginez, ia-liburu den honetan, gizonarentzat eta bereziki gizon europararentzat arazo osoa den etorkizun hurbiletik gai bakarra bakandu dut: orotaz jabetzen ari den gizon ertainaren irudikapena. Honek, aszetismo gogorrera behartu nau, neure usteak gordetzera bidenabar aipatzen dudan guztiaz. Are gehiago: gauzak aurkezteko erabili behar izan dudan adierazmoldea, jardun honetako gai bakarra argitzeko egokiena bazen ere, okerrena gertatu da maiz nire iritzia berorietaz erakusteko. Aski bedi arazo bakarra, baina funtsezkoa, adieraztea: egungo gizon ertaina neurtu dut, zibilizazio modernoa jarraitzeko duen gaitasunaren aldetik eta kulturarekiko atxikimenduaren aldetik. Edonork esan lezake bi gauzok -zibilizazioa eta kultura- ez direla niretzat auzigai. Hala ere, horiexek dira, hain zuzen ere, ia nire lehen izkribuetatik auzitan jartzen dudana. Baina nik ez nituen arazoak nahasi behar. Zibilizazioaren eta kulturaren aurrean gure jarrera edozein dela ere, hor dago, gogoan hartu beharreko lehen mailako faktore gisa, masa-gizonaren bitxitasuna. Horregatik, behar-beharrezkoa zen berorren sintomak gordinki isolatzea.

Ez beza, beraz, irakurle frantsesak besterik espero liburu honetatik, azken batean, lasaitasun saio bat ekaitzaren erdian besterik ez baita*

JOSÉ ORTEGA Y GASSET

"Het Witte Huis". Oegstgeest-Holanda, 1937.eko maiatza.

LEHEN Zatia

I

Jendetzen gertakaria²⁶

Bada gertakari bat, onerako zein txarrerako, egungo Europako bizitza publikoan axolarik handiena duena. Gertakari hori, masak gizarte-botere osora iristea da. Masek, berez, beren bizitza gidatu behar ez dutenez eta ezin ere dutenez, eta are gutxiago gizartea gobernatu, esan nahi da Europa orain, herriek, nazioek, kulturek jasan dezaketen krisialdirik larriena pairatzen ari dela. Krisi hau behin baino gehiagotan gertatu da historian. Bere begitarte eta ondorioak ezagunak dira. Izena ere ezaguna da. Masen errebolta deritza.

Gertakari izugarri hau ulertzeko, komeni da, "errebolta", "masak", "gizarte botere" eta antzeko hitzei adiera politiko soil edo batez ere politikoa ez ematen saiatzea. Bizitza publikoa, politikoa ez ezik, aldi berean eta lehenago ere, intelektuala, morala, ekonomikoa eta erlijiosoa ere bada; usuario kolektibo guztiak hartzen ditu eta jazkerak eta gozatzeko erak ere bai.

Beharbada gertakari historiko honi hurbiltzeko bide egokiena begietako esperientzia bat aipatzea da, aurpegiko begiez ikus daitekeen gure garaiko alderdi bat azpimarratuz.

Txit erraza aipatzen, ez ordea aztertzen, nik pilaketaren gertakaria izendatzen dut, "betekadarena". Hiriak jendez beteak daude. Etxeak, maizterrez beteak. Hotelak, lagunez beteak. Trenak, bidaiariak beteak. Kafetegiak, edalez beteak. Ibilbideak, ibiltariz beteak. Mediku ospetsuen gelak, gaixoz beteak. Espektakuluak, garaiz kanpokoak ez badira behintzat, ikuslez beteak. Hondartzak, bainuzalez beteak. Lehenago arazo ez zena, dagoeneko hasia da ia etengabe: tokia aurkitzea.

Besterik ez. Ba ote dago gertakari ximpleagorik, nabarmenagorik, iraunkorragorik, egungo bizimoduan? Zula dezagun oharpen honen guna eta bertatik darion ustegabeko ur-xirristak harrituko gaitu, non eguneko argi zuria, egun honetakoa, oraingoa, bere barneko kromatismo aberats osoz puskatzen baita.

Zer da ikusten duguna eta ikustean hainbeste harritzen gaituena? Jendetza ikusten dugu, jendetza den aldetik, zibilizazioak sortu dituen lekuen eta tresnen jabe eginik. Gogoeta pixka bat egin bezain laster, geure harriduraz harritzen gara. Zer, bada? Ez al da, bada, ideala? Antzokiak, jezartzeko ditu aulkiak; beraz, aretoa betea egon dadin. Eta orobat trenak jarlekuak eta hotelak bere gelak. Bai; ez du zalantzarik. Lehen, ordea, leku eta ibilgailu hauetako bat ere ez zen betea egoten, eta orain gainezka daude, kanpoan gelditzen da jendea usufruktatzeko irrikaz. Gertakaria logikoa, naturala, den arren, ezin ahanitz dezakegu lehen ez zela gertatzen eta orain bai; beraz, aldaketa bat gertatu dela, berrikuntza bat, gure harridura, hasieran behintzat, justifikatzen duena.

Harritzea, txunditzea, ulertzen hastea da. Intelektualaren kirola eta luxu berezia da. Horregatik, bere keinu gremiala, munduari harriduraz zabaldutako begiz begiratzea da. Mundu guztia da harrigarria eta liluragarria ondo irekitako begininientzat. Hau, lilura sentitzea, futbolariari ukaturiko atsegina da, eta hala ere, betiereko ameslari-mozkorraldian darama intelektuala munduan barrena. Horren ezaugarria begi txundituak dira. Horregatik antzinakoek hontza eman zioten Minervari, begiak beti asalatuak dituen txoria.

Jendeketa, betekada, lehen ez zen ohikoa. Zergatik ote da orain?

Samalda horietako osakideak ez dira hutsetik sortu. Gutxi gora-behera, pertsona kopuru bera zegoen duela hamabost urte. Gerra ondoan kopuru hori txikiago izatea bidezkoa zen. Hementxe, ordea, egiten dugu topo lehen ohar jakingarriarekin. Jendetza horiek osatzen dituzten gizakiak bazeuden lehen ere, baina ez jendetza gisa. Munduan multzo txikietan edo bakarka banatuta, bizimodu, itxuraz aldendua, banandua, urrundua,

zeramaten. Bakoitzak -gizabanako nahiz talde txiki- toki bat betetzen zuen, berea agian, landan, herriskan, hirian, hiri handiko auzoan.

Orain, bat-batean, samalda itxurapean agertzen dira, eta gure begiek jendetzak ikusten dituzte nonahi. Nonahi? Ez, ez; toki onenetan hain zuzen ere, giza kulturaren nola-halako sorkari finetan, lehen talde txikiagoei, hitz batez, gutxiengoei, zegozkienetan.

Jendetza, bat-batean, ikusgarri bihurtu da, gizarteko toki hautatuenetan jarri da. Lehen, egonda ere, ez zen nabaritzen, gizarteko eskenatokian hondoa betetzen zuen; orain argietarantz aurreratu da, bera da pertsonaia nagusia. Orain ez dago protagonistarik: korua dago bakarrik.

Jendetza kontzeptua kopuruzkoa eta begietakoa da. Eman dezagun, aldatu gabe, soziologiazko hitzetan. Orduan masa sozial delakoa aurkitzen dugu. Gizartea beti bi faktoretako batasun dinamikoa da: gutxiengoak eta masak. Gutxiengoak, gizabanakoak edo gizabanakoen multzoak bereziki kualifikatuak dira. Masa, kualifikazio berezirik gabeko pertsonen multzoa da. Masak aipatzean, beraz, ez hartu gogoan "langile-masak" bakarrik edota batez ere. Masa "gizon ertaina" da. Honela, kopuru hutsa zena -jendetza-zerbait kualitatibo bihurtzen da: tasun komuna da, jabe gabeko gizarte ondasuna, besteengandik bereizten ez den gizona, bere baitan eredu orokor bat errepikatzen duena. Zer irabazi dugu kopurua kualitate bihurturik? Oso erraza: honen bidez haren sorrera ulertzen dugu. Bistan da, eta esateak kaikukeria antza ere badu, jendetza baten osaketa arruntak gogoen adostasuna eskatzen duela, ideiena, izaerarena, hura osatzen duten lagunen artean. Esango dute edozein giza talderekin gertatzen dela hori, baita aukeratuenean ere. Bai noski; baina bada funtsezko alderik ere.

Jendetza eta masa ez diren taldeetan, adostasuna, gogoren bat, ideia edo xederen bat izaten da, berez kopuru handia baztertzen duena. Gutxiengo bat osatzeko, edozein delarik, beharrezkoa da aldeaz aurretik norbera jendetzatik aldentzea, arrazoi bereziak, aski indibidualak, direla bide. Gutxiengoa osatzen duten besteekiko kidetasuna, bigarren mailakoa da, nork bere burua bakandu ondokoa, eta, beraz, zati handi batean, bat ez etortzean bat etortzea. Zenbaitetan, taldearen tasun berezle hau estalkirik gabe agertzen da: bere buruari "ez konformistak" esaten dioten talde ingelesak, hau da, jendetza neurrigabearekiko desadostasunean bakarrik ados daudenen elkarteak. Gehienengandik aldentzeko gutxiengoak elkartzeko joera hau gutxiengo guztien sorreran dago. Musikari fin bati entzuteko jende gutxi bildu zela eta, graziaz dio Mallarmék, entzulego hark bere urritasunaren agertuarekin jendetzaren ez-agertu izana azpimarratzen zuela.

Berez, masa, psikologiazko gertakari bezala defini daiteke, gizabanakoak samaldaka agertzeko zain egon beharrik gabe. Pertsona bakar baten aurrean masa den ala ez jakin dezakegu. Masa, bere burua arrazoi bereziengatik -onerako zein txarrerako- baloratzen ez duen edonor da, bere burua "mundu guztia bezalakoa" sumatzen duena, eta, hala ere, ez da larritzen, gustura sentitzen da bere burua besteak bezalakoxea sumatzean. Eman dezagun gizon apal bat, arrazoi bereziengatik bere burua baloratu nahian dabilelarik -honetarako edo horretarako balio ote duen, zerbaitetan nabarmentzen ote den galdegitean- inolako dohain bikainik ez duela ikusten duena. Gizon horrek eskaxa, arrunta, gaizki hornitua sumatuko du bere burua; "masa" ez, ordea.

"Gutxiengo aukeratuak" aipatzean, ohiko bilaukeriak esapiderearen adiera aldatu ohi du, ez baleki bezala, gizon aukeratua, ez dela bere burua hobesten duen harroskoa, bere buruari besteei baino gehiago eskatzen diena baizik, nahiz eta goimailako eskakizun horiek betetzea lortu ez. Zalantzarik gabe gizadian egin daitekeen banaketarik sakonena izakiak bi taldeotan zatitzea da: bere buruari asko eskatuta zailtasunak eta eginbeharrak pilatzen dituztenak, eta bere buruari ezer berezirik eskatzen ez diotenak; hauentzat bizitzea, uneoro, dagoeneko badirena izatea da, beren burua hobetzeko eginahalik gabe; nora ezean dabilzan buiak izatea.

Honek, budismo ortodoxoa bi erlijio diferentek osatzen dutela gogoratzen dit: bat, zorrotzagoa eta zailagoa; bestea, laxoagoa eta errazagoa: Mahayana - "ibilgailu handia" edo "bide handia"- eta Hinayana - "ibilgailu txikia", "bide txikia". Axola duena da gure bizitza ibilgailu batean ala bestean jartzen dugun, eskakizun maila gorenean ala behearean.

Gizartea masa eta gutxiengo bikainen artean banatzea, ez da, beraz, klase sozialetan banatzea, gizon klaseetan baizik, eta banaketa hori ezin daiteke bat etorri klase nagusi eta menpekoeen hierarkizazioarekin. Garbi dago klase nagusietan, hori izatera iristen direnean eta egiazki ziren bitartean, errazagoa dela "ibilgailu handia" hartzen duten gizonak aurkitzea; beheko klaseak, berriz, kalitate gabeko gizakiek osatzen dituzte eskuarki. Baina, berez, gizarte klase bakoitzaren barruan daude masa eta zinetako gutxiengoak. Ikusiko dugunez, garaia ezaugarria masaren eta herri xehearen nagusigoa da, baita tradizio aukerazalea zuten multzoetan ere. Horrela, bizitza intelektualean, kualifikazioa berez behar eta suposatzen delarik ere, sasi-intelektual kualifikatugabe, kalifikagaitz eta deskalifikatuak garaipena nabari da gero eta gehiago. Gauza bera, gelditu diren gizonezko eta emaztekieen "noblezia" multzoetan ere. Hala ere, ez da zaila egun lagileen artean, lehen "masa" deitzen dugun horren adibide jatorrenak baziren ere, arima bikain landuak aurkitzea.

Dena den: badaude gizartean berezko izaeraz bereziak diren mota askotariko lanak, jardunak, zereginak, eta, ondorioz, ezin dira berezia ere den dohainik gabe burutu. Adibidez, arte eta luxuzko plazer batzuk, edota arazo publikoei dagozkien gobernu-eginkizunak eta epai politikoak. Lehen, jardun berezi hauek gutxiengo kualifikatuak egiten zituzten -ustez behintzat, kualifikatuak zirenek. Masa ez zen horrelakoetan parte hartzen ausartzen: garbi ikusten zuen parte hartu nahi baldin bazuen dohain berezi horiek bereganatu beharko zituela eta masa izateari utzi. Ongi ezagutzen zuen bere zeregina gizarte dinamika osasungarrian.

Hasieran aipatu ditugun gertakarietara itzultzen bagara, zalantzarik gabe, masaren jarrera-aldaketa baten aitzindariak irudituko zaizkigu. Gertakari guztiok erakusten dute masak gizarteko lehen mailara aurreratzea erabaki duela eta lehen banaka batzuei zegozkien lekuak betetzea, eta tresnak erabili eta plazerrez gozatzea. Bistan da, adibidez, lekuak ez zeudela alde aurretik jendetza handientzat pentsatuta, beren neurriak eskaxak baitira eta jendeketak etengabe gainezkatzen ditu, begien bistan eta hizkuntza ikusgarritz gertakari berria erakusten duelarik: masak, masa izateari utzi gabe, gutxiengoei kentzen die tokia.

Inork ez du deitoratuko, nire ustez, jendeak egun lehen baino gehiago gozatzea neurritz eta kopuruz, bai baititu horretarako grina eta bitartekoak. Baina zoritxarrez, gutxiengoaren zereginak bereganatzeko masen erabaki hau, ez da plazer-mailan bakarrik gertatzen, ezta gertatzen ahal ere, eta garaiko joera orokorra da. Hau dela eta, nire ustez, -gero ikusiko duguna aurreratuz- azken urteotako berrikuntza politikoek ez dute masen aginte politikoa baizik adierazten. Demokrazia zaharra, liberalismo dosi ugari batek eta legearen aldeko atxikimendu suharrak goxatua bizi zen. Arau hauek betetzeko, disziplina zailera behartzen zuen gizonak bere burua. Oinarri liberalaren eta arau juridikoaren babespean bizi eta jardun zezaketen gutxiengoak. Demokrazia eta legea, legezko elkarbizitza, sinonimoak ziren. Egungo hiperdemokraziaren garaipenean masa zuzenean ari da, legerik gabe, presio materialen bidez, bere nahiak eta gogoak inposatuz. Okerra da, egoera berriak, masak politikaz aspertu eta eginkizun hori pertsona berezien ardurapean utzi balu bezala azaltzea. Arras alderantziz. Hori lehen gertatzen zen, hori demokrazia liberala zen. Masak uste zuen, azken batean, akatsak akats, politikoen gutxiengoak berak baino gehixeago zekiela arazo publikoez. Orain, berriz, bere kafetegi topikoak inposatzeko eta lege bihurtzeko eskubidea duela uste du

masak. Duda egiten dut historian beste inoiz jendetza egun bezain zuzenki gobernatzera iritsi ote den. Horrexegatik diot hiperdemokrazia.

Horren antzera gertatzen da gainerako alorretan, intelektualean batik-bat. Oker nabil, agian; baina idazleak, luzaro aztertu duen zerbaitetaz idazteko luma hartzen duenean, pentsatu behar du, irakurle arruntak, gaiak behin ere arduratu ez denak, irakurtzen badio, ez duela beragandik zerbait ikasteko asmotan irakurtzen, alderantziz baizik: idazlea epaitzeko, irakurleak gogoan dituen arrunkekin bat ez datorrenean. Masa osatzen duten giza banakoek dohain bereziaz hornituak daudela usteko balute, oker pertsonal bat izango genuke gehienez, ez, ordea, subertsio soziologikoa. Hona oraingo momentuaren ezaugarria: arima arruntak, arrunta dela jakinda, arrunkei eskubidea aldarrikatzeko kemena du eta nonahi inposatzen du. Ipar Ameriketara esaten den bezala: bestelakoa izatea lotsagarrikeria da. Masak, bestelakoa, nabarmena, bakana, berexia, aukeratua, den oro zanpatu egiten du. Mundu guztia bezalakoa ez dena, mundu guztiak bezala pentsatzen ez duena, suntsitua izateko arriskuan da. Eta garbi dago "mundu guzti" hori ez dela "mundu guztia". "Mundu guztia", normalean, masak eta bestelako gutxiengoek, berexiek, osatutako batasun konplexua zen. Orain mundu guztia masa baizik ez da.

II

Maila historikoaren igoera

Hauxe da gure garaiko gertakari izugarria, bere itxura basa ezkutatu gabe deskribatuta. Gainera, berri-berria da gure zibilizazioaren historian. Honen bilakaera osoan inoiz ez da horren antzekorik gertatu. Antzekorik aurkitzekotan, jauzi egin beharko genuke gure historiari at eta beste mundu batean, beste bizigiro arras bestelako batean murgildu beharko genuke; antzinako munduan kokatu beharko genuke eta haren gainbehera aldira iritsi. Erromako Inperioaren historia ere subertsioaren historia da; gutxiengo gidariak bereganatzen, ezabatzen, eta haien tokian jartzen diren masen agintearen historia. Orduan ere badugu jendeketaren gertakaria, betekadarena. Horregatik, Spengler ederki ohartu denez, eraikuntza larriak, orain bezalaxe, jaso behar izan zituzten. Masen garaia erraldoitasunaren garaia da²⁷.

Masen aginte basaren pean bizi gara. Oso ederki; dagoeneko bi aldiz esan diogu "basa" agintekera honi, jadanik ordaindu diogu geure zerga topikoen jainkoari; orain, txartela eskuan dugula, gaian sar gaitezke alaiki, espektakulua barrutik ikusi. Ala uste ote zuen norbaitek pozik geratuko nintzatekeela deskribapen horrekin, zehatza beharbada, baina kanpokoak, iraganetik begiratzen zaionean gertakari larria aurkezteko aurpegi eta ikuspegi hutsa den horrekin? Gaia bertan behera utzi eta oraingo saiakera hau besterik gabe itoaziko banu, irakurleak usteko luke, arrazoi handiz, masen historiaren axalera agertze miresgarri honek erdeinu hitz batzuk, mespreziouzkoak, arbuio pixka bat eta beste higuin doi bat baizik ez zizkidala iradokitzen; niri, jakina denez, historiaren interpretazio erroten aristokratikoa sostengatzen dudana honi²⁸. Errotik, inoiz esan ez dudalako gizarteak aristokratikoa izan behar duenik, hori baino askoz ere gehiago baizik. Esan izan dut, eta uste horretan irauten dut, gero eta irmoago, gizartea beti dela aristokratikoa, nahitaez, berezko izatez; hau dela eta, gizartea, aristokratikoa den neurrian da gizarte, eta desaristokratzen den neurrian uzten dio izateari. Ongi ulertu behar da: gizarteaz ari naiz, ez Estatuaz. Ez du inork uste izango, masaren harrotze ikaragarri honen aurrean, aristokratikoa izatea, imintzio labur ameneratu batekin, Versaillesko zalduntxo baten gisa, kontent geratzea denik. Versailles -imintzioen Versailles ulertzen da- ez da aristokrazia, arras alderantziz baizik: aristokrazia bikain baten heriotza eta ustelkeria da. Horregatik, izaki haiengan geratzen zen egiazko aristokrazia bakarra, lepoan gilotinaren bisita hartzeko zuten grazia dina zen; tumoreak bisturia bezala onartzen zuten. Ez; aristokrazien eginkizun sakona sentitzen duena, masaren ikuskizunak berotu eta piztu egiten du, marmol birjinak zizelaria bezala.

Aristokrazia sozialak ez du beste talde nimiño horren inolako antzik; talde horrek "gizarte" hitza osorik berarentzat gorde nahi du, bere buruari "gizartea" esaten dio eta elkar inbitatu ez-inbitatu hutsetik bizi baita. Mundu guztiak bere bertutea eta bere eginkizuna dituen gero, "mundu dotore" txiki honek ere baditu bereak mundu zabalaren barruan, baina eginkizun hori txit apala da eta ezin da parekatu benetako aristokrazien zeregin eskergarekin. Ez nuke eragozpenik izango bizimodu dotore horrek duen zentzuaz mintzatzeko, itxuraz hain zentzugabea delarik ere; baina gure gaiak oraingoan neurri handiagoak ditu. "Gizarte dotore" hori, noski, denborarekin batean ere joaten da. Gogoeta ugari eragin zidan dama gaztetxo batek, dena gaztetasun eta gaurkotasun, Madrilgo dotoreziaren zodiakoan lehen mailako izarra, honela esan zidanean: "Nik ezin dut dantzaldi bat jasan zortziehun pertsona baino gutxiago inbitatu direlarik." Esaldi honetan zehar masaren estiloa bizitza guztian barrena gailendu dela ikusi nuen eta happy few-entzat gordeak ziruditen azken txokoetan ere nagusitu dela.

Uko egiten diet, bada, masen agintepean alde onik aurkitzen ez duen edozein azalpeni eta orobat, xalo-xalo, izu-ikararik gabe, onartzen dutenei. Halabehar oro dramatikoa eta tragikoa da sakon sakonean. Bere eskuan denboraren arriskuaren taupada sumatu ez duena, ez da halabeharraren erraietara iritsi, haren masaila belaxka laztandu du besterik gabe. Gurean, osagai beldurgarria, masen gogo altxamendu menderatzaile eta bortitzak jartzen du, ikaragarri, hezigaitz eta zalantzazkoa beste edozein halabehar bezala. Nora garamatza? Erabateko gaitza da ala ontasun eskuragarria? Hortxe dago, eskerga, gure garaiaren gainean jarrita, galdera ikur erraldoi, kosmiko bat bezala, zalantzazko tankera duena, alde batetik gilotina edo urkamendi antza baitu, baina garaipen arkua ere izan nahi luke!

Anatomiaren pean jarri behar dugun gertakaria bi idazpuruz adieraz daiteke: lehena, masek egun duten ohitura sorta, zati handi batean, lehen gutxiengoei bakarrik omen zegokien; bigarren, aldi berean, masak hezigaitzak bihurtu dira gutxiengoaren aurrean; ez diete men egiten, ez diete jarraitzen, ez diete begirunerik, alderantziz baizik, baztertu eta ordezkatu egiten dituzte.

Azter dezagun lehen idazpurua. Horrekin esan nahi dut, masek, talde hautatuek asmatutako eta lehen beraiek bakarrik erabiltzen zituzten plazerrak eta tresnak gozatzen eta erabiltzen dituztela. Sentitzen dituzten gogoak eta beharrak fineziak omen ziren lehen, banaka batzuen ondarea zirelako. Adibide arrunt bat: 1820an Parisen ez ziren hamar bainugela egongo etxe partikularretan; ikus Boigne-ko comtesse-ren Oroitzapenak. Are gehiago; masek egun, lehen jende trebatuek bakarrik erabiltzen zituzten teknika asko ezagutzen eta baliatzen dituzte, aski egokiro gainera.

Eta teknika materialak ez ezik, baita, axola handiagoa duelarik, lege eta gizarte teknikak ere. XVIII. mendean, gutxiengo batzuek aurkitu zuten, edozein gizaki, jaiotze hutsagatik beragatik eta inolako dohain berezirik gabe, funtsezko eskubide batzuen jabe zela, giza eta hiritar eskubideak direlakoan jabe, eta guzientzako eskubide komun hauek direla, berez, dauden bakarrik. Ondare bereziko beste edozein eskubide, gaitzetsia zen pribilegio zelakoan. Hau, hasieran, banaka batzuen teorema hutsa eta ideia zen; gero, gutxi horiek ideia hori erabiltzen hasi ziren, inposatzen eta eskatzen: gutxiengo hoberenak. Hala ere, XIX. mendean zehar, masa, eskubide horien ideiaz, ideal batez bezala liluratuz zihoan, baina ez zituen bere baitan sentitzen, ez zituen ez erabiltzen ez baliarazten, baizik eta, legealdi demokratikoetan ere, antzinako erregimenean bezala jarraitzen zuen bizitzen eta bere burua sentitzen. "Herriak" -horrela esaten zitzaion orduan-, "herriak" bazekien subiranoa zela; ez zuen sinesten, ordea. Gaur egun, ideal hura egia bilakatu da, ez bizitza publikoaren kanpoko irudia diren legedietan, gizaki ororen bihotzean baizik, edozein direla bere ideiak, baita atzerakoiak direnean ere; hots, baita eskubide haiek berresten dituzten instituzioak birrintzen eta xehatzen dituenean

ere. Ene iritziz, masen gogo-egoera bitxi hau ulertzen ez duenak, ezin du ezer ulertu munduan gertatzen hasten diren gauzetan ere. Kualifikatugabeko gizabanakoaren subiranotasuna, gizakiarena orokorki hartuta, ideia edo ideal juridiko izatetik egoera psikologiko izatera igaro da eta gizon ertainaren osagarria da. Eta gogoan hartu: ideala zen zerbait errealtatearen osagai bilakatzen denean, ideala izateari uzten dio ezinbestez. Idealaren ezaugarri eta gizonaren baitan ondorioa diren ospea eta magia baimentzailea, suntsitu egiten dira. Olde demokratiko eskuzabalaren eskubide berdintzaileak, asmo eta ideal izanda, oharkabeko gogo eta uste bilakatu dira.

Dena den: eskubide haien zentzua, giza arimak beren barne morrontzatik askatzea zen eta beren barruan jauntasun eta duintasun kontzientzia bat edo aldarrikatzea. Ez ote zen hau nahi zena? Gizon ertaina bere buruaren eta bere bizitzaren ugazaba, jabe, jaun sentitzea? Lortua dago, bada. Zergatik dira kexu duela hogeita hamar urteko liberalak, demokratak, progresistak? Beharbada, haurrek bezala, gauza bat nahi dutelako baina berorren ondoriorik ez? Gizon ertaina jaun izatea nahi da. Orduan ez da batere harrigarria bere kabuz eta bere buruaren aurrean jardutea, atsegin guztiak eskatzea, bere nahia erabakitasunez inposatzea, edozein morrontzari uko egitea, inori otzantasunez ez jarraitzea, bere burua eta astiuneak zaintzea, bere jazkera hautatzea: jauntasun kontzientziari dagozkion betiereko ezaugarrietako batzuk dira. Egun gizon ertainarengan aurkitzen ditugu, masaren baitan.

Beraz, gizon ertainaren bizimodua lehen gutxiengo gorenei bakarrik zegokien ohitura sortak osatzen du. Dena den: gizon ertainak garai bakoitzeko historia zein eremutan mugitzen den erakusten du; historian, itsasmaita geografian bezala da. Maila ertaina egun, lehen aristokraziek bakarrik ukitzen zuten tokian dagoenez gero, historiaren maila bat-batean igo egin dela esan daiteke argi eta garbi -lurpeko prestaera luzeen ondoan, baina, agerian, bat-batean-, jauzi batean, belaunaldi batean. Giza bizitza, orohar, igo egin da. Egungo soldaduak, nolabait esan, kapitain antz handia du; giza armada jadanik kapitainez osatua dago. Aski da ikustea edozein gizaki nolako indarraz, ausardiaz, askatasunaz mugitzen den bizitzan barrena, eusten dion atsegin igarokorrari, inposatzen duen bere erabakia.

Oraingo eta etorkizun hurbileko on guztiek eta gaitz guztiek, maila historikoaren igoera orokor honetan dute beren zergatikoa eta sustraia.

Baina orain ustegabeko ohar bat gertatzen zaigu. Hori, bizitzako maila ertaina antzinako gutxiengoena izatea, gertakari berria da European; baina Amerikako jatorrizko gertakaria zen, konstituzionala. Gogoan har beza irakurleak, nire asmoa argi ikusteko, lege berdintasunezko kontzientzia. Nor bere buruaren jaun eta jabe eta beste edozein gizakiren pareko sentitzearen egoera psikologikoa, European talde bereziek bakarrik bereganatzen zutena, XVIII. mendetik, betidanik hortaz, gertatzen zen Amerikan. Eta bada kidetasun bitxiagorik ere! Gizon ertainaren egoera psikologiko hori European agertzean, bizitza osoaren maila igotzean, Europako bizimoduaren tonuak eta manierak maila guztietan hartzen duten itxurak honela esanarazten dio askori: "Europa amerikartzen ari da." Honela ziotenek ez zioten gertakariari garrantzi handiegirik ematen; ohitura aldaketa txiki bat zela uste zuten, moda bat, eta, axaleko antzak nahasirik, Amerikaren Europarekiko ez dakigu zein eraginen ondorio zela zioten. Horrekin, nire ustez, arazoa zabartu egin da; zorrotzagoa, harrigarriagoa eta sakonagoa den arazoa.

Galanteriak erosi egin nahi nau orain, itsas haraindiko gizakiei baietz esan diezaiedan, Europa amerikartu egin dela eta hau Amerikaren Europarekiko eragin bati zor zaiola. Baina ez: oraingoan egia galanteriaren etsai da, eta gailendu egin behar du. Europa ez da amerikartu. Ez du oraindik Amerikaren eragin handirik jaso. Bata eta bestea, izatekotan, oraintxe ari dira hasten; ez ziren, alabaina, oraina sortu duen iragan hurbilean gertatu.

Hona, bada, batzuei eta besteei, amerikarrei eta europarrei, ikuspena eragozten digun ideia oker-pila etsigarria. Masen garaipena eta ondoko bizimailaren igoera harrigarria, barneko arrazoiengatik gertatu dira European, jendetzek bi mendetako hezkuntza aurrerakoia hartuta, eta aldi berean gertatu den gizartearen aberaste ekonomikoaren ondoren. Ondorioa den hori bat dator bizitza amerikarraren ezaugarri erabakigarrienarekin; horregatik, Europako gizon ertainaren egoera morala amerikarrarenarekin bat datorrelako, ulertu du lehen aldiz europarrak bizimodu amerikarra, lehen adigaitz eta misterio gertatzen baitzitzaion. Ez da, beraz, influxua, harrigarri samarra litzatekeena, errefluxua litzatekeena, gutxiago espero litekeen beste zerbaitez baizik: maila-berdinketa. Betidanik usnatzen zuten europarrek bizimaila ertaina altuagoa zela Amerikan kontinente zaharrean baino. Ez oso analitikoa baina bai nabaria den gertakari honen intuizioak ideia bat sortu zuen, beti onartua, inoiz ez zalantzan jarria: etorkizuna Amerika zelakoa. Bistan da hain hedatua eta sustraitua den ideia bat ezin dela haizetik sortua izan, orkideak airean hazten omen diren bezala, sustrairik gabe. Horren funtsa, itsas haraindiko bizimodu ertainaren maila altuagoa zen; aitzitik, Amerikako gutxiengo hoberenak, Eupakoek baino maila apalagoa zuten. Baina historia, laborantza bezala, ibarrez hornitzen da, ez gailurrez, gizarteko altuera ertainaz, ez gorenez.

Berdinketa sasoian bizi gara: aberastasunak berdintzen dira, gizarte-klase diferenteetako kultura berdintzen da, sexuak berdintzen dira. Hara bada: kontinenteak ere berdintzen dira. Eta europarra bizimoduaz beherago zenez gero, berdinketa honekin irabazi baizik ez du egin. Beraz, alde honetatik, masen iraulketak bizitasun eta ahalmen gehitze ikaragarria adierazten du. Erabat Europaren gainbeheraz hain sarri entzuten dugunaren alderantziz. Esaera nahasi eta baldana, zertaz ari den ez baita garbi ikusten, Europako Estatuez, Europako kulturaz ala guzti honen azpian dagoen eta honek baino askoz axola handiagoa duen beste zerbaitez, hots: Europaren bizitasunaz. Europako Estatuez eta kulturaz hitz bat edo beste esango dugu geroago -eta, agian, esanak horientzat balio lezake-; baina bizitasunari dagokionez, bego argi oker larria dela. Bestela esanez gero, baliteke nire adierazpena sinesgarriago edo ez horren itxuragabe gertatzea; diodan, beraz, gaur egun italiar ertain batek, espainiar ertain batek, aleman ertain batek, alde txikiagoa dutela bizi-tonuan yankee edo argentinarrak batekin duela hogeita hamar urte baino. Horra amerikarrek ahaztu behar ez duten datua.

III

Garaien altuera

Masen aginteak, beraz, alde onuragarri bat erakusten du, maila historiko guztiaren igoera ekarri baitu, eta bizimodu ertaina atzo zapaltzen zuena baino maila altuagoan mugitzen dela egun agertzen baitu. Horrek, bizitzak altuera diferenteak izan ditzakeela konturarazten gaitu, eta denboren altueraz mintzatzean zentzurik gabe errepikatzen den esaera zentzuz betea dagoela. Komeni da puntu honetan gelditzea, beronek gure garaiko berezitasunak harrigarrienetako bat finkatzeko modua eskaintzen baitigu.

Esan ohi da, adibidez, hau edo bestea ez dagokiola denboren altuerari. Noski: ez kronologiaren denbora abstraktua, dena laua baita, bizi-denbora baizik, belaunaldi bakoitzak "gure denbora" esan ohi duena; beti baitu altueraren bat, egun atzo baino gorago dago, edo parean mantentzen da, edo beherago erortzen da. Erorketaren irudia, decadencia hitzean txertatua, intuizio horretatik dator. Era berean, nork berak nabaritzen du, argiago zein ilunago, bere bizitza eta dagokion garaia mailarekiko erlazioa. Bada bere burua egungo bizikeran ur-axalera ezin atera den naufragoaren gisa ikusten duenik. Egundak ibiltzeko tempo-aren abiadurak, zernahi egiteko oldar eta bizkortasunak, larritu egiten dute jite zaharreko gizona, eta larritasun honek bere pultsuaren altueraren eta garaia altueraren arteko aldea neurtzen du. Bestalde, oraingo erak betetasunez eta

gustura bizi dituenak, gure garaiaren altueraren eta aldi iraganen altueraren arteko erlazioaren kontzientzia du. Zein ote da erlazio hori?

Uste ustela litzateke edozein garaitako gizonak beti aldi iraganak, iraganak direla eta besterik gabe, berea baino beherago ikusten dituela suposatzea. Aski litzateke gogoratzea Jorge Manriqueren ustez,

Cualquiera tiempo pasado

fue mejor.

Baina hau ere ez da egia. Ez dute aldi guztiek iraganekoren bat baino beherago zeudela sentitu eta ez dute guztiek uste izan aurretik izan diren eta gogoratzen dituztenak baino gorago daudenik. Historia aldi bakoitzak bestelako sentikortasuna erakusten du bizi-altueraren fenomeno bitxi honen aurrean, eta harritu egiten nau pentsatzaileek eta historiografoek holako gertakari nabari eta mamitsuan erreparatu ez izanak.

Jorge Manriquek azaltzen duen sentipena hedatuena izan da noski, grosso modo hartuz gero behintzat. Garai gehienei beren aldia ez zitzaien antzinako beste aro batzuk baino goituagoa irudit. Alderantziz, arruntena, gizonak iragan lauso batean denbora hobeak suposatzea izan da, bizialdi beteagoak: "urrezko aldia" esan ohi dugu Greziak eta Erromak heziok; Alcheringa, diote basati australiarrek. Honek esan nahi du gizon horiek beren bizitzako pultsua betetasunik gabe sumatzen zutela, eroria, zainetako bidea guztiz hanpatzeko gaiez. Arrazoi honengatik errespetatzen zuten iragana, denbora "klasikoak", aldi haiek zerbait zabalagoa, aberatsagoa, osoagoa etazailagoa iruditzen batzitzazkien beren garaiko bizitza baino. Atzera begiratu eta mende baliotsuago horiek irudikatzean, ez zituztela menderatzen iruditzen zitzaien, alderantziz baizik, haien azpian gelditzen zirela, temperatura gradu batek, kontzientziarik balu, bere baitan ez duela hurrengo gradua sumatuko lukeen bezala; baizik eta, horretan kaloria gehiago dagoela bere baitan baino. Kristoren ondoan ehun eta berrogeita hamar urte bete zirenetik hona, bizi-kuzkurtze honen sentipena, kaxkartzearena, gainbehera etortzearena eta pultsua galtzearena, gero eta handiagoa da Erromako Inperioan. Jadanik Horaziok kantatua zuen: "Gure gurasoek, aiton-amonak baino okerragoak zirela, gaiztoagoak sortu gintuzten gu, eta guk are makurragoak emango ditugu ondokoak" (Odak, III. Liburua, 6).

Aetas parentum peior avis tulit

nos nequiores, mox daturos

progeniem vitiosorem.

Bi mende beranduago ez zegoen Inperio guztian ehuntari plazak betetzeko behar adina italiar kementsurik, eta dalmatak alogeratu behar izan zituzten lanbide honetarako, eta gero, Danubio eta Rin aldeko barbaroak. Bitartean, emakumeak antzu bihurtu ziren eta Italia jendez hustu.

Ikus ditzagun orain, itxuraz bederen, bizi-sentipen aurkakoena duten beste aldi-mota batzuk. Oso gertakari bitxia da eta bere azalpenak axola handia du guretzat. Hogeita hamar urte ez duela, politikoez, jendetzen aurrean mintzatzen zirenean, gobernu erabaki bat edo beste, gehiegikeria hau edo hura, arbuiatzen zuten ez zegokiola garaien betetasunari esanez. Gogoangarria da esaldi bera Trajanok Pliniori egindako gutun ospetsuan agertzea, izengabeko salaketak direla eta kristauei ez oldartzeko gomendatzen diotenean: Nec nostri saeculi est. Historia garai batzuek, beraz, betetasunezko altuera batera, behin-betikora, iritsiak zirela uste izan dute: denbora horietan bidaia baten helmugara helduak zirela uste zuten, aspaldi bateko gogo eta esperantza beterik. "Denboren betetasuna" da, bizitza historikoaren heldutasun osoa. Duela hogeita hamar urte, zinez, giza bizitza izan behar zuena izatera iritsia zela uste zuen europarrak, gizaldiz gizaldi izatea irrikatu zen horretara, handik aurrera beti izan beharko zukeenera. Betetasun garaiak beste aldi prestatzaile askoren ondoriotzat hartzen dira beti, betetasun

gabeko beste denborena, berea baino apalagoak, horien gainean altxatzen delarik ordu gorena. Goi horretatik ikusita, prestakuntzako aldiek lehia eta amets lortugabeez bizi izandako aldiak dirudite; gogo asegabeko garaiak besterik ez, aintzindari sutsuena, "oraindik ez"-arena, xede argia eta erantzuten ez dion errealitaren arteko kontraste mingarriarena. Horrela ikusten du Erdi Aroa XIX. mendeak. Azkenik badirudi egun batean gogo hori, zenbaitetan mila urtetakoa, bete egiten dela; errealitateak jaso eta men egiten dio. Aldez aurretik ikusitako altuerara iritsi gara, iragarritako helmugara, denboraren gailurrera! "Oraindik ez"-aren ondotik "azkenean" etorri da.

Horixe da gure gurasoek eta haien ehunkada osoak beren bizitzaz zuten sentipena. Ez ahaztu gero honako hau: gure garaia betetasunezko gai baten ondoan datorren garaia da. Horregatik, ezinbestean, beste ertzari, betetasunezko iragan hurbil horri atxikia dagoenak, eta dena ikusmolde horretatik begiratzen duenak, oraina, betetasunetik erortzea bezala, gainbehera bezala, sumatzeko lilura izango du.

Baina historiazale zahar batek, garaien pultsu hartzaile amorratu batek, ezin du utzi ustezko betetasun horien ikuspenek lilura dezaten.

Esan dudanez, "denboraren betetasuna" izan dadin funtsezkoa da aspaldiko gogo bat, mendez mende arrastaka irrikatsu eta salatzaile zetorrena, egunen batean ase gelditzea. Eta, egiazki, denbora bete horiek bere baitaz asetako denborak dira; batzuetan, XIX. mendean adibidez, artxiasebeteak²⁹. Baina orain konturatzen gara hain aseak, hain lortuak dauden mende horiek, hilak daudela barrutik. Egiazko bizi-betetasuna ez datza asebetean, lorpenean, heltzean. Cervantesek esana da: "el camino es siempre mejor que la posada". Bere gogoak, bere xedea bete duen denborak ez du besterik nahi, agortu zaio desirkundearen iturria. Bestela esan, zorioneko betetasuna, egiazki, amaiera da. Mende batzuk, beren nahikundeak berritzen jakin ez eta asearen aseaz hiltzen dira, erlamando zoriontsua ezkon hegaldiairean ondoan hiltzen den bezala³⁰.

Hortik datu harrigarria: beteak omen diren aldi horiek bere baitako hondarrean oso tristura berezia nabaritu izan dute.

Horren astiro ernaldutako desirkundea, eta azkenean XIX. mendean burutu omen zena, labur esan, bere buruari "kultura modernoa" zeritzona da. Izena bera da kezagarria: garai batek bere buruari "moderno" esatea, hots, azkena, behin betikoa, bere ondoan gainerako guztiak iragan hutsa direla, beraganako prestaera apalak! Jomuga hutsegiten duten gezi motelak!³¹

Ez ote da dagoeneko hemen nabaritzen gure garaia eta igaro berri duenaren arteko alde larria? Gure garaiak, zinez, ez du bere burua behin betiko ikusten; alderantziz, bere sustraian bertan aurkitzen du ilun antzean behin betiko denborarik, segururik, betiko kristaldurik ez egotearen intuizioa, alderantziz baizik, bizimolde jakin bat - "kultura modernoa" deiturikoa- behin-betikoa izan nahia, itsukeria eta ikusmen hertsikeria sinesgaitzak iruditzen zaizkigu. Eta horrela sentitzean, leku medar eta arras itxi batetik ihes edo alde egin eta berriro izarpean egiazko mundu sakonera, izugarria, ezin igarritzko eta ezin agortuzko mundura atera izanaren susmo ezitia dugu, non dena gerta baitaiteke: onena eta txarrena.

Kultura modernoarekiko fedea tristea zen: bihar funtsezko gauza guztietan gaur bezalaxe izango zela jakitea zen; aurrerapena, oinpean genuen bezalako bidean betikotasun guztian ibiltzea zela. Horrelako bide bat presondegia da, elastikoa, gu askatu gabe luzatzen dena.

Inperioaren hastapenetan probintziar finen bat Erromara iristen zenean -Lukano, adibidez, edo Seneka- eta Inperioko eraikuntza bikainak, behin betiko boterearen irudi, ikusten zituenean, bihotza uzkuertzen sumatzen zuen. Handik aurrera ezin zitekeen gauza berririk gerta munduan. Erroma betirako zen. Eta hondakinetan malenkonía bat den bezala, ur hiletako lurrin antzo jaikitzen dena, halako malenkonía nabaritzen zuen

probintziar sentiberak, bestea bezain larria, baina alderantzizkoa: betiereko eraikuntzen malenkonia.

Sentipen egoera horren aurrean, ez al da egia gure garaiko sentipenak eskolatik ihes egin duten mutikoen poza eta alaitasunaren antz handiagoa duela? Orain ez dakigu zer gertatuko den bihar munduan, eta horrek ezkutuan poztu egiten gaitu; ezin igarria izatea, zernahitarako horizonte beti irekia izatea, benetako bizitza baita, bizitzaren egiazko betetasuna.

Azterketa hau ez dator bat -beste erdia, falta baitu- hainbeste garaikideren orrialdeetan negar-zotinka ari den gainbehera soinuak arrenkurarekin. Arrazoi askok eragindako ikuspegi okerra da. Beste noizbait ikusiko ditugu batzuk; baina nabariena aurreratu nahi dut: nire ustez joana den ideologia batekiko leialtasunez, politika edo kultura besterik ez dute ikusten historian, hori dena historiaren axala baizik ez dela konturatu gabe; errealitate historikoa, hori baino lehenago eta sakonago, bizinahi hutsa da, indar kosmikoen antzeko zerbait; ez da berbera, beraz, ez da naturala, baina bai itsasoa mugiarazten, basapiztia ernaltzen, arbolan lorea jartzen, izarra dardararazten duenaren ahizpa.

Gainbeherazko iritzien aurrean nik honako arrazoibide hau proposatzen dut:

Gainbehera, noski, kontzeptu erkatzailea da. Goian dagoen egoera batetik beherago dagoen egoera batera jaisten da. Dena den: erkaketa hori asma ahala ikuspuntu diferente eta ugaritatik egin daiteke. Anbarezko zigarro bokilak egiten dituenarentzat, mundua gainbehera doa jadanik anbarezko bokilaz apenas erretzen delako. Beste ikuspuntu batzuk hau baino errespetagarriagoak izango dira, baina, funtsean, alderdikariak, apetazkoak, eta hain zuzen ere kilateak balioztatu nahi zaizkion bizitzatik kanpokoak. Ez dago bidezko eta berezko ikuspuntu bat baizik: bizitza horretan kokatzea, barrutik begiratzea eta ikustea berorrek bere burua erori antzean ikusten duen, hots, murriztua, ahuldua eta gexa ikusten ote duen.

Baina barrutik begiratuta ere, nola jakin bizitza batek bere burua erortzen sumatzen duen ala ez? Ene ustez ez dago zalantzarik zein den aztarnarik argiena: ezin daiteke inolaz ere esan, lehengo bizitzarik nahiago ez duen bizitza bat, inoizko lehengo bizitzarik nahiago ez duen bizitza bat, bere burua nahiago duen bizitza bat beraz, gainbehera doakeenik. Honetara zetorren garaien altueraren arazoari buruzko ene txango guztia. Hain zuzen ere, gure garaiak honetaz duen sentipena txit bakana baita: nik dakidala, bakarra orain arte ezagutzen dugun historian.

Azken mendeko saloietan hutsik gabe ordu jakin bat iristean damek eta beren poeta heziek galdera hau egiten zioten elkarri: Zein garaitan bizi izan nahiko zenuke? Eta orduan, bakoitzak, nork bere bizitzaren figura bizkarrean hartuta, historiaren bideetan irudipenez ibiltzeari ekiten zion bere izatea gustura kokatzeko denbora baten bila. Izan ere, betetasunean sentituagatik, edo sentitzeagatik, XIX. mende hori, iraganari lotua gertatzen zen benetan, haren bizkargainean zegoela uste zuen; zinez, iraganaren gailurra ikusten zuen bere burua. Horregatik, artean sinesten zuen aldi aski klasikoetan - Periklesen mendea, Berpizkundea-, indarrean dauden balioak haietan prestatu zirelarik. Aski litzateke hau betetasunezko garaiez gure susmoa pizteko: atzera begira daramate aurpegia, beraian gainbehera duen iraganari.

Ederki, bada: zer erantzungo ote luke egiazki edozein gizonek, orainaldiaren ordezkari jator gisa, antzeko galderarik egingo balitzai? Ez dut uste zalantzarik dagokeenik: edozein iragan, salbuespenik gabe, leku medar itogarri bat irudituko litzaioke. Bestela esan, oraingo gizonak bere bizitza aurreko guztiak baino bizitzagoa dela sentitzen du edota, alderantziz esan, iragan osoa motz gertatu zaio oraingo gizadiari. Gure egungo bizitzaren intuizio honek argi eta garbi ezabatzen du edozein gainbehera susmo, oso zuhurra ez bada.

Gure bizitzak, gutxienez, bizitza guztiak baino tamaina handiagokoa dela uste du. Nola usteko du, bada, gainbehera doanik? Arras bestela gertatu da: Bizitzago sumatze hutsagatik, iraganekiko begirune eta arreta guztia galdu du. Horregatik, lehen aldiz egiten dugu topo klasizismo guztiak ahazten dituen garai batekin; iraganeko ezertan eredu edo araurik aitortzen ez duenarekin; eta hainbeste menderen buruan etenik gabeko bilakaeran iritsi bada ere, hasiera bat dirudi, egunsenti bat, hastapen bat, haurtzaro bat. Atzera begiratu eta Berpizkunde ospetsua oso garai hertsia iruditzen zaigu, probintziarra, keinu hutsalezkoa, -zergatik ez esan?- kursi.

Nik neuk, aspaldi, honela laburbiltzen nuen egoera: "Lehenaren eta orainaren arteko banaketa larria, gure garaiko gertakari orokorra da eta, banaketa horren barruan doa urte hauetan bizitzaren aztoramendu berezia sortzen duen susmo nahasixea. Bat-batean lur gainean oraingo gizonak bakarrik gelditu garela sentitzen dugu; hilak ez zirela txantxetan hil, zeharo baizik; orain ezin digutela lagundu. Gainerako izpiritu tradizionala lurrundu egin da. Ereduak, arauak, jarraibideak, ez digute balio. Iraganaren laguntza eragilerik gabe konpondu behar ditugu geure arazoak, gaurkotasun bete-betean -dela arte, zientzia edo politikan. Europarra bakarrik dago, hildako bizidunak gabe aldamenean; Pedro Schlemihl-ek bezala, itzala galdu du. Horixe gertatzen da eguerdia datorren bakoitzean"³².

Zein da, labur esan, gure garaia altuera?

Ez da denbora betetasuna, eta, hala ere, joandako denbora guztien gainetik eta ezagutzen ditugun betetasun guztien gainetik sumatzen du bere burua. Ez da erraza azaltzen gure garaiak bere buruaz duen iritzia: besteak baino gehiago dela uste du, eta aldi berean hasiera dela, agonia ez ote den seguru egon gabe. Zein adierazpen aukeratuko genuke? Hau, beharbada: gainerako denborak baino gehiago eta bere burua baino apalagoa. Oso indartsua eta batean bere halabeharrari buruz kolokan. Bere indarrez harro eta aldi berean beraien beldur.

IV

Bizitzaren hazkuntza

Masen agintea eta maila igotzea, berak iragartzen duen denboraren altuera, ez dira berez gertakari osoago eta zabalago baten ezaugarriak baizik. Gertakari hau ia barregarria eta sinesgaitza da bere nabaritasun soilean bertan. Mundua, bat-batean, hazi egin da, eta berarekin batean eta berarengan, bizitza. Gutxienez, hau mundialdu egin da zinez; alegia, bizitzaren edukina gizon ertainarengan egun lurbira osoa da; gizaki bakoitzak normalean mundu osoa bizi du. Duela urtebete pasatuxea, sevillek orduraz ordu jarraitzen zuten, beren herri egunkarietan, lurburuaren ondoan gizon batzuei gertatzen zitzaientza; alegia, Betikako landa hondo sutuan izotz puskek igarotzen ziren noraezean. Orain lur puska bakoitza ez dago toki geometriko batean itxita; aitzitik, bizitzako ondorio askotarako munduko gainerako lekuetan dihardu. Gauzak diharduten tokian daudela dioen arau fisikoaren arabera, lurberako edozein punturi ubikuitaterik eragikorra aitortu beharko diogu. Urrunaren hurbiltasun honek, ez dagoenaren egote honek, neurri izugarritz zabaltzen du bizitza bakoitzaren ikuspegia.

Eta mundua denboraz ere hazi da. Historiaurreak eta arkeologiak ametsezko luzera duten histori eremuak aurkitu dituzte. Oraindik orain izenez ere ezagutzen ez genituen zibilizazio osoak eta inperioak erantsi zaizkio gure oroimenari kontinente berriak bezala. Aldizkari irudidunek eta pantailek urrutiko mundu puska horiek herri xehearen begien aurrera ekarri dituzte.

Baina munduaren leku-denborazko zabaltze honek berez ez luke ezer adieraziko. Leku eta denbora fisikoak unibertsoaren ergelkeria hutsa dira. Horregatik, uste baino ulergarriagoa da gure garaikideek noizbehinka abiadura hutsari eskaintzen dioten gurpena. Lekuz eta denboraz egindako abiadura bere osagaiak bezain ergela da; baina

haiek desagertarazteko balio du. Ez dago ergelkeria bat menderatzerik, beste batez izan ezik. Ohore-arazoa zen gizonarentzat leku eta denbora kosmikoak garaitzea³³, berez inolako zentzurik ez dutenak, eta ez dago zertan harritu hutsik dagoen abiadura erabiltzeak sortzen digun haur plazera dela eta, haren bidez hiltzen baitugu espazioa eta denborari lepoko zaina ebakitzeko. Ezabatzean, berpiztu egiten ditugu, posible egiten dugu beren bizi probetxamendua, lehen baino toki gehiagotan izan gaitezke, joan-etorri gehiago egin, bizi denbora gutxiagoan denbora kosmiko gehiago kontsumitu.

Baina, azken finean, munduaren hazkuntza ez datza tamaina handiagoan, bere baitan gauza gehiago edukitzean baizik. Gauza bakoitza -hitzaren adierarik zabalenean- irrika, saia, egin, desegin, aurki, goza edo errefusa daitekeen zerbait da; denak, bizi ekintzak adierazten dituzten hitzak.

Hauta gure edozein jardun; erostea, adibidez. Eman dezagun bi gizonak, bat oraingoa eta bestea XVIII. mendekoa, dirutza berdina dutela, bi garaiotako diruaren balioaren arabera, eta aldera ditzagun bata eta besteak salgaietan dituzten aukerak. Aldea ikaragarria da. Oraingo erosleak dituen aukerak ia neurrigabeak dira. Ez da erraza asmatzen salgai ez dagoen gauzarik, eta alderantziz: ezinezkoa da gizon batek bere irudimenean eta gogoan salgai dagoen guztia edukitzea. Norbaitek esango dit, antzeko aberastasunaz, egungo gizonak ezingo duela gauza gehiago erosi XVIII. mendekoak baino. Uste okerra da. Gaur egun askoz ere gehiago eros daiteke, industriak gauza gehienak merkeago egin baititu. Baina azken finean ez litzaidake axola egia balitz ere; aitzitik, indartu egingo luke esan gogo dudana.

Erosteke ekintza zerbaiten alde erabakitzean bukatzen da; baina, beragatik, hori hautaketa bat da aurretik eta hautaketa merkatuak eskaintzen dituen aukerez ohartzean hasten da. Beraz, bizitza, bere "eroste" moduan, erosketa aukerak, halakotzat harturik, bizitzean datza. Gure bizitzaz mintzatzen denean honako hau ahazten da, guztiz funtsezkoa ene ustez: gure bizitza uneoro eta beste ezer baino lehenago ahal dugunaren kontzientzia da. Une bakoitzean posibilitate bakarra baizik izango ez bagenu, funsgabea litzateke horrela izendatzea. Eginbehar hutsa litzateke. Hor dago, ordea: gure bizitzako gertakari txit harrigarri honek irteera batzuk aurkitzen ditu bere aurrean, eta batzuk direlako dira aukerak, guk erabaki dezagun³⁴. Berdin da bizi garela esatea edota aukera jakin batzuen eremuan garela esatea. Aurkientza honi "ingurumariak" deritza. Edozein bizitza "ingurumaria" edo munduaren barruan izatea da³⁵. Hauxe baita "mundu" ideia jatorrizko esanahia. Mundu, gure bizi aukeren bilduma da. Ez da, beraz, gure bizitzaz kanpoko zerbait arrotza, beraren egiazko ingurunea baizik. Izan ahal gaitezkeena irudikatzen du; gure bizi ahalmena, beraz. Honek, gertatzeko, zehaztu beharra dauka, edota, bestela esan, izan gintezkeenaren zati txikitxo bat besterik ez gara izatera iristen. Horregatik iruditzen zaigu mundua horren gauza eskerga, eta gure burua, haren barruan, horren gauza txikia. Mundua edo gure bizitza posiblea, gehiago da beti gure patua edo benetako bizitza baino.

Orain, ordea, nola hazi den gizonaren bizitza ahalmenaren neurrian azaltzea dut axola bakarra. Aukeren eremua inoiz baino askoz ere handiagoa da. Maila intelektualean bide gehiago aurkitzen du ideia gintza posiblean, arazo gehiago, datu gehiago, zientzia gehiago, ikusmolde gehiago. Ogibideak edo ikasbideak antzinako lehen bizimoduetan ia esku bateko hatzez kontatu daitezke -artzain, ehiztari, gudari, azti-, gaur egun eginbide posibleen kopurua ezin handiagoa da. Antzera gertatzen da atseginetan ere, nahiz eta -eta gertakaria uste baino larriagoa da- berauen zerrenda bizitzako beste alderdietan bezain oparoa ez den. Hala ere, hirietan bizi den bizimodu ertaineko gizonarentzat -eta hiriak egungo bizitzaren adierazpena dira-, atsegin hartzeko aukerak, mende hasieratik, era ikaragarrian ugaltu dira.

Baina bizi ahalmenaren hazkuntza ez da orain arte aipatuetara mugatzen. Zentzu hurbilago eta misteriotsuagoan ere hazi da. Gauza iraunkorra eta jakina da eginahal fisiko eta kiroletakoetan egungo performance-ek alde larriz gainditzen dituztela aurreko denboretan ezagutu diren guztiak. Ez da nahikoa horietako bakoitza mirestea eta lortu duten record-a aitortzea; horren maiztasunak gogoan uzten digun sentipena sumatu behar da, giza gorputzak gure garaian inoiz baino gaitasun handiagoak dituela sinestarazten digularik. Antzeko zerbait gertatzen baita zientziarekin ere. Hamar urtetan, besterik ez, era sinestezinean zabaldu du bere ikuspen kosmikoa. Einsteinen fisika hain eremu zabaletan mugitzen da, non berorietan Newtonen fisika zaharrak ganbara soil bat besterik ez duen betetzen³⁶. Eta zabaleko hazkunde hau zehaztasun zientifikoaren hazkunde intentsiboari zor zaio. Einsteinen fisika, lehen arbuizatzeko eta hutsalak zirelakoan aintzat hartzen ez ziren diferentzia nimiñoak gogoan harturik dago egina. Atomoa, azken finean, munduaren muga atzo, planeta-sistema oso bihurtzeraino hanpatu da gaur. Eta honetan guztian ez naiz kulturaren betetasunaz adieraz lezakeenaz ari -hori ez zait orain axola-, honek guztiak suposatzen duen ahalmen subjektiboen hazkuntzaz baizik. Ez naiz Einsteinen fisika Newtonena baino zehatzagoa denik azpimarratzen ari, baizik eta Einstein gizonak zehaztasun handiagoa eta izpiritualtasun³⁷ handiagoa izan ditzakeela Newton gizonak baino; boxeoko txapeldunak egun inoiz baino ukabildura larriagoak ematen dituen bezalaxe.

Zinemak eta irudigintzak gizonaren begien aurrean munduko lekuri urrundenak ipintzen dituzten bezala, egunkariak eta solasaldiak performance intelektual hauen berria helarazten diote, aparailu tekniko asmatu berriak erakusleihatik egiaztatuz. Honek guztiak ahalmen ikaragarri baten ustea eragiten dio gogoan.

Esanak esan, ez dut adierazi nahi giza bizitza egun beste inoiz baino hobea denik. Ez naiz egungo bizitzaren kalitateaz mintzatu, bere hazkunde hutsaz baizik, bere aurrerapen kuantitatiboaz edo potentzialaz. Horren bidez egungo gizonaren kontzientzia zorrozki deskribatzen dudala uste dut, bere bizi-trenpua; trenpu hau, bere burua inoiz baino ahaltsuago eta iragan guztia kaxkartasunak joa sumatzean datza.

Beharrezkoa zen deskribapen hau gainbehera-usteak alde batera uzteko, eta zehazkiago, mendebaleko gainbeherari buruzkoak, azken hamarkadako airean hegaka ibilitakoak. Gogora ezazue erabiltzen nuen argudioa, ximple bezain argia ene ustez. Ez da zilegi gainbeheraz mintzatea zer datorren gainbehera zehaztu gabe. Kulturaz ari ote da hitz ezezkor hori? Ba ote dago gainbeherarik kultura europarrean? Ala, hobeto esan, Europako erakunde nazionalen gainbehera soilak besterik gabe? Eman dezagun baietz. Nahikoa ote litzateke hori mendebaleko gainbeheraz hitz egiteko? Inola ere ez. Gainbehera horiek zatikako murrizketak baitira, historiaren bigarren mailari dagozkionak -kultura eta nazioak. Benetako gainbehera bakarra dago: urrituz doan bizitasunarena, eta hau, sumatzen denean bakarrik gertatzen da. Horregatik gelditu naiz ahaztuxea egon ohi den fenomeno baten gogoetan: garai orok bere bizi altuera izatearen kontzientzia edo susmoa.

Honek, gizaldi batzuek beste batzuen parean sumatu izan duten "betetasunaz" mintzarazi gaitu, beste gizaldiok, berriz, beren burua goragotik eroria, antzinako urreraro distiratsuetatik eroria ikusten zutelarik. Eta gertakari nabarmen bat aipatuz bukatzen nuen: gure garaia, beste edozein baino gehiago izatearen harrotasun bitxiagatik bereizten dela; are gehiago: iraganak oro ahazteagatik, eta, garai klasikoak eta arauemaileak aintzat hartu beharrean, aurreko guztiak baino bizi berri hobea eta haietara makurtezin dela uste izateagatik.

Duda egiten dut ohar hau ongi finkatu gabe gure garaia ulertzerik ba ote dagoen. Horixe baita, hain zuzen ere, bere arazoa. Gainbehera etorri dela sumatuko balu, bera baino hobea ikusiko litzuke beste garai batzuk, eta gauza bera litzateke berauek aintzat

hartzea eta mirestea eta moldatu zituzten printzipioak goestea. Gure garaiak helburu argi eta irmoak lituzke, burutzeko gai ez balitz ere. Baina egia arras alderantziz da: bizi garen garaiak, gauzak egiteko izugarri gai dela uste du, ez daki, ordea, zer egin. Gauza guztiak menderatzen ditu, baina ez da bere buruaren jabe. Galdutan dabil bere ugaritasunean. Inoiz baino bitarteko gehiago, jakitate ugariago, teknika handiagoa izanagatik ere, sekulan izan den dohakabeena bezala doa egungo mundua: erabat noraezean.

Hortik dator egungo arimaren baitan kokatzen den nagusitasun eta segurtasun-ezazko bitasun harrigarri hori. Luis XV.a haur zelarik Erregenteaz esaten zena gertatzen zaio: ahalmen guztiak omen zeuzkan berauek erabiltzeko ahalmena izan ezik. Gauza asko ezinezkoak iruditzen zitzaizkion jada XIX. mendeari, bere sineste aurrerakoian irmo. Egun, dena posible iruditzen zaigunez, okerrean ere badela posible susmatzen dugu: atzerapena, basakeria, gainbehera³⁸. Berez hau ez litzateke agerpide txarra izango: bizitze orori funtsez dagokion segurtasun-ezara itzultzen garela adieraziko luke, minutu bakoitzean gordetzen den ezinegon mingarri eta aldi berean atseginera, baldin eta minutu hori bere guneraino, bere bihotzondo taupakari eta odoltsuraino bizitzen baldin badakigu. Arrunki ihes egiten diogu une egiati bakoitza bihotz xume iragankor bat bihurtzen duen taupada izugarri hori eskuztatzeari; segurtasuna lortzen eta gure halabeharraren erabateko dramatismorako sentikortasuna galtzen saiatzen gara, bere baitan ohitura, usarioa, topikoa -kloroformo guztiak- isuriz. Onuragarria da, beraz, lehen aldiz ia hiru menderen buruan, bihar zer gertatuko den ez jakitearen kontzientziak aurkitzea.

Existentziaren aurrean jarrera serioz agertu eta horren erantzule oso egiten den edonork nola-halako segurtasunik eza sumatuko du, erne egonaraziko duena. Erromako ordenantzak legioko zaintzaileari inposatzen zion keinua hatz erakuslea ezpainetan edukitzea izaten zen, logura kendu eta ernai irauteko. Ez dago gaizki jarrera hori, gaueko isiltasunari isiltasun handiagoa agintzen diola baitirudi, etorkizunaren ernamun ezkutua entzun ahal izateko. Betetasun garaietako segurtasuna -azken ehunkadan adibidez- etorkizunaz axolagabetzera daraman begi-lilurapena da, beraren zuzendaritza unibertsoaren mekanikaren esku utzirik. Bai liberalismo aurrerakoiak, bai Marxen sozialismoak, etorkizun hoberentzat irrikatu dutena, ezinbestean gertatuko dela uste dute, astronomiakoa bezalako halabeharraz. Beren kontzientziaren aurrean ideia horrek babesturik, historiaren lema utzi zuten, ernai egoteari utzi zioten, zailutasuna eta eraginkortasuna galdu zituzten. Horrela, bizitzak ihes egin zien eskuartetik, erabat menderagaitz bilakatu zen, eta gaur askaturik dabil, noraezean. Futurismo eskuzabalaren moztoropean, aurrerakoa ez da etorkizunaz arduratzen; ez duela funtsezko ustekaberik ez sekreturik, ez gora-beherarik ez berrikuntzarik sinetsita; mundua hemendik aurrera zuzen zuzen, oker eta atzerabiderik gabe, joango delakoan, etorkizunarekiko ardura galtzen du eta behin betiko orainaldian kokatzen da. Ez da harritzekoa mundua gaur egun helburu, aurreasmo eta idealik gabe agertzea. Inor ez da halakorik aurreikustez arduratu. Hainbestekoa izan da gutxiengo zuzendarien ihesa, non masen erreboltaren beste aldean aurkitzen baita beti.

Baina bada garaia berriro ere honetaz mintza gaitezen. Masen garaipenak duen alde onuragarriaz jardun ondoan, beste hegitik, arriskutsuagotik, lerratzea komeni zaigu.

V

Estatistika-datu bat

Entsegu honek gure garaia, gure egungo bizitzaren, diagnostikoa barrundatu nahi luke. Lehen zatia aipamena honela labur daiteke: gure bizitza, aukera-bilduma den aldetik, ikaragarria da, oparoa, historian zehar ezagutu diren gainerako guztiak baino hobe. Baina bere tamaina handiagoa delako hain zuzen ere, tradizioak utzitako bide,

printzipio, arau, eta xede guztiak gainezkatu ditu. Bizitza guztiak baino bizitzagoa da, eta beragatik korapilatsuagoa. Ezin daiteke iraganean bideratu³⁹ Bere halabehar propioa ikertu behar du.

Orain, ordea, diagnostikoa osatu behar da. Bizitza, batez ere izan gaitezkeena delarik, bizitza posiblea, horregatik beragatik, egiazki izango garena aukeren artean erabakitzea ere bada. Ingurumaria eta erabakia dira bizitza osatzen duten funtsezko elementu biak. Ingurumaria -aukerak- bizitzan eman eta inposatu zaiguna da. Horrek mundua deritzoguna osatzen du. Bizitzak ez du bere mundua hautatzen; bizitzea, noski, mundu jakin eta trukaezin batean aurkitzea da: oraingo honetan. Gure mundua gure bizitza osatzen duen patu-neurria da. Baina bizi-halabehar horrek ez du mekanikoaren antzik. Ez gara existentzian fusil bala baten pare jaurtikiak, ibilbidea aldeztatik zeharo erabakia dugularik. Mundu honetan -mundua beti hau da, oraingoa- erortzean erortzen gareneko halabeharra erabat alderantzizkoa da. Ibilbide bakar bat inposatu ordez, batzuk inposatzen dizkigu eta, ondorioz, ... aukeratzera behartzen gaitu. Bai harrigarria gure bizitzaren izaera! Bizitzea halabeharrez askatasuna erabiltzera behartua sentitzea da, mundu honetan zer izango garen erabakitzea behartua. Gure erabaki jardunari ez zaio atseden unerik uzten. Etsipenaren etsipenez geure burua datorrenaren menpean uzten dugunean ere, ez erabakitzea erabaki dugu.

Okerra da, beraz, bizitzan "ingurumariak erabakitzen dutela" esatea. Alderantziz: ingurumariak dilema dira, beti berria, bere aurrean erabakia hartu beharra daukagularik. Hautatzen duena, ordea, gure oldea da.

Honek gizarte bizitzarako ere balio du. Hor ere, lehenik, aukera andana dago, eta gero, gizartearen bizikera hautatzen eta erabakitzen duen deliberamendua. Delibero hau gizartearen izaeratik dator, edota, orobat delarik, gizartean nagusi den gizon-motarengandik. Gure garaian masa-gizona da nagusi; berak erabakitzen du. Ez esan hauxe gertatzen zela demokraziaren garaira orduko, sufragio orokorraren garaia orduko. Sufragio orokorrean ez dute masek erabakitzen; masen egitekoa gutxiengo baten edo bestearen erabakiari atxikitzea da. Gutxiengo hauek beren "programak" -hitz ezin egokiagoa- aurkezten zituzten. Programak, noski, gizarte bizitzarako programak ziren. Berorietan erabaki asmo bat onartzeko dei egiten zitzaion masari.

Gaur oso bestela gertatzen da. Masen garaipena gehien nagusitu den herrialdeetako -Mediterraneo inguruko- bizitza publikoari begiratuz gero politikan egunean bizi direla ikusteak harritzen du. Gertakaria ezin harrigarriagoa da. Botere publikoa masa-ordezkarik baten eskuetan dago. Hain boteretsu dira hauek, non edonolako oposizioa deuseztatu baitute. Hain era ukaezin eta nabarmenean dira Botere publikoaren jabe, non zaila litzatekeen honen pareko gobernu-egoera indartsuak historian aurkitzea. Eta, hala ere, Botere publikoa, Gobernua, egunean bizi da; ez da aurkezten etorkizun garbi gisa, ez du etorkizunaren iragarpen argirik adierazten, ez da agertzen itxurazko garapena edo bilakaera lukeen zerbaiten hasiera gisa. Bestela esan, bizitza programarik gabe, asmorik gabe, bizi da. Ez daki nora doan, egia esan, inora ez baitoa, ez du bide erabakirik, helburu jakinik. Botere publiko horrek bere burua zuritu nahi duenean, ez du etorkizuna ezertarako aipatzen, alderantziz baizik, orainaldian babestu eta honela dio egia osoz: "Gobernu-mota berezia naiz, ingurumariak inposaturikoa." Hots, oraingo premiak, ez etorkizuneko burubideek. Horregatik, bere ekintza orduoroko istilua saihestera mugatzen da; ez konpontzera, lehenbailehen ihes egitera baizik, edozein bitarteko erabiliz, horrela jokotuta hurrengo ordurako istilu handiagoak pilatuko baditu ere. Horrelakoa izan da beti Botere publikoa masek zuzenean erabili dutenean: guztiz ahaltsua eta denbora gutxikoa. Masa-gizona, egitasmo eta nora gabeko bizitza duen gizona da. Horrexegatik ez du ezer eraikitzen, nahiz eta bere aukerak, bere ahalmenak, izugarriak diren.

Eta gizon-mota honek erabakitzen du gure garaian. Komeni da, beraz, honen izaera aztertzea.

Azterketa honetarako gakoa, saiakera honen hasierara itzuliz, galdera honetan dugu: Nondik etorri dira historiaren agerlekua orain mukuru betetzen duten jende samalda hauek?

Duela urte batzuk Werner Sombart ekonomilari handiak datu xume bat nabarmendu zuen; harrigarria da egungo arazoez arduratzen den edozein burutan ez egotea. Datu soil hori aski da egungo Europaz dugun ikusmoldea argitzeko, eta nahikoa ez bada, argibide zuzenean jartzen du. Hauxe dugu datua: VI. mendean Europaren historia hasten denetik 1800 urtera arte -hamabi menderen luzera osoan, beraz- Europak ez du lortzen 180 milioi laguneko kopurura iristea baizik. Aldiz, 1880tik 1914era -mende pasatuxean, beraz- Europako biztanleria 180tik 460 milioitara igotzen da! Susmoa dut kopuru hauen aldeak ez duela azken ehunkadaren dohain ugalkorrez zalantza izpirik utziko. Hiru belaunalditan sortu duen giza oreka, uholde gisa jaurtikiak, gainezka bete du historiaren eremua. Nahikoa litzateke datu hau, berriz diot, masen garaipena eta beronek islatzen eta iragartzen duen guztia ulertzeko. Bestalde, lehen aipatua dudan bizi-hazkundeari gehitu behar zaio, batugairik zehatzena bezala.

Baina, aldi berean, datu horrek, Amerikako Estatu Batuak bezalako herrien hazkundera azpimarratzen duguneko harridura funts gabea dela erakusten digu. Bere hazkunderak harritzen gaitu, mende batean ehun milioi gizakitara iritsi izanak, baina benetan harrigarria Europako ugalketa da. Hona hemen beste arrazoi bat Europaren amerikartzea suposatzen duen lilurapena zuzentzeko. Amerika bereizteko gehien balio lezakeen ezaugarriak nabarmenena ere -populazio-hazkunderaren azkartasuna- ez da horren berezgarria. Joan den mendean Europa Amerika baino askoz ere gehiago hazi da. Amerika Europako soberakinez egina da.

Werner Sombartek kalkulatuak datua behar bezain ezaguna ez bada ere, ezagunegia zen Europako populazioaren gehikuntza nahasia behin eta berriz horretaz jarduteko. Ez da, beraz, emandako zenbakietan, populazioaren hazkundera axola zaidana, kontrasteak esker agertzen duten hazkunderaren lasterka bizia baizik. Hauxe da orain axola zaiguna. Izan ere lasterka bizi horrek adierazten duenez gizaki-pila gaitzak jartiki dira historiara, halako erritmo presatuaz non ez baitzen erraza ohiko kulturaz asetzea.

Eta, egia esan, egungo gizon europar ertainak joan den mendekoak baino arima osasungarriagoa eta indartsuagoa dauka, askoz ere ximpleagoa ordea. Horregatik ematen du, zenbaitetan, zibilizazio zahar-zahar baten erdian ustekabeen sortutako gizaki primitibo baten itxura. Joan den mendea hainbeste harrotzen zuten eskoletan, ezin izan da besterik egin masei bizitza modernoko teknikak irakatsi baizik, ez da, ordea, masak hezteak lortu. Indartsuki bizitzeko tresnak eman zaizkie, ez, ordea, historiako zeregin handiekiko sentikortasunik; baliabide modernoak harrokeria eta boterea txertatu zaizkie arrapataka, baina ez izpirituak. Horregatik ez dute ezer nahi izpirituarekin, eta belaunaldi berriak munduaren gidaritza hartzeko prestatzen dira, mundua antzinako aztarnarik gabeko paradisua balitz bezala, ohiko arazo konplexurik gabea.

Joan den gizaldiari dagozkio, beraz, historiaren agerlekuan jendetza larriak askatu izanaren loria eta erantzukizuna. Horregatik, gertaera honek, ehunkada hori orekaz epaitzeko ikuspuntutik egokiena eskaintzen du. Zerbait berezia, berdingabea, gertatuko zen bertan giro horretan halako giza fruitu uzta gerta zedin. Arinkeria eta barregarrikeria da iraganeko beste edozein garairi arnasa eman zioten printzipioak hobestea, aldeak aurretik gertakari eder hau bere gain hartu eta bereganatzen saiatu dela erakutsi gabe. Historia osoa laborategi erraldoi bat bailitzan agertzen da, bertan "gizaki" landarea faboratuko lukeen bizitza publikoko formula lortzeko, pentsa ahal daitezkeen esperimentu guztiak egin direlarik. Eta edozein sofistikazio-mota gaindituta

esperientziaz ikusten dugu, giza hazia, demokrazia liberala eta teknika, bi printzipio hauen tratamendupean jarritz gero, mende bakar batean, espezie europarra hirukoiztu egiten dela.

Halako gertakari oparoak, ero izan nahiago ez badugu, honako ondorio hauek ateratzera behartzen gaitu: lehena, sorketa teknikoan oinarritutako demokrazia liberala egundaino ezagututako bizitza publiko mota gorena da; bigarren, bizimodu hori ez da amets daitekeen onena, baina amets dezakegun onenak printzipio haien muina gorde behako du; hirugarrena, XIX. mendekoak baino beheragoko bizimoldeetara itzultze oro nork bere buruaz beste egitea da.

Gertakariaren beraren argitasunak eskatzen duen argitasun guztiaz hau aitorturik, beharrezkoa da XIX. mendearen kontra jotzea. Haren baitan zerbait berezi eta berdingabea bazegoela gauza nabaria delarik, ezagun baitu ere funtsezko okerrik ere bazuela, berezko gabezia batzuk, sortu duen giza kastak -masa-gizon errebolatuak- bizitza eman zioten printzipioak berak ere galtzori larrian jartzen ditu eta. Gizaki-mota horrek Europaren jabe gisa irauten badu eta azken finean bera baldin bada erabakitzen duena, aski izango dira hogeita hamar urte gure kontinentea basakeriara itzul dadin. Teknika juridikoak eta materialak, hainbat aldiz fabrikakuntza sekretuak galdu diren bezain erraz, suntsituko dira⁴⁰. Bizitza osoa murriztuko da. Oraingo aukera ugaritasuna egiazko urritasun bilakatuko da, eskasia, ezin larria; zinetako gainbehera. Masen errebolta bat eta Rathenau-k "barbaroen inbasio bertikala" zeritzon hura gauza berbera baitira.

Axola handikoa da, beraz, masa-gizon hau sakon ezagutzea, ahalmen hutsa baita hoberenerako eta txarrenerako.

VI

Masa-gizonaren

disekzioa hasten da

Nolakoa da egun bizitza publikoa -bizitza politikoa eta politikoa ez dena-menderatzen duen masa-gizon hau? Zergatik da den bezalakoa, alegia, nola sortu da?

Galdera biak batean erantzutea komeni da, elkar argitzen baitute. Europako bizitzaren buruan orain jarri nahi duen gizonak alde handia du XIX. mendea zuzendu zuenarekin, hala ere XIX. mendean sortu eta prestatua da. 1820, 1850, 1880ko edozein adimen zorrotzek arrazoibide a priori huts baten bidez usna ahal zezakeen egungo egoera historikoaren larritasuna. Eta, egia esan, ez da gauza berririk gertatzen duela ehun urte iragarri ez denik. "Aurrera doaz masak!" zioen, apokaliptiko, Hegelek. "Botere izpiritual berririk gabe, gure garaiak, iraultzailea izaki, hondamendia ekarriko du", iragartzen zuen Auguste Comtek. "Nihilismoaren itsasgora igotzen dakusat!" oihukatzen zuen Engadinako haitz batetik Nietzsche mostatxodunak. Okerra da historia ez dela igergarria esatea. Hamaika aldiz iragarri izan dute. Etorkizunak albo bat igermenari eskainiko ez balio, ezin liteke gero ere ulertu, konplututa iragan bihurtzen denean. Historigilea igerle bat alderantziz dela dioen ideiak historiaren filosofia osoa biltzen du. Egia da etorkizunaren egitura orokorra baizik ez dagoela aurreraterik; horrexegatik da iraganetik edo orainalditik egiazki ulertzen dugun gauza bakarra. Horregatik, zure garaia ongi ikusi nahi baduzu, urrunetik begira iezaiozu. Zein urruntasunez? Oso erraza: Kleopatraren sudurra ikustea galaraziko dizun urruntasun doian.

Nolako itxura du XIX. mendea gero eta ugariago sortuz doan samalda gizon horren bizitzak? Gutxienez, erabateko erraztasun materialeko itxura. Inoiz ez du gizon ertainak bere arazo ekonomikoa horren nasai konpontzerik izan. Dirutza handiak murriztu ahala eta industri langilearen bizimodua gogortu ahala, edozein gizarte klasetako gizon ertainak gero eta argiago ikusten zuen bere etorkizun ekonomikoa. Egunero gehitzen

zuen bitxi berriren bat bere bizi-standard-aren bilduman. Egunetik egunera seguruagoa zen bere egoera eta askatuago besteren erabakietatik. Aurreko denboretan patuaren oparitzat hartuko zatekeena, halabeharrekiko esker on apala eragingo zukeena, eskertu gabe exijitu egiten den eskubide bilakatu zen. 1900etik langilea ere hasten da bere bizimodua zabaltzen eta segurtatzen. Hala ere, borroka egin behar du hori lortzeko. Ez du, gizon ertainak bezala, gizarteak eta Estatuak, antolaketan eredu, aurrez aurre lehiatsu jarri dioten erosotasunarekin topo egiten.

Erraztasun eta segurtasun ekonomikoak fisikoak gehitu behar zaizkio: comfort-a eta ordena publikoa. Bizimodua bide erosoetatik doa, eta ez dago inolako indarkeriarik edo arriskurik gertatzeko itxurarik.

Halako egoera ireki eta librean arima ertain horien hondarrik hondarrean bizi susmo bat eragin behar zuen ezin bestean, gure herri zaharraren esaera xotil eta zorrotzaz adieraz zitekeena: ancha es Castilla. Hau da, oinarritzko maila erabakigarri horietan guztietan bizitza debekurik gabe agertu zitzaion gizon berriari. Gertakari hau eta beronen garrantzia ulertu, bizi abantaila hori iraganeko gizaki arruntei erabat falta zitzaizela oroitzeko ulertzen ditugu. Beraientzat, aitzitik, bizitza halabehar estua izan zen -alde ekonomikoan eta fisikoan. Bizitzea, a nativitate ezinbestean jasan beharreko eragozpen-pilatatzat hartu zuten, beste irtenbiderik gabe beraietara egokitzea baizik, uzten zuten mehargunean kokatzea baizik.

Baina egoeren kontrakotasuna are argiagoa da alde materialetik zibil eta moralera igarotzen bagara. Gizon ertainak, XIX. mendeko bigarren partetik aurrera, ez du bere aurrean inolako hesi sozialik aurkitzen. Bestela esan, bizitza publikoko egituretan ere ez du jaiotzean inolako traba eta debekurik aurkitzen. Ezerk ez du bere bizitza mugatzera behartzen. Hemen ere "zabala da Gaztela". Ez dago ez "estaturik" ez "kastarik". Ez dago alde zibiletik pribilegiaturik. Gizon ertainak gizon guztiak lege berdinak direla ikasten du.

Sekulan historia guztian zehar ez zen gizona egon, ezta hurrik eman ere, baldintza horiek eragiten duten bezalako bizi giro edo aurkientzan. Beraz, giza halabeharrean gertatutako funtsezko aldaketa bat da, XIX. mendeak ezarrita. Jokaleku berri bat sortzen da giza bizitzarentzat; berria alde fisikoan eta sozialean. Hiru printzipiok ekarri dute mundu berri hori: demokrazia liberalak, esperimentazio zientifikoak eta industriagintzak. Azken biak batean bil daitezke: teknika. Printzipio horietan bat ere ez zuen asmatu XIX. mendeak; aurreko bi ehunkadetatik datoz. XIX. mendearen ohorea ez datza horiek asmatzean, ezartzean baizik. Edonork daki hori. Baina ez da nahikoa maila abstraktuan horrela aitortzea, ezinbesteko ondorioez ere arduratu beharra dago.

XIX. mendea funtsez iraultzailea izan zen. Ez barrikadetako espektakuluagatik, halakoak, besterik gabe, ez baitira iraultza, gizon ertaina -gizarte masa handia- inoiz ez bezalako bizi-baldintzetan, alderantzizkoetan, jarri zuelako baizik. Atzekoz aurrera jarri zuen bizitza publikoa. Iraultza ez da dagoen ordenaren aurka altxatzea, ohikoa irabiatzen duen ordena berri bat ezartzea baizik. Horregatik, XIX. mendeak erne duen gizona, bizitza publikorako, gainerako gizon guztiengandik aparte dagoela esatea ez da inolako gehiegikeria. XVIII. mendekoa ez da, noski, XVII.enean ohikoa dena bezalakoa, ezta hau ere XVI.ari bere eitea eman ziona bezalakoa, baina guztiok senideak dira, antzekoak eta baita berdinak ere funtsean gizon berri honekin alderatuz gero. Garai guztietako "vulgoarentzat" "bizitza" mugatasuna adierazten zuen, obligazioa, menpetasuna; hitz batean, presioa. Opresioa esan daiteke nahi bada, baina juridikoa eta soziala ez ezik, kosmikoa ere ahaztu gabe. Azken hau ez da inoiz faltatu duela ehun urte arte, orduan hasten baita teknika zientifikoaren -fisikoa eta administratiboa- zabalkunde neurrigabea. Mundua lehen, baita aberats eta boteretsuarentzat ere, pobrezia, zailtasuna eta arrisku-eremua zen⁴¹.

Jaiotzetik inguratzen duen munduak ez dio gizon berriari ezertan mugarik jarrarazten, ez dio inolako debekurik ez eragozpenik ipintzen, alderantziz baizik, bere gurariak zirikatzen ditu, eta azken gabe hazi daitezke. XIX. mendeko eta XX.aren hasierako mundu horrek -eta hau axola handikoa da-, zinez dauzkan osotasun eta bikaintasun guztiak edukitzeaz gain, erabateko segurtasuna eskaintzen die bizilagunei bihar are aberatsagoa, osoagoa, zabalagoa, izango delakoan, berezko hazkunde agortezina balu bezala. Oraindik ere, sineste itsu horretan artezi txikiren bat hasiberri duten zeinu batzuk gora-behera, oraindik ere oso gizon gutxi dute zalantzan automobilak bost urte barru egungoak baino erosoak eta merkeagoak izango direla. Hurrengo eguzki sorreran adina sinesten dute honetan. Irudia formala da. Izan ere, gizon arruntak, teknikaz eta gizarte gisa hain osoa den mundu horrekin topo egitean, Naturak sortua dela uste du, eta ez dauzka inoiz gogoan horren sorrerak suposatzen dituen gizabanako bikainen eginahal argiak. Are gutxiago onartuko luke erraztasun guztiok gizonen bertute zail batzuetan bermatzen jarraitzen dutela, eta berauen hutseginik txikienak berehalaxe birrinduko lukeela halako eraikuntza zoragarria.

Honek egungo masa-gizonaren diagrama psikologikoan lehen bi ezaugarriak aipatzera garamatza: bere bizi-gurarien zabalkunde librea, bere pertsonarena, beraz, eta bere bizimoduaren erraztasuna posible egin duen edozerekiko esker gaizto ikaragarria. Ezaugarri batak eta besteak haur mainatsuaren psikologia ezaguna osatzen dute. Eta, egia esan, oraingo masen arima ikuskatzeko koadrikula gisa hau erabiliko lukeenak ez luke huts egingo. Oso iragan luze eta asmotsu baten oinordeko -asmotsu etorrian eta eginahaletan- herri xehe berria inguruko munduak mainaz eta balakuz erabili du. Mainak egitea gurariak ez mugatzea da, norbaiti dena zilegi zaiola eta ez dagoela ezertara behartua sinestaraztea. Jokabide honen arabera ari den gizakiak ez du bere muga propioen esperientziarik. Behin eta berriz inguruko edozein oldar, besteekiko edozein inkontru, bidetik kentzen zaiolarik, bera bakarrik existitzen dela uste du azkenean, eta besteak aintzat ez hartzen ohitzen da, batez ere bere gainean dagokeen inor aintzat ez hartzen. Besteren nagusitasunaren sentipen hau eman, bera baino indartsuagoa izanik, gurari bati uko egitera, bere burua mugatzera, eustera, behartuko zukeen norbaitek bakarrik eman ziezaiokeen. Horrela ikasiko zukeen funtsezko arau hau: "Hor bukatzen dut nik eta hor hasten da ni baino ahaltsuago den beste bat. Munduan, dirudienez, bi daude: ni eta ni baino gorago den norbait." Beste garai batzuetako gizon ertainari egunoro irakasten zion jakite hau bere munduak; mundu trakeski antolatua zenez, maiz gertatzen baitziren hondamendiak eta bertan ez zegoen gauza segururik, ugaririk eta egonkorrik. Baina masa berriek aukeraz beteriko paisaiarekin egiten dute topo eta gainera segurua, eta dena prest, beren mendean, beraiek aurretik eginahalik egin gabe, geuk bizkarrean igo gabe eguzkia goian aurkitzen dugun bezalaxe. Ezein gizakik ez dio besteri eskertzen arnasketan hartzen duen haizea, inork ez baitu haizea egin: "hor dago" direlakoan multzokoa baita, "naturala dela" diogunen multzokoa, falta ez delako. Masa mainatsu hauek, behar bezain adimentsuak ez direnez, antolaketa material eta sozial hori, haizea bezala beren esku dutena, jatorri berekoa dela uste dute, hutsik ez baitu egiten, itxuraz, eta ia naturaren antolaketa bezain egokia da.

Hona, bada, ene tesia: bizitzako alderdi batzuen antolaketan XIX. mendeak erabili duen bikaintasunak, masek antolamendutzat gabe naturatzat hartzea eragin du. Horrela argitzen eta azaltzen da masa hauek erakusten duten aldarte funsgabea: Ez ditu beren erosotasunak baizik kezkatzen eta aldi berean ez dute erosotasun horren arrazoiekiko elkertasunik. Zibilizazioaren abantailetan asmakari eta eraikuntza harrigarriak, ahalegin eta ardura handiz baizik ezin iraun dezakeenik, ikusten ez dutenez gero, uste dute beren zeregina betiro eskatzea dela, besterik gabe, jatorrizko eskubide bat balitz bezala.

Eskasiak sortarazten dituen matxinadetan herri masak ogi bila ibiltzen dira, eta horretarako okindegiak puskatzen dituzte. Honek, masek, neurri handiago eta somagaitzagoez, elikatzen dituen zibilizazioaren aurrean duten jokabidearen sinbolo antzera balio du⁴².

VII

Bizitza noblea eta bizitza arrunta,
edo eginahala eta inertzia

Gutxienez, gure munduak izatera inbitatzen gaituen hura gara, eta gure arimaren funtsezko aldeak, ingurunearen ertzak, molde batek bezala, inprimatuak ditugu. Jakina: bizitzea ez da munduarekin aritzea baizik. Berak opa digun taiu orokorra gure bizitzaren taiu orokorra izango da. Horregatik saiatzen naiz behin eta berriz egungo masak jaio diren munduak arras aurpegi berria erakusten zuela historian adierazten. Iragan bizimoduan, bizitzea, gizon ertainarentzat, inguruan zailtasunak, arriskuak, eskasia, etorkizun mugatua eta menpetasuna aurkitzea bazen ere, mundu berria neurri gabeko aukera-eremu gisa agertzen da, segurua, inorekiko menpetasunik gabea. Lehen sentipen iraunkor honen inguruan eratuko da arima garaikide bakoitza, kontrakoaren inguruan antzinakoak eratu ziren bezalaxe. Funtsezko sentipen hau barne ahots bihurtzen da, pertsonaren hondar-hondarrean hitz antzekoak xuxurlatzen dituen eta etengabe iradokitzen bizitzaren definizio bat, aldi berean, agindua dena. Ohiko sentipenak honela zioen: "Bizitzea, mugatua sentitzea da eta, horrexegatik, mugatzen gaituenarekin kontatu behar izatea", ahots berri-berriak honela oihukatzen du: "bizitzea inolako mugatasunik ez aurkitzea da; beraz, nork bere burua bere kabuz lasai uztea. Zinez, deus ez da ezinezkoa, deus ez da arriskutsua eta, berez, inor ez dago inoren gainetik".

Funtsezko esperientzia honek erabat aldatzen du masa-gizonaren ohiko egitura, betidanikoa. Honek bere burua erroitik mugatasun materialei eta gizarteko botere altuagoei zegokiela sumatu baitzuen beti. Hauxe zen, bere ustez, bizitza. Bere egoera hobetzea lortzen baldin bazuen, gizartean gora egiten baldin bazuen, deituraz aldeko zuen fortunaren halabeharrari zor zitzaiola uste zuen. Eta honi ez zenean, eginahal eskerga bati, zenbat kostata ederki zekielarik. Batean zein bestean, bizitzaren eta munduaren ohiko jitearen salbuespena zen; eta salbuespena zenez, arrazoi berezi-bereziren bati zor zitzaiona.

Baina masa berriak bizi-aukera osoa jatorrizko egoera iraunkor bezala aurkitzen du, zergatiko berezirik gabe. Ez dio kanpoko ezerk bere mugarik ikustera eragiten eta, beraz, noiznahi beste maila batzuk aintzat hartzera, goragoko mailak batez ere. Nekazari txinarrek uste zuten, oraintsu arte, beren ongibizia enperadoreak bere oldez zeuzkan bertute pribatuen araberakoa zela. Beraz, bere bizitza, sostengu zuen goi-maila honi begira zegoen beti. Baina aztergai dugun gizona bere baitarik at dagoen inolako mailara ez jotzen dago ohitua. Pozik dago den bezalakoa delarik. Xaloki, harrotu beharrik gabe, horrela behar duelakoan, bere baitan aurkitzen duen oro baiestera eta onestera joko du: iritziak, gurariak, irrikak edo zaletasunak. Zergatik ez, ikusi dugunez, bera bigarren mailako gizakia dela, arras mugatua, bere nortasunaren oinarri duen bizi handitasun eta poz hori ematen dion antolaketa bera sortzeko, eta gordetzeko ere gai ez dela, ez ezerk ez inork erakusten ez dionez gero?

Masa-gizonak inoiz ez zukeen bere buruaz kanpoko ezertara joko ingurumariak horretara bortxaz behartu izan ez balu. Ingurumariak orain behartzen ez duenez gero, betiereko masa-gizonak, bere adiurrearen arabera, ez du ezertara jotzen eta bere bizitzaren jaun eta jabe sentitzen da. Aldiz, gizon aukeratuak edo bikainak, bere barnean darama bere baitarik bera baino harantzago, gorago, dagoen arau batera jo beharra, eta libreki haren zerbitzuko jartzen da. Gogoratu, hasieran, gizon bikaina gizon arruntagandik honela esanez bereizten genuela: hark asko eskatzen dio bere buruari eta

honek ez dio ezer eskatzen, aski baitu bera denarekin eta pozik baitago bere buruarekin⁴³. Uste den ez bezala, gizaki aukeratua da, eta ez masa, zinetako morrontzan bizi dena. Ez du bere bizitza onesten gainetik dagoen zerbaiten zerbitzutan jarrita izan ezik. Horregatik, ez dauka zapalkuntzat zatzerbitzatu beharra. Honek halabeharrez huts egiten dionean, ezinegona sumatzen du eta zailagoak diren arau berriak asmatzen ditu, zorrotzagoak, zapalduko dutenak. Hauxe da bizitza araudi gisa -bizitza noblea. Noblezia eskakizunen bidez definitzen da, zereginen bidez, ez eskubideen bidez. Noblesse oblige. "Gustura bizitzea jende xeheri dagokio: nobleak ordena eta legea ditu gogoko" (Goethe). Nobleziaren pribilegioak jatorriz ez ziren mesedeak edo faboreak, konkistak baizik. Eta, berez, horien iraupenak, pribilegiaduna, beharrik edo lehiakiderik balu, uneoro birkonkistatzeko gai litzatekeela suposatzen du⁴⁴. Eskubide pribatuak edo privi-legioak ez dira, berez, jabego pasiboa eta gozamen hutsa; pertsona baten eginahalaren helmuga ere adierazten digute. Eskubide komunak, berriz, "gizonarenak eta hiritarrarenak" diren moduan, jabego pasiboa dira, usufruktu eta etekin hutsa, gizon orok topatzen duen halabeharraren opari joria, inongo ahaleginari ez dagokiona, arnasa hartzeari edota eromenari itzuri ibiltzearenari izan ezik. Nik neuk, bada, esango nuke, eskubide inpersonala eduki egiten dela, eta pertsonalari eutsi egiten zaiola.

Amorragarria da "noblezia" hitz iradokiorrak hiztegi arruntean izan duen adiera galera. Izan ere, askorentzat oinordetzako "odol noblezia" adierazten duenez, eskubide komunen antzeko zerbait bihurtzen da, kalitate egonkor eta eta pasiboa, gauza ilauna bezala hartzen eta ematen dena. Baina berezko adiera, "noblezia" hitzaren étymoa funtsez dinamikoa da. Noble-k "ezaguna" esan nahi du, mundu guztiak ezagun duena ulertzen da, ospetsua, masa anonimotik nabarmenduta ezagun bihurtu dena. Ospea eragin zuen eginahal larria suposatzen du. Beraz, noble, saiatu edo bikainaren kide da. Semearen noblezia edo ospea jadanik ondare hutsa da. Semea ezaguna da, aitak ospetsu izatea lortu zuelako. Islaz da ezagun, eta, benetan, oinorde nobleziak zeharreko esanahia du, ispiluko argia da, hildakoz eginiko ilargi noblezia bezala da. Bere baitan gelditzen den gauza bizi, jator, dinamiko bakarra, arbasoak lortu zuen ahalegin-mailari eusteko oinordekoarengan sortzen duen kilika da. Beti, baita adiera higitu honetan ere, noblesse oblige. Lehen nobleak bere burua obligatzen du, noble oinordekoa oinordekotzak obligatzen du. Nolanahi ere, kontraesanen bat dago noblezia lehen nobleagandik oinordekoeengana igarotzean. Txinarrek, logikoagoak izaki, alderantziz egiten dute transmisioa; ez du aitak semea noble egiten, alderantziz baizik; semeak, noblezia lortzean, bere arbasoei helarazten die, bere ahaleginaz jatorri apala altxatuz. Horregatik, noblezia-mailak ematean, ohoratzen diren aurreko belaunaldien kopuruaren arabera mailakatzen dira, eta bada noble bere aita bakarrik egiten duenik eta bere ospea bosgarren edo hamargarren aitonarenganaino luzatzen duenik. Arbasoak egungo gizonagandik bizi dira, eta honen noblezia zinetakoa da, eraginkorra; labur esan: da; ez zen⁴⁵.

"Noblezia" ez da hitz formal gisa agertzen Erromako inperiora arte, eta hain zuzen ere, ordurako gainbehera zetorren oinordeko nobleziari kontrajartzeko.

Niretzat, noblezia bizitza saiatuaren sinonimoa da, bere burua gainditzeko beti prest dagoenarena, denetik izan nahi duenera igarotzea eginkizun eta eskakizun duenarena. Honela, bizitza noblea bizitza arrunta eta ilaunari kontrajartzen zaio, hau, estatikaz, bere baitan ixten baita, betiko inmanentziara kondenatua, harik eta kanpoko indar batek bere baitatik aterarazi dezan arte. Horregatik esaten diogu masa-gizon izateko modu honi -jendetsua delako baino areago, ilauna delako.

Bizitzan aurrera joan ahala, aspertuz doa bat, ikusita, gizon -eta emakume- gehienak ez direla eginahal bat egiteko gai, doi-doi kanpoko behar beti erantzutekoa izan ezik. Horregatik, isolaturik gelditzen dira, eta gure esperientzian monumentu bihurturik

bezala, bere kabuz eta luxuzko ahalegin bat egiteko gai ezagutu ditugun banakak. Gizon hautatuak dira, nobleak, aktibo bakarrak eta ez erreaktibo hutsak, halakoentzat bizitzea betiereko tentsioa da, etengabeko entrenamentua. Entrenamentua = áskesis. Aszetak dira⁴⁶.

Ez harritu itxurazko desbideratze honengatik. Egungo masa-gizona definitzeko -betikoa bezain masa, baina bikainak ordezkatu nahi dituen-, bere baitan nahasten diren bi formekin parekatu behar da: masa arrunta eta egiazko noble edo saiatua.

Orain azkarrago abia gaitezke, dagoeneko, nire ustez, egun nagusi den gizakiaren giltza edo ekuazio psikologikoaren jabe baikara. Jarraian datorren guztia funtsezko egitura horren ondorio edo korolaria da, eta egitura hori honela labur liteke: XIX. mendeak antolatutako munduak, gizon berri bat zuzenean sortzean, grina ikaragarriak sartu ditu bere baitan, beroriek asetzeko bitarteko indartsuak -ekonomikoak, gorputzekoak (higienea, osasun maila ertaina sekulakoa baino hobea), zibilak eta teknikoak (gizon ertainak kopuru gaitzez egun dituen zatikako ezaupideak eta praktikan eragileak, egundaino izan ez dituenak, alegia). Ahalmen guzti hauek gizonaren barruan sartu eta gero, XIX. mendeak bere kasa utzi du, eta orduan, gizon ertaina berezko adiurrez, bere baitan itxi da. Hau dela eta, inoizkoa baino masa indartsuagoarekin egiten dugu topo, baina, betikoa ez bezala, erabat bere baitan itxia, ez ezeri ez inori entzuteko gai ez dena, bere buruarekin nahikoa duela uste duena -hitz batez: hezigaitza⁴⁷. Orain arte bezala jarraitzekotan, egunetik egunera nabariago izango da European -eta islaz mundu guztian- masak ez direla inondik ere gai ezertan bestek zuzentzen uzteko. Gure kontinentearentzat datozen ordu zailetan, baliteke, bat-batean larriturik, borondate ona izatea, zenbait gai aski premiatsutan, goi-gutxiengo batzuen gidaritza onartzeko.

Baina borondate on horrek ere egingo du huts. Beren arimako funtsezko ehuna itxituraz eta hezigaiztasunez ehotua baitago, haruntzago dagoena, dela gertakaria, dela pertsona, entzuteko funtzioa jaiotzez falta baitzaie. Norbaiti jarraitu nahiko diote, eta ezingo dute. Entzun nahiko dute, eta gorrak direla ohartuko dira.

Bestalde, ameskeria da uste izatea, egungo gizon ertaina, aurrekoen parean bere bizi-maila asko igo badu ere, gai izango dela, bere kabuz, zibilizazioaren bidea gidatzeko. Bidea diot, ez aurrerabidea. Egungo zibilizazioari eusteko bide hutsa, arras korapilatsua da eta zorrotasun neurgaitza eskatzen du. Nekez gidatuko du gizon ertain honek; zibilizazioko tresna asko erabiltzen ikasi du, baina zibilizazioaren oinarriez duen ezjakintasun larria da bere ezaugarria.

Honaino, pazientzia, irakurri duen irakurleari berriro gogoratzen diot ez dela komeni, inondik ere, aipamenok esanahi politiko hartzea. Jardun politikoa, bizitza publiko guztian eraginkorra eta nabariena den arren, azkena da, hala ere; ezkutuago eta sumagaitzagoak diren beste batzuen ondorio. Horrela, hezigaiztasun politikoa ez litzateke horren larria izango, sakonagoa eta erabakiorragoa den beste hezigaiztasun intelektual eta moral batetik ez baletor. Horregatik, hau aztertzen ez dugun bitartean, azken argitasuna faltako zaio saiakera honen teoremari.

VIII

Zergatik masek denetan hartzen duten parte

eta zergatik indarkeriaz bakarrik

hartzen duten parte

Esaten genuenez, aldrebeskeria handia gertatu da, baina zinez arras naturala zena: hain irekiak agertu zaizkio mundua eta bizitza gizon arruntari, non arima itxi baitzaio. Ederki: Nik esaten dut arima ertainen itxitasun horretan datzala masen errebelamendua, honetan oinarritzen delarik, bestalde, gizadiaren egungo arazo larria.

Badakit nire irakurle batzuek ez dutela nik bezala pentsatzen. Hori ere oso naturala da eta teorema frogatzen du. Azken finean nire iritzia oker gertatuko balitz ere, egia

litzateke, bat ez datozen horietako irakurle askok, ez dutela bost minutuz ere gai korapilatsu honetan pentsatu. Nola pentsatuko dute nik bezala? Baina, lortzeko aurreko ahaleginik egin gabe arazoaz iritzi bat izateko eskubidea badutela uste dutenez gero, nik "masa erreboltatua" deitu dudan gizona izateko modu zentzugabe horretan partaide ereduak direla erakusten dute. Hauxe da hain zuzen ere arima hertsitua, itxita, edukitzea. Oraingoan itxikeria intelektuala litzateke. Norberak ideia bilduma bat dauka bere barnean. Horiekin pozik gelditzea erabakitzen du eta bere burua intelektualki osatutzat ematea. Kanpoko ezeren hutsunerik ez sumatzean, bilduma horretan finkatzen da behin eta betiko. Horra itxituraren mekanismoa.

Masa-gizonak ezin hobia dela uste du. Gizon hautatuak, ezin hobia dela uste izateko, harrosko samarra izan behar du, eta bere bikaintasunaren ustea ez dagokio berezko izaeraz, eta ez da uste inozoa ere, harrotasunetik sortua baizik, eta berarentzat ere itxurazko izatea du, irudimenezkoa eta korapilatsua. Horregatik, harroskoak besteen beharra du, bere buruaz eduki nahi duen ustearen baieztapena bilatzen du besteengan. Gizon nobleak, ez honelako egoera morbosoa, ez harrotasunak "itsuturik" ere, ez du bere burua benetan osaturik sumatzea lortzen. Gure egunotako gizon arruntari, berriz, Adan berriari, ez zaio bururatzen bere betetasuna zalantzan jartzea. Bere buruarekiko fidantza, Adanena bezala, paradisutarra da. Arimaren jatorrizko itxitasunak bere eskasia ikusteko behar lukeen aurrebaldintza galarazten dio: beste izakiekin alderatzea. Alderatzea, aldi batez bere baitarik ateratzea litzateke eta lagun hurkoarengana igarotzea. Baina arima arrunta ez da transmigratziotarako -kirol gorena- gai.

Tentela eta zorrotzaren artean betidanik dagoen aldea aurkitzen dugu, beraz, hemen. Zorrotzak doi-doi tentel izateko zorian harrapatzen du beti bere burua; baina eginahala egiten du gainean duen tentelkeriari ihes egiteko, eta eginahal horretan datza azkartasuna. Tentelak, berriz, ez du bere buruarekiko susmo txarrik: oso burutsua dela uste du, eta hortik bere dorpetasunaren erdian kokatzeko lasaitasun desiragarria. Bizi diren zirrikietatik inolaz ere ezin atera ditugun xomorro horiek bezala, ez dago modurik tentela bere tentelkeriatik aterarazteko, bere itsumena baino haruntzago paseatzera eraman eta bere ohiko ikusmen traketsa bestelako ikusmolde zorrotzagoekin alderazteko. Tentela bizi guztirako da tentel eta xularmerik gabe. Horregatik esaten zuen Anatole Francek ergela gaiztoa baino okerragoa dela. Gaiztoak atsedena hartzen baitu zenbaitetan; ergelak, inoiz ez⁴⁸.

Auzia ez da masa-gizonaren tenteltasuna. Alderantziz, egungoa inoizkoa baino azkarragoa da, handiagoa du adimena. Baina ahalmen horrek ez dio ezertarako balio; egia esan, ahalmen horren jabe izatearen susmoak bere baitan areago ixteko eta ez erabiltzeko baizik ez dio balio. Behin eta betiko onesten du topiko, aurritzi, ideia pixar edo, besterik gabe, halabeharrek bere baitan pilatu dituen hitz hutsalen bilduma, eta, inozokeriak bakarrik argitu dezakeen ausardiaz, nonahi inposatuko ditu. Hauxe da nik lehen kapituluan gure garaiaren ezaugarritzat aipatzen nuena: ez arruntak bikaina eta ez-arrunta dela uste izatea, baizik eta arruntak arrunkeriaren eskubidea edota arrunkeria eskubide gisa aldarrikatzea eta inposatzea.

Arrunkeria intelektualak bizitza publikoan egun duen aginpidea, da agian oraingo egoeran gauzarik berriena, iraganeko zernahiri lotzen zailena. Orain arteko Europako historian bederen, herri xeheak inoiz ez zuen gauzei buruzko "ideiarik" zuenik uste izan. Sinesteak zituen, tradizioak, esperientziak, atsotitzak, gogo ohiturak, baina ez zuen uste gauzak nolakoak ziren edo nolakoak izan behar zuten esateko iritzi baten jabe zenik -politikaz edo literaturaz, adibidez. Ongi edo gaizki iruditzen zitzaion politikoak erabakitzen eta egiten zuena; atxikimendua ematen edo ukatzen zion, baina bere jarrera besteren sorketa onestera edo gaitzestera mugatzen zen. Inoiz ez zitzaion burutatu politikoaren "ideiei" bereak kontrajartzea; ezta politikoaren "ideiak" epaitzea, eduki

uste zituen beste "ideia" batzuen epaimahaitik. Gauza bera arte ederretan eta bizitza publikoko gainerako alderdietan. Bere mugatasunaren jaiotzetiko sen batek, teorizatzeko gauza ez izatearenak⁴⁹, erabat galarazten zion. Honen ondorio zuzena zen, herriak ia jardun publiko batean ere erabakiak hartzeko asmorik ez izatea, ezta hurrik ere, gehienak teorikoak baitira.

Gaur egun, berriz, gizon arruntak "ideia" zehatzagoak ditu unibertsoan gertatzen ari den eta gertatu behar duen guztiaz. Horregatik galdu du entzumena. Zertarako entzun, behar den guztia barnean badaukanez gero? Dagoeneko ez da entzuteko sasoia, alderantziz baizik, epaitzeko, ebazteko, erabakitzeakoa. Ez dago, itsugorra denez, bere "iritziak" inposatuz parte hartuko ez duen bizitza publikoko arazorik.

Baina ez ote da hau abantaila? Ez al da, bada, aurrerapen handia masek "ideiak" izatea, hau da, kultuak izatea? Inolaz ere ez. Gizon ertain honen ideiak ez dira benetako ideiak, eta berauen jabe izatea kultura ere ez. Ideia egiari xake egitea da. Ideiak izan nahi dituenak, aldeztu aurretik egia maite izateko prestatu behar du eta honek agintzen dituen joko-arauak onartzeko. Alferrik da ideiez edo iritziez mintzatzea arautuko dituen zerbait onartzen ez denean, arau-sorta bat, eztabaidan hartara jo ahal izateko. Arau hauek kulturaren oinarriak dira. Ez zait axola zein diren. Gure hurkoek haietara jo ahal izateko araurik ez dagoenean, kulturarik ez dagoela esaten dut. Ez dago kulturarik haietara jotzeko legalitate zibileko araurik gabe. Ez dago kulturarik, eztabaidan⁵⁰ aipagarri diren azken jarrera intelektualekiko menpetasunik ez dagoenean. Ez dago kulturarik, harreman ekonomikoen aurrean babestuko duen trafiko erregimenik ez dagoenean. Ez dago kulturarik estetikako eztabaidek arte lana justifikatu beharra aintzat hartzen ez duten lekuan.

Gauza hauek guztiek huts egiten dutenean, ez dago kulturarik; barbarokeria dago, hitzaren esanahi hertsienean. Eta hau da, ez dezagun ametsik egin, European aurreraka doan masen errebolturen azpian sortzen ari dena. Herri barbaro batera iristen den bidaiariak badaki lurralde hartan ez dagoela arau baliagarriarik. Ez dago berez arau barbarorik. Barbarokeria arau eta nora-jo eza da.

Kultura-maila arauen zehaztasunaren erara neurtzen da. Txikia dagoenean, hauek grosso modo bakarrik arautzen dute bizimodua; Handia dagoenean, xehetasunetaraino sartzen dira jardun guztietan⁵¹.

Edozein ohar daiteke European, duela urte batzuk, "gauza bitxiak" gertatzen hasiak direla. Gauza hauen adibide zehatzen bat ematearren mugimendu politiko batzuk aipatuko ditut, hala nola sindikalismoa eta faxismoa. Ez dago esaterik bitxiak diruditela berriak direlako besterik gabe. Berrikuntza-zaletasuna hain berezkoa du europarrak, non ezagutzen den historiarik asaldatuena sortzera eraman baitu. Ezin diogu, beraz, gertakari berrion bitxitasuna berrietasunari leporatu, berrikuntzen xingola txit harrigarriari baizik. Sindikalismo eta faxismo deituren azpian arrazoirik eman nahi ez eta arrazoirik izan nahi ez duen gizon-mota bat agertu da lehenengo aldiz European; besterik gabe, bere iritziak inposatzeko prest dago. Hona berria dena: arrazoirik ez izateko eskubidea, arrazoi-ezaren arrazoia. Horretan ikusten dut nik masen izaera berriaren agerpenik nabarmenena, gizartea gidatzea erabaki dutelako, horretarako gaitasunik gabe. Bere jokaera politikoan nabari da arima berriaren egitura era gordinen eta gogorrean, baina gakoa adimen itxitasunean dago. Gizon ertainak topo egiten du "ideiekin" bere barnean, baina ez du ideiak sortzeko ahalmenik. Nolako giro sotilean bizi diren ideiak susmorik ere ez du. Iritzia eman nahi du, baina ez ditu edozein iritzi ematek eskatzen dituen baldintzak eta arauak onartu nahi. Horregatik, bere "ideiak" ez dira irrikak eta hitzak baizik, erromantza musikalak bezala.

Ideia bat izatea beraren arrazoiak dauzkagula uste izatea da, eta, beraz, arrazoi bat badagoela sinestea, egia ulergarrien mundu bat. Ideiak sortzea, iritzia ematea eta halako

auzi-mailara jotzea, haren menpean jartzea, haren Kodea onartzea, gauza bera da; sinestea, beraz, elkarrekin bizitzeko era gorena elkarriketa dela, gure ideien arrazoiak eztabaidatzeko. Baina masa-gizonak galdua ikusiko luke bere burua eztabaida onartuko balu, eta bere oldez arbuiatzen du beragandik at dagoen auzi-maila goren horri men egin beharra. Horregatik, "berria" Europan "eztabaidak bukatzea" da, eta arau objetiboak onartzea dakarren edozein elkarbizitza-mota errefusatu egiten da, elkarriketatik Parlamenturaino, zientzian barrena igarota. Honek esan nahi du uko egiten zaiola kulturazko elkarbizitzari, elkarrekin araupean bizitzea baita, eta elkarbizitza barbarora itzultzen dela. Arauzko eginbide guztiak baztertzen dira eta gogozko dena inposatzera jotzen da zuzen-zuzen. Arima itxitasunak, ikusi dugunez, bizitza publiko guztian parte hartzera bultzatzen du masa, eta, ezinbestez, parte hartzeko modu bakarrera darama ere: ekintza zuzenera.

Gure garaiaren genesia berregingo den egunean, bere doinu bereziaren lehen notak 1900 inguruko talde sindikalista eta errealista frantses haietan entzun zirela ikusiko da; haiek asmatu zuten "ekintza zuzena", modua eta hitza. Gizonak betidanik jo du indarkeriara: zenbaitetan bide hau hilketa hutsa zen, eta ez doakigu. Baina beste batzuetan, indarra, ustezko arrazoia eta zuzentasuna defendatzeko beste bide guztiak agortu zituenak baliatzen zuen bitartekoa zen. Oso negargarria da gizakia behin eta berriz indarkeria-mota honetara iristea, baina ez dago ukatzerik beronek arrazoia eta zuzentasunari eginiko omenaldirik handiena adierazten duela. Indarkeria hori arrazoi haserre besterik ez baita. Indarra, noski, ultima ratio zen. Aski ergelki ulertu izan da ironiaz esamolde hau, alde aurretik indarra arrazoiaren arauari errendatzea oso argi aldarrikatzen duena. Zibilizazioa ez da indarra ultima ratio bilakatzeko saioa besterik. Orain hasi gara hau argiegi ikusten, "ekintza zuzena" ordena alderantziz jartzea baita eta indarkeria prima ratio gisa aldarrikatzea; egia esan, arrazoi bakar gisa. Arau guztiak suntsitzea eskatzen duen araua da, gure asmoa eta beronen inposaketaren arteko guztiak kentzen dituen. Basakeriaren Charta Magna da.

Gogoratzea komeni da, edozein garaitan, masak, alde edo molde, bizitza publikoan aritu denean, "ekintza zuzenez" ari izan dela. Beraz, masen berezko jokabidea izan da beti. Eta saiakera honen tesia gertakari nabarmen batek frogatzen du sendo: orain, masen gidaritza bizitza publikoan, halabeharrezko edo noizbehinkakoa izatetik normal izatera iritsi denean, "ekintza zuzena" arau onartu bezala agertzen da ofizialki.

Gizakien elkarbizitza, zeharreko auzi-mailak kendu dituen erregimen honen azpian erortzen ari da. Gizarteko harremanetan "edukazio ona" kendu da. Literaturak, "ekintza zuzena" denez, iraina du oinarri. Sexu-harremanek tramiteak laburtzen dituzte.

Tramiteak, arauak, gizalegea, bitarteko usuarioak, justizia, arrazoia! Zertarako asmatu zuten hau dena, zertarako hainbesteko nahastea sortu? Dena "zibilizazio" hitzean biltzen da; civis ideiarene bidez -hiritarra- agertzen digu bere jatorria. Guztiaren helburua hiria posible egitea da, komunitatea, elkarbizitza. Horregatik, aipatu berri ditudan zibilizazioaren atal horietako bakoitzaren barruan begiratu gero, muin bera aurkituko dugu denetan. Denek, noski, agertzen dute gero eta gehiago bakoitzak besteak aintzat hartzeko funtsezko gogo. Zibilizazioa, beste ezer baino areago, elkarrekin bizi nahia da. Norbait moldagaitz eta barbaro, besteak gogoan hartzen ez dituen heinean izaten da. Barbarokeria sakabanatzeko joera da. Eta horrela, garai barbaro guztiak giza barreialdiak izan dira, taldeskak nonahi, aldenduak eta elkarren etsai.

Politikan, elkarbizitzarako gogo handiena erakutsi duen moldeak demokrazia liberala da. Azken muturreraino darama hurkoa aintzat hartzeko erabakia eta "zihar ekintzaren" eredua da. Liberalismoa, honela dioten zuzenbide politikoko printzipioa da: Botere publikoak, nahiz eta ahalguztiduna den, bere burua mugatzen du eta, bere bizkarretik bada ere, agintzen duen Estatuan bitarte bat uzten du berak bezala, hots, indartsuenek

bezala, gehienek bezala, ez pentsatzen ez sentitzen ez dutenentzako. Liberalismoa, -komeni da gaur hau gogoratzea- eskuzabaltasun gehiena da: gehiengoek gutxiengoei ematen dieten eskubidea eta, beraz, planetan entzun den oihurik nobleena. Etsaiarekin bizitzeko erabakia aldarrikatzen du; areago, etsai ahularekin. Sinestezina zen gizadia halako gauza polit batera, hain paradoxazko, hain dotore, hain akrobatiko, hain naturaz kontrako gauza batera, iristea. Horregatik, ez da harrigarria, berehala gizadia bera, uztera prest agertzea. Ariketa zailegia eta korapilatsuegia da lurrean sendo irauteko.

Etsaiarekin batean bizitzea! Oposizioarekin gobernatzea! Ez ote da dagoeneko uztargaitza gertatzen hasi halako samurtasuna? Ezerk ez du orainaren begitartea argiago salatzen oposizioa duten erresumak hain gutxi izateak baino. Gehienetan, masa homogeno batek zamatzen du Botere publikoa eta zanpatu eta deseztatu egiten du oposizioko edozein talde. Masak, -nork esango luke bere itxura trinko eta jendetsua ikusita- ez du bera ez denarekin elkar bizitzarik nahi. Gorroto larria dio bera ez denari.

IX

Basatitasuna eta teknika

Biziki nahi dut gogorazi egoera ekiboko baten -oraingoaren- azterketan murgilduta gaudela. Horregatik aipatu nuen hasieran egungo ezaugarri guztiek eta, bereziki, masen errebolta, isurki bikoitza zutela. Horietako bakoitzak, onartu ez ezik, interpretazio bikoitza eskatzen du, aldekoa eta aurkakoa. Eta bikoiztasun hori ez dago gure gogamenean, errealitatean bertan baizik. Ez da alde batetik ongi eta bestetik gaizki iruditzea, oraingo egoera bera bi aurpegitako ahalmena izatea baizik, garaipenekoa edo heriotzekoa.

Ez dugu saiakera hau historiaren metafisikaz astundu behar. Baina garbi dago neure sineste filosofikoen lurpeko oinarriaren gain eraikitzen ari naizela; halakoak beste leku batzuetan daude azalduak edo aipatuak. Ez dut sinesten historiaren derrigorrezkotasunean. Aitzitik, uste dut, bizitza oro eta, beraz, historikoa, une hutsez osatua dagoela, horietako bakoitza aski erabaki gabe dagoelarik aurrekoarekiko, eta bertan errealitatea duda-mudan dago, piétine sur place, batetik ala bestetik jo ez dakiela, aukera batzuen artean. Ezpai metafisiko honek dardara eta zirrarazko kutsu berezi hori ematen dio bizigai orori.

Masen errebolta, egiazki, gizadiaren antolaketa berri eta paregabe baterako igarobide izan daiteke, baina hondamendia ere izan daiteke giza halabeharrean. Ez dago aurrerapenaren gertakaria ukatzeko arrazoirik, baina zuzendu beharra dago aurrerapen hau segurutzat ematen duen ustea. Gertakarien arabera, egokiago da uste izatea ez dagoela inolako aurrerapen segururik, inolako bilakaerarik, gibelatzeko eta atzera jotzeko arriskurik ez duenik. Dena, dena gerta daiteke historian -hala aurrerapen garaitzaile eta azkengabea nola aldiko atzerakada. Bizitza da -bakoitzarena zein kolektiboa, norberarena zein historikoa-, bere substantzia, arriskutsua duen munduko izate bakarra. Ustekabeez osatua dago. Zehatz esan, drama da⁵².

Honek, oro har egia delarik, indar handiagoa hartzen du "une larrietan", oraingoan adibidez. Eta horrela, masen oraingo agintepean agertzen ari diren jokabide berriaren sintomek, eta "ekintza zuzena" izenpean biltzen genituenak, etorkizuneko perfekzioak iragarri ditzakete. Garbi dago edozein kultura zaharrek ehun zaharkituak daramatzala arrastaka aurrera doalarik eta ez karga txikia materia gogortuarena, bizitzarentzat traba eta hondakin toxikoa. Badira hilak dauden erakundeak, baloraketa eta begirune iraunkorrak dagoeneko zentzugabeak, beharrik gabe korapilatutako konponbideak, jadanik beren kanore-eza frogatu duten arauak. Zehar-ekintzako, zibilizazioko, elementuok, frenesi sinpletzaileko aldi bat eskatzen dute. Lebitak eta plastroi erromantikoak mendekua eskatzen dute oraingo deshabilité eta "makutsik"-aren bidez. Hemen, sinpletzea higiena eta gustu hobea da; beraz, konponketa egokiagoa, bitarteko

gutxiagorekin gehiago lortzen den guztietan bezala. Maitasun erromantikoaren zuhaitzak inausketa eskatzen zuen adarrei jositako magnolia faltsu gehiegizkoak eta eguzkia galarazten zion aihen, kizkur, kiribil eta nahas-mahas zoroa eror zitezten.

Oro har, bizitza publikoak, politikoak batez ere, berehalako jatortze bat behar zuen, eta Europako gizadiak ezingo luke baikorrak eskatzen dion jauzi zaulirik egin aurretik biluzten ez bada, bere muin hutseraino soiltzen, bere buruarekin topo egin arte. Biluzte, jatortze ariketa hau dela eta, sentitzen dudana lilurak, etorkizun estimagarri bateko atea igarotzeko ezinbestekoa delako kontzientziak, ideagile askatasun osoa aldarrikarazten dit iragan osoaren aurrean. Etorkizunak agindu behar du iraganaren gainetik, eta beragandik jasotzen dugu manua gure jokabiderako, izan zen guztiaren aurrean⁵³.

Baina beharrezkoa da XIX. mendea gidatu zutenen bekaturik larriena ez egiten saiatzea: beren erantzun behararen kontzientzia eskasa; beragatik ez baitziren erne eta zelatan egon. Gertakariak erakusten duten aldeko aldapan limurtzea eta ordurik alaiena ere duen alde arriskutsuari eta itxura txarrari antzemateko kamuts egotea, arduradunaren erantzukizunean huts egitea da hain zuzen ere. Gaur egun beharrezkoa da erantzukizuneko hiperestesi bat berau sentitzeko gai direnengan eragitea, eta, badirudi premiazkona oraingo sintomen alde biziki galgarria azpimarratzea dela.

Zalantzarik gabe gure bizitza publikoaren balantze-diagnostiko batean aurkako faktoreek erraz gaingitzen dituzte aldekoak, kalkulua, oraingoa baino areago, iragartzen eta agintzen dutena gogoan harturik eginez gero.

Bizitzak aukera zehatzetan lortu duen edozein hazkunde, bere burua deuseztatzeko arriskuan dago, Europaren halabeharrean gertatu den eta berriro aipatuko dudana arazorik beldurgarrienarekin topo egitean: gizartearen buruzagitzaz, zibilizazioaren printzipioak axola ez zaizkion gizon-mota bat jabetu da. Ez zibilizazio honenak edo harenak, baizik eta -gaurkoz antzeman daitekeenez- inongoarenak ez. Lo eragileak, automobilak eta beste gauzaren bat axola zaizkio, noski. Baina honek zibilizazioarekiko duen arduragabekeria gaitza frogatzen du berriro. Gauza horiek haren emaitza hutsa baitira, eta eskaintzen zaion zaletasunak lazarriago nabarmentzen du iturburu duten printzipioekiko sentikortasun-eza. Aski bedi ondoko hau aipatzea: Nuove scienze, jakite fisikoak, sortu zirenetik -Berpizkundetik, beraz- etengabe goraka joan zen hauen arrakasta, denboran zehar. Zehatzago: ikerketa huts horietara emana zen jendearen kopurua bere heinean handiagoa zen belaunaldiz belaunaldi. Lehen atzerapena -bere heinean, diot berriz- egun hogeitik hogeita hamarrera doan belaunaldian gertatu da. Zientzia hutsezko laborategietan ikasleak erakartzea zaila gertatzen hasia da. Eta hau, industria garapen handienera iritsi denean eta jendeak zientziak sorturiko tresnak eta sendagaiak erabiltzeko grina biziena erakusten dutenean gertatu da.

Alferrik luzatzea ez balitz, antzeko funsgabekeria erakuts liteke politikan, artean, moralean, erlijioan eta bizitzako eguneroko alderdietan.

Zer adierazten du halako egoera aldrebesak? Saiakera honek galdera horren erantzuna prest duela uste du. Adierazten du, egun nagusi den gizona basati bat dela, Naturmensch bat mundu zibilizatu baten erdian sortua. Zibilizatua mundua da, ez, ordea, bertako bizilaguna: eta ez du bertan zibilizaziorik ikusten ere; aitzitik, natura balitz bezala erabiltzen du. Gizon berriak automobila irrikatzen du eta hartaz gozatzen du, baina Edeneko arbolaren berezko fruitua dela uste du. Bere arimaren hondarrean ez du ezagutzen zibilizazioaren izate artifiziala, ia sinestezina, eta ez du tresnekiko duen bere atxikimendu suhar hori posible egiten dituzten iturburuetaraino luzatzen. Gorago, Rathenau-ren hitz batzuk aldatuz, "barbaroen inbasio bertikala" ikusten ari garela esaten nuenean, norbaitek -gisakoa denez- "esaera" huts bat zela uste zezakeen. Orain ikusten da esamoldeak egia edo gezurra adieraz dezakeela, baina "esaera" baten alderantzizkoa dela, hots: analisi zail bat laburbiltzen duen definizio formal bat. Egungo

masa-gizona, zinez, basati bat da, bastidore artetik zibilizazioaren eszenatoki zaharrear sartua.

Aldioro mintzatzen da gaur teknikaren aurrerapen izugarriez; baina nik ez dut ikusten hauen etorkizunekiko kontzientziaz, behar bezain dramatikoaz, hitz egiten denik, ezta hoberenek ere. Spengler bera ere, hain zorrotza eta sakona izaki -maniatikoa bada ere- baikorregia iruditzen zait puntu honetan. Uste baitu "kulturaren" ondotik "zibilizazio" aldi bat etorriko dela, horren azpian batez ere teknika ulertzen duelarik. Spenglerrek "kulturaz" duen ideia, eta oro har historiaz, oso urrun dago saiakera honetan proposatzen dugunetik, beraz, ez da erraza, ezta zuzentzeko ere, bere ondorioez hemen hitz egitea. Urruntasunen eta zehaztasunen gainetik jauzi eginik bakarrik, ikusmolde biak izendatzaile komunera bildu beharrez, honela azal liteke desadostasuna: Spenglerrek teknikak bizirik iraun dezakeela uste du kulturaren printzipioen aldeko interesa hil delarik ere. Nik ezin dut horrelakorik sinetsi. Teknika muin-muinetik zientzia da, eta ez dago zientziarik, bere soilean eta denagatik beragatik interesatzen ez bada, eta ezin du interesik piztu jendeek kulturaren oinarri orokorreari gartsuki atxikirik jarraitzen ez badute. Jaidura hau kamusten baldin bada -gertatzen ari bide den bezala-, teknikak alditxo bat bakarrik iraun dezake, sortu zuen kultur eraginaren inertziak irauten dueino. Teknikarekin bizitzen da, ez, ordea, teknikatik. Honek ez dio bere buruari ez jakirik ez arnasarik ematen, ez da causa sui, alferrikako ardura ez-praktikoen jalkipen baliagarri eta praktikoa baizik⁵⁴.

Ohar gisa esango dut teknikaren aldeko egungo interesak ez duela ezer bermatzen, eta are gutxiago, aurrerapena bera edo teknikaren iraupena. Ongi dago teknizismoa "kultura modernoaren" tasun berezgarritzat hartzea, hau da, materialki probetxagarri gertatzen den zientzia-mota bat daukan kultura batena. Horregatik, XIX. mendean ezarritako bizitzaren begitarte berri-berria laburtzerakoan, ni bi alderdi huts hauekin gelditzen nintzen: demokrazia liberala eta teknika⁵⁵. Baina berriro diot harritu egiten nauela, teknikaz mintzatzean, nolako arinkeriaz ahazten den bere bihotz-muina jakintza hutsa dela, eta betiere iraun dezan behar diren baldintzek jardun zientifiko hutsa posible egiten dutenak dituztela lagun. Gogoan hartu al dira, egiazko "zientzia-gizonak" izaten jarraitzeko, arimetan iraun behar duten gauza guztiak? Benetan sinesten al da dollars egon bitartean egongo dela zientzia? Askoren lasaigarria den uste hori, basakeriaren froga bat gehiago baizik ez da.

Ez da makala jakintza fisikokimikoaren cocktaila lortzeko bildu eta astindu behar diren osagai ugarien kopurua! Gaiaren mailarik ahulena eta axalekoenarekin geldituta ere, gauza nabaria da, lur zabal eta aldi oro, fisikokimikak Londres, Berlin, Viena eta Parisek iskribatzen duten lauki laburrean bakarrik lortu duela antolatzea eta osoki sustraitzea. Eta lauki horren barruan ere, XIX. mendean bakarrik. Honek erakusten duenez jakintza esperimentalaren historiako emaitzarik bakanetakoa da. Aztiak, apaizak, gertariak eta artzainak barra-barra izan dira nonahi eta nolanahi. Baina gizon esperimentalaren fauna honek jaiotzeko, adarbakarra sorrarazten dutenak baino baldintza-sorta harrigarriagoa behar du, itxuraz. Honelako gertakari soil eta gihar batek etorri zientifikoaren izaera txit suntsikor eta lurrinkorraz gogoeta apur bat eragin behar liguke⁵⁶. Ederki bipildua doa Europa desagertuko balitz, iparramerikarrek iraunarazi lezaketela zientzia uste duena!

Axola handikoa litzateke arazoa sakon aztertzea eta xeheki bereiztea zein diren jakintza esperimentalaren funtsezko oinarri historikoak eta, ondorioz, teknikarenak. Baina ez uste izan, arazo hau argituta ere, masa-gizonak konturatu nahiko lukeenik. Masa-gizonak ez ditu arrazoiak aintzat hartzen eta bere haragian bakarrik ikasten du.

Ohar batek eragozten dit baikor izatea, arrazoiz beteak direnez gero zorrotzak izan behar luketen horrelako predikuak direla eta. Ez ote da zentzugabeegia, egoera honetan,

gizon ertainak, bere kabuz eta predikurik gabe, zientzia haiekiko eta beren kide diren biologikoekiko atxikimendurik sutsuena ez sentitzea? Izan ere, honelakoa baita oraingo egoera: bistan denez kulturako gainerako gauza guztiak -politika, artea, gizalegea, moralak bera- korapilatsu bihurtu diren bitartean, bada bat, era ukaezin eta egokienean masa-gizonarengan eragina izateko, bere efikazia miresgarria egunero egiaztatzen duena: jakite enpirikoa. Egunero eskaintzen du asmakariaren bat, gizon ertain horrek erabiltzen duena. Egunero sortzen da analgesiko edo txertoren bat, gizon ertainarentzat baliagarri dena. Mundu guztiak daki, etorri zientifikoa atertu gabe, laborategiak hirukoiztu edo hamarkoiztuko balira, zuzen-zuzenki biderkatuko liratekeela aberastasuna, erosotasunak, osasuna eta ongizatea. Amets al daiteke bizi-printzipio baten alde propaganda izugarriago eta bortitzagorik? Nola ez ote dago, hala ere, masen aldetik, zientzia hobeki hornitzeko, bere buruari diru murrizte eta arretazko neke bat eskatzeko eginahal-izpirik? Hortik urrun, gerra-ondoak gizarteko paria berria bihurtu du zientzia-gizona. Eta argi bego fisikariez, kimikariez, biologiariez ari naizela -ez filosofoez. Filosofiak ez du masaren aldetik ez babesik, ez arretarik, ez maitasunik behar. Bere hutsaltasun erabatekoaren irudia zaintzen du⁵⁷, eta horrekin gizon ertainarekiko menpetasun orotatik libratzen da. Badaki funtsez arazoduna dela, eta pozik besarkatzen du Jainko onaren txori izateko bere patu librea, aintzat hartzeko inori eskatu gabe, bere burua gomendatu gabe, defendatu gabe. Norbaitek onean zerbaitetarako probetxatzen baldin badu, poztu egiten da giza sinpatia hutsez; baina ez da inoren probetxu horretatik bizi, eta ez du aldeaz aurretik erabakitzen, ez itxaroten. Nola nahiko ote du inork aintzat hartzea, hasterako bere izatea bera zalantzan baldin badu, bizi ere, bere buruaren aurka borrokatzen duen neurrian, bere burua desbizatzen duen neurrian, bizi baldin bada? Utz dezagun, bada, alde batera filosofia, beste maila bateko mentura denez gero.

Baina jakite esperimentalek badute masaren beharrik, honek haiena duten bezala, lur joko ez badute, fisikokimika gabeko planeta batean ez baitauka irauterik egun bizi den giza kopuruak.

Zein argudiok lor dezake gizon horien joan-etorrietako automobilak, beren oinazeak, mirakulutsu, aienatzen dituen "pantopón" injekzioak, ezin lor dezakeena? Zientziak eskuratzen dien etengabeko onura nabariaren eta haren alde erakusten duten interesaren arteko desoreka hain handia denez, ez dago bere burua sasi-itxaropenez sobornatzeko modurik, eta horrela jokatzeko duenarengandik basakeria itxarotea baizik. Batez ere, ikusiko dugunez, zientziarekiko axolagabekeria hau, beste inon baino argiago agian, teknikoaren masan bertan agertzen baldin bada, -mediku, ingeniari, etab. artean, halakoek beren lanbidean, automobila erabiltzearekin edo aspirina-hodia erostearekin aski duenaren gogo-aldarte berarekin jarduten baitute funtsean, zientziaren, zibilizazioaren, etorkizunarekiko elkartasun txikienik ere gabe.

Izango da, basakeriazko beste adierazgarriak direla eta, hunkituagoa agertuko denik; positiboak direnez, ekintzazkoak, eta ez omisiozkoak, nabarmenagoak baitira eta espektakulu bilakatzen dira. Niretzat, gizon ertainak zientziatik hartzen duen probetxua eta eskaintzen dion -ez dion- esker onaren arteko desorekarena da beldurgarriena⁵⁸. Esker gaiztoaren huts hau argitzeko bide bakarra, Afrika erdiko beltzak ere automobileren joan eta aspirinaztatu egiten direla oroitzea dut. Nagusitzen hasi den europarra -hau da nire hipotesia- zein zibilizazio konplexutan jaio den gogoan hartuta, basagizon bat litzateke, sabaizulotik agertu den barbaroa, "inbasore bertikala".

X

Basatitasuna eta historia

Natura beti dago hor. Bere buruari eusten dio. Bertan, oihanean, zigorrik gabe izan gaitezke basati. Horrelakoak izateari inoiz ez uztea ere erabaki dezakegu; arrisku bakarra basatiak ez direnen etorrera da. Baina, berez, betierean primitibo diren herriak izaten ahal dira. Badira. Breysig-ek "betiereko egunsentiko herriak" deitu die, arturratze geldituan, hormatuan, inongo eguerdirantz ez doan egunsentian geratu direnak.

Hau Natura hutsa den munduan bakarrik gertatzen da. Baina ez da gertatzen zibilizazio den munduan, gurea bezalakoan. Zibilizazioa ez dago hor, ez dio bere buruari eusten. Artifizioa da eta artista edo artisaua behar du. Zibilizazioaren abantailez probetxatu nahi baduzu, baina zibilizazioari eusteaz arduratzen ez bazara... hondatu zara. Segituan geratzen zara zibilizaziorik gabe. Hutsegite bat, eta inguruan begiratu orduko dena suntsitu da! Natura hutsa estaltzen zuten tapizak bildu balira bezala, aspaldiko basoa agertzen da antzinatera bihurturik. Basoa beti da primitiboa. Eta alderantziz. Primitibo guztia basoa da.

Garai guztietako erromantikoak beren senetik ateratzen zituzten bortxaketa-eskenek non naturako izakiak eta infragizakiak berriro zapaltzen zuen emakumearen zurbiltasun gizatia, eta zisnea Ledaren gainean pintatzen zuten, ikarati; zezena Pasiphae-rekin eta Antiope akerraren azpian. Hedaduraz, ikuskizun sotilki lizunago bat aurkitu zuten hondakinen paisaian; bertan, harri zibilizatua, geometrikoa, basalandareen besarkadaren azpian itotzen da. Erromantiko jator batek eraikuntza bat ikuskatzen duenean, bere begiek lehenik bilatzen dutena, akroteran edo teilatuan, "hondakin-belarraren horitasuna" da. Honek, azken finean dena lur dela iragartzen du; nonahi, basoa berpizten dela.

Ergelkeria litzateke erromantikoei barre egitea. Erromantikoak ere badu arrazoi. Irudi errugabeki gaizto horien azpian betidaniko auzi latza ezkutatzen da: zibilizazioa eta bere atzean gelditu zenaren -Naturaren- arteko harremanena, arrazoiduna eta kosmikoaren artekoarena. Askatasuna eskatzen dut, beraz, horretaz aritzeko hurrengo batean, eta sasoi egokian erromantiko izateko.

Orain, ordea, aurkako zereginean dihardut. Baso-erasotzailea geldiarazi beharra dago. "Europar zintzoak" berea du orain, jakina denez, Estatu australiarren kezka nagusia: txunberek lurra bereganatu eta gizakiak itsasora bota ditzatela galaraztea. Berrogeigarren urtean edo, hegoaldeko etorkin batek, paisai minez -Malaga, Sizilia?-lorontzi bat eraman zuen Australiara txunbera xume batekin. Egun Ozeaniako aurrekontuak kopuru larriak dituzte txunberaren gerlarako, kontinentea hartu baitu eta urtero kilometroa baino gehiago irabazten du.

Masa-gizonak, jaio zen eta erabiltzen duen zibilizazioa, Natura bezain berezkoa eta aspaldikoa dela uste du, eta ipso facto basati bihurtzen da. Zibilizazioa basoa iruditzen zaio. Esana dut, baina orain zehaztasun batzuk gehitu beharra dago.

Mundu zibilizatua -eutsi beharreko mundua- sostengatzen duten printzipioak ez dira existitzen egungo gizon ertainarentzat. Ez zaizkio axola kulturaren oinarrizko balioak, ez du beraiekin bat egiten, ez dago prest beren zerbitzutan aritzeko. Nola gertatu da hau? Arrazoi askorengatik; baina orain bakarra nabarmenduko dut.

Zibilizazioa, aurrera ahala, ñabarrago eta zailagoa egiten da. Egun agertzen dituen arazoak izugarri nahasiak dira. Gero eta txikiagoa da gogoia arazo hauen mailan duten pertsonen kopurua. Gerra ondoak eskaintzen digu horren adibide argia. Europaren berrantolaketa -ikusten hasia da- auzi algebraikoegia da, eta europar arrunta behar baino apalagoa agertzen da eginkizun sotil horretarako. Ez da baliabide falta dagoelako. Buruak dira falta. Zehatzago: badira buru batzuk, oso gutxi; baina Erdialdeko Europaren gorputz arruntak ez ditu sorbalda gainean hartu nahi.

Arazoen sotiltasun korapilatsu eta gogoen arteko desoreka hau gero eta handiagoa izango da erremediorik jartzen ez baldin bada, eta berau da zibilizazioaren tragediarik funtsezkoena. Zibilizazioa osatzen duten printzipioak hain nardoak eta zuzenak direnez gero, bere uztia handitzen du kopuruz eta zorrotasunez gizon arruntaren harmena gaitzizteraino. Ez dut uste iraganean inoiz honelakorik gertatu denik. Zibilizazio guztiak hil dira beren printzipioen eskasiagatik. Europarrak, alderantzizko arrazoiagatik lur jotzeko mehatxua egiten du. Grezian eta Erroman ez zuen gizonak huts egin, bere printzipioek baizik. Erromako Inperioak teknika faltarengatik finikitzen du. Populazio-maila handi batera iritsi, eta biztanlego horrek, teknikak bakarrik aurki zezakeen hainbat premia materialen erantzuna eskatzean, gibelka hasi zen antzinako mundua, atzera jotzen eta ahitzen.

Orain, berriz, gizona da huts egiten duena, zibilizazioaren aurrerakuntzaren parean joateko gauza ez delako. Gogaikarria da pertsona ikasi samarrei eguneko gai xeheez mintzatzeko entzutea. Mahai gaineko orratza beren behatz lodikote eta traketsen hartu nahi duten baserritarrek dirudite. Politika- eta gizarte-gaiak, adibidez, duela berrehun urte berrehun aldiz sinpleagoak ziren egoerei erantzuteko balio zuten kontzeptu kamutsen tresneriarekin erabiltzen dira.

Zibilizazio aurreratua gauza bat eta bera da arazo larriekin. Horregatik, zenbat eta handiagoa izan aurrerapena, are handiagoa da arriskua ere. Bizitza gero eta hobea da; baina, ongi ulertuta, gero eta korapilatsuagoa ere bai. Garbi dago arazoak zaildu ahala, konponbideak ere hobetuz doazela. Baina beharrezkoa da belaunaldi berri bakoitza bitarteko aurreratu horien jabe egitea. Hauen artean -zerbait zehaztu beharrez- badago bat ezinbestean zibilizazio baten aurrerapenari lotua: iragan luzea, esperientzia handia bizkarrean edukitzea; laburki: historia. Historia jakitatea lehen mailako teknika da zibilizazio heldu bat zaintzeko eta aurrera eramateko. Ez bizi-arazoen eite berriari erantzun egokiak ematen dizkiolako -bizitza beti da aurrekoa ez bezalakoa-, beste garai batzuetako hutsegite inozoak errepikatzea eragozten duelako baizik. Baina, zahartua izateaz gain eta, beraz, bizimodua zailtzen hasi zaizuna, iraganaren oroimena galdu baldin baduzu, ez duzu zeure esperientzia probetxatzen, eta orduan dena da kalte. Bada, nire ustez, hau da Europaren egoera. Egungo jende "kultoenek" historia ezjakintasun sinesgaitza dute. Nire iritziz, buruzagi europar batek, XVIII. eta are XVII. mendeko gizonak baino askoz historia gutxiago daki egun. Gutxiengo gobernarien -gobernari sensu lato- jakite historiko hark posible egin zuen XIX. mendeko aurrerapen miresgarria. Beren politika hain zuzen ere antzinako politika guztien okerrak eragozteko asmatua da -XVIII. mendeak asmatua-, hutsegite horien bistan sortua da, eta esperientziarik luzeena biltzen du bere muinean. Baina XIX. mendea orduko "kultura historikoa" galtzen hasi zen, nahiz eta bitartean espezialistek zientzia gisa asko aurrerarazi zuten⁵⁹. Utzikeria horretatik datoz beren hutsegiteen parte handi bat, gaur egun geuk jasaten ditugunak. Azken heren partean hasi zen -artearen lurpean- atzerakada, basakeriara itzultzea; hau da, iraganik ez duen edo ahaztu duenaren inozokeriara eta primitibismoa.

Horregatik dira boltxebismoa eta faxismoa, Europa eta inguruetan egiten ari diren politika saio "berriak", atzerakuntza larriaren bi adibide argi. Ez hainbeste beren doktrinen edukin positiboagatik, isolatuz gero bere egia-puska bai baitu -zeinek ez du munduan arrazoi pixarren bat?-, baizik eta, bere arrazoi zatia erabiltzeko duten modu anti-historikoagatik, anakronikoagatik. Masa-gizonen mugida tipikoak -gisa honetako guztiak bezala hala moduzko gizonen gidatuak, denboraz kanpokoak eta oroimen luze gabek, "kontzientzia historikoa" ez duteneko- dagoeneko igaroak balira bezala jotzen dute hasieratik, ordu honetan gertaturik ere, antzinako faunakoak balira bezala. Auzia ez da komunista eta boltxebike izatea ala ez izatea. Ez dut sinestea eztabaidagai. Sinesgaitza eta anakronikoa honako hau da: 1917ko komunista bat iraultza bat egiten

hastea, aurreko guztiak bezalakoxea eta aurrekoen hutsegite eta akats guztiak fitsik ere zuzendu gabe. Horregatik ez da interesgarria Errusian gertatutakoa; horregatik da giza bizimodu hasiera baten kontra-kontrakoa. Aitzitik, betiko iraultzaren errepikapen monotoa da, iraultzen ohiko egia arrunta da. Hau dela eta, ez dago esaera jakinik, giza esperientzia zaharrak iraultzez egin dituen hainbesteren artean, honi buruz esaten denean, zoritxarrez egiaztatzen ez denik: "Iraultzak bere semeak irensten ditu". "Iraultza partidu neurritsu batetik hasten da, berehala muturrekoetara igarotzen da eta oso laster atzeraka hasten da errestituzio baterantz", etab., etab. Topiko benetagarri hauei beste egia batzuk gehi lekizkieke, ez horren ezagunak, baina horiek adina gerta daitezkeenak, besteak beste, honako hau: iraultza batek ez du hamabost urte baino gehiago irausten, belaunaldi baten sasoiari dagokion denboraldia⁶⁰.

Gizarte- edo politika-egoera berri bat benetan sortu nahi duenak, bera sustatzen ari den egoerak esperientzia historikoaren uste zahar komun apal horiek, indargabeturik utz ditzan, arduratu behar du. Nik neuk "jenial" esango diot politikoki bati, lanean hasi berria dela eta, Institutuetako Historiako irakasleak beren zientziako "lege" guztiak indargabeturik, etenak eta birrinduta gertatzen direla ikusita, zoratzen has daitezenean.

Boltxebismoari dagokion ikurra alderantziz jarrita, antzekoak esan genitzake faxismoaz ere. Ez saio bat ez bestea, ez daude "garaiazen altueran", ez daramate beren barnean iragan osoaren ikuskerarik, eta horixe da hura gainditzeko ezinbesteko baldintza. Iraganarekin ez da gorputzez gorputz borrokatzen. Etorkizunak, iresten duelako menderatzen du. Haren zatiren bat kanpoan utziz gero, galdua da.

Bata zein bestea -boltxebismoa eta faxismoa- bi sasi-egunabar dira; ez dakarte biharamuneko goizik, dagoeneko behin edo maiz erabilitako egun zaharkitu batekoa baizik; primitibismoa dira. Eta horrelakoak izango dira, irentsi beharrean, iraganaren honelako edo halako zatiarekin borrokan hasteko ximplezian erortzen diren mugimendu guztiak

Zalantzarik gabe, beharrezkoa da XIX. mendeko liberalismoa gainditzea. Baina hauxe da, hain zuzen ere, faxismoa bezala, antiliberal gisa agertzen denak ezin egin duena. Horixe baita -antiliberal edo ez liberal izatea- liberalismoaren aurretiko gizonak egiten zuena. Eta dagoeneko honek hura behin gainditu zuenez, ezin konta ahal aldiz errepikatuko du bere garaipena, edo, bestela, dena -liberalismoa eta antiliberalismoa- Europaren hondamendian bukatuko da. Bizi-kronologia errukigabea da. Horretan, liberalismoa antiliberalismoaren ondokoa da, edota, gauza bera delarik, hau baino bizitzagoa da, kanoia lantza baino iskiluago den bezala.

Bat-batean, zerbaitekiko anti den jarrerak zerbait horren ondokoa dirudi, haren aurkako erreakzioa baita eta hura aurrekoa izatea eskatzen baitu. Baina anti-k dakarren berrikuntza aienatu egiten da keinu huts ukatzaile batean eta uzten duen emaitza positibo bakarra "zaharkina" da. Anti-Kepa denak ez du besterik egiten, bere jarrera hizkera positibora itzulita, Keparik gabeko mundu baten alde agertu baizik. Baina hauxe da hain zuzen ere Kepa jaio aurretik munduari gertatzen zitzaiona. Antikepista, Keparen ondoan jarri beharrean, aurretik jartzen da eta lehengo egoerara atzeratzen du filme osoa, eta horren amaieran ezinbestean Keparen berragerpena dator berriz. Anti guzti hauei, bada, kondairaren arabera Konfuziori jazorikoa gertatzen zaie. Bere aitaren ondoan jaio zen, noski; baina, mila deabru! laurogei urte zituela jaio zen, bere aitak hogeita hamar besterik ez zituelarik. Anti oro ez da ez sinple eta huts bat baizik.

Oso erraza litzateke dena, ez soil batekin iragana desegingo bagenu. Baina iragana revenant da berez. Botatzen baldin bada, itzuli, itzuli egiten da erremediorik gabe. Horregatik, benetan gainditzeko bide bakarra ez botatzea da. Gogoan hartzea. Begien aurrean edukitzea, alde batera uzteko, saihesteko. Hitz batean, "garaiazen altueran bizi", kinka historikoaren sen hiperestetikoaz.

Iraganak badu arrazoi, berea. Duen hori ematen ez bazaio, berriro eskatuko du eta, bidenabar, ez duena inposatuko. Liberalismoak arrazoi bat zuen, eta hori eman egin behar zaio per saecula saeculorum. Baina ez zuen arrazoi osoa, eta ez zuen hori da kendu behar zaiona. Europak bere-berea duen liberalismoa gorde beharra dauka. Hauxe da berau gainditzeko baldintza.

Faxismoaz eta boltxebismoaz hemen jardun baldin badut, ez da zeharka baizik izan, bere alde anakronikoari bakarrik jaramon eginik. Alde hau, nire ustez, egun itxuraz garaitzen duen edozertatik bereizezina da. Gaur masa-gizona baita garaile, eta, beraz, berak eragindako saioek bakarrik, bere estilo basatiaz beterikoek, ospatu dezakete itxurazko garaipen bat. Baina hortik landa, ni ez naiz orain ez bataren ez bestearen muina eztabaidatzen ari, eta, era berean, ez dut erreboluzio eta eboluzioaren arteko betidaniko auzia ere erabaki nahi. Saiakera hau, gehienez, erreboluzioa edo eboluzioa, historikoak eta ez anakronikoak izan daitezela, ausartzen da eskatzen.

Orrialde hauetan jorratzen dudan gaia neutroa da politikaz, politika eta bere gatazkak baino askoz sakonago dagoen maila batean baitu arnasa. Kontserbadorea ez da radikala baino masagoa, ez gehiago ez gutxiago, eta diferentzia hau -oso azalekoa edozein garaitan- ez du eragozten, ezta hurrik ere, biak gizon bera izatea, herri xehe erreboltatua. Europak ez du konponbiderik bere etorkizuna benetan jende "garaikideen" eskuetan jarrita izan ezik; beren azpian lurpe historikoaren taupada sentitzen duten jendeak, bizitzaren oraingo altuera ezagutzen dutenak eta edozein keinu zaharkitu eta basatiri muzin egiten diotenak. Historia oso-osorik behar dugu, ea beragandik ihes egitea lortzen dugun, ez berriro bertan erortzeko.

XI

"Jaunskila asebetearen" garaia

Laburpena: Hauxe da hemen aztertzen ari garen gizarte-gertakari berria: Europaren historia, lehen aldiz, gizon arruntaren, arrunta den aldetik, erabakiaren menpera emana da. Edota era aktiboan esan: gizon arruntak, lehen bestek gidatua, mundua gobernatzea erabaki du. Gizarteko lehen lerrora aurreratzeko erabaki hau, berak irudikatzen duen gizon-mota berria heldutasunera iritsi bezain laster gertatu da bere baitan, berez. Masa-gizon mota berri honen egitura psikologikoa bizitza publikoan dituen ondorioak gogoan hartuta aztertzen baldin bada, honako hau aurkitzen da: 1. bizitza erraza, nasaia, mugatasun larririk gabea, izatearen jaiotzetiko sentipen sakona; hau dela eta, gizabanako ertain bakoitzak nagusitasun eta garaipen uste bat sumatzen du bere baitan, eta, horrek, 2., bere burua den bezalakoa onartzera bultzatzen du, bere edukin moral eta intelektuala ontzat eta osotzat ematera. Bere buruarekiko onespen honek kanpoko edozein harremanetarako itxiarazten du, entzungor egiten, bere iritziak zalantzan ez jartzera eta besteak aintzat ez hartzera bultzatzen du. Nagusitasun sentipen horrek handi-mandi gisa jokarazten dio. Beraz, munduan bera eta bere kideak bakarrik biziko balira bezala jardungo du; beraz, 3., gauza guztietan hartuko du parte bere iritzi zabarra inposatuz, begirunerik gabe, gupidarik gabe, aurrepauso eta baldintzarik gabe, hau da, "ekintza zuzenaren" arabera.

Ikuspegi-bilduma honek gizon izateko era badaezpadako batzuetan pentsarazi zigun, hala nola "haur mainatua" eta basati asaldatua; hots, barbaroa. (Ohiko basatia, berriz, goi-arauekiko -erlijio, tabuak, gizarte-tradizioa, ohiturekiko- inoiz izan den gizakirik otzanena da.) Ez dago zertan harritu behar nik gizaki-mota honetaz erdeinu hitzak pilatzen ditudala eta. Oraingo saiakera hau, gizon garaile horri erasotzeko lehen saioa baizik ez da, eta zenbait europar haren tirania irrikaren aurka egingo duten altxamenduaren iragarpena. Oraingoz eraso entseiu bat besterik ez da: eraso gogorra gero etorriko da, berehalaxe beharbada, saiakera honetakoa ez bezalako era ezberdinean. Benetako erasoak masa-gizona ez ohartzeko moduan etorri behar du, aurrean ikus dezala bai, baina huraxe dela benetakoa eraso susmatu gabe.

Pertsonaia hau, orain edonon dabilena eta bere basakeria nonahi inposatzen duena, giza historiako haur mainatua da. Haur mainatua oinordeko gisa eta ez bestela jokatzeko duen oinordekoa da. Orain, ondarea zibilizazioa da -erosotasunak, segurtasuna; hitz batez, zibilizazioaren abantailak. Ikusi dugunez, zibilizazioak munduan fabrikatu duen bizi-nasaitasunaren barruan bakarrik sor daiteke ikuspegi bilduma hark osatutako gizona, halako izaera batek iradokia. Luxuak giza material eragiten dituen horietako deformazio bat da. Lilurakeriaz uste genezake, gainezka dagoen mundu batean sortutako bizitza hobea litzatekeela, bizitzagoa eta kalitate handiagokoa, eskasiarekin borrokan ari dena baino. Baina ez dago horrelakorik. Orain aipatzekoak ez diren oso arrazoi zorrotz eta txit funtsezkoengatik. Orain, arrazoi horien ordeztasun, aski da oinordetzazko aristokrazia guztien tragedia errepikatua gogoratzea. Aristokratak baldintza batzuk heredatu ditu, hau da, berak sortu ez dituen bizi-baldintza batzuk aurkitu ditu bere pertsonari egokituak, beraz, ez dira bere bizitza pertsonal eta propioari organikoki lotuak sortu. Jaiotzean, bat-batean eta nola ez dakiela, bere aberastasunaren eta eskubideen erdian aurkitzen du bere burua. Berak ez du, barne-barnetik, batere zerikusirik beraiekin, ez baitatoz beragandik. Beste pertsona baten, beste izaki bizidun baten oskol erraldoia da, bere arbasoarena. Eta oinordeko bezala bizi behar du, hau da, beste bizitza baten eskola erabili behar du. Zertan gelditzen gara? Zein bizitza bizi behar du "aristokrata" oinordekoak, berea ala aurreko handikiarena? Ez bata eta ez bestea. Bestea ordezkatzera kondenatua dago, beraz, ez bestea ez bera ez izatera. Bere bizitzak, ezinbestean, jatorria galtzen du, eta beste bizitza baten ordezkapen edo itxurapen

bihurtzen da. Erabili behar duen bitarteko gehiegiak ez dio bere bizi-aukera bizitzen uzten, bere bizitza kamusten du. Bizitza oro, borroka da, nor bera izateko eginahala. Nire bizitza egiteko aurkitzen ditudan oztopoak dira, hain zuzen ere, nire jardunak, nire ahalmenak, ernatzen eta eragiten dituztenak. Nire gorputza pisu gertatuko ez balitzait, ez ninteke ibil. Atmosferak zanpatuko ez banindu nire gorputza zerbait hutsal, arol, mamu gisakoa sumatuko nuke. Horrela, "aristokrata" oinordekoarengan izate osoa doa hutsalduz, erabil- eta bizi-eginahal ezaz. Azken emaitza, noblezia zaharren zozokeria berezi hori da, ezeren antzik ez duena eta, zehazki, oraindik bere barne-mekanika lazgarrian inork deskribatu ez duena -oinordetzako aristokrazia guztiak nahitaezko endekatzera daramatzen barne-mekanika lazgarria.

Bihoa hau, baliabide soberak bizimoduari laguntzen diola sinesteko gure joera inozoari aurka egiteko asmo soilez. Arras alderantziz. Aukera gehiegi dituen mundu batek⁶¹ oker larriak eta gizaki-mota makurrak sortzen ditu, zuzen eta berez, - "gizon-oinordeko" sail orokorrean bil daitezkeenak, horien artean "aristokrata" ale berezi bat baizik ez delarik, haur mainatua beste bat, eta beste bat, askoz hedatuago eta larriagoa, gure garaiko masa-gizona. (Bestalde, "aristokrataren" aurreko aipamena zehazkiago balia genezake, erakusteko, bere ezaugarri asko, garai eta herri guztietan, ernamin gisa, masa-gizonarengan gertatzen direla. Adibidez: jolasak eta kirolak bizimoduaren jardun nagusi egiteko joera; gorputza landu nahia -higieneko bizimodua eta jazkiaren edertasunaren ardura-; emakumearekiko erromantizismo-eza; jolas egin intelektualarekin, baina, hondarrean, ez preziaztea eta morroi eta borrhoei azota dezaten agintzea; bizitza aginte absolutuaren pean nahiago izatea, eztabaida-giroa⁶² baino, etab., etab.).

Berriro saiatzen naiz, beraz, nahigabe leialez erakusten, joera basatiez beteriko gizon hau, barbaro berri-berri hau, zibilizazio modernoaren berezko ekoizpena dela, batez ere zibilizazio honek XIX. mendean hartu zuen tankerarena. Ez da mundu zibilizatuaz kanpotik etorri, v. mendeko "barbaro zuri handiak" bezala; ez da bere barruan berezko sorkunde misteriosuz ere jaio, Aristotelesek zioenez; aitzitik, haren emaitza naturala da, igelak uhaskan bezala. Paleontologiak eta biogeografiak aitortzen duten lege hau eman daiteke: giza bizitza, zituen bitartekoak eta sumatzen zituen beharrak orekatuta zeudenean bakarrik sortu eta aurreratu da. Hau egia da, hala izpiritu-mailan nola maila fisikoan. Horrela, gorputz-bizitzaren alde zehatz bat aipatzekotan, gizadia, urtaro beroa, hotz handiko urtaro batekin berdintzen zen planetako eskualdeetan sortu dela gogoratuko dut. Tropikoetan, animalia-gizona endekatu egiten da, eta alderantziz, beheko arrazak -pigmeoak adibidez- geroago jaio diren eta eboluzioko mailetan gorago dauden arrazek bultzatu dituzte tropikoetarantz⁶³.

XIX. mendeko zibilizazioak mundu soberatu batean kokatzen uzten dio gizon ertainari eta honek bitartekoen ugaritasun gaitza soilki nabaritzen du bertan, ez, ordea, larritasunak. Tresna miresgarriez inguratuta dago, sendagai ongileez, Estatu aurreikusleez, eskubide erosoez. Ez daki, ordea, zein zaila den botika eta tresna horiek asmatzea eta etorkizunerako berorien ekoizpena segurtatzea; ez du ikusten zein kolokan dagoen Estatuaren antolaketa, eta bere baitan doi-doi ikusten du obligaziorik. Desoreka honek bere bizidun sustraia faltsotu eta okertzen dio, bizitzaren gunearekin harremana eragotziz, zeina, arrisku osoa, arazo latza, baita. Giza bizitzan ager daitezkeen giza bizitzaren kontraesanik handiena "jaunskila asebeta" da. Horregatik, nagusitzen denean, alarma jo beharra dago eta bizitza endekatzeko arriskuan dagoela iragarri; hots, nolabait hiltzorian dagoela. Honen arabera, egungo Europak duen bizi-maila giza iragan guztia baino gorago dago; baina etorkizunari begiratuz gero, beldur izatekoa da ez diola altuerari eutsiko eta goragoko mailarik ez duela sortuko, alderantziz baizik, atzera jo eta behegoko mailetara eroriko dela.

Honek, uste dut, aski garbi erakusten du nolako funsgabekeria gaitza den "jaunskila asebetea". Bizitzara, gogoak ematen diona egiteko etorri den gizona baita. Benetan: lilurakeria hori du "familiako semeak". Badakigu zergatik: Familia-giroan, dena, gaiztakeriarik handienak ere, zigorrik gabe gera daiteke azkenean. Familia-giroa artifizial samarra da eta bertan, gizartean, kaleko airean, egilearentzat ondorio gogorrak eta bazterrezinak zuzenean ekarriko lituzketen ekintza asko onartu egiten dira. Baina "jaunskila", etxetik kanpo etxean bezalaxe joka dezakeela uste du, ez dagoela deus ezinbestekorik, konponezinik, eta atzera itzulezinik uste du. Horrexegatik uste du gogoak ematen diona egin dezakeela⁶⁴. Oker handia! Vosa mercê irá a onde o levem, portugaldarraren ipuinean loroari esaten dioten bezala. Auzia ez da norberari gogoak ematen diona egin behar ez izatea; baizik eta ezin dela egin norberak egin behar duena baino, izan behar duena baino. Aukera bakarra eginbeharrari uko egitea da; baina horrek ez du gogoak ematen digun beste gauzaren bat egiteko eskubiderik ematen. Gai honetan aukera askatasun negatiboa besterik ez dugu -noluntatea. Ihes egin diezaiokegu geure paturik jatorrenari; baina gure patuaren beheko solairuetan preso erortzeko. Nik ezin diot frogatu hau irakurle bakoitzari bere-berea duen patu bereziari dagokionez, ez baitut irakurle bakoitza ezagutzen; bai, ordea, besteekin berdinak dituen bere patuaren zati edo alderdietan. Adibidez: europar guztiek dakite bere "ideien" eta "iritzien" segurtasuna baino segurtasun bizkorragoz egungo gizon europarrak liberal izan behar duela. Ez dugu eztabaidatuko honelako ala horrelako askatasun-mota behar den. Esan nahi dut, europarrak atzerakoienak badakiela, bere kontzientziaren hondoan, Europak azken mendean liberalismo izenaz lortu nahi izan duen hori, azken finean, zerbait saihestezina, aldaezina dela, egungo gizon mendebaldarra dena, nahi eta nahi ez.

Frogatuko balitz ere, ezin ukatuzko egia osoz, Europako patuan idatzia dagoen politikaz libre izateko ezinbesteko agindua bete nahian orain arte saiatu diren bide zehatz guztiak gezurrezkoak eta kaltegarriak direla, zutik irauten du azken mendeak funtsean arrazoi zueneko azken ebidentzia. Azken ebidentzia honek eragin berdina du Europako komunistarengan eta faxistarengan, guri eta beren buruei kontrakoa sinestartzeko keinu asko eginagatik, eta eragin berdina du -nahitaez, sinetsi edo ez- Syllabus-i atxikimendurik leialenik eskeintzen dion katolikoarengan ere⁶⁵. Denek "dakite" liberalismoaren agerpenei erasotzeko erabiltzen diren kritika zuzenak baino harago beronen ezin ukatuzko egia geratzen dela; teorikoa, zientifikoa, intelektuala ez den egia, erabat bestelakoa eta hori baino erabakigarriagoa den beste maila batekoa baizik, -hots, halabeharreko egia. Egia teorikoak eztabaidagarriak izan ez ezik, eztabaidan dute beren zentzua eta indarra; eztabaidatik jaiotzen dira, eztabaidatzen diren neurrian bizi dira, eta eztabidarako soil-soilik daude eginak. Baina halabeharra -bizitzan izan behar dena edo ez dena- eztabaidatu ez baina onartu ala ez onartu egiten da. Onartzen badugu, benetakoak gara; onartzen ez badugu, ukazioa gara, gure buruaren gezurrezko irudia⁶⁶. Halabeharra ez da egin gogo dugun hura; bere aurpegi zehatz-zorrotza gogozko ez duguna egin beharraren kontzientzian agertzen da batez ere.

"Jaunxkila asebetearen" ezaugarria da, gauza batzuk ezin direla izan "jakin" eta, hala ere, eta beragatik, ekintzez eta hitzez, alderantziz uste izanaren itxura egitea. Faxista askatasun politikoaren aurka altxatuko da, badakielako hau ez dela inoiz faltako azken finean eta benetan, hor dagoela, ezinbestean, bizitza europarraren muinean bertan, eta beragana joko dela behar den guztietan, seriotasunaren orduan. Hauxe baita bizitzako lelo iraunkorra masa-gizonarengan: egiarik eza, "txantxa". Egiten dutena, atzera itzulezina ez bailitzan egiten dute, "familiako semeak" bere bihurrikeriak bezala. Maila guztietan jarrera sasi-tragikoak, behin eta betikoak, hartzeko presa hori itxura hutsa dira. Tragedia jokoan ari dira, mundu zibilizatuan egiazko tragedia ezin gerta daitekeela uste dutelako.

Ederra litzateke, pertsona baten benetako izaeratzat, berorrek halakotzat erakutsi nahi ziguna onartzera bortxatuak bagina. Norbaitek, bi gehi bi berdin bost dela sinesten duela setatsu esango balu eta zoroa dela pentsatzeko arrazoirik ez badago, ez duela halakorik sinesten baieztatu beharko dugu, oihu handiak atera eta horri eusteagatik hil dezaten utziko balu ere.

Fartsa orokor eta askotariko baten haize erauntsiak jotzen du Europako lurñoa. Hartzen eta erakusten diren jarrera gehienak barrutik faltsuak dira. Egiten diren eginahal bakarrak, nork bere halabeharrari ihes egiteko, honen argitasuna eta dei sakonaren aurrean itsuarena egiteko, bakoitzak izan behar duen horrekin buruz buru ez aurkitzeko, izaten dira. Umoretsu bizitzen da eta are umoretsuago zenbat eta tragikoago izan jantzi den moxorroa. Umorismoa nonahi egoten da, norbera, osoki eta tolesgabe finkatu ezean, jarrera itzulgarrietan bizi denean. Masa-gizonak ez du hanka bere patuaren oinarri mugigaitzean finkatzen; landare gisa bizi da airean irudipenez zintzilikaturik. Horregatik, pisu eta sustrai gabeko bizitza hauek -beren halabeharretik *déracinées*- inoiz ez dute korronterik arinenak eraman ditzan orain bezala utzi. "Korronteen" eta "eramaten uztearen" garaia da. Inor gutxi egiten die muker arte kontuan, edo ideietan, edo politikan, edo gizarteko harremanetan sortzen diren axaleko zurrumbiloei. Horregatik, inoiz baino gehiago dugu erretorika gailen. Superrealistak literaturaren historia guztia gainditu duela uste du, besteek "jazminak, zisneak eta faunesak" idatzi zituzten lekuan, berak (hemen idatzi beharreko ez den hitz bat) idatzi duenean. Baina garbi dago horrekin beste erretorika bat, orain arte zimauregietan zegoena, sortu besterik ez duela egin.

Oraingo egoerak aldi joaneko beste batzuekin duen parte berdina ikusteak, berezitasunak berezitasun, argiago ikusten laguntzen du. Adibidez, Mediterraneoko zibilizazioa bere maila gorenera iritsi bezain laster -K.a. III. mendean gutxi gora-behera-zinikoa agertzen da. Diogenesek, Aristiporen alfonbrak oinkatzen ditu bere sandalia lohitzuez. Zinikoa ugaltu egin zen eta barra-barra zebilen bazter eta maila guztietan. Baina zinikoak ez zuen besterik egiten zibilizazio hura saboteatu baino. Helenismoaren nihilista zen. Inoiz ez zuen ezer ez sortu, ez egin. Haren eginkizuna desegitea zen -hobeto esan, desegiten saiatzea, hori ere ez baitzuen lortu. Zinikoa, zibilizazioaren parasittoa, zibilizazioa ukatzetik bizi da, hain zuzen ere, faltako ez dela sinetsita dagoelako. Zer egingo ote luke zinikoak herri basati batean den-denek, berez eta egiazki, berak fartsa moduan zeregin bezala daukana, egingo balute? Zer da faxista bat askatasunaz gaizki esaten ez badu eta superrealista bat artea arbuiatzen ez badu?

Ezin zuen bestela jokatu ondoegi antolatutako mundu batean jaio eta bertatik mesedeak bakarrik, eta arriskurik ez, hartzen duen gizon-mota honek. Inguruak balakatu egiten du, "zibilizazioa" delako -hau da, etxe bat-, eta "familiako semeak" ez du ezer sentitzen bere jite mainatsutik ateraraziko duenik, bere buruaz kanpoko eta goragokoak entzunaraziko dizkionik eta askoz ere gutxiago bere halabeharraren ezinbesteko hondoarekin harremana izatera behartuko duenik.

XII

"Lan-bereizkuntzaren" barbarokeria

Tesiaren arabera, XIX. mendeko zibilizazioak masa-gizona sortu du berez eta zuzen. Komeni da azalpen orokorra ez ixtea ekoizpen horren mekanika, kasu zehatz batean, aztertu gabe. Honela, zehaztean, sinesgarritasuna irabaziko du tesiak.

XIX. mendeko zibilizazio hau, esaten nuen, bi alderdi nagusitan bil daiteke: demokrazia liberala eta teknika. Har dezagun orain azkena bakarrik. Egungo teknika kapitalismoa eta zientzia esperimentalaren arteko kopulaziotik sortu da. Edozein teknika ez da zientifikoa. Chelles-aldian sukarrizko aizkorak egin zituenak ez zuen zientziarik, eta, halere, teknika bat sortu zuen. Txina goi-mailara iritsi zen teknizismoan, fisikarik

bazenik hurrik ere susmatu gabe. Europako teknika modernoak bestek ez du erro zientifikorik, eta erro horretatik datorikio bere izate berezia, muga gabeko aurrerapen baten aukera. Gainerako teknikak -Mesopotamiakoa, nilota, greziarra, erromarra, ekialdekoa- gairatu ezineko garapen puntu bateraino luzatzen dira, eta hura ukitu bezain laster atzeraka hasten dira inboluzio deitoragarrian.

Mendebaleko teknika miresgarri honek kasta europarraren ugalketa miresgarria ekarri du. Gogoratu saiakera honen hegaldiburuko datua, esan nuenez, gogoeta hauen ernamuinak gordetzen baititu. V. mendetik 1800era, Europak ez du lortzen 180 milioitik gorako populaziorik. 1800etik 1914ra 460 milioitik gora igotzen da. Jauzia bakarra da gizadiaren historian. Zalantzarik gabe, teknikak -demokrazia liberalarekin batean- masa-gizona sortu du, hitzaren kopuruzko esanahian. Baina orrialde hauek, masa-gizonaren existentziaren erantzule, hitzaren nolakotasunezko esanahi txarrean ere, badela saiatu dira erakusten.

"Masa" esatean -nioen hasieran- ez dugu langilea bereziki adierazten; hemen ez da gizarteko klaserik aipatzen, baizik eta klase sozial guztietan egun agertzen den gizon klase edo izateko modu bat, eta, beragatik, gure garaia irudi dena, eta garaian nagusi eta agintari dena. Oraintxe ikusiko dugu hau argi baino argiago.

Noren esku dago gaur gizarteko boterea? Nork ezartzen du bere gogoaren egitura garai honetan? Zalantzarik gabe, burgesiak. Burgesia horren barruan, zein hartzen da gorengo taldeztat, egungo aristokraziatzat? Zalantzarik gabe, teknikoak: ingeniaria, medikua, finantzaria, irakaslea, etab., etab. Multzo teknikoaren barruan, zeinek ordezkatzat du era goren eta jatorrenaz? Zalantzarik gabe, zientzia-gizonak. Izarretako norbait Europara etorri eta, Europa epaitzeko asmoz, nork epaitzea nahi lukeen galdegingo balio, dudarik gabe Europak, atseginez eta ebazpena aldekoa izateko itxaropenez, bere zientzia-gizonak adieraziko lituzke. Izarretako pertsonaiak, noski, ez lituzke gizon bereziak galdetuko; araua bilatuko luke, "zientzia-gizon" arrunta, Europako gizadiaren gailurra.

Horra, bada: egungo zientzia-gizona masa-gizonaren eredu da. Eta ez halabehar hutsez, ezta zientzia-gizon bakoitzaren erru unipertsonalez ere; zientziak berak -zibilizazioaren sustraia- zuzen-zuzenean masa-gizon bihurtzen duelako baizik; hots, basati bihurtzen du, barbaro berri.

Aski gauza jakina da: hamaika aldiz errepikatu da; baina saiakera honen gorputzean taxutua ez beste inola hartzen du bere esanahiaren betetasuna eta bere larritasunaren argitasun osoa.

Zientzia esperimentalak XVI. mendearen azkenaldean hasten da (Galileo), XVII.aren bukaeran eratzen da (Newton) eta XVIII.aren erdialdean hasten da garatzen. Zerbaiten garapena eta eraketa ez dira gauza bera eta bestelako baldintzak dituzte. Hala, fisikaren eraketak -fisika, zientzia esperimentalaren izen kolektiboa da- batasun-ahalegin bat egitera behartu zuen. Hori izan zen Newton eta bere garaikideen lana. Baina fisikaren garapenak batasunaren kontrako joera bat eragin zuen. Aurrera joateko, zientziak zientzia-gizonak espezialista egitea eskatzen zuen. Zientzia-gizonak, ez zientzia bera. Zientzia ez da espezialista. Ipso facto egiazkoa izateari utziko lioke. Zientzia enpirikoa bera ere, oro har, ez da egiazkoa matematikatik, logikatik, filosofiatik, bereizten baldin bada. Baina bere baitan egiten den lanak bai, -ezinbestean- berezitua behar du izan.

Interesgarria litzateke, eta hasieran uste baino baliagarriagoa, zientzia fisiko eta biologikoen historia bat egitea eta ikertzaileen lanean gertatu den bereizkuntza, gero eta handiagoa, ikustea. Horrek erakutsiko luke nola, gizaldiz gizaldi, zientzia-gizona joan den hertsatuz eta itxiz, adimen jardunaren eremu gero eta estuagoan. Baina ez da hori historiak erakutsiko ligukeen gauzarik garrantzitsuenak, horren alderantzizkoa baizik: nola belaunaldi bakoitzean zientzilaria, lanaren mugak murriztu beharagatik, pixkanaka

zihoan zientziaren beste atalekin, munduaren ikuspen orokorrarekin harremana galduz, hori delarik zientzia, kultura, Europako zibilizazioa, bezalako izenak merezi dituen bakarra.

Lan-bereizkuntza, gizon zibilizatua, gizon "entziklopedikoari" esaten dion garai batean hasten da, hain zuzen ere. XIX. mendeak entziklopediaren arabera bizi diren gizakien zuzendaritzapean ekiten dio bideari, nahiz eta beren ekoizpenak ordurako bereizkuntza kutsua baduen. Hurrengo belaunaldian, ekuazioa lerratu egin da, eta bereizkuntza kultura orokorra lekutzen hasten da zientzia-gizon bakoitzaren barruan. 1890ean Europako nagusigo intelektuala hirugarren belaunaldi batek hartzen duenean, historian zehar kiderik ez duen zientifiko-mota batekin egiten dugu topo. Gizon horrek, pertsonaia neurritsua izateko jakin beharreko gauza guztietatik, zientzia jakin bakar bat ezagutzen du, eta are zientzia horren barnean ere bera buru-belarri ikertzen ari den zatitxo batzuk ez du ongi ezagutzen. Arreta bereziz lantzen duen paisaia medarretik landa gelditzen den ezereen berri ez jakitea, bertute bezala aldarrikatzera iristen da, eta jakite orokorrari buruzko jakinminari dilettantismo deritza.

Dena den, bere ikuspenaren hersturan itxita, gertakari berriak aurkitzea lortzen du, noski, eta bere zientzia aitzinaraztea, hau doi-doi ezagutzen badu ere, eta zientziarekin pentsamenduaren entziklopedia, zinez eta benetan ezagutzen ez duena. Nola ahal izan da eta nola izan daiteke horrelakorik? Ezin ukatuzko gertakari honen aldrebeskeria nabarmentzea komeni baita: jakite esperimentala zati handi batean oso hala moduzko gizonen, edota eskasagoen, lanari eskerrak aurreratu da. Hau da, zientzia modernoak - egungo zibilizazioaren sustraia eta irudia- bere baitan onartzen du intelektual ertaina eta arrakasta handiz lan egiten uzten dio. Horren arrazoia mekanizazioan dago. Bera da zientzia berriaren eta beronek zuzentzen eta irudikatzen duen zibilizazio guztiaren abantailarik handiena eta, batean, arrisku gehiena. Fisika eta biologian egin beharreko gauza asko adimenaren zeregin mekanikoa da, ia edozeinek egiteko modukoa. Ikerketa askoren ondorioetarako, zientzia atal txikietan zatika daiteke, horietako batean sartu eta gainerakoak ahaztu. Azterbideen sendotasunak eta zehaztasunak jakitearen zatiketa iragankor eta praktikoa hau permititzen dute. Azterbide horiekin makina batekin bezala egiten da lan, eta emaitza oparoak lortzeko ez da derrigorrezkoa beraien zentzu eta funtsaz ideia zehatzak edukitzea. Horrela, zientzilari gehienek beren laborategiko gelaskan itxita bultzatzen dute zientziaren aurrerapen orokorra, erlea abaraskakoan edo erretegi patxoia bere kajoian bezala.

Baina honek oso giza kasta bitxia sortzen du. Naturaren gertakari berriren bat aurkitu duen ikerleak nagusitasun eta segurtasun sentipen bat sumatu behar du bere baitan nahitaez. Justizia-itxuraz edo, "dakien gizontzat" hartuko du bere burua. Eta, egia esan, zerbaiten puska bat dago bere baitan, eta puska horrek, bere baitarik kanpo dauden beste puska batzuekin batean, jakitea osatzen du egiazki. Hauxe da espezialistaren egoera mina, mende honetako lehen urteetan gehiegikeria zoroaren gailurrera iritsia delarik. Espezialistak oso ongi "daki" munduko bere txoko nimiñoa; baina fisik ez daki besteez.

Hona hemen alderdi batetik eta bestetik taxutzen saiatu naizen gizon berri bitxi honen eredu zehatza. Historia guztian zehar berdin gabeko gizaki-moldaketa zela esan dut. Espezialistak, giza-mota bortizki zehazteko eta berrikuntzaren handia ikusteko balio digu. Izan ere, lehen, errazki, gizonak bi multzotan sailka zitezkeen: jakintsuak eta ezjakinak, jakintsu samarrak eta ezjakin samarrak. Baina espezialista ezin sailka daiteke horietako multzo batean ere. Ez da jakintsua, bere espezialitatean sartzen ez den guztia ezagutzen ez duelako; baina ezjakina ere ez da, "zientzia-gizona" denez eta bere unibertso puskatxo ederki ezagutzen duenez. Jakintsu-ezjakina dela esan beharko dugu, benetan gauza larria, horrek esan nahi baitu, ezagutzen ez dituen arazo guztietan,

jokatuko duela, ez ezjakin gisa, bere gai berezian jakintsua denaren harrokeria guztiarekin baizik.

Eta, zinez, haxe da espezialistaren jokabidea. Politikan, artean, gizarte harremanetan, beste zientzietan, basatiaren jarrera, guztiz ezjakinaren jarrera, hartuko baitu; baina sendo eta harro hartuko du, arlo horietako espezialistarik -eta haxe da aldrebeskeria-onartu gabe. Espezialista egitean, bere mugatasunaren barruan itxia eta asebeta egin du zibilizazioak; baina nagusitasun eta balio-sentipen horrek bere espezialitatetik kanpo agindu nahi izatera eramango du. Beraz, oraingo honetan ere, zein gizon kualifikatuaren gorengo maila den -espezialismoa-, eta, horregatik, masa-gizonaren alderantzizkoena, ondorioa, bizitzako maila guztietan, kualifikaziorik gabe eta masa-gizon bezala jokatzeari izango da.

Oharra ez da noraezekoa. Nahi duenak ikus dezake nolako ergelkeriaz pentsatzen, epaitzen eta jokatzen duten egun politikan, artean, erlijioan eta bizitzako eta munduko arazo orokorretan "zientzia-gizonek", eta, noski, hauen atzetik, medikuek, ingeniariak, finantzariak, irakasleak, etab. Masa-gizonaren ezaugarri gisa behin eta berriz aipatu dudana "ez entzuteko" jarrera hori, goragoko mailen menpean egon nahi ez hori, gailurrera iristen da, hain zuzen ere, gizon nolabait kualifikatu hauekin. Berek irudikatzen dute, eta hein handi batez osatzen, masen egungo nagusigoa, eta beren barbareria Europako moral galtzearen arrazoi hurbilena da.

Bestalde, agerpenik argiena eta zehatzena da, nola azken mendeko zibilizazioak, bere oldera utzirik, eragin duen basakeria eta barbareria birsortze hau ikusteko.

Berdinu gabeko espezialkeria honen lehen emaitza, inoiz baino "zientzia-gizon" gehiago dagoelarik, askoz gizon "kultu" gutxiago egotea da, 1750ean baino, adibidez. Eta okerrean, zientzia-erretegiko patxoi hauekin zientziaren barne-aurrerapena ere segurtaturik ez egotea da. Zientziak, noizbehinka, bere hazkundera arautzeko, berrantolaketa lan bat behar baitu, eta, esana dudanez, honek bateratze-eginahal bat eskatzen du, gero eta zailagoa, jakite orokorraren gero eta eremu zabalagoak nahasten dituen. Newtonek filosofia asko jakin gabe sortu ahal izan zuen bere fisika sistema, Einsteinek, berriz, Kant eta Mach-ek ase behar izan du bere sintesi zorrotzera iristeko. Kant eta Mach-ek -izen hauekin Einsteinengan eragina izan duten pentsaera filosofiko eta psikologikoen masa ikaragarria adierazten da- Einsteinen gogo askatu eta bere berrikuntzarako bidea irekita uzteko balio izan dute. Baina Einstein ez da nahikoa. Fisika bere historiako krisialdirik larrienean sartu da, eta entziklopedia berri batek bakarrik, aurrenekoa baino sistematikoa, salba dezake.

Mende batez zientzia esperimentalaren aurrerapena ekarri duen espezialismoak, hurrengo aldian ezingo du bere kasa aurrerapausorik egin, belaunaldi hobe batek erretegi berri eta indartsuago bat egiteko ardura hartzen ez badu.

Baina espezialistak, lantzen duen zientziaren barne-fisiologia ezagutzen ez badu, are gutxiago ezagutzen ditu honen iraupenerako baldinza historikoak, bestela esan, nola egon behar duten antolatuta gizarteak eta giza bihotzak, ikerlariak izaten jarraitzeko. Azken urteotan nabari den zaletasun zientifikoaren beherakada -eta aipatua dudana- agerpen kezkagarria da zibilizazioaren izateaz ideia garbirik duen edozeinentzat, gure egungo zibilizazioaren erpina den "zientzia-gizonari" faltatu ohi zaion ideia. Berak ere uste du zibilizazioa hor dagoela, besterik gabe, lur azala eta antzinatiko basoa bezala.

XIII

Arriskurik handiena, Estatua

Gauza publikoen antolamendu egoki batean, masa da berez jarduten ez duena. Hori da bere eginkizuna. Gidatua izateko etorri da mundura, eragina, ordezkatua, antolatua izateko -baita masa izateari uzteko ere, edo, gutxienez, horren asmoa izateko. Baina ez da mundura etorri hori dena bere kabuz egiteko. Bere bizitza, goragoko mailari

begira jarri beharra dauka, gutxiengo bikainez osaturiko mailara. Eztabaida bedi nahi adina zein diren gizon bikainak; baina horiek gabe -batzuk nahiz besteak izan- gizadirik bere izatearen muinean ez litzakeela egongo zalantzan ez edukitzea komeni da, nahiz eta Europak mendebete eraman burua hegaltzeko sartuta, ostrukek bezala, ea halako egia nabarmen distiratsua ez ikustea lortzen duen. Iritzia ez baita nola-halako maiztasunez gerta litezkeen gertakarietan oinarritutako iritzia, gizarteko "fisikaren" lege batean baizik, Newtonen fisikaren legeak baino higitzagoa den legean. Europan egiazko filosofia bat⁶⁷ nagusi dadin egunean -bera salba dezakeen gauza bakarra-, gizona, gogoko izan edo ez, goragoko beste maila bat bilatzera funtsez bortxatua dagoen izakia dela ikasiko da berriaz. Bere kabuz aurkitzea lortzen badu, gizon bikaina da; bestela, masa-gizona da eta beste harengandik jaso beharko du.

Masak bere kabuz jardun nahi izatea, bere halabeharraren aurka erreboltatzea da, eta orain egiten duena hori denez gero, masen erreboltaz mintzo naiz ni. Azken finean, benetan eta egiazki errebolta deitu daitekeen gauza bakarra nork bere halabeharra ez onartzea da, bere buruaren kontra altxatzea. Funtsean, Luzbel goi-aingeruaren errebolta ez zen gutxiago izango Jainkoa izan nahi ordeztu -bere patua ez zena- aingeruetan apalena izaten ahalegindu balitz, hori ere ez baitzen. (Luzbel errusiarra izan balitz, Tolstoi bezala, azken jazarpen-mota nahiago zukeen agian, Jainkoaren kontra ez gehiago ez gutxiago ez doana beste ospetsu hura baino.)

Masak, bere kabuz diharduenean, era bakar batera jarduten du, besterik ez duelako: lintxatu egiten du. Ez da halabehar hutsa Lynch legea amerikarra izatea, Amerika nolabait masen paradisua denez gero. Ez da harritzekoa ere orain, masak gailentzen direnean, indarkeria gailen izatea eta ratio bakarra bihurtzea, doktrina bakarra. Denbora luzeska da indarkeria arau bihurtzeko joera hau aipatzen nuela⁶⁸. Egun garapen gorenera iritsia da, eta hau sintoma ona da, berehalaxe hasiko dela beheraka adierazten baitu. Egun indarkeria garaiko erretorika da; erretorikoek, hutsalek, bere egiten dute. Giza errealitate batek bere historia bete duenean, hondoratu eta hil ondoan, erretorikaren itsasertzerantz listukatzen dute uhinek, eta han, hilotz, luzaro irauten du. Erretorika giza errealitateen hilerria da; edo, gehienez, beren elbarri-etxea. Errealitatearen gainetik izenak irauten du, eta hitz soila den arren, azken finean, hitza da gutxienez eta beti gordetzen du bere ahalmen magikotik zerbait.

Baina indarkeriaren ospea, zinikoki ezarritako arau gisa, honez gero beheraka hasia egotea ezinezkoa ez den arren, bere agintepean jarraituko dugu, beste itxura batekin bada ere.

Europako zibilizazioa mehatxatzen duen arriskurik handienaz ari naiz. Zibilizazio hau mehatxatzen duten gainerako arriskuak bezala, bere baitatik jaio da hau ere. Areago: bere lorietako bat da; egungo Estatua da. Topo egiten dugu, beraz, aurreko kapituluaren zientziaren esan denaren errepikapenarekin: bere printzipioen joritasunak aurrerapen izugarriantza bultzatzen du; baina honek kupida gabe espezializazioa inposatzen du, eta espezializazioak zientzia itotzeko mehatxu egiten du.

Gauza bera gertatzen da Estatuarekin.

Gogoratu zer zen Estatua XVIII. mendearen azkenean Europako nazio guztietan. Oso gauza ezdeusa! Lehen kapitalismoak eta bere industri antolaketa -bertan da nagusi teknika lehen aldiz, teknika berria, arrazoiak- gizartearen lehen hazkundearen ekarri zuten. Gizarte-klase berri bat agertu zen, aurrekoak baino ahaltsuagoa kopuruz eta indarrez: burgesia. Burgesia bihurri honek gauza bat zuen batez ere: asmamena, asmamen praktikoa. Bazekien antolatzen, arautzen, eginahalari jarraipena eta lotura ematen. Horren erdian, ozeano batean bezala, "Estatuaren ontziak" nabigatzen zuen. Estatuaren ontzia burgesiak berrasmatutako metafora da, bere burua ozeaniko sumatzen baitzuen, guztiz ahaltsu, eta ekaitzez izorra. Ontzi hura hutsa edo hutsaren hurrengoa zen: apenas

zuen soldadurik, apenas zuen burokratarik, apenas zuen dirurik. Erdi Aroan sortua zuten, burgesez oso bestelakoak ziren klase bateko gizonak: nobleak; kuraiaiatik miresgarria zen jendea, aginte dohainagatik, ardura senagatik. Beraiek gabe ez zen egongo Europako naziorik. Baina bihotzeko bertute horiek guztiak gora-behera, nobleak gaizki zebiltzan, beti ibili izan dira gaizki, buruari dagokionez. Beste organotik bizi ziren. Oso adimen murrizak, sentiberak, sen handikoak, intuiziodunak; hitz bakar batez: "irrazionalak". Horregatik ez zuten inolako teknikarik garatu, horrek arrazoiketa eskatzen baitu. Ez zuten polborarik asmatu. Izorratu ziren. Arma berriak asmatzeko gauza ez zirela, burgesi utzi zieten -Ekialdetik edo beste nonahitik hartuta- polbora erabiltzen, eta ondorioz gudua irabazten gerlari nobleari, "zaldunari", ergelki burdinaz estalita borrokan ozta-ozta mugi zitekeenari, eta gerraren betiko sekretua babeskietan baino areago eraso-bideetan dagoela bururatu ez zitzaionari (Napoleonek berraurkitu zuen sekretua)⁶⁹.

Estatua teknika bat denez gero -ordena publiko eta administraziokoa-, "antzinako erregimena" oso Estatu ahul batekin iristen da XVIII. mendearen azkenera, gizarte zabal eta nahasi batek alde guztietatik zigortuta. Aldi horretan Estatuaren boterearen eta botere sozialaren arteko desoreka oso handia da eta Karlomagnoren garaiko egoerarekin alderatuz gero, XVIII.eko Estatuak endekatua bezala agertzen da. Estatu Karolingiarrak, noski, Luis XVI.arenak baino askoz ahalmen txikiagoa zuen, baina inguratzen zuen gizarteak ez zuen batere indarrik⁷⁰. Indar sozialaren eta Botere publikoaren arteko aldeak Iraultzaren bidea prestatu zuen, iraultzena -1848 arte.

Baina Iraultzarekin burgesia jabetu zen Botere publikoaz eta bere ezin ukatuzko bertuteak Estatuari ezarri zizkion, eta belaunaldi bat baino gehixeagoan Estatu boteretsua sortu zuen, iraultzekin bukatu zuena. 1848tik, hau da, gobernu burgesen bigarren belaunaldia hasten denetik, ez dago Europan benetako iraultzarik. Eta ez horretarako arrazoirik ez zegoelako, bitartekorik ez zegoelako baizik. Botere publikoa botere sozialarekin berdindu zen. Agur iraultzei betiko! Orain Europan alderantzizkoa besterik ezin da gertatu: Estatu kolpea. Eta harrezkero iraultza itxurarekin gertatu zen guztia ez zen Estatu kolpea mozturorik baizik izan.

Gure garaian, Estatuak, harrigarriro dabilen makina ikaragarri bat izatera iritsi da, eragin miresgarrikoa bitartekoen kopuru eta zehaztasunagatik. Gizartearen erdian landatuta, aski da botoi bat ukitzea bere palanka izugarriek ekin eta gizarte gorputzaren edozein ataletan bat-batean bortizki eragin dezaten.

Egungo Estatuak zibilizazioaren emaitzarik ikusgarri eta nabariena da. Eta oso interesgarria da, argigarria, bere aurrean masa-gizonak hartzen duen jarreraz ohartzea. Honek ikusi egiten du, miresten du, badaki hor dagoela, bere bizitza babesten; baina ez da konturatzen giza sorkari bat dela, gizon batzuek asmatua, eta atzo gizonengan zeuden baina bihar lurrin daitezkeen bertute eta baldintza batzuek bermatua. Bestalde, masa-gizonak botere izengabe bat ikusten du Estatuan, eta berak bere burua izengabe sumatzen duenez -herri xehea- Estatuak berea dela uste du. Eman dezagun erresuma bateko bizitza publikoan zailtasun, gatazka edo arazoren bat gertatzen dela: masa-gizonak Estatuak berehala beregana dezala eskatzera joko du, bere bitarteko erraldoi eta berdingabeekin konpontzeaz zuzenean ardura dadila.

Hau da gaur egun zibilizazioa mehatxatzen duen arriskurik handiena: bizitzaren estatutzea, Estatuaren esku hartzea, Estatuak gizarte-ekimenak bereganatzea; bestela esan, gizakiaren eginbideak elikatzen eta bultzatzen dituen ekimen historikoa deuseztatzea. Ezbehar edo irrika biziren bat sumatzen duenean, oso tentazio handia da masarentzat botoia sakatu eta makina ikaragarria ibilarazita, besterik gabe, -neke, borroka, zalantza eta arriskurik gabe- zernahi lortzeko aukera iraunkor eta seguru hori. Honela dio masak berekiko: "Neu naiz Estatuak"; eta hori oker handia da. Estatuak masa

da, bi gizon, ez batak eta ez besteak Juan izenik ez dutelako, berdinak direla esan daitekeen neurrian. Egungo Estatua eta masa, izengabeak izatean bakarrik dira berdinak. Baina, dena den, masa-gizonak Estatua dela uste du zinez, eta, gero eta gehiago, edozein aitzakiaz ibilarazten saiatuko da, asalda dezakeen edozein gutxiengo sortzaile berarekin zapaltzen -edozein mailatan asaldaltzen duela ere: politikan, ideietan, industrian.

Joera horren ondorioa latza izango da. Estatua sartzeak behin eta berriz bortxatuko du gizarte-ekimena; inongo hazi berrik ez du alerik emango. Gizarteak Estatuarentzat bizi izan beharko du; gizonak, Gobernuaren makinarentzat. Eta, azkenean, makina hutsa denez gero, eta bere bizia eta iraupena, eutsiko dion inguruko bizitasunaren menpean daudenez, Estatua, gizarteari muina xurgatu eta gero, hetiko geldituko da, hezur huts, bizi-dunarena baino hiletsigarriago den makinaren heriotza herdoiltsuaz hila.

Hau izan zen zibilizazio zaharraren patu tamalgarria. Zalantzarik gabe, Julioek eta Klaudioek sortutako Estatu inperiala, makina miresgarria izan zen, tramankulu gisa, familia patriziarren Estatu errepublikano zaharra baino askoz ere hobea. Baina, halabehar bitxia, garapen osora iritsi bezain laster, erortzen hasten da gizarte gorputza. Antoninoen garaira orduko (II. mendea), Estatuak, nagusitasun antzugarriaz zamatzten du gizartea. Hau esklabo izaten hasten da, Estatuaren zerbitzuko beste ezertarako ezin bizi delarik. Bizitza osoa burokrazia da. Zer gertatzen da? Bizitzaren burokraziatzeak bere murriztea dakar -maila guztietan. Aberastasuna urritu egiten da, eta emakumeak gutxi erditzen dira. Orduan Estatuak, bere beharrei erantzuteko, areago behartzen du giza bizitzaren burokratizazioa. Burokratizazio hau bigarren urratsean gizartearen militartzea da. Estatuaren premiarik handiena gerlako antolakuntza da, bere armada. Estatua, batez ere, segurtasun sortzailea da (masa-gizona jaioarazten duen segurtasuna, ez ahanztz). Baina lehenengo eta behin horixe da, gudarostea. Severoek, afrikar jatorrikoak, mundua militartzen dute. A ze okerra! Beharra gero eta gorriagoa da, emasabelak gero eta agorrangoak. Soldaduak ere falta dira. Severoen ondoan gudarostea atzerritarren artean osatu behar da.

Ikusten al da zein den estatismoaren bide aldrebes eta tragikoa? Gizarteak, bera hobeto bizitzearren, tresna bat bezala, Estatua sortzen du. Gero Estatua gainean jartzen da, eta gizarteak Estatuarentzat bizitzen hasi behar du⁷¹. Baina nolanahi ere, artean, Estatua gizarte hartako gizakiez osatzen da. Laster, ordea, ez dira nahikoa Estatuari eusteko eta atzerritarrei egin behar zaie dei: lehenik, dalmatei; gero, germaniarrei. Atzerritarrek Estatuaz jabetzen dira, eta gizartearen hondarrek, hasierako populuarenek, haien jopu bizi behar dute, beraiekin batere zerikusirik ez duen jende baten jopu. Honetara eramaten du Estatuaren eskuhartzeak: herria, Estatua den tramankulu eta makina hutsa elikatzeko haragi eta pasta bilakatzen da. Hezurreriak inguratzen duen haragia jaten du. Aldamia etxearen jabe eta maizter bihurtzen da.

Hau jakinik, aztoragarri samarra gertatzen da Mussolinik harrokeria eredugarriaz, sekulako aurkikundea balitz bezala, orain Italian egina, honako formula hau aldarrikatzea: Dena Estatuagatik; ezer ez Estatutik kanpo; ezer ez Estatuaren aurka. Aski litzateke hau, faxismoan ohiko masa-gizon mugimendu bati antzemateko. Mussolinik ederkiki eraikitako Estatu bat aurkitu zuen -ez berak eraikia, baizik eta bera oldartzen zaien indarrek eta ideiek, hain zuzen ere: demokrazia liberalak. Bera neurririk gabe erabiltzera mugatzen da, eta, bere obrako xehetasunen epaia oraingoz alde batera utzita, garbi dago orain arte lortutako emaitzak ezin direla alderatu Estatu liberalak funtzio politiko eta administratiboan lortutakoekin. Zerbait lortu baldin badu, hain da xehea, hain iluna eta hutsala, non nekez iristen baita makina hark neurrigabe erabiltzen uzten dion ez-ohiko botere-pilaketaren parera.

Estatismoa, indarkeriak eta ekintza zuzenak arau bihurturik lortzen duten gorengo maila da. Izengabeko makina den Estatuaren bidez, masek beren kabuz jarduten dute.

Europako nazioek barruko bizitzan zailtasun handiko aldia dute beren aurrean, arazo ekonomikoak, juridikoak eta ordena publikokoak izugarri gogorrak. Nola ez beldur izan, masen agintepean Estatuak gizabanakoaren askatasuna zapalduko ote duen, taldearena, eta horrela behin eta betiko agortu etorkizuna?

Mekanismo honen adibide zehatza, azken hogeita hamar urteotako gertakaririk beldurgarrienetako bat dugu: Polizia-indarren gorakada itxuragabea erresuma guztietan. Hazkuntza demokratikoak behartu du ezinbestean horretara. Oso eguneroko gertatzen zaigun arren, ezin du gure gogoan bere zentzugabetasun izugarria galdu, egungo hiri handi bateko biztanleriak, bakez ibiltzeko eta bere zereginetara joateko, nahitaez, zirkulazioa antolatuko duen Polizia bat behar izateak. Baina jende "ordena" zaleen inozokeria da, uste izatea, "ordena publikoko indar" hauek, ordenarako sortuak, nahikoa izango dutela haiek nahi duten ordena ezartzearekin. Ezinbestean, azkenean berek erabakiko dute zein ordena ezarriko duten -eta, noski, komeni zaiena izango da.

Gai hau ukitu dugunez, egokiera dugu, behar publiko baten aurrean gizarte batek edo bestek izan dezakeen erantzuna ikusteko. 1800 inguruan, industria berria ohikoa baino gizon-mota gaizkinagoa -industri langilea- sortzen hasten denean, Frantziak berehala ekiten dio Polizia ugari bat sortzeari. 1810 inguruan, Ingalaterran, arrazoi beragatik, gorakada bat gertatzen da gaiztakerian, eta orduan ohartzen dira ingelesak berauek ez dutela Poliziarik. Kontserbadoreak dira agintean. Zer egingo dute? Poliziarik sortuko dute? Ez horrelakorik. Nahiago dute, ahal deino, gaiztakeria jasan. "Jendeak etsi du desordenari leku egitera, askatasunaren ordaina delakoan." "Parisen -idazten du John William Ward-ek- Polizia bikaina dute, baina garesti ordaintzen dituzte beren abantailak. Nahiago dut ikusi, bi edo hiru urtean behin, dozena erdi gizoni lepoa mozten Ratcliffe Road-en, etxe miaketak, espioitza eta Fouché-ren azpikeria guztiak jasan baino"⁷². Estatuari buruzko bi iritzi diferente dira. Ingelesak Estatuak mugak izatea nahi du.

Bigarren Zatia

XIV

Nork agintzen du munduan?

Europako zibilizazioak -behin eta berriz errepikatu dut- zuzen-zuzen eragin du masen errebolta. Aurrealdetik, erreboltaren gertakari honek itxura ezin hobe agertzen du; esana dugu: masen errebolta eta gure garaian giza bizitzan izan duen hazkuntza izugarria gauza bera dira. Baina gertakari beraren atzealdea beldurgarria da; alde horretatik begiratuta gauza bera dira masen errebolta eta gizadiaren erabateko moral galtzea. Begira diezaiozun orain honi beste ikuspegi berri batzuetatik.

1

Aldi historiko berriaren muina edo funtsa, barne-aldaketa batzuen ondorioa da -gizona eta bere izpirituarenak- edo kanpokoan -formalak eta mekaniko antzekoak. Azken hauen artean, axola gehien duena, ia zalantzarik gabe, boterearen lerradura da. Honek, ordea, izpirituaren lerradura dakar lagun.

Horregatik, garai batean, bera ulertu asmoz, kirika egiten dugunean, gure lehen galderetako bat honek izan behar du: "Nork agintzen du munduan sasoi honetan?" Baliteke sasoi honetan mundua harremanik gabeko zati batzuetan sakabanatua egotea, mundu barnekoia eta independenteak osatuz. Milziadesen garaian Mediterraneoko munduak ekialde muturreko mundurik bazenik ere ez zekien. Horrelakoetan, gure galdera, "Nork agintzen du munduan?", elkarbizitzazko multzo bakoitzari zuzendu behar genioke. Baina XVI. mendeaz geroztik gizadia bateratze-ildo erraldoi batean sartu da, gure egunotan ezin gaindituzko mailara iritsi delarik. Jadanik ez dago aparte bizi den gizadi-puskarik -ez dago gizadi-irlarik. Beraz, mende hartaz gero esan daiteke munduan agintzen duenak, benetan, mundu osoan zabaltzen duela bere agintaritza. Horrelakoa izan da hiru mendetan zehar herri europarrek osatu duten talde berdinkatuaren zeregina. Europak agintzen zuen, eta bere aginte batasunaren azpian mundua era baterakoian bizi zen, edo gutxienez, gero eta baterago.

Biziera horri "Aro Modernoa" esan ohi zaio, izen gris eta indargabea, honako errealitate hau ezkutatzen duena: Europaren nagusigoaren aldia.

"Agintea" hemen ez da botere materiala, eragin fisikoa, erabiltzea batez ere. Hemengo asmoa ergelkeriak alde batera uztea baita; lodienak eta nabariak bederen. "Aginte" deritzan gizakien arteko erlazio egonkor eta normal hori, ordea, ez da inoiz indarrean oinarritzen, alderantziz baizik; gizon batek edo gizon multzo batek agintzen duelako du bere mendean "indarra" deritzan gizarteko tresna edo makina hori. Gertakari batzuetan lehen begiradan indarra dela agintearen funtsa badirudi ere, ondoko azterketa batean, adibide egokienak gertatzen dira tesi hura frogatzeko. Napoleonek eraso bat zuzendu zuen Espainiara, denboraldi batez eutsi zion erasoari, baina ez zuen egun batean ere Espainian benetan agindu. Eta hori indarra zuelarik eta hain zuzen ere indar hutsa zuelako. Bereiztea komeni da eraso-gertakari edo bidea eta aginte-egoera. Agintea autoritatearen jardun normala da. Eta beti iritzi publikoan oinarritzen da -beti, orain, duela hamar mila urte bezala, hala ingeles nola botokutarren artean. Inork ez du lurrean agindu bere agintea iritzi publikoaz bestez alaturik.

Ala, uste ote du norbaitek, iritzi publikoaren subiranotasuna, Danton abokatuak 1789an edo San Tomas Akinokoak XIII. mendean asmatu zela? Subiranotasun horren ideia hemen edo han, data honetan edo bestean, aurkituko zuten; baina gizarteetan agintzearen fenomenoak sortzen duen funtsezko indarra iritzi publikoa dela, gizona bera bezain zaharra eta iraunkorra da. Horrela, Newtonen fisikan grabitazioa da mugimendua sortzen duen indarra. Eta iritzi publikoaren legea historia politikoaren grabitazio orokorra da. Bera gabe, zientzia historikoki ere ez legoke. Horregatik, Humek oso zorrozki iradokitzen duenez, historiaren zeregina, iritzi publikoaren subiranotasunak,

amets utopikoa izatetik urrun, noiznahi eta gizarte guztietan benetako axola izan duela frogatzea da. Izan ere, jenizaroekin gobernatu nahi duena ere, hauen iritziaren eta hauei buruz gainerako bizilagunek duten iritziaren mendean dago.

Egia esan, agindu ez da jenizaroekin egiten. Horrela, Talleyrand-ek Napoleoni: "Baionetekin, sire, edozein gauza egin daiteke bat izan ezik: gainean eseri." Eta agintzea ez da boterea kentzeko keinua, boterearen erabilpen lasaia baizik. Hitz batean, agintzea esertzea da. Errege-aulki, kurul-aulki, aulki urdin, ministro-poltrona, jargoia. Ikusmolde inozo eta elaberriaren aurka, agintea, ukabil-arazoa baino areago ipurtalde-kontua da. Estatua, azken finean, iritziaren estatua da, egoera: oreka egoera, estatikazkoa.

Batzuetan, haatik, ez da iritzi publikorik egoten. Iritzi ezberdinetan zatitua dagoen gizarteak, iritzi indarra elkarri kendua delarik, ez du agintea antolatzeke biderik ematen. Eta Naturari, hutsa beldurgarri gertatzen zaionez gero, iritzi publikoak uzten duen hutsunea indar basaz betetzen da. Gehienez, bada, hau aurreratzen da haren ordezkari gisa.

Horregatik, iritzi publikoaren legea grabitazio historikozko lege gisa zehaztasun osoz adierazi nahi izanez gero, hutsune kasu horiek gogoan hartzea komeni da, eta orduan egia jakin eta ezagun batera iristen da: iritzi publikoaren aurka ez dago agintzerik.

Honek, aginpidea iritzi baten nagusigoa dela ohartzera garamatza; beraz, izpiritu batena; eta aginpidea, funtsean, ez dela botere izpirituala baino. Historiako gertakariak zorrozki egiaztatzen dute hau. Edozein aginpide basatik "sakratu" kutsua du, erlijiotasunean oinarritzen baita, eta, erlijiotasuna, gero izpiritu, ideia, iritzi, izango denaren lehen agerpena da; labur esan, inmateriala eta ultrafisikoa izango denarena. Erdi Aroan, neurri handiagoan, gauza bera gertatzen da. European osatzen den lehen Estatu edo Botere publikoa Eliza da, "botere izpirituala" izatearena izenean ere badaramala. Elizagandik bera ere jatorriz botere izpirituala baizik ez dela ikasten du Botere publikoak, ideia batzuen iraupena, eta Erromako Inperio Santua sortzen da. Honela, bi botere, bata bestea bezain izpirituala, ari dira borrokan, eta mamiari dagokionez ezin bereiz daitezkeelarik -biak dira izpiritu- bakoitza denbora-mota batean kokatzea erabakitzen dute: tenporalean eta betierekoan. Botere tenporala eta erlijio boterea, biak dira izpiritualak; baina bata denboraren izpiritua da -iritzi publiko mundutiarra eta aldakorra-, eta bestea betikotasun izpiritua -Jainkoaren iritzia, Jainkoak gizakiez eta hauen halabeharraz duen iritzia.

Beraz, berdin da esatea: halako garaian halako gizonak, halako herriak edo halako herri multzo berdintsuak agintzen du, edota honela esatea: halako garaian halako iritzi -ideia, nahi, xede, helburu- sistema da nagusi munduan.

Nola ulertu behar da nagusigo hau? Gizon gehienek ez dute iritzirik, eta beharrezkoa da hau kanpotik presioz etortzea, olioak makinetan sartzen den bezala. Horregatik, beharrezkoa da izpirituak -dena dela- boterea izatea eta erabiltzea, iritzirik ez duen jendeak -gehienak- iritzia izan dezan. Iritzirik gabe, elkarrekin bizitzea nahas-mahas hutsa litzateke; are gutxiago: ezer-ez historikoa. Iritzirik gabe gizonen bizitzak ez luke arkitekturarik, egiturapenik, izango. Horregatik, botere izpiritualik gabe, aginduko duen inor gabe, eta hau falta den neurrian, nahaste-borrastea da gizadian nagusi. Eta ildo beretik, edozein botere-lerradura, edozein aginte-aldaketa, iritzi-aldaketa da hein berean eta, ondorioz, grabitazio historikoaren aldaketa.

Itzul gaitezen lehenera. Mende batzuetan zehar Europak agindu du munduan, izpiritu beretsuko herri multzo batek. Erdi Aroan inork ez zuen agintzen mundu tenporalean. Horrelaxe gertatu da historiako erdi aro guztietan. Horregatik dira beti nola-halako nahas-mahas eta basakeria, iritzi-eskasia. Garai horietan maitatu egiten da, gorrotatu, irrikatu, higuindu, eta dena neurri handiz. Iritzi gutxi ematen da, ordeak. Ez dute xarma faltarik halako garaiek. Baina garai nagusietan gizadia iritiztik bizi da, eta horregatik

dago ordena. Erdi Aroaren beste aldean aurkitzen dugun garaian, Modernoan bezala, norbaitek agintzen du, nahiz eta munduaren zati mugatu batean den: Erroma, nagusi-magusi handia. Berak ezarri zuen ordena Mediterraneo eta inguruetan.

Gerra ondoko egun hauetan dagoeneko Europak ez duela munduan agintzen esaten hasi dira. Antz ematen ote zaio diagnostiko honen larritasunari? Berarekin botere-lerradura bat iragartzen da. Norantz doa? Nor izango ote da Europaren ordezkaria munduaren aginpidean? Baina, seguru da norbaitek ordezkatzeko duela? Eta inor ez balitz, zer gerta liteke?

2

Egi-egia da munduan uneoro, eta, beraz, orain, mila gauza gertatzen direla. Une honetan munduan zer gertatzen ari den adierazi nahi izatea, beraz, bere buruaz ari duen ironiatzat hartu behar da. Baina errealitatearen betetasuna zuzenean ezagutu ezinagatik beragatik, ez daukagu beste erremediorik geure oldez errealitate bat eraikitzea baino, gauzak nola edo hala direlako ustean. Honek eskema bat eskuratzen digu, hau da, kontzeptu bat edo kontzeptu sare bat. Berarekin, koadrikula batean zehar bezala, egiazko errealitateari begiratzen diogu, eta orduan, orduan bakarrik, lortzen dugu gutxi gora-beherako haren ikuspen bat. Honetan datza bide zientifikoa. Areago: honetan datza edozein adimen erabilera. Gure laguna lorategiko bide-zidorretik etortzen ikusita "hau Kepa da" esaten dugunean, huts egiten dugu jakinaren gainean, ironiaz. Kepa-k guretzat, fisikoki eta moralki jokatzeko modu sorta labur bat adierazten baitu - "adiurre" deritzoguna-, eta, egia esan, Kepa gure lagunak, zenbaitetan, ez du "Kepa gure lagunaren" ideiarekin ia batere antzik izaten.

Edozein kontzeptu, dela arruntena dela teknikoena, bere buruaren ironian antolatua doa, irribarre altzioniko baten hortz nimiñoetan, harribitxi geometrikoa bere kokaduraren urrezko horzteriarren gainean ezarria doan bezala. Honela dio berak oso serio: "gauza hori A da, eta beste gauza hau B da." Baina berea pince-sans-rire baten seriotasuna da. Barre-algara irentsi eta ezpainak ongi estutzen ez baditu goitika botako duenaren seriotasun ezinegona da. Berak ederki daki hau ez dela A, horrela, oso-osorik, eta bestea B, horrela, argi eta garbi, ere ez. Kontzeptuak zehazki pentsatzen duena ez da dioena berbera, alde txiki bat dago, eta bitasun horretan dago ironia. Hauxe da benetan pentsatzen duena: nik badakit, zehaztasun osoz, gauza hau ez dela A, eta hura B ere ez; baina, A eta B direla onartuz gero, neure buruarekin konpontzen naiz, gauza bata eta bestearekiko neure bizi jokabidearen ondorioetarako.

Ezagumenaren, arrazoimenaren teoria honek greziar bat haserraraziko zukeen. Greziarrak errealitatea bera arrazoian, kontzeptuan aurkitua zuela uste baitzuen. Gure ustez, ordea, arrazoiak, kontzeptuak, gizonaren tresna domestiko bat da, bizitzako errealitate mugagabe eta korapilatsuegiaren erdian, bere egoera argitzeko behar eta erabiltzen duena. Bizia gauzeekin borrokatzea da, beraien artean zutik irauteko. Kontzeptuak, bere erasoari erantzuteko eratzen dugun egitamu estrategikoa dira. Horregatik, edozein kontzepturen hondoko erraiak aztertuz gero, gauzari berari buruz ez digula ezer esaten ikusten dugu; gizon batek gauza horrekin egin edo nozitu dezakeena laburtzen du. Iritzi zehatz honen arabera, edozein kontzepturen edukia bizitzari dagokio, gizon baten eginkizuna edo pairakizuna da, eta orain arte, nik dakidala, inork ez du iritzi hau aldarrikatu. Hala ere, nire ustez, Kant-ekin hasten den bide filosofikoaren hutsezinezko helmuga da. Horregatik, honen argipean Kant arteko filosofiarren iragana aztertzen baldin badugu, hondarrean filosofo guztiek gauza bera esan dutela irudituko zaigu. Egia esan, edozein deskubrimendu filosofiko, des-kubrimendu eta hondarrean zegoena axalera ekartzea baizik ez da.

Baina honelako introitua neurritz gainekoa da esatera noanarentzat, filosofia auziekiko hain arrotza denez. Ni soil-soilki esatera nindoan, munduan -historikoan, ulertzen da-

orain gertatzen ari dena hau baizik ez dela: hiru mendetan zehar Europak munduan agindu du, orain, berriz, ez daki agintzen duen, ezta agintzen segiko duen ere. Oraingo errealitate historikoa osatzen duten gauza guztiak honelako formula sinple batean biltzea, dudarik gabe eta onenean ere, gehiegikeria da, eta nik horregatik gogorarazi behar nuen, pentsatzea, nahitaez, gehiegikeria esatea dela. Gehiegikeriarik ez esan nahiago duenak, isilik egon behar du; areago: bere adimena gelarazi behar du eta ergeltzeko modua bilatu.

Uste dut, egiazki, huraxe dela munduan benetan gertatzen ari dena, eta gainerako guztia horren ondorio, baldintza, sintoma edo anekdota dela.

Nik ez dut esan Europak agintzeari utzi dionik, baizik eta, soilki, urte hauetan Europak zalantza larriak dituela agintzen ote duen ala ez, bihar aginduko ote duen. Honi Lurreko beste herrietan gisako gogo-egoera dagokio: orain norbaitek agintzen ote dien duda egitea. Ez daude seguru horretaz ere.

Urteotan asko mintzatu da Europaren gainbeheraz. Gartsuki eskatzen dut ez jarraitzeko inozoki Spengler gogoan edukitzen, Europaren edo Mendebalearen gainbeheraz hitz egiten dela eta besterik gabe. Haren liburua agertu baino lehen, jende guztiak hitz egiten zuen horretaz, eta bere liburuaren arrakasta, jakina denez, susmo edo kezka hori, askotariko esanahi eta arrazoiez, buru guztietan egoteari zor izan zitzaion.

Hainbeste hitz egin da Europaren gainbeheraz, non batzuek gertatutzat eman duten. Hori ez da benetan eta argiro horretan sinesten dutelako, egiaztat hartzen ohitu direlako baizik, nahiz eta egun jakinen batean horretaz komentzitu ziren ezin diren zinez gogoratu. Waldo Franken liburu berria, Redescubrimiento de América, oso-osorik oinarritzen da Europa hilzorian dagoelako ustean. Hala ere, Frankek ez du ez aztertzen ez eztabaidatzen, ez auzigai bihurtzen, premisa izugarri gisa erabiliko duen gertakari gaitz hori. Gehiago aztertu gabe, hortik abiatzen da zerbait finkoa balitz bezala. Eta abiapuntuko inozokeria hau aski dut Frankek ez duela Europaren gainbehera erabat sinesten uste izateko; oso bestela, auzia aipatu ere ez du egin. Tranbia bezala hartzen du. Uste arrunt eta komunak garraio intelektualeko tranbiak dira.

Eta berak bezala beste askok egiten dute. Herriek batez ere, herri osoek.

Munduak orain opa diguna umekeria hutsezko ikuspena da. Eskolan, norbaitek maisuak aldegin duela esan bezain pronto, ikasleria asalatu eta bihurrikerietan hasten da. Bakoitzak, maisuaren presentziak inposatzen zuen zamari ihes egitearen atsegina sumatzen du, arauen uztarria botatzearena, hankak askatzearena, nor bere biziaren jabe izatearena. Baina, lanak eta zereginak finkatzen zituen araua kenduta, ikasle-aldrak, eginkizun jakinik, jardun garbirik, zentzu, jarraipen eta nondik-norako lanik ez duenez, egin dezakeen gauza bakarra itzulipurdia da.

Negargarria da herri txikiek eskaintzen duten ikuspen txatxua. Europa gainbehera omen doala ikusirik eta, beraz, agintzeari uzten diola, nazio eta nazioska bakoitza saltoka hasten da, imintzioka, buruz behera jartzen edo oilartzen eta harrotzen, bere bizia gidatzen duen pertsona helduaren haizeak hartuta. Hortik nonahi opa diguten "nazionalismoen" ikuskizun biblionikoa.

Aurreko kapituluetan munduan gaur egun nagusi den gizon-mota berri bat itxuratu nahi izan dut: masa-gizona izendatu dut eta bere ezaugarri nagusia nabarmenarazi dut: bere burua arrunt ikusita, arrunkeariaren eskubidea aldarrikatzen du eta uko egiten dio bera baino goragoko mailak onartzeari. Ez da harritzekoa, herri bakoitzean horrelako joera nagusi denez gero, nazio artean ere antzera gertatzea. Badira, nolabait, masa-herriak ere, herri sortzaile handien aurka altxatzeko prest, historia antolatu duten giza leinuen gutxiengoaren aurka. Oso barregarria da, errepublikaño hau edo bestea, bere txoko galdutik, hanka puntetan jarri eta Europari historia unibertsaletik at gelditu dela agiraka eginez aldarrikatzen ikustea.

Zer gertatzen da? Europak arau-sistema bat sortu zuen; berorren balio eta emankortasuna mendeek frogatu dute. Arau horiek ez dira, ezta gutxiago ere, izan litezkeen onenak. Hala ere, behin-betikoak dira, zalantzarik gabe, beste batzuk egon edo barrundatu arte. Hauek gainditzeko ezinbestekoa da beste batzuek erditzea. Orain, masa-herriek zibilizazio europarra den arau-sistema hura bukatutzat ematea erabaki dute, baina beste bat sortzeko gauza ez direnez gero, ez dakite zer egin, eta denbora betetzeko itzulipurdika hasten dira.

Hauxe da, munduan norbaitek agintzeari uzten dionean, datorren lehen ondorioa: besteak, errebelatzean, eginkizunik gabe gelditzen dira, bizi-egitarau gabe.

3

Ijitoa aitortzera joan zen: baina apaizak, zuhurki, ba al zekizkien Jainkoaren Legeko aginduak galdegin zion. Eta ijitoak erantzun zion: "Misté Padre, yo loh iba a aprendé: pero he oído un runrún de que loh iban a quitá."

Ez ote da hau munduaren oraingo egoera? Europako aginduak dagoeneko indarrean ez daudelako zurrumurrua zabaldu da, eta jendeak -gizakiak eta herriak- horretaz baliatu dira agindurik gabe bizitzeko. Europarrak bakarrik baitzeuden. Hori ez da gertatu -beste batzuetan ez bezala- arau berrien sorrerak zaharrak bazterrarazi dituelako eta azken orduko jaidura berriak bere sugar gaztean epelduz doazen gogo zaharrak irentsi dituelako. Hori litzateke maizkoena. Are gehiago: zaharra zahar gertatzen da, ez berezko zahartzagatik, aitzitik, dagoeneko arau berri bat badagoelako, berri izate hutsarekin lehengoari bat-batean aurrea hartzen diona. Seme-alabarik ez bagenu, ez ginateke zaharrak izango edo denbora luzeagoa behar genuke zahartzeko. Gauza bera gertatzen da tramankuluekin. Hamar urteko automobilak zaharragoa ematen du hogei urteko lokomotorak baino; soil-soilik, automobilen teknikako asmakuntzak azkarrago gertatu direlako. Gazteria berrien sorreragatik gertatzen den gainbehera hau osasun-adierazpena da.

Baina Europan orain gertatzen ari dena osasunarentzat kaltegarria eta harrigarria da. Europako aginduek indarra galdu dute, eta etorkizunean ez da besterik sumatzen. Europak -diote- agintzeari utzi dio, eta ez da ikusten zeinek ordezkia dezakeen. Europa diogunean, batez ere eta bereziki, Frantzia, Ingalaterra eta Alemaniaren hirutasuna ulertzen da. Beraiek betetzen duten lurbirako zatian, mundua antolatu duen giza bizimoduaren neurria ondu egin da. Orain esaten den bezala, hiru herri hauek gainbeheran baldin badaude eta beren bizi-egitarauak balioa galdu baldin badu, ez da harritzekoa munduak morala galtzea.

Eta hauxe da egia hutsa. Mundu guztia -nazioak, gizabanakoak- desmoralizatua dago. Aldi batean, moral galtze hau jolasa da eta nolabait ilusioa ere pizten du. Behekoek gainetik zama bat kendu dietela uste dute. Dekalogoek, harrian edo brontzez idazten zituzteneko pisutasuna gordetzen dute. Manatu-ren etimologiak zamatzea esan nahi du, norbaiti zerbait eskuetan ipintzea. Manatzen duena, ezinbestean, kargantea da. Mundu guztiko menpekoak aspertuta daude dagoeneko bestek kargatzeaz eta enkargatzeaz, eta jai-giroan baliatzen dute agindu astunetatik arindutako sasoi hau. Baina gutxi irauten du jaiak. Era jakin batera biziarazten gaituen manamendurik gabe, erabilgarritasun hutsean gelditzen da gure bizitza. Hauxe da, dagoeneko munduko gazteria hoberenen barne-egoera lazgarria. Bere burua hain libre, trabetatik aske sumaturik, hutsik sentitzen dira. Erabilgarritasunezko bizitza batek, heriotzak baino gehiago ukatzen du bere burua. Bizitzea, zerbait jakina egitea baita -mandatua betetzea-, eta, gure izatea zerbaitetara jartzeari uko egiten diogun neurrian, bizitza hustu egiten dugu. Oihu izugarri bat entzungo da laster lur osoan, ezin konta ahal zakurren ulua bezala izarretaraino igoko dena, aginduko duen, zeregin edo eginbeharren bat ezarriko duen zerbaiten eta norbaiten eske.

Bihoa hau honez gero Europak ez duela agintzen mutikoen zentzugabekeriaz iragartzen digutenentzat. Agintzea, jendeari zeregina ematea da, bere halabeharrean, erroan, sartzea; bere alferrekotasuna galeraztea, zeina alferkeria izaten baita, hustutako bizia, hondamendia.

Ez luke axolarik izango Europak agintzeari uzteak, nork ordezkaturik balego. Baina halakoaren arrastorik ez dago. New York eta Mosku ez dira gauza berria Europaren ondoan. Bata eta bestea Europako agintzaren bi sail dira, besteetatik aldendutakoan beren zentzua galdu dutenak. Egia esan, ikara ematen du New York eta Moskuz hitz egiteak. Norberak ez baitaki osoki zer diren: ez batz ez besteaz ez dela oraindik hitz erabakigarrikeria esan besterik ez daki. Baina zer diren osoki ez jakinda ere, beren izaera nagusia ulertzeko adina usnatzen da. Biak, noski, bete-betean sartzen dira noizbait "histori camouflagere gertakariak" izendatu izan ditudan horietan. Camouflagerea, berez, dirudiena ez den errealitate bat da. Bere itxurak, argitu orde, muina ezkutatzen du. Horregatik engainatzen ditu jende gehienak. Camouflagereak sortzen duen iruzurretik libratu, alde aurretik, eta orokorrean, camouflagerea dagoela badakiena libra daiteke. Gauza bera gertatzen da espejismoarekin. Gogapenak begiak zuzentzen ditu.

Histori camouflagere gertakari guztietan nahasten diren bi errealitate daude: bat, sakona, benetakoa, funtsezkoa; bestea, itxurazkoa, aldikoa eta axalekoa. Horrela, Moskun ideia europarren mintz bat dago -marxismoa-, eta ideia horiek Europako errealitate eta arazoei buruz Europan asmatuak dira. Mintzaren azpian herri bat dago, europarra ez bezalakoa, gai etnikoaz ez ezik, baita -eta honek askoz axola handiagoa du- gurea bezalakoa ez den beste adin batekoa ere. Oraindik hartzen ari den herria; hots, gaztea. Marxismoak Errusian -industrialari ez dagoen lekuan- garaitu izana, marxismoari gerta zekiokkeen kontraesanik handiena litzateke. Ez dago, ordea, halako kontraesanik, halako garaipenik ez dagoenez gero. Errusia marxista da, Erromako Inperio Santuko tudeskoak erromatarrek ziren neurrian gutxi gora-behera. Herri berriek ez dute ideiarik. Kultura zahar bat dagoen edo egon berri den eremu batean hazten direnean, honek eskaintzen dien ideiaz mozorrotzen dira. Hementxe dago camouflagerea eta bere arrazoiak. Ahaztu egiten da -bestetan esan dudanez- herri batentzat bi bilakaera-mota nagusi daudela. Bada zibilizazio oroz hustutako "mundu" batean jaiotzen den herririk. Adibidez: egiptoarra edo txinarra. Horrelako herri batean dena da autoktonoa, eta bere keinuek esanahi argia eta zuzena dute. Baina badira historia zaharreko kultura baten eremuan etxe eta garatu diren beste herri batzuk ere. Erroma, adibidez, Mediterraneoaren erdian hazten da, bertako urak greziar-ekialdeko zibilizazioaz gainezka zeudelarik. Hau dela eta, erromatarren keinuen erdiak ez dira bereak, ikasiak baizik. Eta ikasitako keinua, hartutakoa, bikoitza da beti, eta bere egiazko esanahia ez da zuzena, zeharrekoa baizik. Ikasitako keinua egiten duenak -beste hizkuntza bateko hitz bat adibidez- horren azpitik berea duen keinua egiten du, benetakoa; adibidez, bere-berea duen hizkuntzara itzultzen du kanpoko hitza. Horregatik, camouflagereak ulertzeko ere beharrezkoa da zeharreko begiratu; hiztegia aldamenean duelarik testu bat itzultzen duenarena. Ni, Stalinen marxismoa Errusiako historiara itzulita agertuko duen liburuaren zain nago. Errusiar gisa duena baita honek indartsu duena, ez komunista gisa duena. Auskalo zer izango den! Hauxe bakarrik baieztatu daiteke: Errusiak mendeak behar ditu oraindik agintarigai izateko. Oraindik manamendurik ez duenez gero, Marxen arau europarrarekiko atxikimendu itxura egin behar izan du. Gaztetasuna soberan duenez, aski izan zuen itxura horrekin. Gazteak, bizitzeko, ez du arrazoirik behar; aitzakiak besterik ez du behar.

Oso antzera gertatzen da New Yorkekin ere. Uste okerra da, bere oraingo indarra, betetzen dituen manamenduei zor zaiela uste izatea. Azken finean, honetara biltzen dira: teknika. Hauxe halabeharra! Beste asmakari europar bat, ez amerikarra. Teknika,

Europar asmatu zen XVIII. eta XIX. mendeetan. Hau halabeharra! Amerika sortzen den mendeetan. Eta bene-benetan esaten zaigu, Amerikaren muina, bizitzaz duen ikusmolde praktizista eta tekniko delako! Bestela esan beharrean: Amerika, koloniak beti diren bezala, arraza zaharren - Europakoena batez ere - lehengora itzultzea edo gaztetzea da. Errusiakoak ez bezalako arrazoiengatik, Estatu Batuek ere, "herri berri" izendatzen dugun histori errealtate berezi horretako kasu bat adierazten dute. Hau esatera bat dela uste izaten da, baina gizaki baten gaztaroa bezain egiazkoa da. Amerika, bere gaztetasunagatik da indartsua; gaztetasun hori "teknika" manamendu garaikidearen zerbitzutan jarri da, budismoaren zerbitzutan jarri zitekeen bezalaxe berau eguneko ordena izan balitz. Baina Amerikak honekin bere historiari ekin baizik ez du egiten. Orain hasiko dira haren larritasunak, haren eztabaidak, haren gatazkak. Oraindik gauza asko izan behar du; besteak beste, teknika eta praktizismoaren alderantzizkoenak. Amerikak Errusiak baino urte gutxiago du. Nik beti esan izan dut, gehiegikeriaren beldurrez esan ere, herri basati bat zela azken asmakariez mozturorik⁷³. Orain, Waldo Frankek, bere Redescubrimiento de América-n argi eta garbi aitortzen du hori. Amerikak ez du oraindik oinazetik izan; lilurakeria da agintearen bertuteen jabe izan daitekeela uste izatea.

Inork ez duela aginduko eta, beraz, mundu historikoa nahas-mahasera bihurtuko delako ondorio ezezkorrean erori nahi ez duenak, abiapuntura itzuli behar du eta seriozki honela galdetu: dioten bezain egia ote da Europa gainbehera doala eta uko egiten diola aginteari, utzi egiten duela? Itxurazko gainbehera hau, ez ote da izango Europari benetan Europa izaten utziko dion krisi ongilea? Europako nazioen gainbehera nabaria, ez ote zen a priori beharrezkoa egunen batean Europako Estatu Batuak egingo badira, Europako pluraltasuna bere batasun formalak ordezkatuta?

4

Agintzeko eta obeditzeko zeregina erabakigarria da edozein gizartetan. Nork agindu eta nork obeditu gizartean ilun baldin badago, gainerako guztia ere zikin eta trakets ibiliko da. Bakoitzaren barrunberik gordeena ere, salbuespen adimentsuenak salbuespen, asaldaturik eta faltsoturik geldituko da. Gizona izaki bakartia balitz, bestekiko harremanak noizik behin baizik ez dituenak, beharbada ez lukete ukituko agintzearen, Boterearen aldaketa eta krisietan sorturiko eraginek. Baina bere muinean gizartekoa denez gero, nahasirik geratzen da bere izatearen oinarrian, berez eta zuzenean kolektibitateari bakarrik dagozkion aldaketak direla eta. Horregatik, gizabanako bat aparte hartu eta aztertu ondoren, besterik gabe, nola dabilen bere herrian aginte- eta menpetasun-sena atera daiteke.

Interesgarria litzateke baita baliagarria ere, erdi-mailako espainiarrari honelako azterketa egitea. Eginkizuna, hala ere, gogaikarria litzateke eta, baliagarria izanagatik, etsigarria; horregatik bazterten dut. Baina, Espainia aspaldiko mendeetan, aginte- eta menpetasun-arazoan kontzientzia zikinez bizi den nazioa izateak, gure erresuma honetako erdi-mailako gizonarengan sortzen duen barneko moral galtze larria, bilaukeria, erakutsiko luke. Bilaukeria, oker bat ohiko egoera eratu gisa onartzea da, onartuta ere desegokia ematen duena. Berez okerkeria eta anormala dena normal bihurtu ezin denez gero, gizakiak hartara egokitzea erabakitzen du, makurkeriara, arrastaka daraman gaiztakeria edo akatsarekin bat eginik. Antzeko jokamoldea agertzen du herri-esaerak honela dioenean: "gezur batek ehun egiten ditu". Nazio guztietan egon izan da noizbait agindu behar ez zuenik agindu nahian; baina sen bortitz batek indarrak bilarazi zizkien eta agindu-nahi desegoki hura uxarazi. Desegokitasun iragankorra arbuia zuten eta horrela moral publikoa berpiztu. Baina espainarrak alderantziz egin du: bere senez arbuia zutenaren aginteari aurre egin beharrean, bere izatearen gainerakoa faltsotu nahiago izan du lehen iruzur hartara egokitzeko. Gure herrian honek iraun

bitartean, alferrik da gure arrazako gizonengandik ezer itxarotea. Gizarte batek ezin du, historian duintasunez zutik irauteko lan zailean behar den bizkortasun zalurik izan, haren Estatua, haren agintea edo manua funtsez iruzurra denean.

Ez da harrigarria, bada, nork aginduko duen munduan duda arin bat, zalantza sinple bat nahikoa izatea, mundu guztia -bere bizitza publiko eta bere bizitza pribatuan- morala galtzen hasia egoteko.

Giza bizitzak, berezko izatez, zerbaitetara jarria egon behar du, eginkizun goragarri edo apal batera, etorkizun ospetsu edo xehe batera. Gure bizian idatzia dagoen baldintza harrigarria baina halabeharrekkoa da. Bizitzea, alde batetik, bakoitzak berez eta berarentzat egiten duen zerbait da. Bestalde, nire bizitza hori, niri bakarrik axola zaidana, zerbaitetara ematen ez badut, trakets ibiliko da, motel eta "formarik" gabe. Urte hauetan, bere burua zertara eman ez dakitela, beren labirintoan galdurik dabiltzan ezin konta ahal giza bizitzen ikuspen erraldoia dugu. Manamendu guztiak, agindu guztiak, kolokan gelditu dira. Egoerarik bikainena izan behar lukeela dirudi, bizitza bakoitza nahi duena egiteko, bere kasa ibiltzeko aukeran gelditzen baita. Gauza bera herri bakoitza ere. Europak bere indarra munduan laxatu du. Baina ondorioa uste zenaren alderantzizkoa izan da. Bere kabuz utzita, bizitza bakoitza bere bururik gabe gelditzen da, hutsa, zereginik gabe. Baina zerbaitetaz bete behar denez gero, bere burua "asmatzen" edo arinkeriaz itxuratzen du, barruko ezerk, egiazko ezerk eskatzen ez dituen sasi-eginkizunetara ematen da. Gaur gauza bat da; bihar, beste bat, aurrekoaren aurkakoa. Galdua dago bere buruarekin bakarrik aurkitzean. Berekoikeria labirintokoa da. Ulertzen da. Bizitzea, zerbaitetarantz jaurtikia joatea da, helmuga baterantz ibiltzea. Helmuga ez da nire ibilia, ez da nire bizitza; nire bizitza dago hartara jarria eta horregatik helmuga bizitzatik kanpo dago, harantzago. Nire bizitzaren barruan bakarrik ibiltzea erabakitzen baldin badut, nirekoikeriaz, ez dut aurrera-pausorik egiten, ez noa inora; jira-biraka nabil leku berean. Hauxe da labirintoa, inora ez daraman bidea, bere baitan galtzen dena, nor bere barruan ibiltze hutsa baizik ez baita.

Gerra ondoan europarra bere barruan itxi da, bere buruarentzako eta besteentzako zereginik gabe gelditu da. Horregatik, historiaren aldetik, duela hamar urte bezala gelditu gara.

Ez da lehorrean agintzen. Agintea besteengan egiten den indarrean datza. Baina ez da hori bakarrik. Hori bakarrik balitz, indarkeria litzateke. Ez ahaztu agintzeak ondorio bikoitza duela: norbaiti agintzen zaio, baina zerbait agintzen da. Eta agintzen zaiona, azken finean, eginkizun batean, zeregin historiko batean, partaide izatea da. Horregatik ez dago inperiorik bizi-egitaraurik gabe, bizi-egitarau inperialik gabe hain zuzen ere. Schillerren olerkiak dioenez:

Erregeek eraikitzen dutenean, dute zeregina gurdizainek.

Ez da, beraz, komeni, herri handien jokabidean -eta gizonenean- asmo berekoi hutsa besterik ikusi uste ez duen iritzi zabarrekoa izatea. Ez da dirudien bezain erraza berekoi hutsa izatea, eta, horrelakoa izanda, ez du inork gailentzerik lortu. Herri handien eta gizon handien itxurazko berekoitasuna, bizitza eginkizun batera jarria duenak behar duen ezinbesteko jokamolde gogorra da. Zerbait zinetan egin behar denean eta asmo batera emanak garenean, ezin zaigu eskatu bidarien zerbitzutan prest egoteko eta noiznahi altruismo koskorretara emanak egoteko. Hona Espainia zeharkatzen duten bidariei atseginen gertatzen zaizkien gauzetako bat: norbaiti zein kaletan dagoen plaza edo etxeren bat galdeginez gero, bertakoak, maiz, bere bidea utzita, arrotzarekiko zabaltasunez neke harturik, behar duen lekuraino laguntzea. Ez dut ukatuko zeltibero ontxoaren izaera horretan nolabaiteko eskubaltasunik dagoenik, eta poztu ere egiten naiz atzerritarrek horrela hartzeaz. Hala ere, hori entzutean edo irakurtzean, inoiz ezin izan diot honako errezelo honi eutsi: galdetutako aberkide hori benetan norabait ote

zihoan? Ederki gerta baitaiteke, maiz samar, espainola ezertara ez joatea, ez egitasmorik ez eginkizunik ez izatea, eta, bizitzara irtetea, ea besterenek berea zertxobait betetzen ote duten. Seguru dakit hainbat aldiz, ene aberkideak, ea kanpotarren bat, laguntzeko, aurkitzen duten, irteten direla kalera.

Larria da munduko aginpideari buruzko zalantza honek -oraindaino Europak zuen aginpideari buruzko zalantzak-, gainerako herriei, beren gaztetasunagatik oraindik beren histori aurrean daudenak izan ezik, morala galarazi izana. Baina are larriagoa da piétinement sur place hau europarra bera erabat moralaz gabetzera iristea. Ez naiz iritzi honetakoa ni neu europarra edo antzeko zerbait naizelako. Ez dut honela esaten: etorkizun hurbilean europarrak ez agintzekotan, ez zait axola munduko bizitza. Ez litzaidake batere inportako aginpide europarra amaitzea, beste herri multzo bat, Botere eta munduaren gidaritzan hura ordezkatzeko gai, balego. Baina ez nuke horrenbeste ere eskatuko. Inork ez agintzea ere onartuko nuke, horrek gizon europarraren bertute eta dohain guztiak suntsitzea berarekin ekarriko ez balu.

Dena den: azken hau ezinezkoa da. Europarra, berak ez agintzen ohitzen baldin bada, aski izango da belaunaldi t'erdi, kontinente zaharra, eta ondoren mundu guztia, ohituren inertzian, adimen antzutasunean eta basatikeria osoan erortzeko. Inperioaren ametsak eta beroni darion erantzukizuneko arauketak ez bestek iraunarazi ditzakete erne Mendebaleko arimak. Honek huts eginez gero, doilortuz joango da europarra. Hortik aurrera adimenek ez dute izango maila guztietako ideia nagusiak, berriak, atzematera, oldartsu, ausart, tematsu, abiarazten dituen bere buruarekiko fede suhar hori. Europarra behin-betiko eguneroko bilakatuko da. Eginahal sortzaile eta luxuzkorako gai ez delarik, iraganean eroriko da beti, ohituran, usuario axolagabean. Izaki baldres, formulista, hutsal, bihurtuko da, beheraldiko greziarrak bezala eta Bizantzioko historiako guztiak bezala.

Bizitza sortzaileak higie-ne handiko erregimena eskatzen du, begiramen handia, etengabeko eragingarriak, duintasun senaren pizgarri direnak. Bizitza sortzailea indartsua da, eta hori bi egoera hauetako batean bakarrik gerta daiteke: edo norbera agintari delarik, edo agintzeko eskubide osoa aitortzen diogun batek agintzen duen mundu batean kokaturik; edo neuk agintzen dut edo obeditu egiten dut. Baina obeditzea ez da jasatea -jasatea doilortzea da-, alderantziz baizik, agintaria estimatzea eta berari jarraitzea, berarekin bat eginik, bere banderaren azpian gartsuki jarritz.

5

Artikulu hauen abiapuntura itzultzea komeni da: munduan urte hauetan Europaren gainbeheraz hainbeste hitz egitearen gertakari bitxira. Aski xehetasun harrigarria da gainbehera honetaz ohartu diren lehenak arrotzak ez izatea, eta horren aurkikundea europarrei berei zor izatea. Kontinente zaharretik kanpo inork horretaz pentsatzen ez zuenean, Alemania, Ingalaterra, Frantziako gizon batzuei ideia iradokitzaile hau bururatu zitzaien: ez ote gara agian gainbehera hasi? Ideiak Prentsa ona izan du, eta gaur egun mundu guztiak aipatzen du Europaren gainbehera zerbait ezin ukatuzkoa bezala.

Baina geldiaraz ezazue keinu xume batez, ideia aipatzen duena, eta galdegiozue zein gertakari zehatz eta argitan oinarritzen duen bere iritzia. Berehala ikusiko duzue halakoa zentzugabeko keinuak egiten eta besoei eragiten munduaren biribiltasunaren alderantz, edozein naufragori dagokion bezala. Ez daki, egia esan, zeri heldu. Europaren egungo beheraldiaren berri eman nahi denean, zehaztasun handirik gabe agertzen den gauza bakarra, Europako nazio bakoitzak aurrean aurkitzen duen zailtasun ekonomikoaren multzoa da. Baina zailtasun horiek zertxobait zehazterakoan, ez duela batek ere aberastasuna sortzeko ahalmena benetan eragozten ikusten da, eta kontinente zaharrak askoz ere krisialdi larriagoak igaro izan dituela arlo horretan.

Ez ote dira, menturaz, alemana edo ingelesa gaur egun inoiz baino gehiago eta hobeto ekoizteko gai sentitzen? Inola ere ez, eta axola handikoa da aleman edo ingeles horren gogo-aldartea ekonomiaren ikusmolde honetan kokatzea. Bitxia, hain zuzen ere, beste zerbait da: gogo horien etsipena ez dator bere burua gaitasun urriz sumatzen dutelako, alderantziz baizik, inoiz baino ahaltsuagoak sentiturik, ederki egin zezaketena egitea galera dieten muga gaizto batzuekin behaztopatzen direlako. Alemaniako, Ingalaterrako, Frantziako egungo ekonomiaren muga gaizto horiek, Estatu bakoitzeko muga politikoak dira. Benetako zailtasunaren sustraia, beraz, ez dago arazo ekonomiko honetan edo bestean, aitzitik, ahalmen ekonomikoek mugitzeko behar duten bizitza publikoaren antolaketa haien tamainarentzat desegokia izatean. Nire ustez, Europaren bizitasuna urte hauetan zalantzarik gabe zantpatzen duen urritasun, ezintasun sentipena, egungo ahalmen europarraren tamainaren eta jokaleku duen antolaketa politikoaren egituraren arteko desoreka horretaz bazkatzen da. Arazo larri premiatsuak konpontzeko oldarra, egundokoa da; baina berehala du oztopo kokaleku dituen kaiola txikietan, orain arte Europa osatu duten nazio txikietan. Egun kontinentearen gogoia zamatzen duen ezkortasunak, etsipenak, txori hegazuaren antza du, hegala handiak kaiolatzarreko burdinen kontra astintzean zauritu egiten baita.

Horren frogaz dugu gauza bera gainerako mailetan ere errepikatzea, nahiz eta bertako osagaiak ekonomikoaren antz txikia izan. Giro intelektualean, adibidez. Alemania, Ingalaterra edo Frantziako edozein intelektual egokik itota sumatzen du bere burua nazioaren mugetan, bere naziotasuna erabateko mugatasun bezala sentitzen du. Irakasle alemanak dagoeneko zentzugabe deritza irakasle alemanen entzulego hurbilak eskatzen dion produkzio-erari, eta idazle frantsesak edo entseulari ingelesak duten adierazpen-askatasun handiagoaren beharra sumatzen du. Alderantziz, Parisko letratu-gizona, bere frantses jatorriak inposatzen dion jauntxokeria literarioaren, berba formalismoaren, tradizioa, agortua dela ulertzen hasia da, eta nahiago luke, tradizio hori, bertako ondasun hoberenak gordeta, irakasle alemanaren bertute batzuekin elkartzea.

Barne-politikan ere gauza bera gertatzen da. Ez da oraindik sakon aztertu hain harrigarria den honako arazo hau: zergatik dabilen hain agonian nazio handi guztietako bizitza politikoa. Erakunde demokratikoek ospea galdu dutela esan ohi da. Horixe da, ordea, argitu behar litzatekeena. Ospe galtze harrigarria baita. Gaizki esaten da nonahi Parlamentuaz; baina aintzat hartu beharrekoetan ez da bakar bat ere ikusten hura ordezkatu nahi duenik, ezta beste Estatu-mota batzuen utopiazko itxurarik, ametsez bederen, desiragarriagoak ematen duenik ere. Ezin da, beraz, ustezko ospe galtze horren jatorriasunean sinetsi. Ez dira erakundeak, bizitza publikoaren tresnak diren aldetik, European oker dabiltzanak, beroiek erabiltzeko zereginak baizik. Europako gizaki bakoitzaren baitan bizitzak hartu duen egiazko tamainari dagozkion programak falta dira.

Hemen dagoen begi-iruzurra behingoz zuzentzea komeni da, amorru ematen baitute aldiro esaten diren lelokeriek, Parlamentua dela eta, adibidez. Ohiko Parlamentuen jokabideaz zuzen salatutako akats-mordoa dago; baina banan-banan hartuz gero, batek ere ez du Parlamentua ixteko arrazoirik ematen, alderantziz baizik, denek, bide zuzen eta argitik, berriztatu beharrera daramate. Dena den: zerbaitetaz gizalegez esan daitekeen gauzarik onena berriztatu beharra duela da, horrek, ezin utzizkoa dela eta bizi-berritzeko gai dela adierazten baitu. Oraingo automobila 1910ekoari aurkitu zitzaizkion akatsetatik sortu da. Baina herrian Parlamentuak izan duen ospe galtzea ez da akats horiengatik gertatu. Esaten da, adibidez, ez dela eragingarria. Guk orduan galdetu behar dugu: zertarako ez da eragingarria? Eragina, tresna batek helburu bat lortzeko duen bertutea baita. Oraingoan, helburua nazio bakoitzeko arazo publikoak konpontzea litzateke. Horregatik, Parlamentuen eragin-eza aldarrikatzen duenari, zein den oraingo

arazo publikoen konponketa argi eduki dezala eskatzen diogu. Bestela, ez badago argi inongo herritan, ezta teoriaz ere, zein den eginkizuna, ez du zentzurik erakundeetako tresnak eragin-ezaz salatzeak. Hobe litzateke gogoratzea ez duela inoiz erakunde batek Estatu bikainagorik, eragileagorik, sortu, XIX. mendeko Estatu-parlamentariak baino. Gertakaria eztabaidagarria ez denez, benetako ergelkeria erakusten du ahazteak. Ez dira nahasi behar, hortaz, Lege Biltzarrak, "are eragileagoak" egiteko, sakon eraberritzeko aukera eta premia, eta beren balio-eza.

Parlamentuen ospe-ezak ez du ikuskizunik beren akats nabariekin. Beste iturburu bat du, Parlamentuekiko, tresna politikoak diren aldetik, guztiz arrotza. Arrazoia besterik da: europarrak ez daki zertan erabil ditzakeen, ez ditu aintzat hartzen ohiko bizitza publikoaren helburuak; hitz batez, sartua dagoen eta preso duten Estatu nazionalak ez dute liluritzen. Zorioneko ospe galtze horri arretatsu begiratzuz gero, herritarrak, herrialde gehienetan, ez diola bere Estatuari begirunerik ikusten da. Alferrik litzateke erakundeen xehetasuna aldatzea, itzal gabeak ez baitira hauek, Estatua bera baizik, txikia gelditu da eta.

Europarrak, bere egitasmo ekonomiko, politiko, intelektualetan, bere nazioaren mugekin topo egitean, sumatzen du lehen aldiz, haiek -hots, bere bizi-aukerak, bere bizimoduak ezin direla parekatu bera itxita daukan gorputz kolektiboaren tamainarekin. Eta orduan, ingeles, aleman edo frantsesa izatea probintziano izatea dela ikasi du. Beraz, lehen baino "gutxiago" dela ikusi du, izan ere, lehen, ingelesa, frantsesa eta alemanak, nork bere aldetik, unibertsoa zirela uste baitzuten. Hauxe da, ene ustez, europarrak duen gainbehera sentipen horren zinetako sustraia. Gogo barneko eta kontraesaneko sustraia da, gutxitze uste ori, hain zuzen ere, ahalmena handitzetik baitator, baina antolaketa zaharkitu batekin egiten du topo eta orain ez dauka horren barruan sartzerik.

Argigarri gisa, esandakoari euskarri plastiko bat ematekotan, har bedi edozein jardun zehatz; adibidez: automobilgintza. Automobila, erabat asmakari europarra da. Hala ere, egun, tramankulu hau hobeto egiten dute Ipar Amerikan. Ondorioa: automobil europarra gainbehera doa. Eta, hala ere, Europako automobilgileak -industrialak eta teknikoak- ondotoxo daki ekoizpen amerikarraren nagusitasuna ez datorrela itsasoaz haraindiko gizonaren bertute berezi batetik, aitzitik eta besterik gabe, fabrika amerikarrak bere ekoizpena inolako oztoporik gabe ehun eta hoge milioi gizakiri opa ahal izatetik. Eman dezagun Europako fabrika batek bere aurrean ikusten duela Estatu europarrek eta beren koloniek eta babesgo herriek osaturiko merkatu eremu bat. Inork ez du dudarik egiten bostehun edo seiehun milioi gizonentzat egindako automobil hori "Ford" baino askoz ere hobe eta merkeagoa litzatekeela. Teknika amerikarraren dohain berezi guztiak, ia seguru, hango merkatuaren zabaleraren eta berdintasunaren ondorio dira eta ez haren arrazoia. Industriaren "arrazionalketa" bere tamainaren ondorio zuzena da.

Europaren egiazko egoera, beraz, honelakoa litzateke: bere iragan miresgarri eta luzeak bizi-maila berri batera ekarri du eta hor dena hazi da; baina aldi berean iragan horretatik gelditu diren egiturak oso kaxkarrak dira eta oraingo zabalkundea galarazten dute. Europa nazio txikiz osatu da. Nolabait, nazio ideia eta sentimentuak bere asmakuntzarik bereziena izan dira. Eta orain bere burua gainditu beharrean aurkitzen da. Hauxe da datozen urteetan antzeztuko den drama larriaren laburpena. Jakingo ote du iraganaren hondakinetatik askatzen ala betiko bertan harrapatuta geldituko ote da? Historian behin gertatu baita: zibilizazio handi bat Estatuaren bere ohiko ideia ordezkatzeko gauza izan ez zelako hil zen.

6

Beste nonbait aipatua dut mundu greko-erromatarraren nekaldi eta heriotza, eta hainbat xehetasunen berri jakiteko bertara jo daiteke⁷⁴. Orain, ordea, beste alde batetik hel diezaiokegu gaiari.

Grekoak eta latinoak, erleak erlauntzan bezala, urbe eta poleis-etan kokaturik agertzen dira historian. Gertakari hau absolututzat eta beronen sorrera misteriotutzat hartu behar ditugu orrialde hauetan; gertakari soil horretatik abiatu behar da, zoologoak datu ilun eta argitugabe batetik bezala: sphex-a bakarti bizi da, ibiltari, erromes; erle horasta, berriz, erlakume aberaskagileetan soilki⁷⁵. Hondalanek eta arkeologiak Atenas eta Erroma sortu baino lehen Atenas eta Erromako lurretan zegoenaren zati bat erakusten digute. Baina historiaurre horretatik -erabat nekazari-girokoa eta ezaugarri berezi gabea-hiriaren sorrera arte -hiria, penintsula bietako lurrak ematen duen mota berriaren fruitua da- dagoen igarobidea erabat ilunpetan dago; lehen-herri haien eta gizarte hauen arteko lotura etnikoa bera ere ez dago garbi. Gizarte harrigarri hauek berrikuntza handi bat opa diote gizadiari: plaza publiko bat egitea eta inguruan hiria, landarekiko itxia. Urbe eta polis-en definiziorik egokienak kainoiaz umoretsu ematen denaren antz handia du: har ezazu zulo bat, alanbrez ingura ezazu estu-estu, eta horixe duzu kainoia. Era berean, urbea edo polis, hasieran hutsune bat da: foroa, agora; eta gainerako guztia hutsune hori segurtatzeko, horren ingurua mugatzeko, aitzakia da. Polis, batez ere, ez da etxebizitza multzo bat, aiuntamentu zibileko toki bat baizik, zeregin publikoetarako mugaturiko esparru bat. Urbea ez dago eгина, txabola edo domus bezala, eguralditik babesteko eta umeak egiteko, zeregin pribatu eta familiakoei dagokienez, gauza publikoa eztabaidatzeko baizik. Gogoan hartu honek espazio-mota berri baten asmoa dakarrela, Einsteinen espazioa baino askoz ere berriagoa. Ordurarte espazio bakarra zegoen: landa, eta bertan bizi izaten zen, gizakiaren izaerarentzat honek dakartzan ondorio guztiekin. Gizon nekazaria artean landarea da. Bere izateak, pentsatzen, sentitzen eta maitatzen duenean, landarearen lozorro oharkabea gordetzen du oraindik. Alde honetatik, Asia eta Afrikako zibilizazio handiak, landare antropomorfo gaitzak izan ziren. Baina greko-erromatarrek, landatik, kosmo geobotanikoaren "naturatik", bereiztea erabakitzen du. Nola daiteke hau? Nola alden daiteke gizona landatik? Nora joko du, landa lur osoa denez gero, mugagabetasuna denez gero? Oso erraz: landa-zati bat murruei bidez hesituta eta horrela eremu itxia eta mugatua eite gabeko eremu mugagabetik bereizita. Hona hemen plaza. Ez da, etxea bezala, "barrunbe" bat, goian itxia, landako kobazuloak bezala, landaren ukapen huts eta soila baizik. Plaza, hesitzen duten murruei esker, landa-zati bat da, gainerakoari bizkarra ematen diona, gainerakoa alde batera uzten duena eta kontrajartzen zaiona. Landa txikiago eta errebelatu hau, landa mugagabetik bereizten dena eta bere burua harengandik gordetzen duena, landa deuseztatua da eta, beraz, eremu sui generis bat, berri-berria; bertan, gizona, landare eta animaliarekiko elkartasun orotatik askatzen da, horiek kanpoan utzi eta aparteko eremu bat sortzen du, gizartiar hutsa. Eremu zibila da. Horregatik, Sokratesek, hiritar handiak, polisi darion mamaren zuku hirukoitzak, honela esango du: "nik ez dut ikuskizunik zuhaitzekin landan; nik, ikuskizuna, gizonekin soilki dut hirian". Zer jakin dute honetaz inoiz hinduek, persiarrek, txinarrek edo egiptoarrek?

Alexandro eta Zesar arte, hurrenez hurren, Grezia eta Erromaren historia bi eremu horien arteko borroka etengabea da: hiri arrazoidunaren eta landa landarearen artean, legelariaren eta nekazariaren artean, ius-en eta rus-en artean.

Ez beza inork uste hiriaren sorrera hau ene asmakari hutsa denik eta egia sinbolikoa baizik ez dagokionik. Seta harrigarriaz gordetzen dute beren oroimenaren hondarrik hondarrenean hiri greko-erromatarretako bizilagunek synoikismósen oroitzapena. Ez dago testurik eskatu beharrik; aski dugu itzultzea. Synoikismós elkarrekin bizitzera joateko akordioa da; aiuntamentua, beraz, hitzaren adiera fisiko eta juridiko bikoitzean zehazki. Landako landare-hedaduraren orde, hiriko bilkura zibila dator. Hiria super-etxea da, etxe edo habia infragizatiarraren gaindidura, familiaren oikos-a baino erakunde abstraktuagoa eta garaiagoa. Errepublikak da, politeia; ez gizonez eta

emakumez osatua, hiritarrez baizik. Alderdi berri bat, hasierakoei eta animalia gandik hurbilago zeudenei egokitzerik ez duena, opa zaio giza bizitzari, eta bertan beren eginahal hoberenak ipiniko dituzte lehenago gizonak baizik ez zirenek. Horrelaxe jaiotzen da hiria, Estatu gisa noski.

Nolabait, Mediterraneoko itsasertz guztiak beti agertu izan du era estatal honetarako berezko joera. Jatortasun handiagoz edo txikiagoz, gauza bera egiten du Afrikako Iparraldeak ere (Cartago = hiria). Italia ez zen XIX. mendera arte Estatu-hiritik atera, eta gure Ekialdea, ahal bezain laster, kantonalismoan erortzen da, milaka urtetako asmo haren ondorea baita⁷⁶.

Estatu-hiriak, bere osagaien urritasunagatik, argi erakusten digu Estatuaren oinarriaren berezitasuna. Alde batetik, "estatu" hitzak, indar historikoek orekazko, egotezko, batasun bat lortu dutela adierazten du. Esangura horretan mugimendu historikoaren alderantzizkoa adierazten du: Estatua, elkarbizitza finkatua, eratua, egonkorra, da. Baina egonkortasun, gelditasun eta finkotasun honek, edozein orekak bezala, Estatua sortu zuen eta eusten dion dinamismoa ezkutatzen du. Hitz batean, Estatu eratua, hartara jotzen zuen aurreko borroka- eta eginahal-mugimendu baten fruitua dela ahaztarazten du. Estatu eratuaren aurretik Estatu eratzailea dator, eta hauxe da mugimenduaren funtsa.

Honekin esan nahi dut, Estatua ez dela emana eta opari gisa gizonak aurkitzen duen gizarte-mota bat, aitzitik, nekearen nekez taxutu behar duena baizik. Ez da Naturak giza eginahalik gabe sortzen dituen basati-taldeak edo leinuak eta odolkidetasunean oinarritutako beste edozein gizarte bezalakoa. Aitzitik, Estatua hasi, gizona odolak ezarri duen jatorrizko gizartetik ihes egiten saiatzen denean, hasten da. Eta odola esatean, naturari dagokion beste zernahi ere adierazi nahi da; hizkuntza, adibidez. Jatorriz, Estatua, odolak eta hizkuntzak nahastean datza. Gizarte natural ororen gaingidura da. Odolnahasi eta eleanitza da.

Horrela, hiria, herri desberdinak elkartzetik sortzen da. Desberdintasun zoologikoaren gainean zuzenbidezko berdintasun abstraktua eraikitzen du⁷⁷. Garbi dago Estatua sortzeko mugimenduari eragiten dion helburua ez dela zuzenbidezko batasuna. Eragina edozein zuzenbide baino mamitsuagoa da. Odolkidetasunezko gizarte nimiñoetan lor daitezkeenak baino bizi-entrepresa handiagoak lortzeko erabakia da. Edozein Estaturen sorreran enpresari handi baten soslaia ikusten edo usnatzen dugu.

Estatu baten sorrera-aurreko egoera historikoa aztertzen baldin badugu, honako eskema hau aurkituko dugu beti: gizarte-egitura bakoitza bere barrura begira bizi dadin egina duten gizatalde txiki batzuk. Bakoitzeko gizarte-antolaketak, barne-elkarbizitza baterako bakarrik balio du. Honek, iraganean benetan isolaturik bizi izan zirela erakusten du, bakoitza bere aldetik eta berarentzat, ingurukoekiko harremanak oso bakanak zirelarik. Baina benetako isolamendu honen ondoan, kanporako harreman bat sortu da, ekonomikoa batez ere. Multzo bakoitzeko gizabanakoa orain ez da horretatik bakarrik bizi; bere bizitzako zati bat beste taldetako gizakiei atxikia dago, harreman merkatal eta intelektualak dituela. Beraz, desoreka bat sortzen da bi elkarbizitzen artean: barrukoaren eta kanpokoaren artean. Ohiko gizarte-era finkatuak -eskubideak, "ohiturak" eta erlijioa- barruko elkarbizitza laguntzen du eta kanpoko, zabalagoa eta berriagoa, eragozten du. Egoera honetan, Estatuaren joera, barne-elkarbizitzako gizarte-formak suntsitzera daraman mugida da, haren ordeztan kanpoko elkarbizitzari dagokion gizarte-egitura ezarritik. Egokitu bekio hau Europaren oraingo egoerari, eta adierazpen abstraktu hauek itxura eta kolorea hartuko dituzte.

Ez dago Estatu sorkuntzarik, zenbait herriren adimena, elkarbizitza baten ohiko egitura uzteko eta, gainera, sekulan izan ez den beste bat asmatzeko gai ez bada. Horregatik da egiazko sorkuntza. Estatua, hasieratik, asmamen osoko lana da. Asmamena, gizonak

duen ahalmen askatzailea da. Herri bat, asmatzen dakien neurrian da Estaturako gai. Horregatik, herri guztiek izan dute muga bat beren Estatu-bilakaeran, Naturak beren irudimenari jarritako muga, hain zuzen ere.

Greziarrak eta erromatarrak, nekazari sakabanaketa garaitzen duen hiria asmatzeko gauza izan ziren, baina planto egin zuten hiriko murrutan. Izan zen gogo greko-erromatarrak haraindiago eraman nahi izan zituenik, hiritik askatu nahi izan zituenik; baina eginahal hutsal gertatu zen. Erromatarraren asmamen itxia, Brutok irudikatuta, Zesar -Antzinateko fantasiarik handiena- hiltzeaz arduratu zen. Axola zaigu europarrei historia hau gogoratzea, gurea kapitulu berera iritsi baita.

7

Buruargiak, benetako buruargiak, bi baizik ez ziren egon seguru asko antzinate guztian: Temistokles eta Zesar; bi politikari. Gauza harrigarria da, izan ere, maizenik, politikaria, baita ospetsua ere, traketsa delako, hain zuzen, izaten baita politikari⁷⁸. Izan ziren, dudarik gabe, Grezian eta Erroman, hamaika gauzaz ideia argiak asmatu zituzten beste gizon batzuk -filosofoak, matematikariak, naturzaleak. Baina haien argitasuna maila zientifikoan zen; bestela esan, gauza abstraktuei buruzko argitasuna. Zientzia-gai guztiak, edozein dela zientzia, abstraktuak dira, eta gauza abstratuak beti dira argiak. Hortaz, zientziaren argitasuna ez dago hainbeste zientzigileen buruetan, aipatzen dituzten gauzetan baizik. Berez iluna dena, nahas-mahas, bizi-errealitatea zehatza da, beti bakarra dena. Hor barrena zuzen ibiltzeko gai dena; bizitzako edozein egoerak dakarren nahaste-borrastearen azpian unearen anatomia gordea ikusten duena; labur esan, bizitzan galtzen ez dena, horixe da buruargia. Begira iezaiezue ingurukoei eta ikusiko duzue zein galduta dabiltzan bizitzan; loak hartuta bezala doaz, beren zori ona edo txarraren barruan, gertatzen zaienaren susmo izpirik gabe. Beren buruaz eta beren inguruaz perpaus doiez mintzatzen entzungo diezue, eta horrek guzti horretaz ideiak dituztela adieraziko luke. Baina ideia horiek azaletik aztertzen badituzue, aipatzen duten errealitatea ez dutela ez asko ez gutxi islatzen ikusiko duzue, eta, azterketan sakonduz gero, errealitate horri egokitze gogorik ere ez dutela aurkituko duzue. Arras alderantziz: gizakiak horren bidez errealitatearen, bere bizitzaren ikuspena bera eragotzi nahi du. Bizitza gutxienez nahas-mahas baita, eta norbera hortxe dabil galdua. Gizonak badu horren susmoa; baina egia beldurgarri horrekin buruz buru aurkitzeak izutu egiten du, eta dena argi eta garbi daukan lilurakeriazko oihal batekin estali nahi du. Ez zaio axola bere "ideiak" egia ez izatea; lubaki gisa erabiltzen ditu bere bizitzatik babesteko, errealitatea uxatzeko imintzioak bezala.

Gizon buruargiak, lilurakeriazko "ideia" horietatik askatu eta aurrez aurre begiratzen dio bizitzari, eta bertan dena korapilatsua dela ohartzen da, eta galduta sentitzen du bere burua. Hau egi-egia denez gero -alegia, bizitzea galduta sentitzea dela-, onartzen duena bere burua aurkitzen hasia da, bere egia jatorra atzematen hasi da, tinko dago. Senez, naufragoak bezala, zeri eutsi bilatuko du, eta itolarriko begirada premiatsu horrek -egiazkoa, hil ala bizikoa denez gero- bere bizitzako nahaspila ordenaraziko dio. Hauek dira egiazko ideia bakarrak: naufragoen ideiak. Gainerakoa erretorika da, jarrera, itxura hutsa. Benetan galdua sentitzen ez dena ezinbestez galtzen da; bestela esan, ez du bere burua aurkitzen, ez du inoiz bere errealitatearekin topo egiten.

Hau maila guztietan da egia, baita zientzian ere, nahiz eta zientzia berez bizitzari ihes egitea den (zientzilari gehienak bizitzari aurre egiteko beldurragatik eman dira zientziara; ez dira buruargiak, hortik beren trakeskeria nabaria edozein egoera jakinetan). Gure ideia zientifikoek, arazo baten aurrean galduta sentitu garen neurrian balio dute, arazoaren zailtasuna ondo ikusi eta besterengandik hartutako ideietan, errezetetan, esaeretan, hitzetan, ezin garela bermatu ulertzen dugun neurrian. Egia zientifiko berri bat aurkitzen duenak aldeztu aurretik ikasitako gehiena birrindu behar izan

du, eta egia berri horretara esku odoltsuz iristen da, uste arrunt askori lepozaina ebaki behar izan diolako.

Politika zientzia baino askoz ere erreala da, egoera bakarrez osatzen baita, zeinetan gizona nahitaez bat-batean murgilduta aurkitzen den. Horregatik, bera da, zein diren buruargiak eta zein buruarruntak bereizten ondoen laguntzen digun gaia.

Zesar da, anabasa izugarri batean, gizadiak bizi izan dituen ordurik nahasienetakoan, funtsezko errealitatearen soslaia antzematen ezagutzen dugun dohain-eredu gorena. Eta halabeharrak, eredugarritasun hori nabarmentzen atsegin hartu izan balu bezala, intelektual buru bikain bat jarri zuen haren ondoan, Zizeronena, bizitza osoan gauzak nahastera emana.

Fortuna on gehiegiak gorputz politiko erromatarra deslari utzi zuen. Italia, Espainia, Afrika Minor, Ekialde klasiko eta helenistikoaren jabe zen Tiberreko hiria, leher gaizto egiteko zorian zegoen. Haren erakunde publikoek gune munizipala zuten eta hiritik ezin bereizi ziren, amatriatuak, ihartuko ez badira, babesten duten zuhaitzari atxikiak dauden bezala.

Demokrazien osasuna, edozein direla haien mota eta maila, xehetasun tekniko baten mendean dago: hauteskunde-prozedura. Gainerako guztia bigarren mailakoa da. Hauteskunde-era behar bezalakoa baldin bada, errealitateari dagokiona, ondo joaten da dena; bestela, nahiz eta gainerako guztia bikain ibili, oker joaten da dena. Erroma, K.a. I. mendea hastean, guztiz ahaltsua da, aberatsa, ez du etsairik aurrean. Hala ere, desagertzeko zorian dago, setati, hauteskunde era zentzugabe bat gorde nahi duelako. Hauteskunde-era bat, faltsua denean da zentzugabea. Botua hirian eman behar zen. Landako hiritarrek berek ez zeukaten botua ematerik. Baina askoz ere gutxiago mundu erromatar guztian sakabanaturik bizi zirenek. Hauteskundeak ezinezkoak zirenez gero, faltsutu behar izan zituzten, eta hautagaiek makilari-taldeak antolatzen zituzten - armadako soldadu ohiekin, zirkuko atletekin, etab.- hauteskunde-ontziak hauts zituzten. Benetako hauteskunderik gabe erakunde demokratikoak airean daude. Airean daude hitzak. "Errepublikak ez zen hitz soil bat baizik". Zesarrek esana da. Magistratura batek ere ez zuen aginpiderik. Ezkerreko eta eskuineko jeneralak -Mario eta Sila- ezertarako balio ez zuten diktadura hutsaletan harrotzen ziren.

Zesarrek behin ere ez zuen bere politika adierazi, aitzitik, politika egiten jardun zuen. Halabeharrez, Zesar bera baitzen hain zuzen ere, eta ez zesarismoaren eskuliburua, ondotik etorri ohi dena. Politika hura ulertu nahi baldin badugu, ez dugu beste biderik haren ekintzak hartu eta dagokien izena ematea baino. Gakoa haren egitate nagusian dago: Galiaren konkistan. Hari ekiteko Botere eratuaren aurka jazarri behar izan zuen. Zergatik?

Boterea, errepublikazaleek osatzen zuten, hots, kontserbadoreek, Estatu-hiriari atxikiek. Haien politika bi puntutan bil daiteke: Lehena, Erromako bizitza publikoaren makurrak gehiegizko zabalkundetik datoz. Hiria ez da gauza hainbeste nazio gobernatzeko. Edozein konkista berri errepublikaren aurkako hobea larria da. Bigarren, erakundeak disolba ez daitezen printze bat behar da.

Guretzat, "printze" hitzak erromatarrentzat zuenaren ia kontrako esanahia du. Haietzat, hain zuzen ere, besteak bezalako hiritar bat zen, baina goi-ahalmenez jantzia, erakunde errepublikarren jardura gidatzeko. Zizeronek, Errepublikaz liburuetan, eta Salustiok, Zesarri egindako gutunetan, publizista guztien gogoak biltzen dute princeps civitatis bat, rector rerum publicarum bat, moderator bat eskatzen dutenean.

Zesarren irtenbidea kontserbadoreenaren zeharo alderantzizkoa da. Haren ustez, aurreko konkista erromatarren ondorioak sendatzeko ez zegoen beste aukerarik aurrera jarraitzea baino, halabehar gogorra azkenetako onartuz. Batez ere, herri berriak konkistatzeko premia zegoen, Ekialdeko nazio ustelduak baino arriskutsuagoak etorkizun hurbil

batean. Zesarrek, Mendebaleko herri barbaroak sakon erromatartu beharra defendatuko du.

Esan izan da (Spenglerrek) greko-erromatarrek ez zirela gai denbora sentitzeko, beren bizitza, hedadura bat denboratasunean bezala ikusteko. Orainaldi puntual batean bizi ziren. Ni neu diagnosi hau oker delako susmotan nago edo, gutxienez, bi gauza nahasten dituelakoan. Greko-erromatarrek itsumen harrigarria du etorkizunarekiko. Ez du ikusten, daltonistak kolore gorriak ikusten ez duen bezala. Baina, hala ere, iraganean erroturik bizi da. Zerbait egin baino lehen orain pauso bat atzera egiten du, Lagartijok hiltzera oldartzen denean bezala; eredu bat bilatzen du iraganean oraingo egoerarako, eta hark irakatsirik, gaurkotasunean murgiltzen da, eskafandra ospetsuak babestuta eta desitxuratuta. Horregatik, haren bizitze guztia berbizitzea da nolabait. Hau zaharkitzailea izatea da eta antzinateko gizona horrelakoa izan zen ia beti. Baina hau ez da denborarekiko sentibera ez izatea. Kronismo motza adierazten du besterik gabe, hegal futurista falta duela eta antzinakoen hipertrofiarekin. Europarrok beti etorkizunerantz jo izan dugu eta berau dela denboraren alde mamitsuena sentitzen dugu, denbora, guretzat, "gero"-tik hasten baita eta ez "lehen"-etik. Ulertzen da, beraz, bizitza greko-erromatarrari begiratuz gero akronikoa iruditzea guri.

Orain guztia iragan eredugarri bateko pintzez hartzeko seta hau, antzinako gizonagandik gaurko filologoarengana igaro da. Filologoa ere itsua da geroarekiko. Berak ere atzera jotzen du, egungo gauzei aurreko arrazoi bat bilatzen die, eta hari, eglogako hitz sotilez, bere "iturburua" esaten dio. Hau esaten dut, jadanik Zesarren antzinako biografoak ere gizon eskerga hau ulertzeari uko egiten diotelako, Alexandro imitatzen saiatzen dela uste baitute. Ekuazioa beharrezkoa zen: Alexandro, Miltiadesen ereinotzak gogoan zeuzkala, ezin bazuen loak hartu, Zesarrek derrigorrez galdu behar zuen loa Alexandroengatik. Eta horrela jarraian. Pausoa beti atzera eta egungo oina antzinako oinatzean. Egungo filologoak biografo klasikoak islatzen du.

Zesarrek, Alexandrok egin zuena edo, egin nahi zuela uste izatea -eta horrela uste izan dute historialari gehienek- hura konprenitzeari erabat uko egitea da. Zesar, gutxi gora-behera, Alexandroren alderantzizkoa da. Erresuma unibertsal baten asmoa da elkartzen dituen bakarra. Baina ideia hau ez da Alexandrorena, Persiatik etorria baizik. Alexandroren irudiak Ekialderantz bultzatuko zuen Zesar, iragan ospetsurantz. Mendebalea errotik nahiago izateak mazedoniarrari kontra egiteko gogoia adierazten du batez ere. Gainera, Zesarrek proposatzen duena ez da erresuma unibertsal bat besterik gabe. Bere asmoa sakonagoa da. Erromatik biziko den Inperio erromatarra ez baina probintzien ingurunetik biziko dena nahi du, eta honek Estatu-hiriaren gairidura osoa dakar. Estatu horretan herririk ezberdinenak elkarrekin ariko dira, elkarren laguntzaile sentituko dira denak. Ez dira, agintzen duen erdigune bat eta obeditzen duen ingurune bat, gizarteko gorputz erraldoi bat baizik, eta bertan norbera da batean Estatuko subjektu egile eta pairakor. Horrelakoa da Estatu modernoa, eta haxe da haren jenio igerlearen aurrerapen izugarria. Baina horrek Erromaz kanpoko botere bat eskatzen zuen, aristokraziaren aurkakoa, oligarkia errepublikarraren gainetik neurri gabe jaso, haren printzearen gainetikoa, hura primus inter pares besterik ez baitzen. Botere hori, demokrazia unibertsalaren eragile eta ordezkaria, Monarkia bakarrik izan zitekeen, egoitza Erromatik kanpo zuela.

Errepublika, Monarkia! Historian zehar beren egiazko esanahia eten gabe aldatzen ari diren bi hitz dira, eta, beragatik, uneoro birrindu beharrekoak beren momentuko mamia egiaztatzeko.

Haren konfiantzazko gizonak, haren tresna hurbilenak, ez ziren hiriaren irudi zaharkituak, jende berria baizik, probintziarrak, pertsonaia bizkor eta eragileak. Haien

egiazko ministroa Kornelio Balbo izan zen, negozio-gizon kadiztar bat, atlantikoarra, "kolonial" bat.

Baina Estatu berriaren aurrerapena gehiegizkoa zen: Latioko buru motelek ezin zuten horren jauzi handirik egin. Hiriaren irudiak, bere materialismo nabariarekin, gorputz publikoaren antolaketa berri-berri hura "ikustea" galarazi zien erromatarrei. Nola osa zezaketen Estatu bat hiri batean bizi ez ziren gizonen? Zer batasun-mota ote zen hori, hain sotil eta mistiko antzekoa?

Behin eta berriz diot: Estatua deritzogun errealitatea ez da odolkidetasunak batu dituen gizonen berezko elkarbizitza. Estatua, jatorriz aldenduak dauden taldeak elkarrekin bizitzera behartzen direnean hasten da. Behar hau ez da indarkeria soila; hasierako egitasmo bat eskatzen du, bananduta dauden taldeei opa zaien zeregin komun bat. Beste ezer baino lehen, Estatua, egiteko baten asmoa da, eta elkarlaneko egitarau bat. Elkarrekin zerbait egin dezaten deitzen zaie jendeei. Estatua ez da ez odolkidetasuna, ez hizkuntz batasuna, ez lur-batasuna, ez auzokidetasuna. Ez da gauza materiala, ilauna, emana eta mugatua. Dinamismo hutsa da -zerbait elkarrekin egiteko gogo-, eta, hori dela eta, estatu ideia ez du ezein hesi fisikok mugatzen⁷⁹.

Oso zorrotza da Saavedra Fajardoren goiburu politiko ezaguna: gezi bat, eta azpian: "O sube o baja". Horixe da Estatua. Ez da gauza bat, mugida baizik. Estatua, uneoro nonbaitetik datorren eta nonbaiterantz doan zerbait da. Edozein mugidak bezala badu terminus a quo bat eta terminus ad quem bat. Ebaki bedi edozein ordutatik benetako Estatu baten bizia, eta elkarbizitzazko batasun bat agertuko da, itxuraz honako edo harako ezaugarri materialean oinarritua: odolean, hizkuntzan, "naturazko mugetan". Azalpen egonkor batek honela esanaraziko digu: horixe da Estatua. Baina laster ohartuko gara giza elkarte hori zerbait komunala egiten ari dela: beste herri batzuk konkistatzen, koloniak sortzen, beste Estatu batzuekin federatzen; hau da, orduero gainditzen ari da bere batasunaren oinarri materiala zirudien hura. Terminus ad quem delakoa da, egiazko Estatua da, eta horren batasuna hain zuzen ere emandako edozein batasun gainditzean datza. Harantzagoko oldar hori gelditzen denean, Estatuak lur jotzen du ezinbestean, eta lehendik zegoen batasunak, ustez era fisikoan oinarrituta - arraza, hizkuntza, naturazko muga- ez du ezertarako balio: Estatua puskatu egiten da, sakabanatu, birrindu.

Estatuaren aldi bikoiztasun honek bakarrik -dagoeneko baden batasuna eta izan asmo duen batasun zabalagoa- uzten du ulertzen Estatu nazionalaren muina. Jakina da oraindik ez dela lortu zertan datzan nazio bat adieraztea, hitzari esanahi modernoan ematen badiogu. Estatu-hiria oso ideia argia zen, aurpegiko begiez atzematen zena. Baina galiarren eta germaniarren artean sortzen zen batasun publiko mota berria, Mendebaleko asmo politikoa, askoz ere lausoagoa eta iheskorragoa da. Filologoa, egungo historialaria, berez zaharkitzale baita, ezbaian gelditzen da gertakari izugarri honen aurrean; Zesar eta Tazito, beren hiztegi erromatarraz, zer ote ziren Estatu hasikin haiek, Alpeez haraindikoak, Rhin-ez haranzkoak, edota espainiarrak, adierazi nahi zutenean bezain ezbaian. Civitas, gens, natio, esaten zieten, izen hauetako bat ere ez zihoakiela ondo jakinda ere⁸⁰. Ez dira civitas hiriak ez direnez gero⁸¹. Baina ez dago hitza laxatzerik ere lurralde mugatu bat adierazteko. Herri berriak oso erraz aldatzen dira lur bazterrez, edo gutxienez bazutena zabaldu edo murriztu egiten dute. Ez dira batasun etnikoak ere -gentes, nationes. Urrutira jota ere, Estatu berriak, jatorri berezietako multzoek osatuta agertzen dira ordurako. Odol ezberdinen nahasteak dira. Zer da, bada, nazio bat, odol elkarte bat, lurralde batekiko lotura, edo gisa honetako zerbait ez denez gero?

Beti gertatzen den bezala, oraingoan ere gertakarietako menpetasun garbiak ematen digu giltza. Zer da, edozein "nazio modernoren" -Frantzia, Espainia, Alemania-

bilakaera aztertzen dugunean, begien aurrean agertzen zaiguna? Hauxe besterik ez: itxuraz garai jakin batean naziotasuna osatzen zuena, ukatua agertzen da ondoko aldi batean. Lehendabizi, nazioa leinuak dirudi, eta ez-nazioa aldameneko leinuak. Gero, nazioa bi leinuk osatzen dute, geroago lurralde bat da, eta geroxeago konderri edo dukerri edo "erreinu" oso bat. Nazioa, Leon da, baina ez Gaztela; gero Leon eta Gaztela, baina ez Aragoi. Garbi dago bi oinarri daudela: bat, aldakorra eta beti gaintitua -leina, lurraldea, dukerria, "erreina", bere hizkuntza edo dialektoarekin; bestea, iraunkorra, muga guzti horien gainetik salto egiten duena eta besteak hain zuzen ere errotiko aurkakotasuntzat hartzen zuen hura batasun gisa postulatu duena.

Filologoek -gaur egun bere buruari "historialari" esaten diotenak deitzen ditut horrela- pellokeriarik goxoena egiten dute, Mendebaleko nazioak orain, une iragankor honetan, bizpahiru mende hauetan diren horretatik abiatuta, Vercingetorix-ek edo Cid Campeador-ek, Saint-Malotik Strassburgerainoko -hain zuzen- Frantzia bat, edo Finisterretik Gibraltarrerainoko Spania bat nahi zutela suposatzen dutenean.

Filologo hauek -antzerkigile inozoak bezala- ia beti Hogeita hamar Urteko gerlarantz abiarazten dituzte beren heroiak. Nola osatu diren Frantzia eta Espainia azaltzeko, pentsatzen dute Frantzia eta Espainia batasun gisa alde aurretik zeudela frantziar eta espainiarren arimen hondoan. Jatorriz frantziarrak eta espainiarrak Frantzia eta Espainia baino lehen izan balira bezala! Frantziarra eta espainiarra bi mila urteko lanean sortu beharreko gauzak izan ez balira bezala! Egia hutsa da oraingo nazioak ez direla betierean gaintitu beharrera kondenatua dagoen oinarri aldakor haren egungo agerpena baizik. Oinarri hori orain ez da ez odola ez hizkuntza, odol eta hizkuntz elkartasuna Frantzian edo Espainian estatu batasunaren ondorioa izan baita, ez kausa; oinarri hori orain "naturazko muga" da.

Ongi dago diplomatiko batek bere esgrima maltzurrian, bere argudioen ultima ratio gisa, naturazko mugen kontzeptu hau erabiltzea. Baina historialari bat ezin da horren atzean babestu behin-betiko gordelekua balitz bezala. Ez da, ez behin-betikoa, ez behar bezain egokia ere.

Ez da ahaztu behar, zorrozki azalduta, zein den auzigaia. Auzia, Estatu nazionala -gaur egun nazio esaten duguna- zer den argitzea da, beste Estatu-motetatik bereiziz, Estatu-hiria edo, beste muturrera jota, Augustok sortu zuen Inperiotik, adibidez⁸². Gaia, are argiago eta zehatzago adierazi nahi izanez gero, honela esan bedi: Zein egiazko indarrek eragin du milioika gizon, Frantzia, edo Ingalaterra, edo Espainia, edo Italia, edo Alemania deitzen dugun Botere publikozko subiranotasunaren pean elkarrekin bizitzera? Ez da alde aurretiko odol-elkartasuna, horietako gorputz kolektibo bakoitza oso uholde ezberdinez odoleztatua baitago. Ez da hizkuntz batasuna ere izan, gaur egun Estatu batean bilduriko herriak bestelako hizkuntzez mintzatzen baitziren edo dira oraindik. Egun gozatzen duten -hori gozamina bada ere- nola-halako arraza eta hizkuntz batasuna, alde aurretiko batasun politikoaren ondorioa da. Beraz, ez odolak ez hizkuntzak ez dute Estatu nazionala egiten; aitzitik, Estatu nazionala da globulo gorriak eta soinu artikulatuak sorturiko diferentziak berdintzen dituen. Eta horrela gertatu izan da beti. Gutxitan -edo inoiz ez- egokitu zaio Estatua alde aurretiko odol- eta hizkuntz berdintasun bati. Ez da gaur Espainia Estatu nazional bat, eremu guztian espainolez egiten delako⁸³, eta Aragoi eta Katalunia ere ez ziren egun batean, nolanahi aukeratuta, Estatu nazionalak izan, beren subiranotasunaren lurralde mugak Aragoi edo Kataluniako mintzairenekin bat zetozelako. Egiatik hurbilago ginatke, errealitate guztiek eskaintzen duten kasuistika errespetatuta, honako proposamen honi atxikiz gero: lurralde zabal samar bat hartzen duen hizkuntz batasun oro, ia seguru, aurreko batasun politikoren baten jalkina da⁸⁴. Estatua izan da beti artekari nagusia.

Hau aspalditik gauza jakina da, eta harrigarria da nolako setakeriaz segitzen den, hala ere, odola eta hizkuntza nazionalitatearen oinarritzat eman nahian. Eta hor nik esker txarra adina zentzugabekeria ikusten dut. Frantziarrak bere egungo Frantzia, eta espainiarrak bere egungo Espainia, x printzipio bati zor baitio, zeinaren eraginak, hain zuzen ere, odol eta hizkuntzazko gizarte medarra gainditu baitzuen. Halako moldez, non Frantzia eta Espainia egun, posible egin zituenaren aurkakoa liratekeen.

Antzeko okerra gertatzen da nazio-ideia lurraldearen irudi handi batean funtsatu nahi denean, bertan aurkitzen dutelarik odolak eta hizkuntzak opa ez duten batasun-oinarria: "muga naturalen" geografiazko mistizismoan. Begietako iruzur bera dugu hemen ere. Oraingo dataren halabeharrak, kontinenteko lurño zabaletan edo alboko irletan finkatuak agertzen dizkigu nazioak. Oraingo muga horiek zerbait behin-betiko eta izpiritual bihurtu nahi dira. "Muga naturalak" omen dira, eta bere "naturaltasunaren" bidez, forma telurikoaren aldeko historiaren alde aurretiko erabaki magiko antzeko bat adierazten da. Baina mito hau berehala aienatzen da, odola eta hizkuntza nazioaren iturburu gisa baliogabetu zituen arrazoibide berarekin. Hemen ere, mende batzuk atzera joz gero, ezinbesteko "muga naturalak" dituzten nazio txikiagotan sakabanaturik aurkituko ditugu Frantzia eta Espainia. Mugako mendia Pirinio edo Alpeak baino apalagoa litzateke, eta urezko hesia, ez Rhin, Calais-ko pasua, edo Gibraltar-eko hertsigunea bezain urtsua. Baina honek, mugek "naturaltasuna" aski erlatiboa dela besterik ez du erakusten. Garaiko ekonomia eta gerla bitartekoen arabera izaten da.

Zorioneko "muga naturalaren" egia historikoa, A herria B herrian barrena hedatzeko oztopo bat izatean datza. A-rentzat -elkarrekin bizitzeko nahiz gerlarako- oztopoa delako, da B-rentzako babesa. "Muga naturalaren" ideiak, beraz, bere baitan dakar, xaloki, mugarena baino are naturalago, hedakuntzaren eta herrien arteko nahastura neurrigabearen aukera. Antza denez, eragozpen material batek baizik ez ditu geldiarazten. Atzoko eta herenegungo mugak gaur ez zaizkigu frantses edo espainiar nazioaren oinarri iruditzen, alderantziz baizik: batasun-bidean nazio-ideiak aurkitu zituen oztopoak. Hala eta guztiz ere, behin-betiko eta funtsezko izaera aitortu nahi diegu egungo mugei, nahiz eta garraio eta gerla bide berriek oztopo izateko indarra kendu dieten.

Zein izan da, orduan, mugek zeregina nazioen osaketan, berauen oinarri positiboa izan ez denez gero? Auzia, argia eta garrantzi handikoa da Estatu nazionalaren egiazko oldea Estatu-hiriaren aurrean ulertzeko. Mugek, jadanik lortua zegoen batasun politikoa aldi bakoitzean sendotzeko balio izan dute. Ez dira beraz, nazioaren hasiera izan, alderantziz baizik: hasieran oztopoak ziren, eta ondoren, berdindu eta gero, batasuna bermatzeko bide materiala izan ziren.

Hara, bada: eginkizun berbera dagokie arraza eta hizkuntzari. Ez da arraza bateko edo besteko jatorrizko giza multzoa nazioa osatu zuena, alderantziz baizik: Estatu nazionalak, bere batasun-gogoan, arraza ugarien eta hizkuntza ugarien aurrean, beste horrenbeste eragozpenekin egin zuen topo beti. Indarrez menderatu zituenean, nola-halako odol eta hizkuntz bateratzea lortu zuen, batasuna sendotzeko balio izan zuena.

Ez dago, bada, beste biderik, Estatu nazionalaz egon den iritzi okerra desegin baino, eta, haren oinarritzat hartzen ziren hiru gauzak, nazionalitatearentzat lehen oztopo bezala hartzen ohitu baino. Garbi dago iritzi oker bat desegiterakoan, neronek agertuko naizela orain okertzaile-itxuran.

Beharrezkoa da Estatu nazionalaren sekretua Estatu gisa dagokion olde berezi horretan bilatzea, bere politikan bertan, eta ez biologiazko edo geografiazko oinarri arrotzetan.

Azken finean, zergatik uste izan da beharrezkoa zela jatorrizko arraza, hizkuntza eta lurraldera jotzea egungo nazioen gertakari miresgarria ulertzeko? Soil-soilik, hauetan, Estatu zaharrean ezezagunak ziren gizabanakoen Botere publikoarekiko intimitate eta

elkartasun sakonak aurkitzen ditugulako. Atenasen eta Erroman gizaki banaka batzuk bakarrik ziren Estatua; gainerakoak, -esklabuak, kideak, probintziarrak, kolonoak-mendekoak ziren. Ingalaterran, Frantzian, Espainian, inor ez da inoiz Estatuaren mendeko soila izan, beti haren partaideak izan da, bat harekin. Estatuarekin eta Estatuan gertatzen den batasun honen era, legekoa batez ere, oso desberdina izan da garaien arabera. Desberdintasun handiak egon dira pertsonaren maila eta estatutuan, klase nolabait pribilegiatuak eta klase nolabait baztertuak; baina aldi bakoitzeko egoera politikoaren egiazko errealitatea aztertzen baldin bada, eta orduko gogoak berpizten baldin bada, badirudi argi dagoela gizaki bakoitza Estatuko subjektu egile, partaide eta lankide sentitzen zela. Nazio-k -duela mendebete baino gehiago Mendebalean hitzak duen adieran- Botere publikoaren eta beronek gidatzen duen gizartearen arteko "batasun hipostatikoa" esan nahi du.

Estatua beti, edozein eratakola dela ere -basatia, antzinakoa, erdi arokoa edo modernoagizatalde batek beste gizatalde batzuei elkarrekin entresa bati ekiteko egiten dien gomita da. Entresa hau, edozein direla bitarteko urratsak, azken finean, nola-halako bizimodu komun bat antolatzean datza. Estatua eta bizi-egitasmoa, giza egitarau edo jokabidea, hitz bereiztezinak dira. Estatu-mota diferenteak, multzo enpresariak besteekin lankidetzan antolatzean erabiltzen dituen bideetatik sortzen dira. Horrela, bada, antzinako Estatuak, ez du behin ere besteekin bat egiten asmatzen. Erromak, italiotak eta probintziak agindu eta hezi egiten ditu, baina ez ditu berekiko batasunera jasotzen. Hirian bertan ez zuen hiritarren batasun politikorik lortu. Ez da ahaztu behar, Errepublikak garaian, Erroma, egiazki, bi Erroma izan zela: Senatua eta herria. Estatu-batasuna ez zen inoiz pasa elkarrekiko arrotz eta ezezagun iraun zuten taldeen arteko artikulazio hutsetik aurrera. Horregatik, Inperioak, mehatxatua zegoelarik, ez zuen besteen abertzaletasunarekin kontatzerik izan, eta bere administrazioko baliabide burokratiko eta gerlako hutsez defendatu behar izan zuen.

Besteekin bat egiteko, edozein talde greziar eta erromatarren ezintasun honek arrazoi sakonak ditu; ez da komeni orain gehiegi aztertzea, eta, funtsean, batean biltzen dira: Estatua, nahitaez, den elkarlan hori, era sinple, zabar eta traketsen ulertu zuen antzinako gizonak: menderatzaile eta menderatuez osaturiko bikoiztasun gisa⁸⁵. Erromari, agintzea eta ez obeditzea zegokion; gainerakoei, obeditzea eta ez agintzea. Honela, Estatua pmoerium bihurtzen da: harresi batzuek fisikoki mugatzen duten hiri-gorputza.

Baina herri berriek Estatua ulertzeko dakarten modua ez da horren materiala. Elkarrekiko eginkizun baten asmoa baldin bada, bere izatea erabat dinamikoa da; egite bat, komunitatea ekintzan. Honen arabera, eginkizunari atxikitzen zaion edonor, Estatuko partaide eragilea da, subjektu politikoa da -arraza, odola, geografiako kokapena, gizarte-klasea, bigarren mailan gelditzen dira. Ez da aurreko elkartasuna, iraganekoa, ohikoa eta betidanikoa -hitz batean, halabeharrekia eta aldagaitza-elkarbizitza politikorako agiria ematen duena, aitzitik, benetako ekintzan diharduen etorkizuneko elkartasuna. Ez atzo izan ginenak, bihar elkarrekin egingo dugunak biltzen gaitu Estatuan. Hortik, antzinako Estatua preso eduki zuten hesi guztien gainetik salto egiteko Mendebalean batasun politikoak duen erraztasuna. Izan ere, europarra, homo antiquus-en aldean, etorkizunera irekita jotzen duen gizona baita, ohartuki bertan jarria bizi dena eta bertatik oraingo jokabidea erabakitzen duena.

Gisa honetako joera politiko bat nahitaez joango da aurrera, gero eta batasun zabalagoetarantz, eta ez dago, berez, geldiaraziko duenik. Elkartasun ahalmena neurrigabea da. Herri bat beste batekin elkartzekoa ez ezik, baita Estatu nazionalean are bereziagoa den beste bat ere: gizarte-klase guztien elkartasuna gorputz politiko bakoitzaren barruan. Nazioa, lurraldez eta etniaz, handitu ahala, batago gertatzen da

barneko elkarlaguntza. Estatu nazionala bere erroan bertan da demokratikoa, gobernu-
era diferentzia guztiak baino modu erabakigarriagoan.

Oso bitxia da. Nazioa iraganeko elkartasun batean oinarritzen denean, azkenean, Renanen formula aukeratzen da egokiena delako ustean, besterik gabe, bertan, odol, hizkuntza eta ohitura komunei ezaugarri berri bat gehitzen zielako, eta "eguneroko hauteskundera" dela esaten delako. Baina, ongi ulertzen ote da horrek esan nahi duena? Ezin ote diogu beste eduki bat eman, Renanek ematen zionaren alderantzizkoa, eta, hala ere, askoz egiazkoagoa?

8

"Iraganean ohore berdinak edukitzea, orainaldian nahi berdina; elkarrekin gauza handiak egin izana, beste batzuk egin nahi izatea; hona hemen herri bat izateko funtsezko baldintzak... Iraganean, ohore- eta damu-ondarea; etorkizunean, burura eramateko egitamu bera... Nazio baten izatea eguneroko hauteskundera da."

Horrela da Renanen pasarte ezagun-ezaguna. Zer dela eta, halako arrakasta berezia? Zalantzarik gabe, eraskinaren graziagatik. Nazioa eguneroko hauteskundera izatearen ideia horrek askapen baten eragina du gudan. Odol, hizkuntza eta iragan komunak oinarri geldiak dira, halabeharrekoak, zurrinak, ilaunak; presondegiak dira. Nazioa hori izango balitz eta hori bakarrik, nazioa gure atzean dagoen zerbait litzateke, berarekin ez genuke zereginik izango. Nazioa, izaten den zerbait litzateke, baina ez egiten den zerbait. Norbaitek erasotzen dionean defendatzeak ere ez luke zentzurik izango.

Nahitanahiez, giza bizitza eten gabe etorkizuneko zerbaitekin jardutea da. Oraingo momentutik beretik arduratzen gara hurrengoaz. Horregatik, bizitzea, beti, beti, atsedean eta pausarik gabe, egitea da. Zergatik ez da erreparatu egitea, edozein egite, etorkizun bat taxutzea dela? Baita oroitzeari ematen garenean ere. Segundo honetan gogoratu egiten dugu hurrengoan zerbait lortzeko, iragana berpiztearen atsegina besterik ez bada ere. Atsegin bakarti apal hau etorkizun desiragarri gisa aurkeztu zitzaigun duela une bat; horregatik egiten dugu. Bego, beraz: ezerk ez du gizonarentzat zentzurik, etorkizunari begira izan ezik⁸⁶.

Nazioa, iragana eta oraina baizik izango ez balitz, inor ez litzateke erasotik babesteaz arduratuko. Kontrakoa esaten dutenak hipokritak edo ergelak dira. Hala ere, iragan nazionalak pizgarriak -egiazkoak zein alegiazkoak- islatzen ditu etorkizunean. Desiragarri iruditzen zaigu gure nazioa izaten jarraituko duen etorkizuna. Horregatik saiatzen gara hura defendatzen; ez odola, ez hizkuntza, ez iragan komunagatik ere. Nazioa defendatzean gure biharko eguna defendatzen dugu, ez atzokoa.

Hauxe da Renanen esaeran islatzen dena: nazioa biharko egitarau bikain gisa. Hauteskundeak etorkizun bat erabakitzen du. Honetan etorkizuna iraganaren iraupena izateak ez du arazoa izpirik aldatzen; Renanen definizioa ere zahartzailea dela erakusten du soilki.

Beraz, Estatu nazionalak, Estatu ideia soiletik, antzinako polis-a edo odolak mugaturiko arabeen "leinua" baino hurbilago dagoen Estatu asmoa adieraziko luke. Berez, ideia nazionalak, iraganari, lurraldeari, arrazari atxikia gordetzen duen kondarra ez da gutxi; baina horrexegatik gertatzen da harrigarria, bertan, bizi-egitarau akuilagarri baten inguruan antolatuko giza batasunaren ideia soil bat gailen ikustea. Areago: nik esango nuke, iraganaren kondar hori eta oinarri materialen nolabaiteko mugatasun hori, ez direla erabat berezkoak Mendebaleko arimetan, erromantizismoak nazio ideari emandako adiera eruditotik sortuak baizik. Nazionalitateari buruzko XIX. mendeko ideia hori Erdi Aroan izan balitz, Ingalaterra, Frantzia, Espainia, Alemania, sortu gabe geldituko ziratekeen⁸⁷. Adiera horrek, nahasi egiten zituen nazioa bultzatzen eta osatzen duena, eta besterik gabe sendotu eta iraunarazten duena. Ez da abertzaletasuna - diogun behingoz- nazioak egin dituen. Kontrakoa sinestea, lehen aipatu dudana eta

Renanek berak bere definizio ospetsuan onartzen duen pellokeria da. Nazio bat egoteko beharrezkoa baldin bada giza multzo batek iragan komun bat izatea, nola esango diogun giza multzo horri berorri, galdetzen dut, gaurtik ikusita iragana den hori orainaldiz bizi zuenean. Dirudienez, beharrezkoa zen bizitza komun hori amaitzea, igarotzea, honela esan ahal izan zezaten: nazio bat gara. Ez ote da hemen nabari filologoaren, artxibariaren, jatorrizko akatsa: igaroa ez den errealitate oro ikustea galarazten dion bere lanbide ikuskera? Filologoa da, filologo izateko, lehenengo eta behin iragan bat egotea behar duena; baina nazioak, iragan komun bat eduki baino lehen, giza elkarte hau sortu izan behar zuen, eta sortu baino lehen amestu, nahi izan, egitasmo egin behar izan zuen. Eta aski da bere buruaren egitasmoa edukitzea nazioa egon dadin, nahiz eta obratu ez, nahiz eta gauzatzeak huts egin, hainbeste aldiz gertatu den bezala. Horrelako batean nazio hutseginaz mintzatuko ginatke (Burgundia, adibidez).

Erdi eta Hego Amerikako herriekin Espainiak iragan komuna du, arraza komuna, hizkuntza komuna, eta, halere, ez du haiekin nazio bat osatzen. Zergatik? Gauza bakarra falta da, funtsezkoena dirudienez: etorkizun komuna. Espainiak ez zuen jakin, zoologiaz kidekoak ziren talde hauek erakartzeko etorkizuneko egitarau orokor bat asmatzen. Geroko hautespena Espainiaren aurkakoa izan zen, eta orduan alferrikakoak izan ziren artxibategiak, oroitzapenak, arbasoak, "patria". Hura dagoenean, honek guztiak sendogarri gisa balio du; baina besterik ez⁸⁸.

Estatu nazionalen, beraz, hauteskunde-eiteko egitura historikoa ikusten dut. Hortik landa iduriz den guztiak balio iragankor eta aldakorra du, hautespenak aldi bakoitzean behar duen edukina, edo forma, edo sendoketa adierazten du. Renanek aurkitu zuen hitz magikoa, argiaren argiz leher eztanda egiten duena. Beronek, nazio baten muin gordea era katodikoan susmatzen uzten digu, zeinak bi osagai hauek baititu: lehena, zeregin komun batean elkarrekin osoki bizitzeko asmoa; bigarren, asmo akuilagarri horrekiko gizonen atxikimendua. Guztion atxikimendu honek, Estatu nazionala Estatu zahar guztietatik bereizten duen barne-trinkotasuna sortzen du; hauetan, batasunak, Estatuak talde desberdinen gainean eragiten duen kanpoko indarrez sortzen eta irauten baitu; hemen, berriz, Estatuaren bizkortasuna "mendekoen" arteko berezko eta sakoneko elkartasunez jaiotzen da. Egia esan, mendekoak jadanik Estatua dira eta ezin dute - hauxe da nazionalitatearen gauza berria, miresgarria- zerbait arrotz bezala sentitu.

Eta, hala ere, Renanek bere asmakuntza ia desegin edo egiten du, hautespenari ematen dion edukin atzerazalea bere iraupena erabakitzen duen nazio burutuari baitagokio. Nik nahiago nuke ikurra aldatu eta in statu nascendi dagoen nazionarentzat balio ematea. Hauxe da funtsezko ikusmoldea. Egiazki, nazio bat sekula ez baitago egina. Honetan bereizten da beste Estatu-motetatik. Nazioa beti egiten edo desegiten ari da. Tertium non datur. Edo atxikimenduak irabazten edo atxikimenduak galtzen ari da, bere Estatuak egun entrepresa bizia adierazten duen edo ez duen arabera.

Horregatik, argiena, Mendebaleko giza taldeak behin eta berriz piztarazi dituzten entrepresa batzaileen saila berreraikitzea litzateke. Orduan, nola europarrak haietatik bizi izan diren ikusiko litzateke, arlo publikoan ez ezik, baita bere bizitzarik gordeenean ere; nola "entrenatu" edo desmoralizatu diren, aurrean entrepresa eduki edo ez edukitzearen arabera.

Beste gauza bat ere erakutsiko luke azterketa horrek. Antzinakoen Estatu-entrepresak, asmoan hartzen zituzten giza taldeen atxikimendu batzailerik ez zutelako, Estatua, Estatu gisa, halabeharreko mugatasun batean -leinuano edo hiriano- harrapatua gelditzen zelako, ezin konta ahalakoak ziren. Herri batek -persiarrak, mazedoniarrak edo erromatarrak- subiranotasunezko batasun-menpera ekar zezakeen munduko edozein zati. Egiazko batasuna, ez barrukoa ez behin-betikoa, ez zenez gero, ez zuen beste baldintzarik, konkistatzailearen gerla- eta administrazio-trebetasunarena izan ezik.

Baina Mendebalean nazio-batzeak ezinbesteko urrats batzuk egin behar izan ditu. Gehiago harritu behar gintuzke inperio persiarrek, Alexandrorenak edo Augustorenak lortutako handitasunez European inperio bat ezin lortu izanak.

Nazioak sortzeko bideak European honako erritmo hau eraman izan du beti: Lehen aldia. Estatua herri batzuen elkartasuna bezala elkarbizitza politiko edo moraleko batasun batean ikustarazten duen mendebaleko sen berezia, geografiaz, etniaz eta hizkuntzaz hurbilen dauden multzoetan hasten da eragiten. Ez hurbiltasun honek nazioa sortzen duelako, aitzitik, hurbilenen arteko desberdintasuna menderatzen errazagoa delako. Bigarren aldia. Sendotze-aldia. Honetan, Estatu berria baino harantzago dauden herriak, arrotz eta -asko edo gutxi- etsaitzat hartzen dira. Aldi honetan nazio-bilakaerak bakoizkeria kutsua hartzen du, Estatua barrurantz ixtearena; labur esan, egun nazionalismoa esaten dugunarena. Baina egia esan, besteak politikaz arrotz eta etsai gisa hartzen badira ere, arlo ekonomikoan, intelektualean eta moralean beraiekin batean bizitzen da. Gerla nazionalistek, teknika- eta izpiritu-aldeak berdintzeko balio dute. Ohiko etsaiak, berdinak egiten dira historian zehar.⁸⁹ Pixkanaka-pixkanaka, herri etsai horiek, gure Estatuaren giza zirkulu berean egotearen kontzientzia, argituz doa zeruertzean. Hala ere, arrotz eta areriotzat edukitzen segitzen da. Hirugarren aldia. Estatua erabat gotortua dago. Orduan entrepresa berria sortzen da: atzo arte etsai ziren herriekin bat egitea. Moralean eta interesetan gure kideak direla, eta, elkarrekin, urrunago eta are arrotzagoak diren beste talde batzuen aurrean zirkulu nazional bat osatzen dugulako ustea hazi egiten da. Hona hemen umotuta nazio ideia berria.

Adibide batek argituko du azaldu gogo dudana. Esan ohi da Cid-en garaian Espainia - Spania- bazela ideia nazional bat, eta, tesia areago bermatzeko, gehitu ohi da, mende batzuk aurretik San Isidorok "ama Espainia" aipatzen zuelakoa gehitu ohi da. Ene ustez, hau, hutsegite larria da historiako ikusmoldearen aldetik. Cid-en garaian Leon-Gaztela Estatua hasia zen taxutzen, eta leon-gaztelar batasun hau zen aldi hartako ideia nazionala, politikaz ideia eragilea. Spania, aldiz, ideia eruditoa zen batez ere; gehienez, erromatar Inperioak Mendebalean ereinda utzi zituen hainbat ideia oparotako bat. "Espainiarrak" ohituta zeuden Erromak administrazio-unitate batean, Behe Inperioko diocesis batean, sailkatuak izaten. Baina ideia geografiko-administratibo hau hartua zuten soilki, ez beraiek sortua, eta are gutxiago irrikatua.

Idea horri XI. mendean errealitate handia eman nahi izanagatik, aitortu beharko da ez dela iristen IV. mendera orduko greziarrentzat Helade-ren ideiak duen bizitasun eta zehaztasunera ere. Eta, hala ere, Heladea ez zen inoiz benetako ideia nazional bat izan. Zinetako kidesun historikoa honako hau litzateke: Europa "europarrentzat" XIX. mendean izan zena bera izan zen Helade IV. mendeko greziarrentzat, eta Spania XI. eta are XIV.eko "espainiarrentzat".

Honek, batasun nazionaleko entrepresak bere orduan iristen direla erakusten du, soinuak doinu batean bezala. Atzoko kidesun hutsak bihar arte itxaron beharko du nazio-asmoa gal-gal hasteko. Hala ere, ia segurua da bere ordua iritsiko zaiola.

Orain europarrentzat Europa ideia nazional bilakatu ahal izateko sasoia iritsi da. Eta hori egun horrela sinestea, ez da XI. mendean Espainia eta Frantziaren batasuna iragartzea izango zatekeen bezain utopikoa. Mendebaleko Estatu nazionala, zenbat eta leialago iraun bere zinetako muinari, are zuzenago joko du kontinenteko Estatu erraldoi batean jatortzera.

9

Mendebaleko nazioek beren soslaia puztu bezain laster, beren inguruan eta azpian, atzeko hondo gisa, Europa agertzen da. Paisai unitate honetan mugituko dira Berpizkundetik aurrera, eta paisaia europar hori beraiek dira, konturatu gabe beren aniztasun gerlatia ahazten hasita. Frantziak, Ingalaterrak, Espainiak, Italiak, Alemaniak,

beren artean borrokatzen dute, elkarren aurkako ligak osatzen dituzte, desegiten dituzte, berregiten. Baina hori guztiori, gerla nahiz bake, pareko kidearekin bizi izatea da, eta hori da Erromak zeltiberiarrekin, galiarrekin, britainiarrekin edo germaniarrekin behin ere, ez bakean ez gerlan, egiterik izan ez zuena. Historiak lehen mailan liskarrak nabarmenarazi zituen, eta, oro har, politika, batasunaren galburuarentzat lur berantiarrena dena; baina sail batean borrokatu bitartean, ehun sailetan tratuan ari ziren etsaiarekin, arte-ideiak eta formak eta fede-artikuluak trukatzeko ziren. Esan liteke gerlen dunbotsa oihaltza hutsa izan dela, eta bere atzean are setatsua egiten zuela lan bakearen polipera bakezaleak, nazio etsaien bizitza ehunduz. Belaunaldi berri bakoitzean, gogoen berdintasuna handitu egiten zen. Zehaztasun eta arreta handiagoak nahi izanez gero, honela esan bedi: gogo frantsesak eta ingelesak eta espainolak nahi bezain bestelakoak ziren, dira eta izango dira; baina egitamu edo arkitektura psikologiko bera dute eta, batez ere, edukin komun bat hartuz doaz. Erlijioa, zientzia, eskubideak, artea, gizarteko balioak eta erotikak komunak bilakatzen ari dira. Horra, bada: gauza izpiritual horietatik bizitzen da. Berdintasuna, beraz, gogoak galibu bereko balira baino handiagoa gertatzen da.

Geure gogo-edukinen -iritziak, arauak, gurariak, usteak-, kontu-garbiketa egingo bagenu ikusiko genuke gehien-gehiena ez datorkiola frantziarrari bere Frantziatik, ez espainiarrari bere Espainiatik, hondo komun europarretik baizik. Egun, zinez, pisu handiagoa du gutako bakoitzarengan europar gisa duenak, bere frantses, espainol, etab. zati berezgarriak baino. "Nazional" gisa dugararekin soilki bizitzera mugatzeko irudimenezko saioa egingo balitz, eta fantasia hutsez, erdiko gizon frantsesari kontinenteko beste herrietatik hartuta erabiltzen, pentsatzen, sentitzen duen guztia erauziko balitzaio, izuak hartuko luke. Ezin litekeela horretatik bakarrik bizi ikusiko luke; bere barneko edukinaren bostetik lau jabe gabeko ondasun europarrak direla.

Ez da ikusten axolako zer besterik egin dezakegun munduaren alde honetan bizi garenok, duela lau mendez geroztik Europa hitzak adierazten duen agindua bete ez bada. Horren aurka "nazio" zaharren aurriritzia baizik ez dago, nazio-idea iragan gisa. Orain ikusiko da europarrak Loth-en andrearen seme-alabak ere ote diren eta historia burua atzera jirata egiten tematzen diren. Erromaren aipamenak, eta, oro har, antzinako gizonarenak, ohar bezala balio digu; oso zaila da gizon-mota batek noizbait buruan sartu zitzaien Estatu idea alde batera uztea. Zorionez, europarrak, ohartuki zein oharkabea, mundura ekarri zuen Estatu nazionalaren idea, ez da aldarrikatu zaion idea eruditokoa, filologikoa.

Saio honen tesia laburbilduko dut. Mundua, moral-galera handi bat jasaten ari da; hau, besteak beste, masen errebolta izugarrian nabari da, eta bere sustraia Europako moral-galtzean du. Azken honen arrazoiak ugariak dira. Nagusienetako bat, gure kontinenteak gainerako munduan eta bere baitan bertan zuen aginpidearen lerratzea da. Europak ez daki seguru agintzen duen, eta gainerako munduak agintzen dioten ere ez. Subiranotasun historikoa sakabanatuta dago.

Dagoneko ez dago "denboren betetasunik", honek etorkizun argia eskatzen baitu, aldeztu aurretik finkatua, zalantza gabea, XIX. mendekoa zen bezalakoa. Orduan, zer gertatuko zen bihar jakin uste zuten. Baina orain etorkizuna ildo ezezagun berrietarantz irekitzen da, ez baitakigu nork aginduko duen, nola antolatuko den boterea lurrean. Nork, alegia, zein herri edo herri multzok; beraz, zein etnia-motak; beraz, zein ideologiak, zein zaletasunek, arauk, bizigailu sistemak...

Ez dakigu zein grabitazio-gunerantz alderatuko diren giza arazoak etorkizun hurbilean, eta hau dela eta munduko bizitza behin-behinekotasun espantagarri dago emana. Guztia, gaur egun arlo publikoan zein pribatuan -baita gordean ere- egiten den guztia, zenbait zientziaren atalen batean izan ezik, behin-behinekota da. Gaur egun

aldarrikatzen, erakusten, entseiatzen, eta goستن den guztiaz fidatzen ez denak asmatu egingo du. Hori dena joan egingo da etorri den baino azkarrago. Dena, kirol fisikoaren zoralditik (zoraldia, ez kirola bera) politikako indarkeriara arte; "arte berritik" modako hondartza barregarrietako eguzki hartualdiak arte. Hor ezerk ez du sustrairik, asmakeria hutsa baita da dena, gutizia hutsala adierazten duen hitzaren adiera txarrean. Ez da bizitzaren barne-muinetatik sorkuntza; ez da zinetako gogo edo premia. Laburki: biziaren aldetik hori dena gezurra da. Bada kontraesaneko gertakaririk ere, egizaletasuna lantzen duen bizimodua aldi berean gezurrezkoa denean. Bizitzan egia, haren ekintzak ezinbestean premiazkotzat sentitzen ditugunean bakarrik dago. Egun ez dago politikorik bere politikaren ezinbestekotasunik sumatzen duenik, eta zenbat eta larriago, txaldanago, den haren keinua, gutxiago eskatzen du etorkizunak. Ez dago berezko sustraiak dituen beste bizitzarik, bizitza autoktonoagorik, ezinbesteko eskenez osatzen dena baino. Gainerakoa, hartzea edo uztea edo aldatzea gure esku dagoena, gezurrezko bizitza da.

Oraingoa, aginte-etenaldi baten fruitua da, mundu historikoaren bi antolaketaren arteko hutsune batena: izan zen antolaketarena eta izango denarena. Horregatik da funtsez behin-behinekoa. Eta gizonak ez dakite garbi egiazko zein erakunde-mota zerbitzatu, ezta emakumeek benetan zein gizon-mota nahiago duten ere. Europarrek ez dakite bizitzen enpresa handi batzaile batean jaurtikiak izan ezik. Hau falta denean, doilortu egiten dira, laxatu, arima lokatu egiten zaie. Honen hasiera bat dugu gaur begien aurrean. Orain arte nazio deitu izan diren zirkuluak, duela mendebete edo gutxixeago bere zabalkunde gehienera iritsi ziren. Orain ezin da beraiekin ezer egin gaingintzea izan ezik. Dagoeneko ez dira iragana baino, europarraren inguruan eta azpian pilotzen dena, preso hartuz, zamatuz. Inoiz baino bizi-askatasun handiagoa dugularik, herri bakoitzaren barruan haizea itogarria dela sumatzen dugu, haize itxia delako. Lehen atmosfera ireki handia, egurastua zen nazio bakoitza, probintzia eta "barruko" bihurtu da. Amesten dugun supernazio europarrean, oraingo aniztasuna ezin daiteke eta ez du desagertu behar. Antzinako Estatuak herrien bereizgarriak suntsitu egiten zituen edo kanpoan uzten indargabe, edo gehienez momia bihurturik gordetzen zituen, baina ideia nazionalak, dinamikoagoa, Mendebaleko bizitza beti izan den aniztasun eragingarri horren iraupena eskatzen du.

Mundu guztiak sumatzen du bizi-oinarri berri baten beharra. Baina -honelako krisialdietan beti gertatu ohi den bezala- batzuk, oinarri zaharkitua, hain zuzen ere, eginahalean eta era artifizialean indartuz saiatzen dira kinka gaingintzen. Hauxe da azken urteotako elgorri "nazionalistaren" norabidea. Eta beti -berriz diot- gertatu izan da horrela. Azken sugarra, luzeena. Azken hasperena, sakonena. Desagertzeko bezperan, mugak sentikortu egiten dira -muga militarrek eta ekonomikoak.

Baina nazionalismo guztiok irteera gabeko kalezuloak dira. Biharko egunerantz bideratzen saiatuz gero muga sumatuko da. Hortik ez da inora ateratzen. Nazionalismoa, joera nazionalizatzailearen kontrako oldarra da beti. Esklusibista da, hau inklusibista delarik. Sendotze-aldietan, ordea, balio positiboa du eta arau-garaia da. Baina European dena dago sobera sendotua, eta nazionalismoa seta hutsa da, asmamen eta enpresa handien eginbeharrari uko egiteko aitzakia. Erabiltzen dituen baliabideen sinplekeriak eta goraipatzen dituen gizonen mailak soberan erakusten dute sorkuntza historiko baten alderantzizkoa dela.

Kontinenteko herrien multzoaz nazio handi bat eraikitze erabakiak ez bestek suspertuko luke European pulstua. Bere buruan sinesten hasiko litzateke berriro, eta ondorioz bere buruari asko eskatzen, araupean jartzen.

Baina egoera uste ohi den baino arriskutsuagoa da. Urteak aurrera doaz eta europarra orain daraman bizitzako tonu minor horretara ohitzeko arriskua dago; ez besteri ez bere

buruari ez agintzen ohitzeko. Horrela balitz, bere goi-bertute eta gaitasun guztiak deuseztatuz joango lirateke.

Baina Europaren batasunari, nazionalizatzeko guztietan gertatu den bezala, klase kontserbadoreek egiten diote kontra. Honek hondamendia ekar dezake beraientzat, izan ere, Europak bere morala behin-betiko eta bere energia historikoa galtzeko arriskuari, beste arrisku zehatz eta hurbil bat gehitzen zaio. Komunismoa Errusian gailendu zenean askok uste izan zuten Mendebale osoa geldituko zela uholde gorriaren azpian. Ni ez nintzen halako igerpenean partaide. Alderantziz: urte haietan Errusiako komunismoa europarentzat egosgaitza zela idatzi nuen, kasta honek bere historiako eginahal eta jaidura oro Indibidualtasunaren kartan jarri baitu. Denbora joan da, eta gaur egun lasaitasunera itzuli dira noizbaiteko izutiak. Eta lasaitasunera itzuli dira, hain zuzen ere, lasaitasuna galtzeko sasoia etorri denean. Oraintxe barrea baitaiteke komunismoa Europan zehar menderatzaile eta gailen.

Ene ustea honako hau da: orain, lehen bezala, fede komunistaren edukinak errusiar eraz, ez du interesik, ez du erakartzen, ez du etorkizun desiragarriarik eskaintzen europarentzat. Eta ez horren apostoluek -kaskagorak, gorak eta egarrik gabeak, apostolu guztiak bezala- berbatzen dituzten arrazoi eskasengatik. Mendebaleko bourgeoisieak ondotoxoa dakite, komunismorik gabe ere, bere errenta hutsez bizi eta seme-alabei pasatzen dizkien gizonak, egun mugatuak dituela. Ez da hau Europa fede errusiarretik babesten duena, eta are gutxiago beldurra. Gaur egun aski barregarriak iruditzen zaizkigu duela hogeit hamar urte Sorel-ek indarkeriari buruzko bere teoria oinarritzeko erabiltzen zituen arrazoi bitxiak. Burgesa ez da beldurtia, hark uste zuen bezala, eta egun gertuago dago indarra erabiltzeko langileak baino. Edozeinek daki, boltxebismoa Errusian nagusitu baldin bazen, Errusian burgesik ez zegoelako nagusitu zela⁹⁰. Faxismoa, mugimendu petit bourgeois bat delarik, langileria guztia elkartuta baino indarzaleago agertu da. Ez da, beraz, hori europarrari komunismoaren bidetik lasterka abiatzea eragozten diona, askoz sinpleagoa eta aurrekoa den beste arrazoi bat baizik. Hau: europarrak ez du ikusten antolaketa komunistan giza zorionarentzako abantailarik.

Eta, hala ere, -berriz diot- oso posiblea ikusten dut hurrengo urteetan Europa boltxebismoarekin liluratzea. Ez boltxebismoagatik beragatik, boltxebismoa izan arren baizik.

Eman dezagun "bost urteko plangintzak", Gobernu sobietarrak fermuki jarraituta, bere aurrikuspenak lortzen dituela eta Errusiako ekonomia eskerga, suspertua ez ezik, oparo agertzen dela. Boltxebismoaren edukina edozein dela ere, giza enpresaren eginahal erraldoia adierazten du. Hor gizonak erabakitasunez besarkatu dute erreformazko etorkizuna eta erne bizi dira fede horrek txertatzen dien araudi zorrotzaren azpian. Materia kosmikoak -giza irrikentzat hezigaitza- eginahala larriki oztopatzen ez badu, bidea ireki samar utzita besterik gabe, enpresaren bikaintasunak, izar-multzo sutsu eta berri batek bezala distiratu du kontinentearen zeruertzean. Europak, bien bitartean, urte hauetako landare-bizimodu kaskarrean segitzen baldin badu, nerbioak moteldurik disziplina-ezaz, bizi-berritzeko egitasmorik gabe, nola egingo lioke aurre halako enpresa goren baten ondorio kutsatzaileari? Aurrez aurre zabaltzeko hori bezain bandera bikainik ez duelarik, eginkizun berrirako deia sukartu gabe entzungo duela uste izatea europarra ez ezagutzea da. Bere biziari zentzu bat emango dion zerbait zerbitzatzeagatik eta nork bere bizitzako hutsuneari ihes egiteagatik, ez da zaila europarrak komunismoaren aurkako objekzioak irestea, eta, haren muinak ez bada ere, haren jarrera moralak erakarria sentitzea.

Nik Europaren eraikuntza, Estatu nazional handi gisa, ikusten dut "bost urteko plangintzaren" garaipenari kontrajar lekiokkeen enpresa bakarra.

Ekonomia politikoan adituek garaipen horrek bere aldetik oso aukera murrizta duela baieztatzen dute. Baina doilorregia litzateke antikomunismoak bere etsaiak aurkitutako oztopo materialetatik itxarotea dena. Horrelako porrota, mundu guztiarentzat litzateke hondamendia: guztiona eta denarena, egungo gizonarena. Komunismoa "moral" bitxia da -moral antzeko zerbait. Ez ote da zuzenagoa eta joriagoa moral eslaviar horri Mendebaleko moral berri bat kontrajartzea, bizi-egitasmo berri baten akuilua?

XV

Benetako auzira iristen da

Hona hemen auzia: Europa moralik gabe gelditu da. Arazoa ez da masa-gizonak moral zaharkitu bat gutxiestea sortu berri baten mesedetan, aitzitik, bere bizimoduaren erdigunea inolako moralen menpean ez bizitzeko asmoa izatea. Ez ezazue hitzik ere sinetsi gazteei "moral berriaz" mintzatzen entzuten diezuenean. Erabat ukatzen dut kontinenteko inongo zokotan moral baten itxura duen ethos berri batek eragindako talderik egotea. "Berria" aipatzen denean beste inmoralitate bat gehiago egin eta kontrabandoa sartzeko biderik erosoena bilatu besterik ez da egiten.

Horregatik, inozokeria litzateke egungo gizonari bere moral-eza aurpegiratzea. Salaketa ez litzaioke inportako edo, hobeto esan, lausengu litzaioke. Moral-eza, merke-merkea izatera iritsi da, eta edozein harrotzen da horrela jarduteaz.

Alde batera utzita -saiakera honetan egiten den bezala- iraganaren iraupena diren taldeak -kristauak, "idealistak", liberal zaharrak, etab.-, egungo garaia adierazten dutenen artean, ez da batere aurkituko, bizitzako jarreraz, eskubide guztiak dituela eta batere obligaziorik ez uste ez duenik. Berdin da atzerakoi edo irautzaile-itxuraz mozorrotzea: alde edo molde, hara eta hona jo ondoren, haren gogo-aldatea batik-bat eginbeharrik ez ezagutzea eta, berorrek ere zergatik ez dakiela, neurrigabeko eskubideen jabe sentitzea izango da.

Horrelako arima batera erortzen den edozein gaik emaitza bera ekarriko du, eta deus zehatzera ez makurtzeko aitzakia bihurtuko da. Atzerakoi edo antiliberal gisa agertzen baldin bada, aberriaren salbazioak, Estatuarenak, gainerako arau guztiak zapaldu eta lagun hurkoa xehatzeko eskubidea ematen duela aldarrikatu ahal izateko izango da, batez ere hurkoak nortasun baliosa baldin badu. Baina gauza bera izango da iraultzaile izatera jotzen badu: eskulangilearen, behartsuaren eta gizarte-justiziaren aldeko itxurazko grina suharrak mozorro bezala balio dio betebeharrak guztiak -gizalegea, egiazaletasuna eta, batez ere, goragoko gizakienganako begirunea edo estimua- alde batera uzteko. Nik dakidanez, ez dira gutxi alderdi obrerista batean edo bestean izena eman dutenak beren baitan adimena gutxiesteko eskubidea irabazteko eta berorren aurrean zeremoniatan ez ibiltzeko. Gainerako diktadurak, berriz, argi ikusi dugu nola lausengatzen duten masa-gizona, bikaina zirudien guztia oinperaturik.

Betebeharrak guztiekiko mukertasun honek argitzen du, hein batez, egunotan "gazteriaren" plataforma bat antolatu izanaren gertakari erdi barregarri erdi lotsagarria. Gure denborak agian ez du ezaugarri gangarragorik agertuko. Jendeek, era barregarrian, "gazteak" direla aldarrikatzen dute, gazteak betebeharrak baino eskubide gehiago dituela entzun dutelako, haien kunplimendua heldutasuneko kalenda grekoak arte luza baitezake. Gazteak, gazte den aldetik, beti ikusi du bere burua balentriak egitetik edo egin izanetik libre. Kreditutik bizi izan da beti. Hau giza izatearen naturan dago. Sasi-eskubide moduko bat zen, erdi ironikoa erdi samurra, ez-gazteek gazte jendeei ematen zieten. Baina txundigarria da orain hauek benetako eskubide bezala hartzea, hain zuzen ere, dagoeneko zerbait egin duenari bakarrik dagozkion gainerako guztiak bereganatzeko.

Gezurra zirudien arren, gaztetasuna chantage bihurtzera iritsi da. Egia esan, chantage orokorreko denboran bizi gara eta honek elkarren osagarri diren bi keinu-era ditu:

indarkeriaren chantagea eta umorismoaren chantagea. Batarekin edo bestearekin gauza bera bilatzen da: mendekoa, gizon arrunta, menpekotasun orotatik aske sentitu ahal izatea.

Horregatik, ezin da egungo krisia apaindu bi moral edo bi zibilizazioen arteko gatazka bezala erakutsiz: bata gainbehera, bestea egunsentian. Masa-gizonak ez du moralik, besterik ez, morala, beti eta berez, zerbaitekiko menpetasun-sentipena baita, zerbitzu eta betebeharrak kontzientzia. Baina agian oker dago "besterik ez" esatea. Arazoa ez baita gizaki-mota honek morala baztertzea bakarrik. Ez; ez diezaiozun egitekoa horrenbeste erraztu. Morala ezin da besterik gabe alde batera utzi. Gramatikaz ere okerra den amoralitate hitzaz adierazten dugun hori, ez da existitzen. Inolako araupean makurtu nahi ez baduzu, velis nolis, morala oro ukatzeko arauaren pean makurtu behar duzu, eta hau ez da amoral, immoral baizik. Moral negatiboa da, bestearen forma hutsunez gordetzen duena.

Nola sinetsi ahal izan da bizitzaren amoralitatean? Dударik gabe, oraingo kultura eta zibilizazio guztiak sineste horretara eramaten duelako. Orain Europa bere jokabide izpiritualaren ondorio negargarriak biltzen ari da. Kultura bikain, baina sustraigabe baten aldapatik abiatu da lasterketa itsuan.

Saiakera honetan europar-mota bat irudikatu nahi izan da eta batez ere bere jokabidea, berau jaio den zibilizazioaren beraren aurrean, aztertu. Horrela egin beharra zegoen, pertsonaia horrek ez baitu antzinakoarekin borrokan ari den beste zibilizazio bat adierazten, ukazio soil bat baizik, benetako parasitismoa ezkutatzen duen ukazioa. Masa-gizona oraindik ere, hain zuzen ere, berak ukatzen duen eta beste batzuek eraiki edo bildu zuten horretatik bizi da. Horregatik ez zen komeni bere psikograma auzi nagusi honekin nahastea: zein hutsune larri ditu egungo kultura europarrak? Nabaria baita, azken finean, orain gehiena den gizaki-mota hau hutsune horietatik sortua dela.

Baina auzi nagusi horrek orrialde hauetatik kanpo gelditu behar du, gehiegizkoa baita. Giza bizitzari buruzko doktrina osotasunez garatzera behartuko luke, berau, kontrapuntu gisa, orrialdeotan barrena artekatua, iradokia, xuxurlatua geratu baita. Laster izango da, agian, oihukatzeak aukera.

Ingelesentzako

azken solasa

Laster beteko da urtea, halabeharrik kanporaturik, paisaia holandar batetik, Frantsesentzako aitzinsolasa, liburu honen lehen argitalpen herrikoiari aurretik ezarritakoa, idatzi nuela. Sasoi hartan, bere historiako aldirik korapilatsuenetako bat hasi zen Ingalaterrarentzat, eta pertsona gutxi zegoen European haren bertute ezkutuetan ustea zuenik. Azken denboretan hainbeste gauzak huts egin dutenez, adimen-inertziak guztia dago zalantzan, baita Ingalaterra ere. Gainbehera zetorren herria zela esaten zen, eta lotsagabe guztiak -azkenekoan zentzugabe huts agertzen direnek lehen ekitaldian agertutako figura dira hauek- haren belarria bustitzen ausartzen ziren. Hala ere -eta orain aipatu nahi ez ditudan arrisku batzuk pasata-, nik fede indartsuz adierazten nuen Ingalaterrako herriaren eginkizun europarra, bi mendetan zehar izan duena eta era berezi-berezian gaur egun ere bete behar duena. Ez nuen orduan uste gertakariak ene iragarpenak honen goiz egiaztatu eta ene itxaropena gehituko zutenik. Are gutxiago, gertakariok atsegin izango zutela halako zehaztasunez egokitzea nik, irudi umoretsu bat erabiliz, Ingalaterrari kontinentearekiko ematen nion zereginari. Ingalaterrak bere barruan saiutzen duen osasunketa-lana, behintzat, izugarria da. Ekaitzik beldurgarrienaren erdian Ingalaterrako itsasontziak bela guztiak aldatzen ditu, bi koadrante jiratu, haizeari lotu, eta bere lemaen keinuak munduaren norabidea aldatzen du. Hori dena, batere imintziorik gabe eta esaldi guztiak baino harantzago, are jaurti

berri ditudanak baino ere. Garbi dago historia egiteko modu asko dagoela, ia desegitekoak adina.

Duela mende batzuek geroztik, noizbehinka, kontinentekoak goiz batean esnatu eta, buruan hatz eginez, esaten dute: "Ingalaterra hau!..." Esamoldeak harridura adierazten du, aztoramena, eta aurrean zerbait miresgarria, baina ulergaitza, izatearen kontzientzia. Ingalaterrako herria, egia esan, munduan dagoen gertaerarik bitxiena da. Ez naiz ingeles banakoaz ari, gizarte-gorputzaz baizik, ingelesten multzoaz. Bitxitasuna, beraz, miresgarri dena, ez dagokio maila psikologikoari, soziologikoari baino. Eta jendeek nonahi soziologiaz dituzten ideiak bestetakoez bezain argiak ez direnez gero, ez dago azaltzerik, prestakuntza handirik gabe, zergatik den bitxi eta zergatik miresgarria Ingalaterra. Are gutxiago, nola iritsi den gauza bitxi hori izatera. Herri batek alde aurretiko "izaera" bat duela eta bere historia izaera horren jario bat dela sinesten den bitartean, ez da elkarrizketari ekiteko modurik ere egongo. "Izaera nazionala", gizatiarra den oro bezala, ez da jaiotzetiko dohaina, fabrikakuntza baizik. Izaera nazionala historian zehar eginez, deseginez eta berreginez joaten da. Oraingoan etimologiari atxiki gabe, nazioa ez da jaiotzen, egiten baizik. Zuzen nahiz oker ateratzen den enpresa da, saio-aldi baten ondoan hasten dena, garatzen dena, zuzentzen dena, noiz edo behin "haria galdu" eta berriro hasi behar edo, gutxienez, jarraitu behar izaten dena. Interesgarriena, azken urte hauetan bizimodu ingelesaren ezaugarri harrigarriak, bakanak direlako harrigarri, zein diren zehaztea litzateke. Gero, nola lortu dituen Ingalaterrak halako dohain soziologikoak erakusteko ahalegina etorriko litzateke. Behin eta berriz ari naiz hitz hau erabiltzen, pedante izanagatik, berorren atzean baitago zinez funtsezkoa eta oparoa dena. Historiatik psikologismoa erauzi beharra dago, dagoeneko beste jakite alorretatik ere uxatua baita. Ingalaterraren bakantasuna ez datza sortzen jakin duen gizabanako-motan. Oso eztabaidagarria da gizabanako ingelesak Ekialdean edo Mendebalean agerturiko beste gizabanako-motak baino gehiago balio ote duen. Baina Ingalaterrako gizonen izaera beste guztien gainetik jartzen duenak ere, asko ala gutxi izatearen auzira mugatzen du arazoa. Nik, berriz, herri ingelesaren bakantasuna, berezitasun handiena, giza bizitzaren alde soziala edo kolektiboa hartzeko moduan, gizarte bat izaten dakien moduan, errotzen dela defendatzen dut. Honetan bai jartzen dela beste herrien kontrakarrean, eta auzia ez datza asko ala gutxi izatean. Beharbada, luzaro gabe, egokiera izango dut honekin adierazi nahi dudana guztia erakusteko.

Baina Ingalaterrarekiko begirune honek ez gaitu libratzen bere akatsek eragiten diguten haserretik. Ez dago herririk, beste batetik begiratuta, jasangaitz gertatzen ez denik. Eta alde horretatik agian, ingelesak, maila berezian, gogaikarriak ditugu. Izan ere, herri baten bertuteak, gizonarenak bezala, bere akatsen eta mugen gainean jarrita eta, nolabait, finkatuta, egoten dira. Herri horretara iristen garenean, bere mugarriak ikusten ditugu lehendabizi, eta horiek bere mugak dira alde moralean nola fisikoan. Azken hilabeteetako urduritasunak ia nazio guztiak mugarrien gainean igota bizitzea ekarri du; alegia, beren akats berezkoenen espektakulu gehiegia eskaintzen aritzea. Honi gehitzen badiogu, eztabaida-gai nagusietako bat Espainia izan dela, ulertuko da zenbat nozitu behar izan duen Ingalaterran, Frantzian eta Ipar Amerikan, maingutasuna, dorpetasuna, grina gaizto eta hutsegite den guztia. Gehien harritu nauena, herri horietako iritzi publikoan, gauzen berri ondo ez jakiteko dagoen borondate finkoa izan da; eta gehien sumatu dudana hutsunea, Espainiarenganako, eskuzabaleko keinu baten falta izan da, hori baita, ene ustez, munduan den gauzarik estimagarriena. Mundu anglosaxoniarrean - ez gobernuetan, baina bai herrietan- azpijokoa, arinkeria, buru-itxikeria, aurriritzi zaharra eta itxurakeria berria, barra-barra ibiltzen utzi da hesirik jarri gabe. Serio entzun dira ergelkeriarik handienak bertakoak izanez gero, eta, aldiz, gauzak argi zitzakeen

inolako ahots espainiarrik ez entzuteko, edo itxuragabetu ondoan bakarrik entzuteko delibero fermua egon da.

Honek, egoera zertxobait bortxatzen nuela jakin arren, Espainiaz hitz egiteko lehen aitzakia baliatzera eraman ninduen eta hitz egitera -entzuleria ingelesaren mesfidantzak besterik ez baitzuen permititzen- berari buruz ari nintzela itxuraz aditzera eman gabe, "Bakezaletasuna dela eta..." izenburuaz ondoren ezarri diren orrialdeetan. Bihozbera baldin bada, irakurleak ez du hartzalea ahaztuko. Ingeleseki zuzenduak izaki, haien usuarioetara egokitzeko eginahal bat erakusten dute. Uko egin zaio beraietan "distira" orori eta zuhurtasun eta zehar-hitzez ondutako aski pickwick estiloan idatziak doaz.

Gogoan hartu behar da Ingalaterra ez dela idazle-herria, merkatari, ingeniari eta gizon jainkozaleen herria baizik. Horregatik, asmatu zuen hizkuntzan eta mintzairan, esaten dena ez esaten saiatzen da, iradokitzen, hobeto esan, eta bazter uzten bezala. Ingelesa ez da bere burua esateko mundura etorri, alderantziz baizik, isiltzeko. Aurpegi soraioz, piparen atzean jarrita, ingelesek beren sekretuak zaintzen dituzte erne, batek ere ihes egin ez diezaien. Hau indar ikaragarria da, eta beltzuritasun altxor horrek eta energia horiek ukitu gabe irautea, axola handikoa da gizadiarentzat. Baina aldi berean asko zailtzen dute beste herriekiko ulermena, gurekin batez ere. Hegoko gizona hitz-jarioa da. Hezi gintuen Greziak, mingainak askatu zizkigun eta a nativitate mihiluze egin gintuen. Atizismoak lakonismoa garaitu zuen eta atenastarrarentzat bizitzea mintzatzea zen, esatea, ezkutuki gordeenak argi eta ozenki oihuka haizatuz eztarria urratzea. Horregatik jainkotu zuten esatea, logosa, ahalmen magikoa emanez, eta azkenean, erretorika antzinako zibilizazioarentzat, guretzat fisika azken mende hauetan izan dena bilakatu zen. Araudi honen azpian, herri erromanikoek hizkuntza korapilatsuak sortu dituzte, baina eztiak, soinu, ozentasun eta aire paregabekoak; amaigabeko berriketaldiez egindako hizkuntzak -agoran eta plazatxoan, oholtza gainean, tabernan eta hitz-aspertuan. Horregatik aztoratzen gara, ingeles mardul hauengana hurbilduta, beren mintzaira osatzen duen miauka ahul eta gozagaitzen zerrenda jaulkitzen entzuten diegunean.

Ondoan datorren saiakeraren gaia, Mendebaleko herrien elkar ulertezina da -hots, haurtzarotik elkarrekin bizi diren herriena. Gertakaria harrigarria da. Europa beti auzo-etxea bezalakoa izan baita, bertako familiak inoiz aldentzen ez direnak eta etxeetako bizimoduak aldioro nahasten dituztenak. Orain, hain larriki, elkar ezagutzen ez duten herri hauek, elkarrekin egin izan dute jolas haurrak zirelarik, etxe handi komuneko igarobideetan. Nola iritsi ote dira honen gaizki konpontzera? Egoera itsusi honen sorrera, luzea eta nahasia da. Gertaera hartan korapilatzen diren milaka harietako bat baizik ez aipatzeagatik, gogoan har bedi, herri batzuk besteren epaile bihurtzeko usuarioa, bestelakoak direlako gutxietako eta arbuiatzeko usuarioa, azken finean, gaur ahaltsuak diren nazioek txikiagoa den herri baten estiloa edo "izaera" zentzugabea dela, gerla edo ekonomia indarrez ahula delako, uste izateko ausardia, oker ez banaiz, duela azken berrogeita hamar urteak arte inoiz gertatu gabeko fenomenoak dira. XVIII. mendeko entziklopediazale bati, bere hantustea eta adimen malgutasun eskasa gora-behera, egia osoaren jabe zela uste zuen arren, ez zitzaion bururatuko Espainia bezalakoa herri "ez-ikasi" eta pobretu bat arbuiatzea. Norbaitek horrelakorik eginez gero sortzen zuen iskanbilak frogatzen zuenez, orduko gizon arruntak ez zuen ikusten, parvenu batek bezala, botere desberdintasunetan giza mailari zegokion desberdintasunik. Alderantziz: hurkoaren bestelakotasunari buruzko jakinmin atsegin eta pozgarritz beteriko bidaian mendea da. Hauxe izan zen azken herenean mamitzen den kosmopolitismoaren zentzua. Fergusson-en, Herder-en, Goethe-ren kosmopolitismoa oraingo "internazionalismoaren" kontrakoa da. Ez da nazio bereizkuntzak ezabatzeaz alaitzen, alderantziz baizik, bereizkuntzekiko atxikimenduaz. Bizikera-aniztasuna bilatzen du, ez

suntsitu asmoz, integratzeko asmoz baizik. Haren ikurra izan ziren Goethe-ren hitz hauek: "gizon guztiek bakarrik bizi dute gizatasuna". Ondoren etorri zen erromantizismoa ez da haren gorespina baizik. Erromantikoa beste herriez maitemindu, besteak zirelako, hain zuzen ere, maitemintzen zen, eta usuario exotikoen eta ulergaitzenez jakinduria handiko ezkutukiak errezelatzen zituen. Eta nolabait -bere horretan- arrazoi zuen. Dударik gabe, adibidez, egungo ingelesa, bere botere politikoaren kontzientziak sorgorturik, ez da oso gai antzemateko nolako kultura fina, sotil eta leinargia dagoen espainiar jatorrak arduratsu jardun ohi duen "eguzkia hartzearen" langintza horretan -langabezia baita, haren ustez. Berak, agian, jardun zibilizatu bakarra, fraka bonbatxoak jantzi eta makila batekin bolatxo bati kolpeak ematea dela uste du, "golf" deituta duin bihurtzen den eragiketa.

Gaia, beraz, erakarpen handikoa da, eta ondoko orrialdeok alde premiatsuenetik heldu baizik ez dute egiten. Elkar ez ezagutze horrek, herri ingelesak, hain urri historiako hutsegite larrietan, bere bakezaletasunaren oker itzela egitea ekarri du. Munduko egungo zoritxarrak eragin dituzten arrazoiaren artean, beharbada, gehien zehatz daitekeena, Ingalaterraren desarmea da. Bere sen politikoak, ezin sinetsizko self-control eginahal batez, gaitzaren okerreza zuzentzen utzi dio hilabete hauetan. Agian, erabaki hau hartzen, bereganatutako erantzukizunaren kontzientziak lagundu dio.

Honetaz guztiaz jarduten da lasai hurrengo orrialdeetan, harrotasun handiegirik gabe, baina Europaren berreraikuntzan laguntzeko benetako asmoarekin. Jakinarazi behar diot irakurleari, ohar guztiak orain ezarri direla eta bertako denbora-aipamenak hil honi dagozkiola⁹¹.

Paris eta apirila, 1938.

Bakezaletasuna dela eta...92

Duela hogeitaz geroztik, Ingalaterra -bere Gobernua eta iritzi publikoa- bakezaletasunaren itsasontzian sartu dira. Oker egiten dugu deitura bakar honekin oso bestelako jarrerak izendatzean, hain bestelakoak non maiz elkarren kontrako ere gertatzen baitira. Zinez, bakezaletasun-mota asko dago. Beraien artean dagoen gauza komun bakarra zabalegia da: Gerla, gaitz bat delako ustea eta gizonen arteko harreman-bide gisa hura deuseztatzeko gogoia. Baina bakezaleen adostasuna hurrengo pausoa eman orduko galtzen da, egiazki zenbateraino desager daitezkeen gerlak galdegiten dutenean. Azkenik: desadostasuna, ezin handiagoa gertatzen da, lurbira txit borrokatu honetan bakearen ezarpenak eskatzen dituen bideetan pentsatzen hasten direnean. Apika, uste baino baliagarriagoa izan liteke bakezaletasun-motei buruzko ikerketa oso bat. Ez luke argi gutxi emango. Baina garbi dago ez dagokidala ez orain ez hemen horrelako ikerketari ekitea; bertan, Ingalaterrak -haren Gobernuak eta iritzi publikoak- duela hogeitaz urte hautatu zuen bakezaletasun berezia zehatz samar mugaturik agertuko litzateke.

Baina, bestalde, oraingo egoerak egitekoa errazten digu zoritxarrez. Gauza nabariegia da bakezaletasun ingeles horrek huts egin duela. Honek bakezaletasun hori okerra zela adierazten du. Porrota hain handia, hain garbia izan delarik, norbaitek, arazoa errotik aztertzeke eta bakezaletasun oro ez ote den okerra galdegiteko eskubidea izan behar luke. Orain, ordea, ahal dudana neurrian, ingelesez ikusmoldera egokitu nahi dut, eta munduarentzako haren bake-asmoa, asmo bikaina zela pentsatuko dut. Baina horrek are nabarmenago uzten du gainerakoan egon den okerra, alegia, egungo munduak eskaintzen zituen bakebideen neurketan eta benetan bakezale izan nahi duenak jarraitu beharreko jokabidearen erabakian.

Hau esatean ez dut deus etsigarriarik aipatzen. Arras alderantziz. Zer dela eta, etsi? Gizonak, agian, azkenean bi gauzatarako ez du eskubiderik: ez harrokeriarako ez horren kontrako den etsipenerako. Inoiz ez dago behar adina arrazoirik ez baterako ez besterako. Aski da gizakiaren misterio harrigarri bat gogoan hartzea: oker bat egin ondoko hondamenezko egoera negatiboa garaipen berri bat bilaka daiteke harrigarriro gizonarentzat berau aitortu hutsarekin. Hutssegite bat aitortzea egia berri bat da berez eta horren barruan pizten den argi bat bezalakoa.

Deitorejoleek uste dutenaren kontra, edozein oker gure ondarea handitzen duen lur-sail bat da. Horren gainean negar egin ordez, ustiatzea komeni da. Horretarako, sakon aztertu behar dugu okerra, erruki gabe horren erroak aurkitu eta honek ematen digun gauzen ikuskera berria lehenbailehen eraiki. Nik uste dut ingelesak honez gero, soseguz, baina erabakitaz, prest daudela, hogeitaz oker larria izan den beren bakezaletasuna zuzentzeko, eta beste bakezaletasun zorrotzago eta eragingarriago batez ordezkatzeko.

Gehienetan gertatu ohi den bezala, bakezaletasun ingelesaren akats nagusia -eta, oro har, bakezaletasunaren jabe gisa agertzen diren guztiena- etsaia gutxiestea izan da. Gutxiespen honek diagnosi okerra eginarazi zion. Bakezaleak kalte bat, hilketa bat, grina gaizto bat ikusten du gerlan. Ahaztu egin du, ordea, horren aurretik eta gainetik, gerla, gizonak gatazka batzuk konpontzeko egiten duten ahalegin ikaragarri bat dela. Gerla ez da sena, asmakaria baino. Animaliek ez dute ezagutzen eta giza erakunde hutsa da, zientzia edo administrazioa bezala. Gerrak aurkikunde handienetako bat ekarri zuen, zibilizazio guztien oinarria: disziplinaren aurkikundeak. Gainerako disziplina-mota guztiak lehen hartatik datoz, disziplina militarretik. Bakezaletasuna galdua dago eta beatokeria hutsal bihurtzen da, gerla bizitzako teknika asmotsu eta ikaragarria dela gogoan hartzen ez badu.

Historiako forma guztiek bezala, gerlak bi ikuspegi ditu: asmatzeko ordukoa eta gainditzeko ordukoa. Asmatu zenean aurrerapen neurgaitza gertatu zen. Gaur egun, gainditu nahi denean, haren bizkar zikina, hango izua, zabarkeria, haren eskastasuna besterik ez dugu ikusten. Era berean, beste gogoetarik egin gabe, esklabutza madarikatu ohi dugu, asmatu zenean nolako aurrerapena gertatu zen konturatu gabe. Aurretik egiten zena, garaitu guztiak hiltzea baitzen. Gizadiaren jenio ongile bat izan zen, gatibuak hil beharrean, bizia gordetzea eta haien lana baliatzea asmatu zuena. Auguste Comte-k, sen gizatiar handia zuenez, historia-sena alegia, horrela ikusi zuen joputzaren sorkundea -Rousseau-k horretaz esaten dituen ergelkerietatik askatuta-, eta guri dagokigu bere oharra bestetara zabaltzea, giza arazo guztiak ikusmolde bikoitz horretatik ikusten ikasita, alegia: iristean duten ikuspegia eta joatean duten ikuspegia. Erromatarrek, oso fin, bi jainkoren esku utzi zuten bi une hauen sagaratzea -Adeona eta Abeona, iristearen jainkoa eta aldegitaren jainkoa.

Oinarritzko den hau guztia ez jakiteagatik, bakezaletasunaren zeregina errazegi bihurtu da. Uste izan zuen, gerlarik ez egoteko, aski zela ez egitea edo, gehienez, egin ez zedin saiatzea. Gerlan, giza harremanetan sortutako handitsu hutsal eta gaixo bat besterik ez baitzuen ikusten, kentzea aski zela uste izan zuen, eta ordezkatzeko ez zela beharrezkoa. Baina gerla eginahal ikaragarria denez, kentzeko modu bakarra bakeatzat eginahal handiagoa hartzea da, oso korapilatsuak diren eginahalen sistema bat, eta, alde batetik, jenioaren menturazko partaidetasuna eskatzen duena. Bestea oker hutsa da. Bestea, bakea zulo soil bat bezala hartzea da, gerlak, desagertuko balitz, utziko lukeen zuloa; beraz, ez jakitea, gerla egiten den gauza bat baldin bada, bakea ere egin beharreko gauza dela, fabrikatu beharrezkoa, giza ahalmen guztiak lanari lotuta. Bakea ez "dago hor", gizonak goza dezan prest besterik gabe. Bakea ez da inongo arbolaren berezko fruitua. Gizonari ez zaio ezer garrantzizkorik opa izaten; berak egin behar du, berak behar du eraiki. Horregatik, gure espeziearen deitura argiena homo faber izatearena da.

Hau dena gogoan hartuz gero, ez al da harrigarria Ingalaterrak izan duen ustea, alegia, bakearen alde egin zezakeen gehiena desarmatzea zela, omisio hutsaren hainbeste antza duen egitatea? Uste hori ulergaitz gertatzen da oinarrian duen diagnosi okerraz ohartzen ez bagara, alegia: gerla, besterik gabe, gizonen grinetatik irteten dela uste izatea eta grinak menperatuz gero, gerla-zaletasuna ere itota geldituko dela. Auzia garbi ikusteko egin dezagun lord Kelvin-ek bere fisikako problemak askatzeko egin ohi zuena: egin dezagun irudipenezko eredu bat. Eman dezagun, benetan, une jakin batean gizon guztiek uko egiten diotela gerlari, Ingalaterra, bere aldetik, egiten saiatu den bezala. Uste al duzue hori nahikoa litzatekeela, areago, horrekin urrats eragilerik txikiena eginga dela bakearen bidean? Oker larria! Gerla, diogun berriz, zenbait istilu konpontzeko gizonak asmatutako bidea zen. Gerlari uko egiteak ez ditu istilu horiek konpontzen. Aitzitik, inoiz baino osoago eta nahasiago uzten ditu. Grinarik eza, gizon guztien borondate bakezalea, erabat alferrikakoak gertatuko lirateke, gatazkek konponbidea eskatuko bailukete, eta, beste biderik asmatzen ez den bitartean, gerla berriro agertuko bailitzateke bakezale hutsez betetako irudipenezko planeta horretan.

Ez da, beraz, bake-nahia azkenean bakezaletasunari axola zaiona. Beharrezkoa da hemendik aurrera hitz honek borondate ona adierazteari uztea eta gizonen arteko harreman modu berri batzuen sistema bat adieraztea. Ez bedi deus oparorik espero antolaketa honetan, bakezaletasuna, funsgabeko desirkunde eroso bat izatetik, teknika berrien multzo zail bat izatera igarotzen ez den bitartean.

Bakezaletasun hark bakearentzat ekarri zuen kalte ikaragarria, oinarritzko tekniken hutsunea ikusten ez uztea izan zen, horien jardun zehatz eta xehean baitatza, izen zabalez, bakea esaten dugun hori.

Bakea, adibidez, zuzenbidea da herrien arteko harreman-modu gisa. Hara, bada: ohiko bakezaletasunak zuzenbide hori bazegoela uste zuen, hor zegoela gizonentzat aukeran, baina hauen grina gaiztoek eta indarkeriazko senak ahaztarazten zutela. Hau, ordea, egiaren kontra doa era larrian.

Zuzenbidea edo honen adar bat egon dadin, hauxe behar da: 1.a, gizon batzuek, etorri berezikoek, zuzenbideko ideia edo oinarri batzuk aurkitzea; 2.a, zuzenbideko ideia horien iragarpena eta zabalkundea dagokien giza taldean (gure kasuan, gutxienez, Europa eta Amerikako herriek, Ozeaniako lurralde ingelesak barne, osatzen duten multzoan). 3.a, zabalkunde hori nagusi izatea, zuzenbideko ideia horiek "iritzi publiko" gisa mamitzeraino. Orduan, eta ez beste inoiz, aipatu ahalko dugu zuzenbidea bere adiera bete-betean, hots, indarrean dagoen araua, alegia. Ez du axolarik legegilerik ez egoteak, ez du axolarik epailerik ez egoteak. Ideia haiek zinez arimetan nagusi izanez gero, jokabidearen auzi-maila bilakatuko dira, bertara jo ahal izateko. Eta hauxe da zuzenbidearen egiazko gunea.

Hara, bada: ez dago gerlak sortzen dituzten gaiei buruzko zuzenbiderik. Eta ez dago, ez oraindik "indarrean" izatea lortu ez dutelako, hau da, ez "iritzi publikoan" arau finko moduan sendotu ez delako, aitzitik, ideia bezala, pentsatzaileraren baten buruan sortutako teorema huts gisa ere existitzen ez delako. Eta honelako ezer ez dagoelarik, herrien zuzenbiderik teoriarik ere ez dagoelarik, beren arteko gerlak desagertzea nahi da? Zilegi bekit halako nahikundea arinkeriatzat, moralaren kontrakotzat, jotzea. Moralaren kontrakoa baita, gurari bat magiaz gertatzea nahi izatea, geuk nahi dugula eta besterik gabe. Nahi morala, gerta dadin behar diren bitartekoak ipintzeko borondate fermua lagun duena da bakarrik.

Ez dakigu zein diren nazioen "eskubide subjektiboak" eta ez dugu susmatzen ere nolakoa izan litekeen bere mugidak arau litzakeen "zuzenbide objektiboa". Azken berrogeita hamar urte hauek ikusi dituzten nazioarteko auzitegi-ugalketak eta Estatu arteko epai-organoek, jasaten ari garen egiazko nazioarteko zuzenbide-gabezia ezkututzen laguntzen dute. Ez dut gutxiesten, ezta inondik ere, magistratura horien garrantzia. Beti da axola handikoa, funtzio moral baten aurrerapenerako, ikus daitekeen organo berezi batean gorpuzturik agertzea. Baina nazioarteko epaimahai horien garrantzia, horretara mugatu izan da gaurdaino. Administratzen duten zuzenbidea, funtsean, berauek ezarri aurretik zegoena bera da. Alegia: auzimahai hauek epaitutako gaiak aztertuz gero, diplomaziak aspaldidanik erabakitakoak ber-berak direla agertzen da. Ez dute garrantzizko aurrerapenik ekarri funtsezkoan: nazioek osatzen duten errealitate bereziarentzako zuzenbide baten sorreran.

Eta itxaron ere ez zen zilegi antolaketa honetan emaitza handiagorik itxarotea Versaillesko Itunarekin eta Nazioen Elkartearen eraketarekin hasi zen aldi batetik, bi hilotz handienak eta berrienak bakarrik aipatzeagatik. Higuin dut irakurlearen arreta hutsegite, makurkeria edo hondakinetara erakartzea. Baina nahitaezkoa da empresa handi berriekiko, eginkizun eraikitzaile eta osasungarri berriekiko interesa pizten zertxobait laguntzeko. Beharrezkoa da Nazioen Elkartearen sorrera bezalako okerrak berriro ez errepikatzea; ulertzen da, jaio zen orduan erakunde hau zehazki izan zena eta adierazi zuena. Ez zen edozein hutsegite, politikaren eginkizun zailean ohikoak direnak bezalakoa. Sakon atributua eskatzen duen hutsegitea izan zen. Hutsegite sakon historikoa. Sorkuntza hura eragin zuen "izpiritua", haren asmoa eta figura sortu zituen ideia filosofiko, historiko, soziologiko eta juridikoen sistema, historiaren aldetik hila zegoen garai hartarako, iragana zen, eta etorkizuna aurreratu ordez zaharkina zen orduko. Eta ez bedi esan hau iragartzea erraza denik orain. Izan ziren orduan bertan Europan haren ezinbesteko porrota salatu zuten gizonak. Historian ia normala dena gertatu zen berriro, alegia: iragarria izan zen. Baina berriro ere politikoez ez zieten

gizon haiei jaramonik egin. Alde batera uzten dut zein gremiotakoak ziren igerleak esatea. Aski bedi, giza faunan, politikoen beste muturreko multzoan daudela esatea. Beti izango da hau gobernatu beharko duena, eta ez igerlea; baina axola handia du giza ibileretan politikoa beti igerleak oihukatzen edo iradokitzen duena entzuteak. Historiako garai handi guztiak bi gizon-mota hauen arteko elkarlan sotiletik sortu izan dira. Eta beharbada, orain nora-ezean galduta ibiltzearen arrazoi sakonenetako bat, duela bi belaunaldiz gero politikoei beren burua independente aldarrikatu eta elkarlan hori bukatutzat eman izana dateke. Hori dela eta gertakari lotsagarri bat gertatu da: historiaren eta zibilizazioaren garai hauetan, mundua inoiz baino galduago nabigatzea, mekanika itsu batera emana. Gero eta zailagoa da politika osasuntsu bat aitzintasun historiko luzerik gabe, igerpenik gabe. Oraingo hondamendiek, agian, berriro irekiko dizkiete begiak politikoei gertaera nabaria ikus dezaten, alegia, badirela gizon batzuk, dela arrunki erabiltzen dituzten gaiengatik, dela aztergailu sismiko zorrotzek bezain arima sentibera dutelako, etorkizunaren bisita besteek baino lehenago hartzen dutenak⁹³.

Nazioen Elkartea sekulako tresna juridikoa izan zen ez zegoen zuzenbide baterako sortua. Haren justizia-hutsunea, betidaniko diplomaziaz bete zen iruzurrez, eta zuzenbidez mozorroturik zegoenez moral galtze orokorra gehitu zuen.

Hauta beza irakaurleak gaur egun nazioartean dauden arazo nagusietan edozein, eta esan biezaio bere buruari aurkitzen ote duen bere baitan legezko arau posibleren bat hura, teorian bada ere, konponduko duenik. Zein dira, adibidez, atzo hogeit hamar milioi gizon eta gaur berrogei edo laurogei dituen herri baten eskubideak? Nork du eskubide inor bizi ez den munduko eremuetan? Adibide hauek, aipa daitezkeen traketsenak eta errazenak, teknika juridiko berri batean oinarritzen ez den bake zaletasun ororen lilurakeria hutsala uzten dute nabarmen. Dudarik gabe, hemen eskatzen den zuzenbidea oso asmakizun zaila da. Erraza balitz, aspaldian sortuko zen. Zaila da, bakea bezain zaila, eta berarekin bat da. Hala ere, geometria ez-euklidianoak, lau neurreratako fisika eta etenaren mekanikaren asmakuntza ikusi duen garai batek, espanturik gabe begira diezaioke eginkizun horri eta berorri ekitea ere deliberatu. Nolabait, nazioarteko zuzenbide berriaren arazoa doktrina-aurrerapen gertatu berri horien estilokoa da. Hemen ere auzia, giza jardun bat -zuzenbidea- betidanik jasan duen nola-halako muga sakonetatik askatzea litzateke. Zuzenbidea, noski, estatikoa da, eta, ez alferrik, bere organo nagusiari Estatu deritza. Gizonak oraindik ez du lortu rebus sic stantibus atalean sartua ez dagoen justizia-mota bat burutzea. Giza arazoak, ordea, ez dira res stantes, guztiz kontrakoa baizik: gauza historikoak, hau da, mugimendu hutsa, betiereko aldaketa. Ohiko zuzenbidea errealitate elbarri baterako araudia besterik ez da. Eta errealitate historikoa aldian behin erabat aldatzen denez gero, tupust egiten du, erremediorik gabe, zuzenbidearen egonkortasunarekin, zeina indar-mantar bihurtzen baita. Baina bere onean dagoen gizon bati jantzitako indar-mantarrak zoro amorratu bilakatzeko bertutea du. Hortik dator -esaten nuen nik arestian- historiak duen itxura patologiko harrigarri hori, elbarrien eta epileptikoen arteko betiereko borroka antza ematen diona. Herrien barnean iraultzak gertatzen dira, eta herrien artean gerlak lehertzen. Zuzenbideak ongia izan nahi du baina kalte bihurtzen da, Bibliak berak irakasten digun bezala: "Zergatik bihurtu duzue zuzenbidea behazun eta justiziaren fruitua zizari-belar?" (Amos, 6, 12).

Justiziaren egonkortasunaren eta, bakezaleak haren mende jarri nahi duen errealitatearen higikortasunaren arteko desegokitasuna, gailurrik gorenera iristen da nazioarteko zuzenbidean. Zuzenbideari dagokionez, historia, lehenengo eta behin, lur gaineko botere banaketaren aldaketa da. Eta, botere aldaketa horiek, teorianz bederen, behar bezala arautuko dituen justiziazko printzipiorik ez dagoen bitartean, bakezaletasun oro amodiozko pena galdua da. Errealitate historikoa, lehenengo eta behin, hori baldin bada,

garbi dagoke iniuria larriena statu quo izango dela. Ez beza, beraz, inor harri Nazioen Elkartearen porrotak, statu quo administratzeko eraikitako tramankulu eskerga zenez.

Gizonak zuzenbide dinamiko bat behar du, zuzenbide plastikoa eta mugituz doana, historiari bere metamorfosian lagun egiteko gai izango dena. Eskaria ez da gehiegikeria, ez utopikoa, ezta berria ere. Duela hirurogeita hamar urte pasatxo gero, zuzenbideak, dela zibila dela politikoa, ildo horretatik jotzen du. Adibidez: garai honetako konstituzio gehien-gehienak "irekiak" izaten saiatzen dira. Espedientea inozo samarra izanagatik, gogoratzea komeni da, bertan zuzenbide berezmugikor baten asmoa aldarrikatzen baita. Baina, nire ustez, gaurdaino munduan gertatu den fenomeno juridikorik aurreratuena, British Commonwealth of Nations, sakon aztertzea eta zehaztasunez definitzen saiatzea litzateke aberatsena, alegia, bertan mutu datzan teoria xurgatzea. Hori ezinezko dela esango didate, hain zuzen ere, fenomeno juridiko hori ondoko bi oinarri hauen bidez mamitu delako: bat, Balfour-ek 1926an bere hitz ospetsuez adierazitakoa: Inperioaren auzietan refining, discussing or defining delakoa alde batera utzi beharra dago. Bestea, "tartearen eta malgutasunaren" araua, sir Austin Chamberlain-ek 1925eko irailaren 12ko hitzaldi historikoan aipatutakoa: "Begira iezaezue Inperio Britainiarreko sail batzuen eta besteen arteko harremanei; Inperio Britainiarraren batasuna ez da konstituzio logiko baten gainean egina. Ez dago are Konstituzio batean oinarritua ere. Kosta ahala kosta tarte bat eta malgutasun bat gorde nahi ditugulako".

Oker handia litzateke bi formula hauetan politika-opportunismo baten jarioa baizik ez ikustea. Hortik urrun, oso egoki adierazten dute British Commonwealth of Nations den errealitatea eta, hain zuzen ere, bere ikuspegi politikotik adierazi ere. Ez du definitzen, ordea, politiko bat ez baita horretarako mundura etorri, eta gainera politikoak, ingelesa baldin bada, zerbait definitzea, ia saldukeria egitea dela sentitzen du. Garbi dago, hala ere, badirela beste gizon batzuk, politikoak, ingelesak bereziki, egitea debekatua duen hori eginkizun dutenak: gauzak definitzea, nahiz eta gauzak funtsez ilunak izateko gurariaz agertu. Berez, triangelua definitzeko zailtasuna, ez da ez handiagoa ez txikiagoa lainoa definitzekoa baino. Axola handikoa litzateke, "tarte" hutsez eta "malgutasun" hutsez osatua den zuzenbideko egoera hori kontzeptu argieztatzea. Malgutasuna, zuzenbide bati plastiko izaten uzten dion baldintza baita, eta tarte bat ematen bazaio, haren mugimendua espero delako ematen zaio. Bi ezaugarri hauek, lilurapen huts eta zuzenbide baten eskasiaz hartu beharrean, bertute positibotzat hartzen baldin badira, baliteke gure aurrean ikuspegi naroenetakoa zabaltzea. Seguru aski, Inperio britainiarraren osaketak, Einsteinek aipatu zuen "erreferentziazko moluskuaren" antza handia du. Ideia hura, ulergaitza zela uste izan zen hasieran baina gaur egun mekanika berriaren oinarria da.

Hemen eskatzen den justizia-teknika berria aurkitzeko ahalmena, Ingalaterrako lege-tradizio guztian dago aurre-itxuratua beste inongo erresumetan baino indartsuago. Eta hori, ez halabehar hutsez, noski. Zuzenbidea ikusteko Ingalaterrako era, ez da pentsamendu britainiarra bereizten duen estilo orokorraren kasu soil bat baizik. Bertan hartzen du bere adierazpenik gehiena eta jatorrena Mendebaleko patu intelektuala denak, alegia: ilaun eta materiala den oro dinamismo soiltzat hartzea, "gauza" etzana, geldia eta finkoa baizik ez dirudienaren ordeztasunak, indarrak, mugimenduak eta funtzioak jartzea. Ingalaterra, bizitzako maila guztietan, newtoniarra izan da. Baina ez dut uste puntu honetan gelditu beharra daukadanik. Uste dut hamaika aldiz egiaztatu eta frogatuko zela behar diren xehetasunekin. Besterik gabe zilegi bekit, hala ere, irakurle amorratua naizenez, honako gai hau lukeen liburu bat irakurtzeko neure desideratuma agertzea: newtontasun ingelesa fisikatik kanpo; bizitzako gainerako alderdietan, beraz. Neure arrazoibidea laburtzen badut, hari sinple eta argiz osatua emango duela uste dut.

Ongi dago gizon bakezalea gerla hau edo bestea gerta ez dadin zuzenki saiatzeari; baina bakezaletasuna ez da hori, bakea den beste giza elkarbizitza antolatzea baizik. Honek teknika berrien sorta oso bat asmatzea eta erabiltzea eskatzen du. Hauetan lehenbizikoa, lur gaineko botere-banaketaren aldaketei dagozkien berdintasun-arauak aurkituko dituen lege-teknika berri bat da.

Baina zuzenbide berri baten asmoa ez da oraindik zuzenbidea. Ez dezagula ahantz zuzenbidea ideia batez baino gauza gehiagoz osatzen dela: besteak beste, parte hartzen dute bertan jendarmeen bizepsek edota hauen ordezkariak. Lege-pentsamendu hutsaren teknikari beste teknika askok, are korapilatsuagoak, lagundu behar diote.

Damurik, "nazioarteko zuzenbide" izenak berak, nazioen zuzenbide bat bere egiazko betetasunean izango litzatekeena garbi ikustea galarazten du. Zuzenbidea, gizartearen barnean gertatzen den fenomeno bat dela irudituko baidizaguke, eta "nazioartekoa" deituak, aitzitik, nazioen artean gertatzen den zuzenbidea gogorazten digu; hots, gizartearen hutsune bat. Nazioak gizartearen hutsune horretan bilduko lirateke, eta itun baten bidez gizarte berri bat sortuko lukete, hitzen bertute magikoz, Sociedad de Naciones litzatekeena. Honek, ordea, calembour baten itxura guztia dauka⁹⁴. Itun bidez eratutako sozietate bat, hitz honek zuzenbide zibilarentzat duen esanguraz bakarrik da sozietate, hau da, asoziazio bat, elkarte bat. Baina elkarte bat ezin da legezko errealitate izan, aldez aurretik zuzenbide zibilen batek indarra duen eremu batean sortzen ez bada. Beste edozein gauza mamukeria da. Ituneko gizartearen sortzen den eremu hori aldez aurretik dagoen beste gizarte bat da, inolako itun bidez sortua ez dena, aitzitik, antzinatek elkarrekin bizi izanaren ondorioa da. Benetako sozietate, eta ez asoziazio, honek, izenean bakarrik du bestearen antza. Hortik calembour izatea.

Zuzenbidearen eta soziologiaren arazorik nahasienak oraintxe keinu dogmatiko batez, bidenabar eta airean harrapatuta, konpontzeko asmorik gabe, zera iradokitzen ausartzen naiz: sendo ibiliko dela, norbaitek gertakari juridiko bati buruz hitz egiten dionean, zuzenbide hori daraman eta beraren aurretik dagoen gizartearen zein den esateko eskatzen duena. Hutsune sozialean ez dago eta ez da sortzen ere zuzenbiderik. Honek, substratu gisa, giza elkarbizitzazko unitate bat eskatzen du, usuarioak eta ohiturak bezala, hauen anaia txikia, baina bizkorragoa, baita zuzenbidea. Hori horrela delarik, ez dago sintoma argiagorik gizarte bat badagoela jakiteko, gertakari juridiko bat egotea baino. Honen argitasuna, benetako gizarte orok derrigor benetako Estatu bat izan behar duelakoan dugun ohiko nahasketak lausotzen du. Oso garbi dago, ordea, antolamendu estatuala ez dela gizarte batean sortzen, honen bilakaerako osoaldi aurreratua izan ezik. Beharbada Estatuak osagarri batzuk eskaintzen dizkio zuzenbideari, baina irakurle ingelesaren aurrean alferlana da zuzenbidea Estaturik eta honen jardunik gabe ere badagoela aipatzea.

Nazioez mintzatzen garenean gizarte banandu eta barrurantz itxiak bezala ikusteko joera dugu. Baina hau egiaren alderdirik garrantzitsuenak kanpoan uzten duen abstrakzioa da. Dударik gabe, ingelesaren beren arteko bizitza edo harremana askoz biziagoa da, adibidez, Ingalaterrako gizonen eta Alemaniako edo Frantziako gizonen artekoa baino. Garbi dago, ordea, badagoela europarren arteko elkarbizitza orokor bat, eta, beraz, Europa mende luzeetako gizarte zahar bat dela eta historia berezi bat duela nazio bakoitzak duen bezalaxe. Gizarte orokor europar honek XVI. mendetik nazio europarrak deituriko gizarte partikularrek lortu dutena baino sozializazio-maila edo indize apalagoa du. Esan bedi, beraz, Europa Ingalaterra edo Frantzia baino gizarte lausoagoa dela, baina ez bekio bere zinetako gizarte-izaera uka. Arazoak sekulako axola du, dagoen bake-itxaropena bakarra, egiazki gizarte europar bat egotea edo ez egotearen arabera uka. Europa nazio pluraltasun soila izanez gero, egiten ahal diete agur bakezaleek

beren itxaropenei⁹⁵. Gizarte independenteen artean ezin da egiazko bakerik egon. Horrela deritzaguna, ez da gutxieneko edo ezkutuko gerla egoera baizik izaten.

Errealitate moralak pentsatzeko baliatzen ditugun gorputz-fenomenoak hizkuntza eta hieroglifikoa direnez gero, ez da aipatzekoa nolako kaltea eragiten duen ikusmenaren irudi oker batek gure adimenaren ohitura bihurtuta. Horregatik salatzen dut Europaren irudi hori non borobil-pila batek -nazioek- osatzen baitute Europa, beren artean azalekoak beste harremanik ez dutela. Bilar-jokalariaen metafora honek etsiarazi beharko luke bakezale jatorra, bilarrak bezala, elkar jotzea beste aukerarik ez baitigu opa. Zuzen dezagun, beraz. Europako nazioak gizarte askatuen sorta gisa irudikatu beharrean, eman dezagun gizarte bakar bat -Europa-, bere barruan pikor edo bilgune trinkoago batzuk sortu direlarik. Irudi hau bestea baino askoz hertsiago dagokio Mendebaleko elkarbizitza benetan izan denari. Horren asmoa ez da ideal bat marraztea, elkarbizitza hori, bere hasieratik, erromatar boterea hil ondotik, egiaz izan zenaren adierazpen grafikoa ematea baizik⁹⁶.

Elkarbizitzak, besterik gabe, ez du gizartea, gizartean bizitzea edo gizarte bateko partaide izatea adierazten. Elkarbizitzak ez du gizanabakoen arteko harremanak baizik adierazten. Baina ezin da elkarbizitza iraunkor eta egonkorrik egon fenomeno sozial nagusia diren usuarioak zuzenean gertatu gabe -usuario intelektualak edo "iritzi publikoa", bizi-teknikako usuarioak edo "ohiturak", portaera edo "moralak" gidatzen duten usuarioak, agintzen duten usuarioak edo "zuzenbidea". Usuarioaren ezaugarri nagusia, gizabanakoei, nahitaez, inposatzen zaien joko-arau bat -intelektuala, sentimenezkoa edo fisikoa- izatea da. Gizabanakoak, bere oldez eta moldez, kontra egin diezaioke usuarioari; baina kontra egiteko eginahal honetxek beste ezerk baino hobeki erakusten du usuarioaren izate behartzailea, bere "bigentzia" deituko duguna. Horra bada: gizarte bat gizabanako-multzo bat da, elkarren iritzi eta balio emate batzuen bigentziaren pean dagoela dakiena. Honen arabera, ez dago gizarterik mundu ikuskeraren baten benetako bigentziaren pean ez dagoenik; honek, gatazka gertatzekotan, bertara jo ahal izateko azken auzi-maila gisa dihardu.

Europa beti izan da gizarte eremu batu bat, erabateko mugarik gabe eta etenik gabea, inoiz ez baita faltatu hondo edo altxor hori, "bigentzia kolektiboak" -sineste komunak, eta balio-taula-, "arazo soziala" osatzen duen eragin behartzaile hain harrigarri horretaz hornituta. Ez litzateke gehiegikeria izango gizarte europarra nazio europarrak baino lehenagotik dagoela esatea, eta hauek haren ama altzoan jaio eta hazi direla. Ingelesak argi samar ikus dezakete hau Dawson-en liburuan: *The Making of Europe. Introduction to the History of European Society*.

Hala ere, Dawson-en liburua ez da nahikoa. Buru erne eta zailu batek idatzia da, baina ez da erabat libratu historiografian dagoen kontzeptu tradizionalen sailetik, aski kontzeptu melodramatiko eta mitikoak, egia historikoak argitu beharrean estali egiten dituztenak. Gauza gutxik lagunduko lukete etorkizuna baretzen, aipatu dudana bezalako gizarte europarraren historia batek adina: historia errealista, "idealizaziorik" gabea. Baina arazo hau ez da behin ere ikusi, optika historikoaren ohiko moldeek, batasunezko errealitate hori, "gizarte europarra", sensu stricto, deitu dudana hori, estali egiten baitzuten, eta horren ordeztu plural bat jartzen zuten -nazioak-, Ranke-ren izenburuan, adibidez, agertzen den bezala: Herri germaniar eta erromanikoen historia. Egia esan, herri horiek pluralean ludioiak bezala dabilta igeri Europa den gizarte eremu bakarraren barruan: "bertan higitzen dira, bizi dira, eta dira". Nik proposatzen dudana historiak giza eremu horren gora-beherak kontatuko lituzke eta nola bere sozializazio indizea aldatu den erakutsiko liguke; nola, zenbaitetan, larrikiro jaitsi zen Europaren zatiketa osoaren beldurra eraginez eta, batez ere, nola garai bakoitzeko bake-dosia

zuzenki indize horren arabera izan den. Azken hau da gehien axola zaiguna oraingo larritasunetarako.

Errealitate historikoa edo, arruntago esan, giza munduan gertatzen dena, ez da gertakari askatuen pilaketa; anatomia zehatza eta egitura argia ditu. Areago: beharbada, munduan berez egitura, antolaketa, duen gauza bakarra da. Gainerako guztiek -gertakari fisikoek, adibidez- ez dute horrelakorik. Gertakari askatuak dira eta fisikariek irudimenezko egitura bat asmatu behar die. Baina errealitatearen anatomia horrek aztertu beharra dauka. Egunkarietako editorialek eta ministro eta demagogoen mintzaldiek ez digute horren berri ematen. Berau ondo aztertzen denean, aski zehatz igerri daiteke gorputz historikoaren zein toki edo geruzatan dagoen gaitza. Munduan oso gizarte zabal eta ahaltsua zegoen -Europako gizarte. Gizarte zenez, oinarritzko ordena batean zegoen antolatua, azken auzi-maila batzuei zor zitzaiena -Europako sineste intelektuala eta morala. Azaleko nahaste guztien azpitik, Mendebaleko errai sakonetan ziharduen ordena hau, belaunaldiz belaunaldi barreiatu da gainerako munduan, eta bertan ezarri zuen, gutxi-asko, gainerako mundu horrek izan ahal zuen ordena guztia.

Ederki, bada: egun ezerk ez luke bakezalearentzat ondoko auzi hauek bezain garrantzitsu izan behar, alegia: zer den Mendebaleko gorputzaren errai sakonetan gertatzen ari dena argitzea, zein den bere egungo sozializazio-indizea, zergatik aienatu den "bigentzia kolektiboen" ohiko sistema, eta, itxurak gora-behera, hauetakoren batek ezkutuko bizitasunik gordetzen ote duen. Zuzenbidea gizartearen eragiketa zuzena baita, baina gizarte auzi-mailen mendeko elkarbizitza da. Gerta liteke, egungo egunean maila horiek faltatzea Europako historian zehar berdin gabeko neurrian. Horrela balitz, gaixotasuna, Mendebaleak nozitu duen larriena litzateke Dioklezianogandik edo Severoengandik hona. Honek ez du esan nahi sendagaitza litzatekeenik; besterik gabe, esan nahi du, oso sendagile trebeei hots egin behar litzatekeela eta ez kalean dabilen edozeini. Batez ere, esan nahi du, ezin dela Nazioen Elkartetik inolako erremediorik espero, izan zenaren eta izaten jarraitzen duenaren arabera, hau da, erakunde anti-historiko bat, mihin gaizto batek klub batean -Mr. Pickwick, M. Homais eta antzeko kideak bazkide nagusiak direla- asmatutzat jo lezakeena.

Aurreko diagnostikoak, zuzena nahiz okerra, ulergaitza dirudike. Eta horrela da, egia esan. Damu dut, baina ez dago nire esku bazter uztea. Egungo sendagintzaren diagnostiko zehatzenak ere ulergaitzak izaten dira. Zein ez-ikasik, odol azterketa zorrotz bat irakurtzean, ikusten du han gaixotasun beldurgarri baten aipamenik? Beti saiatu naiz esoterismoa borrokatzen, berez gure garaiko gaitz horietako bat baita. Baina ez dezagula ametsik egin. Duela mende batez gero, arrazoi sakonengatik eta, alde batetik, errespetagarriengatik, ildo esoterikoetarantz jotzen dute zientziek ezinbestez. Beste gauza askotan bezala, politikoez ez dute horren axola larria ikusten jakin, gizon hauen joera makurra alderantzizkoa baita: gehiegizko exoterismoa. Oraingoan, ez dago beste zereginik egoera onartu eta jakitatea beer-table elkarriketetatik erabat urrundu dela aitortu baino.

Europa egun desozializatua dago edo, gauza bera dena, indarrean dauden eta beraietara jotzeko balio duten elkarbitzako arauak falta dira. Europako zati bat ustez "berriak" diren arauak gailenarazten saiatzen da; bestea, ohikoak defendatzen. Hara bada, hauxe dugu frogarik argiena ez batzuk ez besteak ez daudela indarrean eta auzi-maila izateko bertutea edo galdu edo ez dutela lortu ikusteko. Iritzi edo arau batek, benetan "bigentzia kolektiboa" izatera iritsi denean, ez du bere bizitasuna gizarte barruan beste talde jakin batzuek bera inposatzen edo eusten egiten duten ahaleginetik hartzen. Alderantziz: edozein talde jakinek bigentzia horietatik eskatuta bilatzen dute beren indar gehiena. Arau baten alde borrokatu behar izateak oraindik ez dagoela indarrean edo egoteari utzi diola esan nahi du. Aitzitik, indar betean dagoenean, eginbehar bakarra hura erabiltzea

da, hartan babestu, grabitatearen legearekin egin ohi den bezala. Bigentziek eztabaidarik gabe eta asaldu gabe erabiltzen dute beren eragin magikoa, arimen hondoan gelditu edo etzanak, batzuetan hauek haien menpean daudela ohartu gabe eta beste batzuetan haien kontra borrokatzen dutela ere sinetsirik. Fenomeno harrigarria da, baina eztabaidagaitza eta gizartearen funtsezko gertakaria da. Bigentziak egiazko botere soziala dira, izengabea, inbertsonala, talde edo gizabanako jakin orotatik aske.

Baina, alderantziz, ideia batek bere auzi-maila kolektibo izate hori galdu duenean, erdi barregarri erdi aztoragarri gertatzen da norbaitek, justifikatua edo indartua sentitzeko, hartara jotzea nahikoa dela uste izatea. Dena dela: hau oraindik gertatzen da, maizegi Ingalaterran eta Ipar Amerikan⁹⁷. Hori ikustean txunditurik gelditzen gara. Jokabide horrek hutsegitea adierazten du, ala berariazko itxurapena? Inozokeria da ala amarrua? Ez dakigu zeri atxiki, gizaki anglosaxoniarrarentzat adierazteko funtzioak, "esatearenak", beharbada, gainerako herri europarrentzat ez bezalako zeregina du eta. Baina beldur naiz, jokabide horren esanahia bata zein bestea izan, ez ote den bakezaletasunarentzat kaltegarria izango. Areago, ikusi egin behar litzateke, Europako bigentzien ospe galtzea eragin duten faktoreen arteko bat ez ote den izan Ingalaterrak beraiek erabiltzeko izan duen modu berezia. Auzia sakon aztertu beharko da egunen batean, baina ez orain eta ez nik⁹⁸.

Izan ere, bakezaleak konturatu behar du bizi den munduan, bakea antolatzeke behar den baldintza nagusia edo falta dela edo oso ahulduta dagoela. Herri batzuen besteekiko harremanetan ez dago goragoko mailetara jotzerik, ez dagoelako. Hegaka zebiltzan lagun-atmosfera hura, eta beren artean eter mesedegarria bezala tartekaturik, goxoki komunikatzen uzten ziena, deuseztatu egin da. Bereizirik geratzen dira, bada, eta aurrez aurre. Duela hogeita hamar urte, artean mugak bidaiarentzat doi-doi irudimenezko koluroak zirelarik, denok ikusi dugu nola zihoazen azkar gogortuz, nazioen xularmek desegiten zituen hezurki bihurtuz eta nazioak hermetiko bilakatuz. Egia hutsa da, urte batzuetatik hona, Europa gerla-egoeran dagoela, iragan guztian baino askoz ere gogorragoa den gerla-egoeran. Eta egoera honi egotzi diodan jatorria ondoko gertaera honek egiaztatzen duela uste dut: gerla birtual bat herrien artean ez ezik, bakoitzaren barruan ere, agerian zein prestaketan, gatazka larri bat dago. Arinkeria da eguneko aginpide autoritarioak apetak nahiz azpijokoak sortuak bezala ulertzea. Oso argi dago herri gehienek egun duten gerla zibileko egoeraren ezinbesteko agerpenak direla. Orain ikusten da nazio bakoitzaren barne-egokitasuna Europako bigentzia kolektiboez alaitzen zela zati handi batean.

Mendebaleko herrien arteko elkartasunaren bat-bateko ahultze honi urruntasun moral handia dagokio. Beren arteko harremana oso zaila da. Oinarri komunak elkar ulertzen uzten zien hizkuntza antzeko zerbait ziren. Ez zen, bada, horren premiazkoa herri bakoitzak gainerakoak banan-banan ongi eta singulatim ezagutzea. Baina honekin hasierako geure gogoeten kiribila kiribiltzen ari gara.

Izan ere, urruntze moral hori era arriskutsuan korapilatzen baita kontrako fenomeno batekin, eta berau da zehazki artikulatu oso hau iradoki didana. Gertaera gaitz batez ari naiz eta berorren ezaugarriak zertxobait zehaztea komeni da.

Duela ia mendebetez gero, komunikabide berriek -pertsonek mugidak, ekoizpen-trukaketak eta albiste-iragarpenak- herriak hurbildu eta munduko bizimodua bateratu dutela aipatu ohi da. Baina, gertatu ohi denez, esanak gehiegikeria omen ziren. Gizakien gauzak ia beti alegiazko kondaira izaten hasten dira eta geroago bakarrik bihurtzen dira egia. Oraingo honetan, oso garbi ikusten dugu gaur aurreratze suhar bat baizik ez zela. Hurbiltasun hori obratuko zuten bitarteko batzuk bazeuden noski -baporeak, trenbideak, telegrafoa, telefonoa. Baina artean haien asmakuntza zeharo osatu gabe zegoen, erabilera ez zen gehiegi zabaltzen, eta garrantzitsuenak asmatu ere gabe zeuden, hala-nola

eztanda-motorra eta irratia. XIX. mendeak, teknika zientifikoaren lehen lorpen handien aurrean liluraturik, berehala ekin zion erretorikazko uholdeak jaulkitzeari "aurrerapen", "aitzinamendu material", eta abarri buruz. Horren ondorioz, mendearen bukaera aldean, jendeak errepikapen komun horiez aspertzen hasiak zeuden, nahiz eta egia zirela uste zuten, alegia, nahiz eta etsi-etsiak zeuden XIX. mendeak hitz-jario haiek aldarrikatzen zutena benetan burutua zuela. Honek oraingo istilu asko ulertzea eragotzi duen ikuspen historiko oker bitxi bat eragin du. Gizon arrunta, aurrerapen handien gailurra jo zuena aurreko mendea zela sinetsirik, ez zen konturatu paregabeko asmakuntza teknikoen eta berauek gauzatzeko aldia azken berrogei urte hauek izan direla. Aurkikundeen kopuruak eta garrantziak, eta beren benetako enpleguaren erritmoak denboraldi labur horretan, alde handiz gainditzen du giza iragan guztia batean hartuta. Alegia, munduaren egiazko aldaketa teknikoa gertakari berri-berria da, eta aldaketa hori orain ari da -orain eta ez duela mendebetez geroztik- bere ondorio sakonak eragiten⁹⁹. Eta hau maila guztietan. Egungo ekonomian gertatu izan den hainbat desagokitze sakon, asmakari hauek ekoizpenean eragin duten bat-bateko aldaketatik datoz, gorputz ekonomikoa beraietara egokitzeko astirik ez baitu izan. Lantegi bakar batek kontinente erdiak behar dituen argi-bonbila guztiak edo oinetako guztiak ekoizteko gai izatea, gertakari zoriontsuegia da, mustrokeria ez izatekotan. Gauza bera gertatu da komunikabideekin. Bat-batean eta egiaz, azken urte hauetan herri bakoitzak, orduoro eta minutuoro, besteetan gertatzen denaz halako albiste-kopurua eta hain berriak hartzeak, beste herrietan edo arras hurbil egotearen lilura sortu du berarengan. Bestela esan: bizitza publiko orokorrari dagokionez, munduaren tamaina supituki urritu egin da, murriztu egin da. Herriak kolpetik dinamikaz elkarrengandik hurbilago aurkitu dira. Eta hau, hain zuzen ere, Europako herriak elkarrengandik moralez gehien urundu diren orduan gertatzen da. Ez al du irakurleak, noski, honelako kinka baten arriskua nabaritzen? Jakina da gizakia ezin dela, besterik gabe, beste gizaki batengana hurbildu. Hurbilketa itxuraz errazagoa zen aldi historiko horietako batetik gatozenez gero, ahazteko joera izaten dugu arreta larria behar izan zela beti gizona izan ohi den goi-aingeru apetak dituen piztia horrengana hurbiltzeko. Horregatik, historia osoa kurritzen du hurbilketa-teknikaren bilakaerak, bere parterik nabarmenena eta ikusgarriena diosala delarik. Agian, tentuz, agur egiteko erak biztanleriaren dentsitatearen arabekoak direla esan liteke; beraz, gizon batzuegandik besteengana dagoen bitarte normalaren arabekoak. Saharan tuareg bakoitzak duen bakardade ingurunea milia askotakoa da. Tuaregaren agurra ehun yardara hasten da eta hiru ordu laurden irauten du. Txinan eta Japonian, gal-gal ari diren herriak, gizakiak, nolabait esan, elkarren gainean bizi direlarik, sudurrez sudur, inurritegi trinkoan, agurra eta harremana kortesiazko teknikarik sotil eta nahasienean zaildu dira; hain fina denez, ekialde-muturrekoari zabar eta lotsagabe iruditzen zaio europarra, eta berarekin borroka baizik ezin dela egin. Hurbiltasun ezin handiago horretan dena da mingarria eta arriskutsua: izenordain pertsonalak ere mutirikeria bihurtzen dira. Horregatik, japoniarra bere hizkuntzatik erauztera iritsi da, eta "zu" esan beharrean "hor den miresgarritasuna", eta "ni" esan beharrean, apaltasun itxuraz, honela esango du: "hemen den miseria".

Bi gizonen arteko urruntasun-aldaketa soil batek horrelako arriskuak sortzen baldin baditu, pentsa nolako arriskuak sortzen dituen azken hamabost edo hogeitaz herrien artean gertaturiko bat-bateko hurbilketak. Uste dut ez zaiola gertaera honi behar adina erreparatu eta premiazkoa dela arreta ematea.

Askok mintzatu da hilabete hauetan Estatu batzuek beste herri batzuen bizitzan esku hartzeaz edo ez hartzeaz. Baina ez da hitz egin, behar den enfasiarekin behintzat, nazio batzuen iritzia beste batzuen bizitzan, urrutikoetan maiz, duen eraginaz. Eta hau gaur egun, nire ustez, hura baino askoz larriagoa da. Estatua, azken finean, gizartearen

barruan aski organo "arrazionaldua" baita. Bere jardunak gizaki jakin batzuen borondateak -gizon politikoenak-erabakiak eta neurtuak dira, eta hauek gutxieneko gogoeta eta erantzukizunaren zentzu bat behar dute. Baina herri oso baten edo gizarteko talde handi batzuen iritzia botere sinplea da, burugabea eta axolagabea, eta gainera, babesik gabe, bere inertzia jukutria guztien azpijokoetara eskaintzen duena. Hala ere, herri bateko iritzi publikoak sensu stricto, herri bereko bizitzaz iritzi ematen duenean, beti du "arrazoi", epaitzen dituen errealitateekin desadostasunik inoiz ez baitu izaten. Horren zergatikoa nabaria da. Epaitzen dituen errealitateak epaitzen dituen subjektuari berari gertatutakoak dira. Herri ingelesak, bere nazioari dagozkion auzi handiez iritzi ematen duenean, berari gertatu zaizkion gauzez ematen du iritzia, bere haragian bertan eta bere ariman bertan sentitu dituen gauzak dira, berak bizi izan dituenak eta, labur esan, bera direnak. Nola, bada, huts egingo du funtsezkoan? Gertakari horien azalpen doktrinalak desberdintasunik handienetarako emango du aukera, eta desberdintasun hauek talde bereziek eutsitako iritzi alderdikariak sortaraziko dituzte; baina, desadostasun "teoriko" horien azpian, gertakari sofistikagaitzek, nazioak gozatuak edo nozituak, bizi- "egia" bat jalkitzen dute nazio horren baitan, errealitate historikoa bera dena eta doktrina horiek baino balio eta indar handiagoak dituenak. "Arrazoi" edo "egia" bizi hau, atributo gisa "iritzi publiko" orori aitortu beharrekoa, ikusten denez, bere adostasunean datza. Bestela esanda perpaus hau lortzen dugu: izugarri zaila da "iritzi publikoak", bere herriko arazo larrietan, bere ustea epaitzen den errealitateari era organikoan egokitzeko behar den gutxieneko berririk ez izatea. Bigarren mailako oker xeheak izango ditu, baina jarrera makroskopikoan hartuz gero ez da erraza errealitatearekiko desadostasunezko erantzuna izatea, ez-organikoa berarekiko eta, beraz, toxikoa.

Erabat alderantziz da herri baten iritzia beste batean gertatzen denari buruz denean. Normalena iritzi hori bat ez etortzea izango da. A herriak, bere bizi-esperientzien hondotik, bereak B herriarenak ez bezalakoak direla uste du. Nora eraman ote dezake honek burugabekerien jokora izan ezik? Hona hemen, bada, ezinbesteko desadostasun baten lehen arrazoiak, oso zaila den gauza baten bitartez bakarrik konpon litekeena, hots: informazio nahikoaz. Hemen bizi izanaren "egia" falta denez, ezagutzazko egiaz ordezkatu behar litzateke.

Duela mendebete Estatu Batuek Grezian gertatzen zenaz iritzi bat izateak eta iritzi hori oker informatua egoteak ez zuen axolarik. Gobernu amerikarrak jarduten ez zuen bitartean, iritzi horrek ez zuen eraginik Grezian. Mundua "handiagoa" zen orduan, ez honen trinko eta malgua. Herrien arteko urruntasun dinamikoa hain handia zenez, igarotzean, bat ez zetorren iritziak bere toxikotasuna galtzen zuen¹⁰⁰. Baina, azken urte hauetan, herriak hurbiltasun dinamiko izugarrian sartu dira, eta, adibidez, Ipar Amerikako gizarte-talde handiak benetan parte hartzen ari dira -zuzenean iritzi bezala, ez beren Gobernua- Espainiako gerla zibilean. Gauza bera diot Ingalaterrako iritziaz.

Ez da nire asmoa, ezta hurrik eman ere, ingeles eta amerikarrei askatasuna inautzea, nahi dutenaz gustuko iritzia emateko beren "eskubidea" eztabaidatuz. Ez da "eskubide"-arazoa edo izen horren azpian gorde ohi den hitz-jario arbuigarriarena; besterik gabe, zentzu egokiaren arazoa da. Nire ustez, herri batzuen iritzi publikoak beste herrien bizitzan esku sartzea, gaur egun mutirikeria da, ekintza pozoitsua eta grina gerlatien pizgarria, iritzi hori oraindik ez baita herrien arteko urruntasun aldaketari dagokion teknikak gidatua. Ingelesak edo amerikarrak badu nahi adina eskubide Espainian gertatu den eta gertatu beharrekoaz iritzia emateko, baina eskubide hori iniuria da dagokion betebeharra onartzen ez bada: Espainiako gerla zibilaren egiaz berri

zuzena edukitzea, eta horren lehen atala eta funtsezkoena bere iturburua da, sortarazi duten arrazoiak.

Baina egungo komunikabideek hementxe dute beren eragina; oraingoz, kaltegarriak. Herri batek bestean gertatzen denaz etengabe hartzen duen berri-kopurua ikaragarria baita. Nola izango da erraza gizon ingelesari sinestaraztea gaizki informatua dagoela Espainiako gerla zibila den fenomeno historikoaz edo antzeko beste edozein gertakariz? Badaki egunkari ingelesek dirutza ikaragarriak eralgitzen dituztela berriemaileak herri guztien barruan mantetzeko. Badaki, berriemaile horien artean batzuek beren lana aihertsu eta alderdikieriaz egin arren, beste askoren egiazaletasuna ezin ukatuzkoa dela, eta beren txukuntasuna datu zehatzak bidaltzen gainditzen zaila. Hau dena egia da, eta, horrelaxe delako, oso arriskutsua gertatzen da¹⁰¹. Izan ere, gizon ingelesak begiratu azkar batean azken hiruzpalau urte hauek gogoratzen baldin baditu, Ingalaterrarentzako axola larriko gauzak gertatu direla eta harritu egin dutela aurkituko du. Historian deus garrantzitsurik bat-batean gertatzen ez denez gero, ez litzateke ingelesarentzat susmo zorrotzegia izango uste duen baino askoz ere gutxiago informatua dagoelako hipotesia, edota informazio ugari hori azaleko datuez osatua dagoelakoa, perspektiba finik gabe, eta horien artean errealtateko errealeak ihes egiten duela. Honen adibiderik argiena, bere larritasun eskergarengatik, artikulu honi abiapuntu gisa balio izan zion gertakari erraldoia dugu: bakezaletasun ingelesaren porrota, hogeitazko nazioarteko politika ingelesarena. Porrot horrek ozenki aldarrikatzen du herri ingelesak -hainbeste berriemaile izanagatik ere- oso gutxi zekiela beste herrietan benetan gertatzen zenaren berri.

Hobe beharrez, eskemaz eman dezagun gertakari bihurri hau. A herriak B herritik jasotzen dituen berriek iritzi-egoera bat eragiten dute hartan -dela multzo zabaletan dela herri osoan. Baina berri horiek sekulako azkartasunez, ugaritasunez eta maiztasunez iristen direnez gero, iritzia ez da maila "kontenplatio" batean gelditzen, duela mende bat bezala, aitzitik, asmo eragingarri betetzen da eta, noski, esku hartzera jotzen du. Beti izaten dira gainera nahastekariak, beren arrazoi bereziengatik, iritzi hori zirikatzen nahita saiatzaren direnak. Alderantziz, B herriak ere ugaritasunez, azkartasunez, eta maiztasunez urrutiko iritzi horren berri jasotzen du, haren urduritasunarena, haren mugimentuena, eta arrotza, mutiritasun jasangaitzaz, bere herrian sartu izanaren sentipena du, bertan izatearena, erdi presente, zerbaitetan ari delakoa. Baina zapuzte hau sumingarri izateraino handitzen da, B herriak, A-ren iritziaren eta B-n egiazki gertatu denaren artean dagoen desadostasuna ikusten duelako. Haserretzekoa da hurkoak gure bizitzan sartu nahi izatea, baina gainera gure bizitzaz ez dakiela ezer erakusten baldin badu, haren ausardiak eromen bizia ere eragiten du gudan.

Madrilen komunistek eta haien kideek, idazleak eta irakasleak agiriak sinatzera, irratiz hitz egitera, etab., mehatxu larrienen pean behartzen zituzten bitartean, beren bulegoetan edo beren klubetan eroso jarriarik, inolako bortxarik gabe, idazle ingeles nagusietariko batzuek beste agiri bat sinatzen zuten, komunista horiek eta beren kideak askatasunaren defendatzaileak zirela baietsiz. Utz ditzagun alde batera imintzioak eta berriketak, baina zilegi bekit irakurle ingelesari pentsatzeko gomit egitea ea zein izan zitekeen nire lehen mugida halako gauza erdi barregarri erdi tragiko baten aurrean. Ez baita erraza desadostasun handiagorik aurkitzea. Zorionez, bizitza guztian zehar saiatu naiz neure aparatu psikofisikoan oso inibizio eta galga-sistema bortitza antolatzen -zibilizazioa bera ere ez ote da antolaketa hori baizik- eta, gainera, Dantek zioenez

che saetta previsa vien più lenta,

ustekabeak ez ninduen ahularazi. Duela urte batzuek gero, intelektual europarrarengan sarri diren arinkeria eta axolagabekeria agertzen saiatu izan naiz, eta salatu ere oraingo

nahaspilaren arrazoen artean nagusienetariko bat bezala salatu izan dut. Baina halabeharrez erakuts dezakedan neurritasun hau, ez da "naturala". Naturala, ni orain idazle ingeles horien aurka borroka gogorrean aritzea lizateke. Baina hori, herrien arteko elkar ez ezagutzeak sortu duen gerla-mekanismoaren adibide zehatz bat da.

Duela egun batzuk, Albert Einsteinek Espainiako gerla zibilaz iritzi emateko eta jarrera hartzeko eskubidea zuela uste izan du. Egia esan, Albert Einsteinek ezjakintasun itzela usufruktuatzen du, Espainian orain, duela mende batzuk eta beti gertu izan denaz. Lotsagabeko esku sartze honetara bultzatu duen gogoia, aspaldidanik gizon intelektualaren ohorea nonahi galarazten ari den bera da, eta honek bere aldetik mundua noraezean joatea dakar, pouvoir spirituel-ik gabe.

Argi bedi Espainiako gerlaz beste adibide askoren artean bezala ari naizela, zehatzenik ezagutzen dudana baita, eta helburu bakarra, irakurle ingelesak, bere "informazio" ugaria gora-behera, ongi informatuta ez egotearen posibilitatea une batez onartzea dut. Agian, beste nazioez duen ezagutza eskasa zuzentzera bultzatuko du honek, eta horixe da baldintzarik erabakigarriena ordena munduan berriro nagusi dadin.

Baina hona hemen beste adibide zabalago bat. Orain gutxi, Alderdi Laboristaren Batzarreak, 2.100.000 botoz 300.000 botoren kontra, uko egin zion komunistekin elkartzeari, Ingalaterran "Frente Popular" bat osatzeari alegia. Baina alderdi bera eta larratzen duen iritzi-masa, beste herri batzuetan osatu den "Frente popularra" erarik zehatzenez eta eragilenez laguntzen eta sustatzen saiatzen dira. Ukitu gabe uzten dut "Frente Popular" bat onuragarria ala galgarria ote den auzia, eta iritzi-talde beraren bi jokabide alderatu eta horren desadostasun kaltegarria azpimarratzeari mugatzen natzaio. Bozketako kopuru-diferentzia, Hegelen arabera kualitatibo bihurtzen diren alde kuantitatibo haietakoa da. Zenbaki horiek erakusten dutenez, Alderdi Laboristaren multzoarentzat, komunistekin elkartea, "Frente Popularra", ez da gutxi ala gehiagoko kontua, aitzitik, nazio ingelesarentzat gaixotasun beldurgarritzat hartuko lukete. Baina agi danez, denbora berean, iritzi-talde hori berori mikrobio horixe hazten saiatzen da beste herri batzuetan, eta hau esku sartzea da, areago, esku sartze gerlaria dela esan daiteke, gerla kimikoaren hainbat ezaugarri duenez gero. Honelako gauzak gertatzen diren bitartean, bakea munduan nagusi dadin itxaropen guztiak, berriz diot, amodiozko pena galduak dira. Desadostasunezko jokabide horrek, iritzi laboristaren bikoiztasun horrek, haserre besterik ezin du piztu Ingalaterratik kanpo.

Eta alferrikakoa irudituko litzaidake esku hartze horiek jasan dituen herriaren zati bati haserrea baina besteari poza eragiten diotela argudiatzea. Ohar hori argiegia da egia izateko. Atzerriko iritzi horrek aldi batez faboratzen duen herriaren zatia, noski, esku sartze horretaz baliatzen saiatuko da. Beste edozer txorakeria hutsa litzateke. Baina itxurazko esker on iragankor horren azpitik herri osoak bizi izan duen egiazko gertaera dario. Nazioa azkenean "bere egian" finkatzen da, benetan gertatu den horretan, eta bi alderdi etsaiak bat datoz horretan, aitortu ala ez. Horregatik, azkenean bat egiten dute iritzi arrotzaren desadostasunaren aurka. Iritzi honek, "egia" bizidun horrekin halabeharrez asmatzen duen edo desadostasuna txikiagoa den neurrian itxaron dezake esker on iraunkorra. Errealitate ezezagun orok bere mendekua prestatzen du. Giza historiako hondamendiek ez dute beste jatorririk. Horregatik, herri batek, pertsona batek bezala, baina bestela eta beste arrazoi batzuentzat, barne-muin bat duela -beraz, besterik gabe kanpotik ezin atzeman daitekeen ezkutuki sistema bat duela- ez ikusteko edozein ahalegin kaltegarria gertatuko da. Ez beza irakurleak gauza ilun edo mistikorik pentsa. Har beza edozein jardun kolektibo, hizkuntza, adibidez. Gauza nabaria da ezinezkoa dela hizkuntz arrotz bat barne-muinetatik ezagutzea, ikasten asko saiatuagatik. Eta ez ote da burugabekeria izango herri arrotz bateko egoera politikoa ezagutzea gauza erraza dela uste izatea?

Beraz, munduaren egitura berriak, beste herri batean gertatzen denari buruzko herri baten iritzi-mugidak -lehen kaltegarriak ez ziren mugidak- egiazko eraso bihurtzen dituela uste dut. Aski litzateke hau, zergatik Europako nazioak, goi-batasun batetik hurbilago zeudela ematen zuenean, hasi diren bat-batean beren barrurantz ixten, beren bizimoduak hertsitzen, batzuek besteen aurrean, eta mugak eskafandra isolatzaile bihurtzen argitzeko.

Nire ustez, lehen mailako arazo bat dago hemen nazioarteko araudirako, gorago aipatu dugun zuzenbidearenaren parean doana. Lehen teknika juridiko berri bat eskatzen genuen bezala, orain teknika berri bat herriarteko harremanetan eskatzen dugu. Ingalaterran, gizakiak, zuhur jokatzeko ikasi du beste norbaitez iritzia ematen duenean. Izkribu iraingarriaren legea dago eta "gizalege zuzenaren" diktadura ikaragarria dago. Ez dago arrazoirik herri baten besterekiko iritzi emateak antzeko arauketarik ez izateko. Garbi dago, noski, honek oinarritzko arau batean bat etortzea eskatzen duela. Honetan: herriak, nazioak, badirela. Horra bada: oraingo larritasunak sortu dituen "internazionalismo" zahar eta merkeak, sakonean, alderantziz uste zuen. Ez dago bere doktrina edo jardun bakar bat ere ulertzerik, nazioaren izateaz eta nazioak diren zera horrek munduan osatzen duen errealitate itzelaz eta berorrek kontatu beharraz zuen ezjakintasuna oinarrian ikusi gabe. Oso internazionalismo bitxia zen bere asmoetan nazioak egotearen xehetasuna ahazten zuen hura¹⁰².

Orain irakurleak doktrina positibo bat eskatuko du agian. Ez dut eragozpenik nirea zein den agertzeko, aipamen labur baten arrisku guztiak gora-behera.

Ingelese aski irakurri izan den The Revolt of de Masses liburuan, Europako elkarbizitzaren mota aurreratuago baten etorrera proposatzen eta iragartzen dut, aurrerapauso bat bere batasunaren lege- eta politika-antolaketa. Europaren ideia hau nazioartekotasun ulergaitz haren alderantzizkoa da. Europa ez da, ez da izango nazioartekoa; horrek, historiako ideia argiz, zuloa, hutsunea eta ezereza adierazten baitu. Europa ultra-nazioa izango da. Mendebaleko nazioak osatu zituen arnasa berak lanean irauten du lurpean, koralek ugalketa gelditu eta isilean. Nazioartekotasunaren desbideratze deliberatuak, Europaren batasun zehatz eta osora nazionalismo suharreko aldi baten ondoan baizik ez daitekeela iritsi ikustea galarazi zuen. Bizimolde berri batek ez du munduan ezartzea lortzen harik eta aurrekoa eta ohikoa azken muturreraino saiatu ez den arte. Europako nazioak oraintxe ari dira beren azken muturrera iristen, eta muturrekoa Europaren osaketa berria izango da. Horretan ari baikara. Ez nazioak xaflutzen, elkartzen baizik, Mendebaleari bere goi-behe aberats osoa utziz. Gaur egun, iradoki berri dudanez, Europak lurrundua dirudi. Baina okerra litzateke honek bere desagerpena edo behin-betiko barreiatzea adierazten duela uste izatea. Europako gizartean orain dagoen anarkia eta sakabanatze gaitzeko egoera, beronek daukan errealitatearen frogak bat gehiago da. Izan ere, Europa hori gertatzen baldin bada, bere fede komuna krisian duelako da, fede europarra, bere sozializazioari eusten dioten bigentziena. Gaixoa da, beraz, komuna da. Arazoa ez da Europa gaixorik egotea, baina bai nazio hau edo bestea osasun betean egotea, eta beraz, Europaren desagerpena gertatu ahal izatea eta beste errealitate historiko batek ordezkatzeko -adibidez: nazio solteak edo Ekialdeko Europa bat Mendebaleko Europatik sustrairaino bananduta dagoena. Zeruertzean ez da horrelakorik ageri, aitzitik, gaixotasuna komun eta europarra denez gero, susperraldia ere halakoa izango dela. Beraz, Europaren giltzadura, bizitza publikoaren bi era diferentetan etorriko da: liberalismo berri baten era eta, izen desegokiz, "totalitarioa" deitu ohi dena. Herri txikiak aldaketako edo bitarteko tankerak hartuko dituzte. Honek salbatuko du Europa. Berritua ere agertuko da edozein bizikerak bere antagonistaren beharra duela. "Totalitarismoak" "liberalismoa" salbatuko du, tindura galduta, iragazita, eta horri eskerrak laster ikusiko dugu liberalismo berri bat

erregimen larderiatsuak goxatzen. Oreka mekaniko huts eta behin-behineko honek gutxieneko lasaialdi berri bat utziko du, arimek duten basoaren hondoan fede berri baten iturritza berriro erne dadin nahitaezkoa. Hauxe da benetako sormen historikoa, baina ez dario zalapartaren erdian, barnekoitasunaren gordean baizik.

Paris eta abendua, 1937.

Azken azaroaren 27an argitaratutako The Times-ko "Literary Supplement" gehigarriak, hasierako artikulua handian liburu batzuk aztertzen ditu izenburu orokor baten pean bilduta: Eternal Spain. Horietako bat nirea da. Eskertzen jakingo dudan ohorea da. Esan gabe doa The Times-ko kritikariak, naturako indarrak bezala izengabea, bete-betean erabiltzen dituela oraingo honetan aldizkari hartan mundu guztiak aitortzen eta estimatzen dituen ohiko bertuteak. Liburuen azterketa serio eta zuzena da.

Arretaren azentuak aztertutako lanen orrialdeetan banatzean, The Times-ko idazleak, gisa denez, kritikari-ofizioak eskatzen duen askatasun bitartez baliatzen da. Egileak, nik oraingo honetan, oso bestela banatuko lituzke azentu horiek, zalantzarik gabe, eta ez lituzke esaldi batzuk nabarmenduko, kritikariak egin duen bezala, testuingurutik bakanduz. Baina hau ez da balio osoko eragozpena artikulua horren aurrean. Gehienez, jakinegia dena adieraziko luke: egilearen liburua gauza bat dela eta kritikariaren artikulua, beste bat. Guztiz bat etorriko balira, bietako bat alferrik legoke.

Ezin da ere kexarik adierazi Literary Supplement-eko hasierako artikulua handi hauek ezinbestean sortarazten dituzten ondorio kezkarri batzuk direla eta. Beraietan maiz, antzeko gaiak dituzten liburu batzuk elkarrekin agertzen dira. Hau abantaila handia da irakurlearentzat, horrela gai bati buruzko azken bibliografiaz eroso hornitzen baita. Baina aipatzen dudan ondorio kezkarria, ezinbestean, abantaila horri lotua dator. Izan ere, kritikaria, liburu-andana osoari tiro egitera behartua dago, eta idazten duen artikulua, kritikaren armategian, metrailadorea edo fusil errepikatzailearen antzeko zerbeit da. Ondorioa -berriz diot, ezinbestekoa eta artikulugileari ezin egotzi zaiona-, hau, aztertutako obren artean batez bestekoa ateratzera behartua egotea da edo bestela izendatzaile komunera biltzera. Horrekin, liburu bakoitzak bere banakotasuna galtzen du derrigorrez eta halabehar editorialak bere aldamenetan ipini dituen besteez kutsatzen da. Oraingoa bezalakoetan, kutsaketa hau larria eta nahasgarria izan daiteke.

Baina honekin guztiarekin nik The Times-ko kritikariarentzat zeresanik ez dudala sumatzen da. Bere artikuluan benetakoa den akats bakar bat baizik ez baita itzuri. Akats hori axola handikoa da; baina, ikusiko denez, horren errua ez da kritikariarena, ene testua aurkeztu zaion moduarena baizik. Jarraian datorrena, beraz, ez da kexatzat hartu behar, ezta zuzenketa gisa ere, lankidetzazko saio txiki bat bezala baizik.

Lankidetasun honetako gaia, ordea, ez da huskeria. Ni, eskerga dela esaten ausartuko nintzateke, erraldoia, eta pentsa daiteke axola ikaragarria duela Ingalaterrarentzat hain zuzen ere. Eternal Spain horretaz mintzatuko bainaiz; baina, berez, nire herriaren gertaera zehatz honek, adibide berezi moduan, askoz zabalagoa den auzi baterako balio du, alegia: oraingo herrien arteko elkar ezagutzaren egoera. Agerpen askok, nazio batzuek besteez duten edo ez duten ezagutza, munduko politikan lehen mailako eragilea izatera iritsi ote den susmoa pizten dute.

Merezi du arazo honi gogoeta batzuk eskaintzea. Hainbat lekutatik sar naiteke bertan. Auziaren muinera lasterrago daraman bat hautatu dut.

Baina, lehenengo eta behin, aipaturiko okerra, The Times-ko idazleak nahi gabe egina, zuzendu behar dugu. Oker hau adibide egokia da nola xehetasun, nolabait esan, tipografiko batek, iritzi oso bat aldaraz dezakeen ikusteko. Izan ere: The Times-ek dio: "Ortega jaunak era ezkorrean laburtzen du Espainiako historia, birrinketa eta gainbehera bezala 1580tik gaurdaino. Baina beste saiakera batean zuhurki galdegiten du: gainbehera, hitz egokia ote den halako denboraldi luzea izendatzeko". Horren arabera, nik saiakera bat egingo nuen Espainiako historia 1580tik gainbehera doala esateko, eta gero beste bat, denboraldi luze hori ezin dela egokitasunez gainbeheratzat hartu susmoz- edo adieraziz.

Hori oker dago, besterik gabe, bi saiakera ez direlako, bakar bat baizik, alegia, liburu bateko bi kapitulu dira, 1921ean España invertebrada izenburuaz idatzitako liburu batekoak. Baina Ingalaterran izen berarekin argitaratu den liburua ez da hura. New Yorken agertutako liburu baten berrargitarapena da -aldaketa batzuekin-, eta horretan egileak ez du parterik hartu. Liburu amerikarra itzultzaileak moldatu du; beste lan batzuez gainera, jatorrizko liburu espainiarretik puskak hartuta, beste batzuk kanpoan utziz eta are parrafo berriak eginez beren artean urruti dauden nire testuko perpausekin; hau da, bitartekoak kenduta. Baina besterik ere egin du itzultzaileak: atrebentzia nabariz, orrialde behe batzuetan hainbat ohar jartzen ausartu da bere kasa eta bere sinaduraz, eta horietan, nik duela hamazazpi urte idatzietatik, oso iritzi biribilak ateratzen saiatzen da orain Espainian gertatzen ari denaz; iritzi horiek itzultzailearen iritzi politikoak dira, baina ez nireak, ez politikoak ez teorikoak. Gauza guztiak bere puntuan gelditu daitezkeen, esan beharra dago argitaratzaile amerikarrak ez duela batere erantzukizunik arazoan, eta argitalpen ingelesak kendu egin dituela horietako ohar batzuk. Horrelakoetan, adibidez, esaten da *foreign aid came to the support of the "pronouncing" generals and turned this relatively harmless exercise into deadly civil war*. Hitz horiek gertakaririk funtsezkoenei eta argienei buruz erakusten duten ezjakintasuna, ohartua nahiz oharkabea, barregarria da, eta adibide moduan balio du agerian uzteko nolako arinkeriaz saiatzen den herri urrunduetako iritzi publikoa munduko beste leku batzuetan esku sartzen, haien bilakabidea, larritasunak eta itxaropenak ezertarako ezagutu gabe. Itzultzaileak ez du susmorik txikiena ere Espainian aspalditik gertatzen ari denaz. Hala ere, eskubide osoa duela uste du nire herriko arazorik larrienez erabateko eta behin-betiko iritzia emateko. Hau gertatzen den bitartean bakezaletasunaz hitz egitea amodiozko pena galdua da. 1936.eko uztailean Espainian gertaturikoa "pronuntziamendu" bezala aurkeztea, onartezina da, baita gertakarien aipamen huts bezala ere. Bego ziur irakurlea, ez naiz Espainiako gerla zibilar buruzko neure iritzi positiboa azaltzeko inuzentekeria eroriko; besterik gabe, duela hamazazpi urte idatzitako ene testu batetik xurgatu nahi izan dena ukatzera lotuko natzaio hertsiki. Agian ez da alferrikakoa izango, ingeles zintzoari bere informazio eskasarekiko erne jarriko duen adibide zehatz gisa balioko baitio. Duela hiru urtez geroztik, gauza batzuk gertatzen dira munduan bat-batean, hiritar ingelesari ondo informatua ez dagoela susmarazi diezaioketenak. Eta hau ezin larriagoa da Ingalaterrarentzat eta munduarentzat. Gainerako herriak, oraindik funsgabe izanik ere, ingelesak ez daudela ondo informatuta sinesten hastea, besterik gabe, nahikoa da mundu artega honetan egonezina sortzeko.

Baina The Times-ko hutsegite anonimoa eragin duen kinka, nolabait, materiala aipatu ondoren, ikus dezagun zer den hau. Saiakera bat Espainia 1580tik gainbehera doala esateko, eta beste bat beharbada ez dela horrela joan esateko idaztetik urruti, España invertebrada, nire egiazko liburuaren asmo soila antzinako ikusmoldea, Espainiaren historia azken hiru mende hauetan gainbehera gisa agertzen duena, zuzentzea da.

Asma beza irakurle ingelesak, eskuzabalez, mende honetako lehen hamarkadako gazte espainiar baten bizi-egoera, Espainiak, Estatu Batuekiko gerlan (1898), azken koloniak galdu berriak zituelarik.

"Gizakia bere herrian murgildua doa ur-tanta hodei ibiltarian bezala."¹⁰⁴ Bere mugida bakoitzean, desadostasun hutsean bizi nahi ez badu, dagokion nazioaren handitasun eskergak daraman ibilbideari lotu behar zaio. 1820an Parry esploratzaile artikoa egun guztian ibili zen Iparbururantz, ausarki kurriaraziz bere lerako zakurrak. Baina gauean, goizean baino Hegoalderago zegoela egiaztatu ahal izan zuen. Egun osoan Iparrerantz lasterka ibilia zen ozeanoko korronteak Hegorantz zeraman izotz-lautada zabal batean. Gizon orok, bere egitasmoak moldatzerakoan, so egiten dio bere herriari, partaide den

giza multzoari. So egite hori ohartua eta argia izan daiteke edo ez horrenbeste, baina ez da behin ere falta, gizona baserritarra dela edo intelektuala dela.

1910.ean ingeles gazte batek bere herriari begiratu eta botere crescendo etengabeaen aurreratzen ikusten zuen, hasiera-hasieratik ordura arte. Ingalaterra den osotasun handi horren galera bakarra kolonia ipar amerikar batzuen bereizketa izan zen, galera oparoa, berriro ezer ez galtzeko modua irakatsi baitzien ingelesei. Baina garai berean Espainiaren iraganari begiratuko zion gazte espainiar batek arras alderantzizko ikuskizuna aurkitzen zuen. Bere herriak XVI. mendean bat-batean inperio handi bat osatu zuela ikusten zuen, eta handik ordurarte, Espainiak ez zuela lurrak, boterea, eta bere buruarekiko fedea galdu baizik egin. Inguruan galdegin, eta liburuek eta gizonek hitz bat esaten zioten bakarrik: "Gainbehera! Gainbehera!" Zer egingo du orduan gazte espainiarrak? Lotsatia baldin bada, hiltzeko gogoia izango du. Lasaia baldin bada, esango du bere baitan: Goazen soseguz! Egia ote da, entzuten dudana bezala, Espainiaren historia gainbehera batena dela? Ez ote da begi-lilura bat izango? Gure iraganeko gertakariak ez al dute uzten -eta uzten badute- ez al dute beste azalpenik inposatzen? Lot gakizkien datu garrantzitsuenei eta funtsezkoenei, hain erudito ez direnei eta ondoko ikerketa batengatik gutxien alda daitezkeenei. Ez ote dute hauek ohiko iritziaren, doxa arruntaren, alderantzizko egirik aldarrikatzen? Ez al digute iradokitzen ez-ohikoa gure historian bere gorenaldia eta itxurazko garaipena izan zela, hain zuzen ere. Espainiaren nagusitasuna goiztiarregia izan zen. Gure herria, bigarren mailako arrazoiengatik, Europak behar zuen eginkizun erraldoia betetzera deitu zuen halabeharrak -lehen Estatu sortzea, hitzaren adiera modernoan. Europako ezein herri ez zegoen horretarako prestatua. Espainia ere ez. Hala ere, zirkinik gabe onartzen du proposatzen zaion zeregin gorena. Eta lehen Estatu moderno sortzen du, honek behar duen guztiarekin: lehen armada iraunkorra, lehen burokrazia nazionala, lehen Weltpolitik, lehen Estatu-ekonomia eta, portugaldarrekin batean, hedadura zabaleko lehen enpresa koloniala. Zein beste herriak egin zezakeen hau orduan, egiten saiatu eta horri ekin esan nahi dut? Orduan -1500.aren inguruan- batek ere ez. Mende bat geroago, Frantziak, agian. Bi ehunkada geroago, Ingalaterrak. Gogo hartu gainerako nazioetako barne-desordena XVI. mendean eta XVII.aren lehen zatian. Espainiak orduan ordenarik jarri izan ez balu, Europaren historia gaur egun seguru aski ehun urte baino atzeratuago legoke. Enpresa honek, hondamendia berarentzat, oso oparoa Europako elkartearentzat, Espainiako historiaren erritmoa hautsi zuen.

Zergatik egokitu zitzaion eginkizun hori Espainiari galdetuko da, beste herriak bezain heldugabe baldin bazegoen. Galdera horren erantzuna nire España invertebrada saiakera da. Gainbeheraren doxa-ren aurrean nire erantzuna paradoxa da. Espainiari beste nazioekiko lehentasuna eman ziona akats bat izan zen eta ez bertute bat. Akatsa ez da izaerarena, The Times-ko artikulugileak nire pentsaeran, oker, ulertzen duen bezala, Espainiaren antzina-antzinako iraganaren osaketarena baizik. Usuario berriak ez egiteagatik baliteke nik noizbait "izaera espainiarra" esamoldea erabiltzea, baina diodanari begiratzuz gero, ikusiko da, esamolde horren atzean nik ez dudala jatorrizko joera bat adierazten -sinesten ez dudana gauza magikoa-, iraganean gertatu dena baizik. Espainiari indar goiztiarregia eman ziona, bere batasun nazional goiztiarregia izan zen, zeina barneko taldeen ahuleriagatik gertatu zen. Hauxe da paradoxa. Araua da, herri bat, bere barneko ahalmenek nolakotasunean eta kopuruan gailurra lortu dutenean, iristea nagusitasunera. Ondoko gainbeherak, herri hark bere indarrak jadanik xahutu dituela adierazten du, eta, ezinezkoa ez bada ere, oso zaila da hura suspertzea. Ni neure herrian gauzak ez direla horrela gertatu erakusten saiatu naiz. Espainiaren nagusigoia, nolabait, itxurazkoa izan zen eta ez zegokion ahalmen espainiarren benetako gailentze bati. Baina honen ondorioa bere gainbehera ere itxura hutsa dela litzateke. Berriro diot, honek

paradoxa antza duela; baina orduan irakurleari dagokio bestela azaltzea Espainiako gertakariaren funtsezko berezitasuna, alegia: noizbait munduaren jabe izan ondoan, asma ahal daitekeen gutxienera murriztua gelditu den Europako herri bakarra izatea. Gertakari handi eta sinple hau harrigarri aurkitzen ez duenak ez du Espainiaz iritzirik emateko eskubiderik. Ene azalpenak Espainiaren iragana hertsatzen du etorkizuna libre uzteko. Gauzak horrela ikusita, Espainiako gazteek gauza berri eta adore emaile bat ikasi ahal izan zuten nire liburuan: "Espainia onena" ez dagoela, agian, iraganean, etorkizunean baizik. Nire liburuska ez zen historiak nire herriari aurkezten zion zeruertz itxian zulo bat irekitzeko eginahal oldartsu bat baino.

Honi The Times-ko izengabeak ezkortasuna zeritzan. "Señor Ortega, who is nothing if not pessimist..." Ni ikaratu egiten naiz ingeles bati hitz hau entzuten diodanean. Kontinentean adierazten dituenak baino askoz gauza gehiago esan nahi duela susmatzen dut, eta, beharbada, pertsona baldresak eta gaizki heziak garela susmarazteko britainiarrak erabili ohi dituen ezin konta ahal eufemismo horietako bat da. Zalantzan, bada, nik konponketa bat proposatuko nioke The Times-ko kritikariari: berak uko egitea niri ezkor esateari eta, nik, poz-pozik, nothing izatea onartuko dut.

Nire liburua, gutxi gora-behera alderantzizkoak diren beste batzuekin batean aipatu beharrak, egia ez diren iritzi-kidetasun batzuk niri leporatzera eraman dute kritikari zuhurra. Nik, adibidez, ez dut espainiarraren xenofobian sinesten eta, zehatz hitz eginda, haren krudeltasunean ere ez, nahiz eta irakurle ingelesari harrigarri irudituko zaion gaur egun, gaur egun hain zuzen ere, espainiarra ez dela krudela norbait esaten ausartzea. Eta horrela da, hala ere. Nire lankidetzazko saiakeran aurkituko ditu irakurleak, espainiarrak leporatzen zaien krudeltasun berezitik arintzeko erabiltzen ditudan arrazoi aski zehatzak. Han ere ikusiko da zergatik izutzen nauden, Espainian azkenean egin diren basakeriak, gertaerak diren aldetik ezin ukatuzkoak, "izaera espainiarrari" besterik gabe egozteko errazkeria horrek. Horrelakoak entzutean, pentsatu ohi dut, hori esaten duenak ez duela susmorik txikiena ere, duela hogeit urtetik hona, ez Espainian, munduan baizik, gertatzen ari denaz. Dena den: asko hitz egin beharra dago elkarrekin serioski eta leialki konpondu nahi baldin badugu. Gero ikusiko ditugun arrazoiak direla eta, herrien arteko bizitza, nahitaez, estuagoa egin da. Beren zorroztasun eta zehaztasunagatik, elkarbizitzak, hurbiltasun materialak, iritsi duen mailaren parean dauden harreman-teknika berriak asmatzen ez badira, datozen urteetan gerla beldurgarri eta amaigabeak izango dira. Hona horietako teknika bat: osoagoa, ez horren alegiazkoa, ez horren topiko eta halako umekeria ez den elkar ezagutzea.

Politikoa ez den eta, beraz, horrenbeste itsutzen ez duen adibideren bat nahi duzue? The Times-ko izengabeak, eternal Spain-i buruzko artikuluan, ezin zuen aipatu gabe utzi ingelesez eta espainiarraren betidaniko malentendu bat: zezenketak. Bidenabar egiten du eta nire ustez zalantza pixka batekin. Zergatik hitz egin behar da berrir, ohitura hutsez, hain zaila den gai batez? Espainiarraren eta zezen izukaitzaren arteko adiskidetasun dramatikoak duela hiru mila urtez gero dirau. Kinka ederra, Burke-k dioenez, edozein arau beste edozerk baino hobeto justifikatzen duen printzipioan babesteko: preskripzioan. Baina zezenketa batera behin bakarrik doan andre ingelesak horrekin aski duela uste izaten du gizon hispanikoaren eta piztia bikainaren arteko hiru aldiz mila urteko harremana ulertzeko eta epaitzeko¹⁰⁵. Gogoan har bedi herri bat, lehenengo eta behin, ezkutuki bilduma bat dela, igertzeko eta ulertzeko eginahal bat eskatzen duena. Ez da egia osoa mundua gantzez eta kainoiez bakarrik osatua dela. Badago hirugarren gauza bat ere: ezagutza, noizbait ondorio onak ere ekartzen baititu.

Gutxitan erori da post hoc ergo propter hoc horretan gerla ondoan adina. Gerla ondoko gertakari guztiak gerlaren bidez azaldu ohi dira, eta horrekin beren zentzua zapaltzen da, beren islaren berezitasuna ezabatzen, eta etorkizunaren agerpen gisa alferrikaldu egiten dira. Horrelakoa dugu gerla ondoko gertakaririk nabarmenetako bat: "betekada". Hiriak jendez beteak daude. Etxeak, maizterrez beteak. Hotelak, lagunez beteak. Trenak, bidaiariz beteak. Kafetegiak, edalez beteak. Ibilbideak, ibiltariz beteak. Espektakuluak, garaiz kanpokoak ez badira behintzat, ikuslez beteak. Hondartzak, bainuzalez beteak. Lehenago arazo ez zena, dagoeneko izaten hasia da ia etengabe: tokia aurkitzea.

Nik bezala, gertakari orok, kausa bat izateaz gainera, estilo bat -hots, bizikera bat adierazten duten keinu eta forma bat- ere baduela uste duen edozeinentzat, ezinezkoa gertatzen da giza uholde hori pixka bat kikildu gabe ikustea. Munduaren ulerkerak fisiognomikoaren arabera, gertatzen den guztia sinbolikoa da. Sinboloak, hitzez hitz hartu eta aldatu gabe gainerako errealitatera igaroarazten dugunean, ematen du bere ezkutuki eskerga. Erabil dezagun jardunbide sinple hori oraingo honetan.

Zer da ikusten duguna eta ikustean hainbeste harritzen gaituena? Jendetza ikusten dugu, jendetza den aldetik, zibilizazioak sortu dituen lekuen eta tresnen jabe eginik. Gogoeta pixka bat egin bezain laster, geure harriduraz harritzen gara. Zer, bada? Ez al da, bada, ideala? Antzokiak, jezartzeko ditu aulkiak; beraz, aretoa betea egon dadin. Eta orobat trenak jarlekuak eta hotelak bere gelak. Bai; ez du zalantzarik. Lehen, ordea, leku eta ibilgailu hauetako bat ere ez zen betea egoten, eta orain gainezka daude, kanpoan gelditzen da jendea usufruktatzeko irrikaz. Gertakaria logikoa, naturala, den arren, ezin ahanztu dezakegu lehen ez zela gertatzen eta orain bai; beraz, aldaketa bat gertatu dela, berrikuntza bat, gure harridura, hasieran behintzat, justifikatzen duena.

Bestalde, samalda horietako osakideak ez dira hutsetik sortu. Gutxi gora-behera, pertsona-kopuru bera zegoen duela hamabost urte. Hementxe, ordea, egiten dugu topo lehen ohar jakingarriarekin. Jendetza horiek osatzen dituzten gizakiak bazeuden lehen ere, baina ez jendetza gisa. Munduan multzo txikietan edo bakarka banatuta, bizimodu, itxuraz aldendua, banandua, urrundua, zeramaten. Bakoitzak -gizabanako nahiz talde txiki- toki bat betetzen zuen, berea agian, landan, herriskan, hirian, hiri handiko auzoan. Orain, bat-batean, samalda itxurapean agertzen dira, eta gure begiek jendetzak ikusten dituzte nonahi. Nonahi? Ez, ez; toki onenetan hain zuzen ere, giza kulturaren nola-halako sorkari finetan, lehen talde txikiagoei, hitz batez, gutxiengoei, zegozkienetan.

Jendetza, ikusgarri bihurtu da, gizarteko toki hautatuenetan jarri da. Lehen, egonda ere, ez zen nabaritzen, gizarteko eszenatokian hondoa betetzen zuen; orain argietarantz aurreratu da, bera da pertsonaia nagusia. Orain ez dago protagonistarik: korua dago bakarrik.

Jendetza kontzeptua kopuruzkoa eta begietakoa da. Eman dezagun, aldatu gabe, soziologiazko hitzetan. Orduan masa sozial delakoa aurkitzen dugu. Gizartea beti bi faktoretako batasun dinamikoa da: gutxiengoak eta masak. Gutxiengoak, gizabanakoak edo gizabanakoen multzo bereziki kualifikatuak dira. Masa, bereziki kualifikatu gabeko pertsonen multzoa da. Honela, kopuru hutsa zena -jendetza- zerbait kualitatibo bihurtzen da: tasun komuna da, jabe gabeko gizarte ondasuna, besteengandik bereizten ez den gizona, bere baitan eredu orokor bat errepikatzen duena. Zer irabazi dugu kopurua kalitate bihurturik? Oso erraza: honen bidez haren sorrera ulertzen dugu. Bistan da, eta esateak kaikeri antza ere badu, jendetza baten osaketa arruntak gogoan adostasuna eskatzen duela, ideiena, izaerarena, hura osatzen duten lagunen artean. Esango dute edozein giza talderekin gertatzen dela hori, baita aukeratuenean ere. Bai

noski; baina bada funtsezko alderik ere. Jendetza eta masa ez diren taldeetan, adostasuna, gogoren bat, ideia edo xederen bat izaten da, berez kopuru handia baztertzen duena. Gutxiengo bat osatzeko, edozein delarik, beharrezkoa da alde zurretik norbera jendetzatik aldentzea, arrazoi bereziak, aski indibidualak, direla bide. Gutxiengoa osatzen duten besteekiko kidetasuna, bigarren mailakoa da, nork bere burua bakandu ondokoa, eta, beraz, zati handi batean, bat ez etortzean bat etortzea. Zenbaitetan, taldearen tasun bereizle hau estalkirik gabe agertzen da: ez-konformisten taldeak, hau da, jendetza neurrigabearekiko desadostasunean bakarrik ados daudenen elkartea. Gehienengandik aldentzeko gutxiengokoak elkartzeko joera hau gutxiengo guztien sorreran dago. Mallarmék behin graziaz dioen bezala: bere urritasunaren agertuarekin jendetzaren ez-agertu izana azpimarratzen dute¹⁰⁷.

Berez, masa, psikologiazko gertakari bezala defini daiteke, gizabanakoak samaldaka agertzeko zain egon beharrik gabe. Pertsona bakar baten aurrean masa den ala ez jakin dezakegu. Masa, bere burua arrazoi bereziengatik -onerako zein txarrerako- baloratzen ez duen edonor da, bere burua "mundu guztia bezalakoa" sumatzen duena, eta, hala ere, ez da larritzen. Ez da masa, ordea, arrazoi bereziengatik baloratu nahian dabilelarik -honetarako edo horretarako balioa, zerbaitetan nabarmentzea- inolako dohain bikainik ikusten ez duelako bere burua eskasa eta arrunta sumatzen duen gizon apala. Ohiko bilaukerien aurrean, garbi utzi behar da, gizon aukeratua ez dela bere burua hobesten duen harroskoa, bere buruari besteei baino gehiago eskatzen diena baizik, nahiz eta goimailako eskakizun horiek betetzea lortu ez. Honek, budismo ortodoxoa bi erlijio diferentek osatzen dutela gogoratzen dit: bat, zorrotzagoa eta zailagoa; bestea, laxoagoa eta errazagoa: Mahayana - "ibilgailu handia" edo "bide handia"- eta Hinayana - "ibilgailu txikia", "bide txikia". Axola duena da gure bizitza ibilgailu batean ala bestean jartzen dugun, eskakizun maila gorenean ala behearenean.

Dena den: badaude gizartean berezko izaeraz bereziak diren mota askotariko lanak, jardunak, zereginak, eta, ondorioz, ezin dira berezia ere den dohainik gabe burutu. Adibidez, arte eta luxuzko plazer batzuk, edota arazo publikoei dagozkien gobernu-eginkizunak eta epai politikoak. Lehen, jardun berezi hauek gutxiengo kualifikatuek egiten zituzten -ustez behintzat, kualifikatuak zirenak. Masa ez zen horrelakoetan parte hartzen ausartzen: garbi ikusten zuen parte hartu nahi baldin bazuen dohain berezi horiek bereganatu beharko zituela eta masa izateari utzi. Ongi ezagutzen zuen bere zeregina gizarte-dinamika osasungarrian.

Hasieran aipatu ditugun gertakarietara itzultzen bagara, zalantzarik gabe, masaren jarrera-aldaketa baten aitzindariak irudituko zaizkigu. Gertakari guztiok erakusten dute masak gizarteko lehen mailara aurreratzea erabaki duela eta lehen banaka batzuei zegozkien lekuak betetzea, eta tresnak erabili eta plazerrez gozatzea. Bistan da, adibidez, lekuak ez zeudela alde zurretik jendetza handientzat pentsatuta, beren neurriak eskasak baitira eta jendeketak etengabe gainezkatzen ditu, begien bistan eta hizkuntza ikusgarritz gertakari berria erakusten duelarik: masak, masa izateari utzi gabe, gutxiengoei kentzen die tokia.

Inork ez du deitoratuko, nire ustez, jendeak egun lehen baino gehiago gozatzea neurritz eta kopuruz, bai baititu horretarako grina eta bitartekoak¹⁰⁸. Baina zoritxarrez, gutxiengoen zereginak bereganatzeko masen erabaki hau, ez da plazer mailan bakarrik gertatzen, ezta gertatzen ahal ere, eta garaiko joera orokorra da. Hau dela eta, nire ustez, azken urteotako berrikuntza politikoez ez dute masen aginte politikoa baizik adierazten. Demokrazia zaharra, liberalismo-dosi ugari batek eta legearen aldeko atxikimendu suharrak goxatua bizi zen. Oinarri liberalaren eta arau juridikoaren babespean bizi eta jardun zezaketen gutxiengoak. Egungo hiperdemokraziaren garaipenean masa zuzenean ari da, legerik gabe, presio materialen bidez, bere nahiak eta gogoak inposatuz. Oker

dago, egoera berriak, masak politikaz aspertu eta eginkizun hori pertsona berezien ardurapean utzi balu bezala azaltzea. Arras alderantziz. Hori lehen gertatzen zena zen. Masak uste zuen, azken batean, akatsak akats, politikoen gutxiengoak berak baino gehixeago zekiela arazo publikoez. Orain, berriz, bere kafetegi topikoak inposatzeko eta lege bihurtzeko eskubidea duela uste du masak. Duda egiten dut historian beste inoiz jendetza egun bezain zuzenki gobernatzera iritsi ote den. Horrexegatik diot hiperdemokrazia.

Horren antzera gertatzen da gainerako alorretan, intelektualean batik-bat. Oker nabil, agian; baina luzaro aztertu dudan zerbaitetaz idazteko luma hartzen dudanean, pentsatzen dut, irakurle arruntak, gaiak behin ere arduratu ez denak, irakurtzen badit, ez didala nigandik zerbait ikasteko asmotan irakurtzen, alderantziz baizik: ni epaitzeko, berak gogoan dituen arrunkekin bat ez natorrenean¹⁰⁹. Masa osatzen duten gizabanakoek dohain berezietz hornituak daudela usteko balute, oker pertsonal bat izango genuke gehienez, ez, ordea, subertsio soziologikoa. Hona oraingo momentuaren ezaugarria: arima arruntak, arrunta dela jakinda, arrunkei eskubidea aldarrikatzeko kemena du eta nonahi inposatzen du. Ipar Amerikan esaten den bezala: bestelakoa izatea lotsagarrikeria da. Masak, bestelakoa, nabarmena, bakana, bereizia, aukeratua, den oro zanpatu egiten du. Mundu guztia bezalakoa ez baldin bazara, mundu guztiak bezala pentsatzen ez baduzu, suntsitua izateko arriskuan zara. Eta garbi dago "mundu guzti" hori ez dela "mundu guztia". "Mundu guztia", normalean, masak eta bestelako gutxiengoek, bereiziek, osatutako batasun konplexua zen. Orain mundu guztia masa baizik ez da.

El Sol, 1927ko maiatzaren 8an.

Erakuslehioek agintzen dute

Gizarte-bizitzan eragina duen botere bakarra dirua dela esan ohi da. Errealitateari bahe tapitu samarrez begiratzen badiogu, perpausa areago dugu gezurrezkoa egiazkoa baino. Baina bahe zakarreko ikusmenak ere baditu bere eskubideak, eta orduan ez dago eragozpenik aipu latz hori onartzeko.

Hala ere, osagai batzuk kendu eta erantsi behar litzaizkioke gogoeta distiratsu izateko. Historiako garai askotan esan izan baita oraingo hori berori, eta honek susmo egitera garamatza: edo inoiz ez da egia izan edo modu askotara izan da egia. Harrigarria baita hain bestelakoak diren garaiak bat etortzea halako gai nagusi batean. Oro har, ez zaio jaramon handiegirik egin behar aldi joanek bere buruaz esan dutenari, izan ere -esan beharra dago-, ez baitziren azkarregiak bere buruaz zihardutenean. Nork bere izaerarekiko duen begi zorrotza, bere halabeharraz duen argitasuna, aski gauza berria da historian.

Kristoren aurreko VII. menderako bazebilen Mediterraneoko Ekialde guztian apotegma famatu hura: Khrémata, khrémata aner! "Bere dirua, bere dirua da gizona!" Gauza bera esaten zuten Zesarren garaian; XIV. mendean cuaderna via-n ematen du gure Hitako tonsuratu zurrunbilatsuak, eta XVII.lean, Gongorak letrilak egiten ditu horretaz. Zer ondorio ateratzen dugu lelo doinubakar honetatik? Dirua, asmatu zenetik, indar handia dela? Hori azpimarratu beharrik ez zegoen: kaikukeria litzateke. Lantujotze horietan besterik ere adierazten da. Erabiltzen dituenak, gutxienez, diruak behar lukeen baino indar handiagoa duela eta bere harridura agertzen du. Eta nondik datorkigu diruak benetan duen baino indar gutxiago izan behar lukeelako uste hori? Nola ez ote gara, bada, gertakari etengabe horretara ohitu hainbeste eta hainbeste menderen buruan eta zergatik harrapatzen gaitu beti ustekabean?

Bera da, apika, ezagututakoan nazkatzen gaituen gizarte-botere bakarra. Haserrarazten gaituen indar basatiak berak ere begikotasun eta estimuzko azken oihartzun bat aurkitu ohi du gure baitan. Bere antzeko indarra sortuz aurre egitera bultzatzen gaitu, baina ez

digu higuinik eragiten. Esan liteke indarkeriaren alderdi hauek edo haiek sutu egiten gaituztela; baina bera, osasun-agerpena iruditzen zaigu, izaki biziaren dohain bikaina, eta ulertzen dugu greziarrek Herkulesen bidez jainkotzea.

Nire ustez, diruaren aurreko harridura, beti berri, honek, oraindik argitu gabe dagoen auzi bitxi mordo bat pizten du. Botere hori jatorren eta auhen garratzenekin deitoratu izan deneko aldiak oso bestelakoak dira beren artean. Hala ere, berdintasun bat aurki daiteke beren artean: krisi moraleko aldiak dira, bi garairen arteko oso une iragankorrak. Aldi bat gidatu zuten gizarte arauak indarra galdu dute eta hurrengoan aginduko dutenak oraindik ez dira heldu. Nola? Izango ote da, diruak, egiazki, ez duela deitoretan aitortzen zaion boterea eta bere eragina, gizartea antolatzen duten gainerako botereak erretiratu direnean bakarrik, dela erabakigarria? Horrela balitz, hobekixe ulertuko genuke gizadiak bere aurrean sumatzen duen menpetasun eta nazka nahaste bakan hori, erabiltzen duen boterea ez dagokiolako harridura eta susmo betiereko hori. Dirudienez, ez dagokio berea ez delako, falta diren beste indarrei ostua baizik.

Auzia izugarri korapilatsua da eta ez lau hitzetan konpontzekoa. Esango dudan guztia interpretazio-aukera soil baten moduan doa. Axola handikoa da historiaren azalpen ekonomikoa saihestea, historia guztia diruaren ondorio berdintsu bihurtuz auziaren grazia guztia lautzen baitu. Garbiegi baitago gizaldi askotan diruaren gizarte-boterea oso urria izan zela eta ekonomiarekiko arrotz ziren beste energia batzuk moldatu zutela gizarteko bizitza. Gaur egun dirua juduek dute eta munduko nagusiak dira, baina Erdi Aroan ere bazuten eta Europako gorotza ziren. Ez esan dirua ez zela aberastasunaren, errealitate ekonomikoaren, era nagusia feudalismoaren garaian. Zeren, horrela izanda ere eta kontutan harturik behar den heinean diruaren pisu ekonomiko soil a Erdi Aroko ekonomiaren hierarkian, ez baitago kidetasunik judu haien aberastasunaren eta beraien maila sozialaren artean. Marxistek, gauzak beren tesiaren ildora egokitu beharrez, gehiegi gutxietsi dute monetaren garrantzia bilakaera ekonomikoaren kapitalismo-aurreko aldian, eta gero beharrezkoa izan da garai hartako historia ekonomikoa berregitea Erdi Aroko Estatuetan diru hebrearrak zuen benetako garrantzia erakusteko.

Inork ezin du, ezta idealistenak ere, zalantzan jarri diruak historian duen garrantzia, hala ere duda egin liteke, beharbada, funtsezko lehen botere bat ote den. Beharbada gizarteko boterea ez dago normalean diruaren mendean, alderantziz baizik, gizarteko boterea banatua dagoen eran banatzen da, eta gizarte gerlatian gerlariarengana doa, baina apaizarengana teokratikoan. Egiazko gizarte-botere baten ezaugarria berorrek hierarkiak sortzea da, berori izatea gizabanakoa gorputz publikoan nabarmentzen duena. Hara bada: XVI. mendean, diru asko izanagatik ere, juduak infra-gizona izaten jarraitzen zuen, eta Zesarren "zaldunak", klase gisa aberatsenak ziren arren, ez ziren gizarteko gailurrera iristen.

Sinesgarriena, dirua bigarren mailako gizarte eragilea izatea da, bere aldetik gizartearen eraikuntza itzela sortarazteko ahalmenik ez duena. Edozein eraikuntza kolektiboren orekan eragiten duten indar nagusietako bat da, baina ez da haren estilo tektonikoaren musa. Aitzitik, egiazko ohiko botere historikoek -arrazak, erlijioak, politikak, ideiek- huts egiten baldin badute, berorrek bereganatzen du jaberik gabe gelditu den gizarte-energia guztia. Diogun, bada, gainerako ospeak aienatzen direnean dirua gelditzen dela beti, txit gauza materiala denez, ezin baita aienatu. Edota bestela esan: diruak ez du agintzen, agintzen duen besterik ez dagoenean baizik.

Horrela argitzen da diruaren agintepean egon diren garai guztien berdintasun hori: aldaketa-aldiak izatea. Konstituzio politiko eta moral bat hildakoan, gizakiak hierarkiapean jartzeko arrazoirik gabe gelditzen da gizartea. Hara bada: hau ezinezkoa da. Inozokeria berdintzailaren aurka, sozializatzearen funtsezko eragina hierarkizazioa dela aldarrikatu beharra dago. Bost gizaki egoera normalean dauden tokian zuzenean

sortzen da hierarkiazko egitura bat. Zein den horren oinarria beste auzi bat da. Baina beti egon beharko du batek edo bestek. Ohikoek huts egiten badute, sasi-oinarriren batek moldatuko du hierarkia eta mugatuko klaseak. Aldi batez -XVI. mendean-Holandan, gizonik miretsiena tulipan bakan bat zeukana izaten zen. Giza fantasiak, hierarkia sen eutsiezin horrek akuilaturik, beti asmatzen du desberdintasunerako gai berriren bat.

Areago, ohar honetarako bidea ematen duen hasierako esapidea horrela mugatuta ere, diruak gure garaian iraganeko beste dozein sasoitan baino gizarte-botere handiagoa duela esateko arrazoirik ba ote dagoen galdegiten dut nik. Jakinmin hau ere da ausarta eta asetzen zaila. Joaten utziz gero, gure orduan gertatzen den guztia irudituko zaigu denboraren segidan bakana eta berezia. Bada, hala ere, nire ustez, gure garaia denetan krematistikoena izan delako susmoari bide zabala ematen dion arrazoi bat. Krisi-garaia ere bada: duela urte batzuk indarrean zeuden ospeek eragina galdu dute. Ez erlijioak, ez moralak, ez dute ez gizarte-bizitza ez jendetzaren bihotza menderatzen. Kultura intelektuala eta artistikoa duela hogeitaz urte baino gutxiago preziatzen da. Dirua gelditzen da bakarrik. Baina, esan dudanez, hau batzuetan gertatu da historian. Orain berria dena, berezia dena beste egoera hau da. Diruak, bere boterearentzat, muga zuzen bat izan du bere izatean bertan. Dirua ez da gauzak erosteko bitarteko bat baizik. Erosteko gauza gutxi egonez gero, nahiz eta diru asko egon eta nahiz eta bere ekintza beste ahaldunekiko istiluetatik oso libre egon, haren eragina oso eskasa izango da. Honekin zurubi bat egin dezakegu diru-aldiekin eta esan: diruaren gizarte-ahalmena -ceteris paribus- erosgaien kopuruaren arabera da, ez diruaren beraren kopuruaren arabera. Dena den: dudarik gabe, oraingo industrialismoak, teknikaren aurrerapen izugarriekin batean, salgai-pila gaitza sortu du, mota eta kalitate askotakoak, eta ondorioz, diruak era ikaragarrian gara dezake bere funtsa: erostea.

XVIII. mendean ere dirutza handiak zeuden, baina zer erosi gutxi. Aberatsak, aukerako salgaien bilduma motzaz kanpo zerbait gehiago nahi baldin bazuen, egarri bat asmatu behar izaten zuen eta hura aseko zuen objektu bat, objektua gauzatuko zuen egilea bilatu behar zuen eta hura egiteko denbora eman. Diruaren eta objektuaren artean sartutako nahaste guzti honetan are zailago gertatzen zen beste forma izpiritual batzuen kariaz - aberatsarengan gurariak sortzeko fantasia, egilearen aukera, honen lan teknikoa, etab. - eta nahi gabe berorien menpeko bihurtzen zen.

Orain norbait hirira iristen da eta lau egunen buruan bertako gizonik ospetsuena eta miretsiena izan daiteke hau besterik egin gabe: erakusleihen aurretik paseatu, gauzarik hoberenak aukeratu -automobil hoberena, kapelurik hoberena, pizgailurik hoberena, etab.- eta erosi. Irudimenez automata bat asma genezake, sakela batez hornitua, mekanikoki sartuko luke eskua bertan eta hiriko pertsonaiarik ospetsuena izatera iritsiko litzateke.

El Sol, 1927.eko maiatzaren 15ean.

Gaztetasuna

I

Historiako gora-beherak ez datoz inoiz giza gorputzetik at dauden arrazoietatik, aldi zoologiko berean behintzat. Hondamendi telurikorik gertu baldin bada -uholdeak, kontinenteak urperatzea, bat-bateko eta erabateko klima-aldaketak-, antza denez mitorik zaharrenetan ilunsko gogoratzen denaren arabera, beren ondorioak historiaren mugak gainditu zituen eta espezie-mota nahasi egin zuen. Seguru aski gizakiak ez du horrelako hondamendirik ikusi. Bizitza, itxuraz, oso egunerokoa izan da beti. Gure mota honek ezagutu dituen aldaketarik bortitzenak, izozteak, ez ziren oso ikusgarriak izan. Askia da denboraldi batean urteko batez besteko tenperatura bospasei gradu jaistea izoztea gerta dadin. Alegia, udak freskoxeagoak izatea. Bilakaera honen moteltasunak eta

leuntasunak denbora ematen du gorputzak erantzun dezan, eta gorputz barnetik ingurunearen aldaketa fisikoari emandako erantzun hau da benetako aldaketa historikoa. Alde batera utzi behar da ingurugiroak, mekanikoki, bizitza moldatzen duelako ustea; beraz, bizitza kanpotik barrurako bilakaera delakoa. Kanpoko aldaketek gorputz barneko aldaketen akuilu gisa baizik ez dute eragiten; nolabait esan, galderak dira, izaki biziak ezin igerizko originaltasun tarte zabal batekin erantzuten dituenak. Espezie bakoitzak, eta are barietate bakoitzak, eta are banako bakoitzak, erantzun bat emango du, asko edo gutxi diferentea, inoiz ez berdina. Bizitzea, labur esan, barrutik kanporantz egiten den gauza da, eta horregatik, bere aldaketen zergatikoak edo arrazoiak organismoaren barruan bilatu behar dira.

Uste horren arabera, arras erraza iritzi beharko nioke historiako gertakari sakonenetan eta zabalenetan funtsezko diferentzia biologikoen eragin erabakigarria argi samar agertzeari. Bizitza arra edo emea da, gaztea edo zaharra. Nola uste izan daiteke, txit oinarritzko eta hain bestelakoak diren bizitasunaren osagai hauek ez direla historiako botere plastiko erraldoiak? Nire ustez, aurkikunde soziologiko garrantzitsuenetakoa, duela ia hogeita hamar urte izan zen, harako hartaz konturatu zirenean, alegia: gizartearen lehen antolaketa ez dela bizitzako kategoria horiek, sexuak eta adinak, masa kolektiboan utzitako aztarna baizik. Gizarteko lehen egitura, bertako gizakiak bi sailetan banatzera mugatzen da, gizonak eta emakumeak, eta sexu-klase hauetako bakoitzean¹¹⁰ haurrak, gazteak eta zaharrak, adin-klaseetan. Forma biologikoak berak izan ziren, nolabait esan, lehen erakundeak.

Artasuna eta emetasuna, gaztetasuna eta zahartasuna, bi ahalmen-bikote elkarren kontrakoak. Horietako ahalmen bakoitzak, bizitza osoa aurkakoarena ez bezalako bidetik eramatea adierazten du. Bestelako bizikerak dira. Eta historiako edozein unetan denak batean gertatzen direnez, elkar jotzen dute, indar tirabira bat sortzen da, eta giza bizitza, osoki, nork bere aldera erakartzen saiatzen da. Garai bat ulertzeko beharrezkoa da lau ahalmen horiek bertan ematen duten ekuazio dinamikoa finkatzea eta honela galdegitea: Zein da ahaltsuena? Gazteak ala zaharrak, hots, gizon helduak? Gizontasuna ala emakumetasuna? Benetan interesgarria da mendeetan zehar, ahalmen horietako baterantz zein besterantz, boterearen mugidei jarraitzea. Orduan ikusten da alde zuzenetik susmatu behar zena: bizitza oro erritmikoa delarik, historikoa ere horrelakoa dela, eta funtsezko erritmoak, hain zuzen ere, biologikoak direla; bestela esan, garai batzuetan gizonezkoa nagusitzen da eta beste batzuetan emakumearen sena da jaun eta jabe, badira gazteen denborak eta zaharren denborak ere bai.

Bizitza gizakiarengan bikoiztu egiten da, kontzientziak parte hartzen duenez lehen bizitza bertan islatzen baita: berak interpretatzen du ideia, irudi, sentimendu gisan. Eta historia, batik-bat, gogoaren historia denez, arimarena, garrantzizkoa erritmo nagusitasun horiek kontzientzian duten eragina deskribatzea izango da. Gorputzaren bulego ezkutuetan gaztetasunak eta zahartasunak, artasunak eta emetasunak duten borroka misteriotsua, zaletasun eta arbuio itxurapean agertzen dira kontzientzian. Garai bat iristen da eta bizitza gaztearen dohainak nahiago ditu, eta bizitza helduarenak baztertzen, gutxien, edota grazia gehiena jokabide emeetan aurkitzen du, ez gizonezkoenetan. Zergatik gertatzen dira zaletasun-aldaketa hauek, zenbaitetan bat-batekoak? Horra bada: auzi honetaz oraindik ezin dugu hitz argirik esan¹¹¹.

Begien bistan da, nire ustez, gure garaia ezaugarria gazteen nagusitasun ezin handiagoa dela. Harrigarria da, hain zaharrak diren gure herri hauetan, eta gerla heroiko baino areago triste baten ondoan, bizitzak bat-batean gaztetasunaren garaipen itxura hartzea. Egia esan, beste gauza asko bezala, gazteen nagusialdi hau 1890etik ari zen prestatzen, fin de siècle-tik. Gaur leku batetik, bihar beste batetik, kanpora egotzi

zituzten heldutasuna eta zahartasuna: haien lekuan gizaki gaztea jarri zen bere dohain bereziekin.

Ez dakit gaztetasunaren garaipen hau gertaera iragankorra den ala giza bizitzak hartu duen jarrera sakona eta garai oso bat bereiziko duena. Beharrezkoa da denboraldi bat igarotzea iragarpen hau menturatu ahal izateko. Gertakaria berriegia da eta oraindik ezin da ikusi bizikera hau in modo iuventutis gero aipatuko dudan gauzarako gai izango den, hori gabe ezingo baitu bere garaipenak luzaro iraun. Baina oraingo aldiaren itxurari bakarrik begiratuko bagenio, honako hau esan beharrean aurkituko gara: izan dira historian gazteak nagusi beste garai batzuetan ere, baina, ongi ezagutzen direnetan, nagusigoa ez da inoiz honen handia eta bakarra¹¹². Greziako mende klasikoetan, bizimodu osoa efeboaren inguruan antolatzen da, baina haren ondoan, eta ahalmen berdintzaile gisa, hura hezten eta gidatzen duen gizon heldua dago. Sokrates-Alzibiades bikoteak oso ongi adierazten du gaztetasunaren eta heldutasunaren ekuazio dinamikoa v. mendetik Alexandroren garaira. Alzibiades gazteak gizartean garaitzen du, baina Sokratesek agertzen duen izpiritua zerbitzatzeko baldintzapean. Honela, gazteriaren grazia eta sasoi beraiek baino harantzago dagoen zerbaiten zerbitzutan jartzen da, arau, akuilu eta galga gisa balio diena. Erromak, aldiz, zaharra nahiago du gaztea baino eta senatorearen, aita-familiakoaren menpean jartzen da. "Semeak", berriz, gazteak aurkari gisa jarduten du beti senatorearen aurrean. Mende luzeetako borrokan ari diren alderdiak aipatzen dituzten izen biek ahalmen bitasun hori adierazten dute: patrizioak eta proletarioak. Biek "semeak" esan nahi dute, baina batzuek Estatuaren legearen arabera ezkonduko aita hiritarraren semeak dira, eta ondorioz oinordekoak; proletarioa, berriz, haragiaren aldetik da seme, ez da "nor bait" ezagun baten semea, ondoko hutsa da eta ez oinordeko, prole da. (Ikusten denez, patrizio-ren itzulpen doia aitoren seme litzateke).

Gurea bezalako beste gazte-aro bat aurkitzeko, Berpizkunderaino jaitsi behar litzateke. Gogora beza azkar irakurleak Europako sasoi-sorta. Erromantizismoak, nola edo halako indarrez XIX. mende osoa hartzen du eta, gazte garaia eman dezake bere hasieran. Zinez, iraganaren aurkako jazarpen bat dago bertan eta bere buruari gaztetasuna aitortzeko saio bat da. Iraultzak erabat ahaztu zuen aurreko belaunaldia eta hamabost urtez gizarteko goi-ardurak oso gizon gazteek har zitzaten utzi zuen. Jakobinoa eta Bonaparteren Jenerala mutikoak dira. Hala ere, sasoi honek gezurrezko gazte garaipen baten eredia erakusten du, eta erromantizismoak bere jatortasun-eza agertuko du. Gazte iraultzailea aurreko bi mendeetan landutako ideia zaharren gauzatzaile hutsa da. Gazteak orduan aitortzen duena ez da bere gaztetasuna, hartutako sinesteak baizik: ez dago adibide hoberik Robespierre baino, jaiotzetiko zaharra. Erromantizismoan XVIII. mendearen aurka altxatzea, antzinagoko iraganera itzultzeko da, eta gazteek, beren barruan begiratzen dutenean, bizi gogo-eza besterik ez dute aurkitzen. Blasé-en garaia da, nork bere buruaz beste egitearena, goizegi zahartu izanaren airearena ibileran eta sentieran. Gazteak zaharra imitatzen du, haren neke-jarrerak hobesten ditu eta bere gaztetasuna uzteko lehiatzen da. XIX. mendeko belaunaldi guztiak saiatu dira ahalik eta lasterrean helduak izaten eta lotsa harri garria sumatzen zuten beren gaztetasunaz. Aldera bitez beren gaztaroa neurri gabe luza eta bertan behin betiko iraun nahi duten oraingo gazteekin -neska zein mutil.

Pauso bat atzera egiten badugu, vieillot gorena den mendean erortzen gara, XVIII.enean, gazte dohain orori gorroto baitio, higuin ditu sentimendua eta grina, gorputz malgu eta biluzia. Zaharkituen aldeko liluraren mendea da, Voltaire hilotz bizia zimurren irri kontagaitzaz bere buruari irribarreka igarotzean dardaraka hasten dena. Bizikera hori azken muturreraino eramane beharrez, adinaren elur antza darama buruan, eta peluka

hautseztatuak bekoki udaberritiar oro -gizon zein emakume- estaltzen du hirurogei urte balitu bezala.

Alegiazko atzera jotze honetan XVII. mendera iristean, lañoki harrituta, honela galdegin behar dugu: Nora aldegin dute gazteek? Adin honetan balio duen guztiak berrogei urte dituela ematen du: jazkerak, usuarioak, portaerak, adin horretako jendearentzat bakarrik dira egokiak. Ninon-engan heldutasuna bakarrik preziatzen da, ez gaztaro iluna. Ehunkadan Descartes da nagusi, espainol eran jantzia, beltzez. Raison delakoa bilatzen da nonahi eta guztien gainetik teologiak pizten du interesa: jesuitak Jansenioen aurka. Pascal haur jeinua geometrariaren zahartasuna aurreratzen duelako da jeinua.

El Sol, 1927ko ekainaren 9an.

II

Bizitzako edozein keinu, edo nagusitasun keinua da edo morrontzako keinua. Tertium non datur. Bion artean itxuraz tartekatzen den borroka keinua, berez, jokaera bateko edo bestekoa da. Eraso-gerla garaipenaren segurtasunak bultzatzen du eta nagusitasuna aitzinatzen du. Defentsako gerlak joko gaiztoak erabiltzen ditu, gogoaren hondarreen bere burua baino estimu handiagotan baitu erasotzailea. Hau da jarrera-estilo bat edo bestea erabakitzen duen arrazoia.

Morroi keinua, bere baitan funtsatzen ez delako da halakoa, ez dago bere balioaz ziur eta aldioro besteekin alderatuz bizi da. Besteen beharra du nola edo hala; haien onespena behar du lasaitzeko, haien bihozberatasuna eta barkamena ez denean. Horregatik, keinuak besteekiko erreferentzia eramaten du beti. Zerbitzatzea, gure bizitza bestek onetsiko edo erabiliko dituelako bakarrik balio duten jardunez betetzea da. Beste izaki horren bizitzatik begiratuta bakarrik dute zentzua, ez gure bizitzatik. Eta hauxe da, berez, morrontza, besterengandik bizi izatea, ez nor bere baitarik.

Nagusitasun estiloak, berriz, ez darama lagun garaipena. Horregatik inoiz baino garbiago agertzen da defendatzailearen hondamendi osoarekin bukatu ziren defentsazko gerla-kasu batzuetan. Numantzia eredia da. Numantziarrek uste sendoa zuten bere buruarekiko. Erromaren aurkako kanpaina luzea erasotzaile izaten hasi zen.

Etsaia mesprezatzen zuten eta, egiazki, behin eta berriz menderatu zuten¹¹³. Geroago, bere indar nagusiak bilduta eta hobeki antolatuta, Erromak Numantzia estutzen duenean, honek, esango dute, defentsari ekin zion, baina berez ez du bere burua defendatzen, desegiten baizik, suntsitzen. Etsaiaren indar nagusitasunaren gertakari materialak bere buruaren suntsipena nahiago izatera eramaten du arima menderatzaileko herria. Bere baitarik baizik ez baitaki bizitzen, eta halabeharrak opa dion bizimodu berria -morrontza- sinesgaitza gertatzen zaio, bizitzearen beraren ukoa iruditzen zaio; heriotza da, beraz.

Aurreko belaunaldietan gazteria heldutasunaz kezkatua bizi zen. Adinekoak miresten zituen, arauak hartzen zituen haiengandik -arte, zientzia, politika, usuario eta bizimoduan-, haien onespena espero zuen eta beldur zion haien haserreari. Bere buruari, adin horretan berezia denari, ezkutuka eta saiheska bezala bakarrik ematen zitzaion. Gazteek beren gaztetasuna arau hauste bat bezala sumatzen zuten. Hau gertakari batean nabari zen: gizarteko bizimodua ez zegoen beraiei begira antolatua. Ohiturak, atsegin publikoak, pertsona helduei dagokien bizimoduari moldatuak ziren eta gazteek pozik egon behar zuten helduek uzten zizkieten kondarrekin edo bestela gaiztakeriari eman. Jantzi ere zaharrak bezala egitera behartuta zeuden: modak jende helduaren beharretara zeuden egokituta. Neskatilen ametsa "luze" jaztea zen, hau da, beren amen soinekoak erabiltzea. Laburki, gazteria helduen zerbitzutan bizi zen.

Arlo honetan gertatu den aldaketa liluragarria da. Egun, gazteriak zalantzarik gabe egoeraren jaun eta jabe dirudi, eta bere mugida guztiak nagusitasunez beteak daude. Bere keinuan oso nabaria da beste adinaz ez duela ardura-izpirik ere. Egungo gazteak

halako erabakiz eta oldarrez bizi du bere gaztetasuna, halako lasaitasunez eta segurtasunez, non horretan bakarrik bizi dela ematen duen. Ez zaio batere axola helduek gazteriaz pentsatzen dutena; areago: hauen balioa bere begietan barregarri antzera gertatzen da.

Gauzak aldatu egin dira. Gaur gizon eta emakume helduak ia aztoraturik bizi dira, bizitzeko eskubiderik ere ez izatearen susmoaz. Gazteriak gazteria gisa mundua hartu duela nabaritzen dute eta morrontzazko keinuak egiten hasiak dira. Gutxienez, jazkeran imitatzen dute. (Maiz defendatu izan dut modak ez zirela arinkeria hutsa, aitzitik, historiaren aldetik axola handiko gertakariak arrazoi sakonek eraginak. Oraingo adibideak soberan argitzen du adierazpen hori).

Oraingo modak gorputz gazteentzat asmatuak dira, eta seme-alaben antzera jantzi beharrez dabilzan aita-amen egoera tragikomikoa da. Oso bizitzaren gailurrean garenok, egindako bidean pixka bat atzera jo beharrean gara, huts egin bagenu bezala, eta -gogoz edo gogorik gabe- garen baino gazteago egin. Arazoa ez da joan zaigun gaztetasun baten itxura egitea, baizik eta bizitzak berak hartu duen neurria gazteena delarik hura onartzera behartuta egotea. Jazkerarekin bezala gertatzen da gainerako guztiarekin. Usuarioak, atseginak, ohiturak, portaerak, efeboen neurrira ebakita daude.

Gertakaria bitxia da, izugarria, eta batera sortzailea eta arrazoigabea den bizitzaren ahalmenaren aurrean nik askotan neure bizitzan zehar gartsuki gomendatu izan dudana apaltasun eta jaidura horretara deitzen du. Gogoan hartu, Europan gaur egun, gizarte-bizitza erdiko klaseetako gazteak bakarrik gustura bizi daitezen dagoela antolatua. Helduak eta aristokraziak bizitzako joan-etorrietatik at gelditu dira, agerpide horretan bi gertakari diferente lotzen direlarik -gaztetasuna eta masa- garai honetako dinamikan nagusi. Erdiko bizimodua hobetu egin da -atseginbideak, esaterako- , eta, aristokraziek, berriz, ez dute jakin masatik aldenduko dituzten finezia berriak sortzen. Beraientzat gauza garestiagoak erostea bakarrik gelditzen da, baina erdiko gizonak erabiltzen dituen mota orokor berekoak. Aristokraziak 1800etik alde politikoa, eta 1900etik sozialean, errautsiak gertatu dira, eta historiaren legearen arabera, aristokraziak ezin dira errautsi alde aurretik ezinbesteko endekatzean erorita izan ezik.

Baina gaztetasunaren garaipen hori gertakari batek azpimarratzen du beste ezerk baino areago, eta Europako balioen iraulketa zein sakona den ere erakusten du. Gorputzarekiko miresmenaz ari naiz. Gaztetasunean pentsatzen denean, gorputzean pentsatzen da batik-bat. Arrazoi batzuegatik: lehenengo eta behin arimak freskotasun iraunkorragoa duelako, zenbaitetan gizakien zahartzaroa ere apaintzen duelarik; bigarrenik, arima osoagoa da heldutasunaren aldi batean gaztaroan baino. Izpiritua, batez ere -adimena eta nahimena- bizkorragoa da, zalantzarik gabe, bizitzaren gailur betean igoaldian baino. Gorputzak, berriz, bere lorea -bere akmé-a greziarren esanetan- gaztaro doi-doian du, eta, alderantziz, erori egiten da ezinbestean, hau igarotzen denean. Horregatik, historiako gora-beheren gainetik begiratuta, sub specie aeternitatis, nolabait esan, gaztetasunak begiratzean ematen du atsegin handiena, eta heldutasunak, entzutean. Gazte batengan miresgarria, kanpokoa da; gizaki helduarengan miresgarria, barrukoa.

Hara, bada: egun nahiago da gorputza izpiritua baino. Ez dut uste Europako egungo bizitzan adierazgarri garrantzitsuagorik dagoenik. Beharbada aurreko belaunaldiak gehiegi gurtu dute izpiritua eta -Ingalaterra izan ezik- gehiegi arbuia haragia. Komeni zen, gizakiari, ez dela arima hutsa, izpiritu eta gorputzaren elkartasun miresgarria baino, ohartaraztea eta gogoratzea.

Gorputza berez umekeria da. Egun eragin duen zaletasun suharrak umekeriaz bete du kontinenteko bizitza, XIX. mendea bihurritu zuen adimenaren eta nahimenaren tentsioa laxatu du, uztaia tiratuegi baitzegoen korapilatsuegiak ziren jomugetarantz zuzenduta. Har dezagun atsedean une batez gorputzean. Europak -bere aurrean arazorik latzenak

dituenean- oporrak hartzen ditu. Gorputz biluziaren giharrek jauzi egiten du malguki, airean hegaka haizez beterik goragoko zernahitarako bere erdeinua agerian erakusten duen baloi baten atzetik.

Alemaniko ikasle-elkarteek unibertsitateko ikasketa-plangintza murrizteko eskatu dute bortizki. Ematen zuten arrazoia ez da itxurazkoa; premiazkoa zen ikastorduak urritzea, denbora beren jolas eta olgetarako, "bizia bizitzeko", behar baitzuten.

Gazteriak gaur egun egiten duen nagusitasun keinu hau ederra iruditzen zait. Eragozpen soil bat bururatzen zait. Bere momentuari hain osoki ematea zilegi da, gaztetasunaren eskubidea gaztetasun gisa antzinako morrontzaren aurrean adierazten baitu. Baina ez ote da gehiegi? Gaztaroak, bizitzako aroa, badu berekiko eskubidea; baina aro bat denez gero ezinbestez iragankortasunaren kutsua darama. Bere baitan itxirik, ondoko aroetara daramaten zubiak eten eta ontziak errez, bizitzako beste aldiekiko errebelamendua eta separatismoa aldarrikatzen dituela dirudi. Uste okerra baldin bada gazteak ez duela zahar izateko prestatu beste eginbeharrik, ez da huts txikia ardura hori erabat saihestea ere. Izan ere, bizitzak, berez, heldutasuna behar baitu; beraz, gaztetasunak ere behar du. Bizitza antolatu beharra dago: zientzia, teknika, aberastasuna, bizi-jakitatea, era guztietako sorkariak beharrezkoak dira gazteriak tokia eta jolasa izan ditzan. Oraingo gazteriak, hain loriatsua, heldutasun desegoki batera iristeko arriskua du. Gaur egun, gaztarorik gabeko belaunaldiek sortu dioten aisia loratsua gozatzen ari da¹¹⁴.

Bizitzak hartu duen gaztetasun itxuragatiko nire poza kezka honen aurrean bakarrik gelditzen da. Zer egingo dute berrogei urteetan Europako futbolariak? Mundua zinez baloia baita, baina barruan haizea baino zerbait gehixeago daukana.

El Sol, 1927ko ekainaren 19an.

Arra ala emea?

I

Ez dago dudarik, gure garaia gazteen garaia da. Historiaren pendola, beti ezinegon, "gaztetasun" koadrantetik igotzen ari da orain. Bizikera berria orain asko ez dela hasi da, eta berrogei urteetatik hurbil dabilen belaunaldia inoiz izan den dohakabeenetakoa gertatu da. Gaztea zen artean European zaharrak baitziren errege, eta orain, heldutasunean sartu denean, agintea gazteriara igaro dela ikusten du. Beraz, garaipenaren eta nagusigoaren aldia faltatu zaio, bizitzan errege den ordenarekin egokitasun atsegineko sasoia. Labur esanda: munduaren alderantziz bizi izan dela eta, esturoiak bezala, atsedetik gabe denboraren lasterraren aurka igeri egin beharra egokitu zaiola. Zaharrenek eta gazteenek ez dute ezagutzen inoiz ur azalean lasai egon ez izanaren halabehar latz hau; esan nahi dut, pertsonak bere burua aldeko indar batek eramana inoiz ez sentitzearena, aitzitik, egunez egun eta urtez urte airean bizi behar izan zuen, bizitzaren azalean irauteko indar eginez. Baina beharbada bere burua une bakar batean ere noraezean ezin utzi honek izugarri zaildu eta garbitu du. Gehien borrokatu duen belaunaldia da, borroka gehien irabazi duena eta garaipen gutxien izan duena¹¹⁵.

Utz dezagun, ordea, oraingoz ukitu gabe bitarteko belaunaldi horren gaia eta oraingo egoeraz ardura gaitezen. Ez da nahikoa gaztetasun-aldian bizi garela esatea. Horrekin, adinen erritmoaren barruan definitu besterik ez dugu egin. Baina honekin batean historiaren muinean sexuen erritmoak ere eragiten du. Gaztetasun aldia! Ederki. Baina gizasemeena ala emakumeena? Auzia sotilagoa da, zailagoa -lotsakizuna ia. Garai baten sexua aurkitzea baita.

Honetan asmatzeko, psikologia historikoaren zeregin guztietan bezala, ikuspuntu goititua hartu behar da, gizontasunari eta emetasunari dagokienaz ideia estuak alde batera utzita. Lehenengo eta behin, premiazkoa, gizontasuna, batez ere emakumearekiko zerikusiaz ulertzeko oker zabarra alde batera uztea da. Horrela uste duenarentzat, oso gizona da batik-bat damak kortejatzeaz eta eme egokiez hitz

egiteaz arduratzen den zaldun harroa. Gizaseme-mota hau zen gailen 1890 inguruan: jantzi barrokoa, lebita handiak hegala airean zeramatzatela, plastroia, mosketero bizarra, ilea kiribildua, desafio bat hilero. (Moda aztertzaile zorrotzak berehala ikusten du honek iradokitzen zuena: gizasemearen gorputza oihala eta ile oparotasunaren azpian ezkutatzea. Agerian eskuak, sudurra eta begiak bakarrik gelditzen ziren. Gainerakoa itxurazkoa zen, ehun literatura, ile apaindura. Gezurrezko eleketaren garaia da: legebiltzarreko mintzaldiak eta "fondo-artikuluen" prosa¹¹⁶.)

Gizonaz gogoeta egitean lehendabizi emakumearekiko joera aipatu beharrak, besterik gabe, garai horretan emetasunaren balioak zirela nagusi erakusten du. Estimatuena eta liluragarriena emakumea denean bakarrik du zentzua, gizona, hari eskaintzen dion zerbitzu eta jaiduraren arabera preziatzea. Ez dago agerpen nabariagorik gizontasuna baztertuta eta gutxietsia egotearena. Ez baitago inoiz emakumea definitzerik gizona aipatu gabe; gizonak, berriz, bere alderik handiena eta onena, emakumea existitzea edo ez existitzetik erabat kanpo egoteko pribilegioa du. Zientzian, teknikan, gerlan, politikan, kirolan, etab., bere nortasunaren bizi-gunearekin aritzen da gizona, emakumearen funtsezko partaidetzarik gabe. Neurri handi batean gizonari bere kasa moldatzeko balio dion pribilegio hau, sumingarri gertatuko da agian. Baliteke horrela izatea. Nik ez dut ez txalorik jotzen ez gaitzesten, baina asmatzen ere ez. Naturak, bere nahi gupidagabeaz, gogoan harrarazten digun lehen mailako egia da.

Egiazaletasunak, beraz, gizontasuna nagusi duten historia-aldi guztiek emakumearekiko axolagabekeria dutela ezaugarri esanarazten dit. Hau, hain baztertuta gelditzen da bizitzako zokoan non historialariak, urrundik begiratzen behartuta, apenas nabaritzen duen. Historiako sortan gizonak bakarrik agertzen dira, eta, egiazki, gizonak gizonekin bakarrik bizi dira sasoian. Emakumearekiko harreman normala, bizitzako gauza garrantzitsuenak gertatzen diren egunaren alde argitsutik kanpo gelditzen da eta ilunpetara biltzen da, sen hutsei -sentsualitatea, aitatasuna, familiatasunari- eskainitako ordu txikien lurpean. Gizontasun aldi berezia Periklesen mendea izan zen, gizasemeentzako bakarrik zen mendea. Jendaurrean bizitzen da: agora, gimnasilekua, kanpamentua, hiruarraunekoa. Gizon heldua efebo biluzien jokoetara joaten da eta gizonaren edertasunaren dohain finenak bereizten ohitzen da, eta zizelariak marmolean jasoko ditu. Bestalde, gaztetxoak giro atikoan, atarian jarrita makulua besapean dauden dialektiko zaharrek jaulkitako hitz zorrotzen jarioa edaten du. Emakumea?... Bai, azken orduan, gizonen oturuntzan, xirulari eta dantzari-multzoan sartzen da eta bere trebetasun apalak erakusten ditu hondotan, jokalekuko hondo-hondotan, motelduz doan elkarrizketaren sostengu eta pausa gisa. Noiz edo noiz emakumea pixka bat aurreratzen da: Aspasia. Zergatik? Gizonen jakitea ikasi duelako, gizondu egin delako.

Greziarrak emakume gorputz ospetsuak zizelatzeko jakin badu ere, emakumearen edertasunaz hark zuen ikusmoldeak ez zuen gizonaren edertasunaz sentitzen zuen zaletasunetik askatzea lortu. Miloko Venusa irudi giza-emea da, bularrak dituen atleta antzeko bat. Eta kontraesan barregarria da halako irudia europarren atxikimendurako XIX. mendean proposatzea, emakotasun hutseko, gartsuko, erromantizismoz eta jaiduraz hordituenik bizi zirelarik. Greziako artearen kanona mutil kirolariaren tankeran finkatu zen, eta hau nahikoa ez zuenean hermafroditarekin amets egitea nahiago izan zuen. (Bitxia da ikustea haurren lehen sentsualitateak normalean hermafroditarekin amets eginarazten diola; geroago, gizaseme eta emakume formak bereizten dituenen, -aldi batez- atsekabe mingotsa hartzen du. Forma emea arraren forma motza iruditzen zaio; beraz, gauza osatugabe eta zauritua¹¹⁷.)

Okerra litzateke ar-zaletasun hau, Periklesen mendean gailen, emetasunaren balioekiko Greziako gizonaren jatorrizko itsumen bati leporatzea, eta honen kontrakarrean

germaniarren emakumearekiko ustezko errendatzea aipatzea. Egia esateko, Grezian garai klasikoaren aurreko beste denbora batzuetan emakoitasuna izan zen nagusi, germaniarren beste garai batzuetan gizakoitasuna gailendu zen bezalaxe. Hain zuzen ere, sexu baten eta bestearen aldien arteko diferentzia beste edozein adibidek baino hobeki Erdi Aroan gertaturikoak argitzen du, berez bi zatitan banatzen baita: lehena gizasemeena; bigarrena, XII. mendetik, emakumeena.

Lehen Erdi Aroan bizitzak itxura zakarra du. Egunero borrokatu behar izaten da, eta gauean, orgiako lasaipide eta zoraldiarekin eginahala berdindu. Gizona ia beti kanpamentuetan bizi da, beste gizonekin bakarrik, gizon-jardunetan etengabeko lehian: esgrima, zaldiak, ihiza, edana. Gizonak, garai hartako testu batek dioenez, "ez du hil arte bere zaldiaren zurdatik urrundu behar eta lantzaren itzalpean igaroko du bizia". Are Danteren garaian ere zenbait noblek -Lamberti eta Soldanieritarrek- zaldigainean lurperatuak izateko pribilegioa gordetzen zuten¹¹⁸. Halako ohitura-paisaian, emakumeak ez du eginkizunik eta ez du esku hartzen lehen mailako, nolabait esan, bizitzan. Uler dezagun: garai guztietan desiratu izan da emakumea, ez, ordea, guztietan estimatu. Horrelaxe garai latz honetan. Emakumea gerlako harrapakina da. Mende hauetako germaniarrak emakume eredu amesten duenean, walkiria sortzen du, eme borrokalaria, gizaseme jarrerak eta trebetasunak dituen marimutil gihartsua.

Bizimodu zakar honek Europaren etorkizunaren lehen oinarriak sortzen ditu, lur azpia. Honi eskerrak jada XII. mendean aberastasun pitin bat pilatzea lortu da; ordena, bake eta erosotasun apur bat izatea. Eta horra non, berehala, udaberriko egun batzuetan bezalaxe, historiaren aurpegia aldatzen den. Gizonak fintzen hasten dira, hizketan eta portaeran. Orain ez da keinu zakarra preziatzen, neurtua, txairoa, baizik. Etengabeko liskarraren orde, solatz e deport dator -hots, solasa eta jolasa. Aldaketa, emakumea bizitza publikoan agertzeari zor zaio. Karolingioen gortea gizasemek bakarrik osatzen zuten. Baina XII. mendean Proventzako eta Burgundiako goi-damek, gerlarien Estatuaren aurrean eta klerigoen Elizaren aurrean, emetasun hutsaren balioa aldarrikatzeko ausartzia harrigarria dute. Biziera publiko berri honek, emakumea erdigunea delarik, Estatuaren eta Elizaren aurrean, mende batzuk beranduago "sozietate" deituko denaren ernamuina dauka. Orduan "gorte" esan zioten; baina ez antzinako gerla eta justiziako gortea bezala, "maitasun gortea" baizik.

El Sol, 1927ko ekainaren 26an.

II

Kultura eta bizi-estilo berri bat da, ez gutxiago. XII. mendera arte ez baitzuten aurkitu bizitzaren atsegina, munduzaletasuna aldarrikatzeko biderik, Elizak lurreko gauza guztien gainera erorarazi zuen "tabu" gogorraren aurrean. Orain Cortezia agertzen da clerezia-ren garaitzaile. Eta cortezia, lehenengo eta behin, emakumearekiko jaidurak eragiten duen bizimodua da. Berarengan, araua eta sorkuntzaren gunea ikusten da. Borrokaren edo anatemaren indarkeriarik gabe, eme-emeki, emakumetasuna historiako botere gorenera iristen da. Nola hartzen dute uztarri hau gudariak eta apaizak, borrokabide guztiak beren eskuetan zituztelarik? Ez dago adibide argiagorik "denboraren sentimenak" duen indar hezigaitzaz. Berez, hain boteretsu denez, ez dauka borroka egin beharrik. Belaunaldi berri baten nerbioen gainean jarrita iristen denean, munduan kokatzen da, besterik gabe, ezin eztabaidatuzko jabegoaz bezala.

Gizasemearen bizimoduak gizonaren aldiko neurria galtzen du eta estilo berrira egokitzen da. Haren armek, gudua baino, damen ikuskari diren zaldun desafioak eta torneoak nahiago dituzte, Gizonen jazkiak emakumearen jazkeren antza hartzen hasten dira, gerria estutuz eta golkoa irekiz. Olerkariak pixka bat uzten du gizon-heroia goresteke gesta-kanta eta troba lantzen du, asmatua

sol per domnas lauazar.¹¹⁹

Zaldunak emakumearengana desbideratzen ditu bere ideia feudalak eta dama bat "zerbitzatzea" erabakitzen du; erredolan ipintzen du haren ikur-hitza. Aldi honetatik dator Andre Mariarenganako jaidura, axolako eremuetan emakumetasunaren sarrera, ilargi azpiko munduan gertatua, dakarrena. Emakumea gizonaren eredu bihurtzen da, eta eredu guztien forma izatera iristen da. Horregatik, Danteren denboretan, emakumearen irudiak bikaintasun guztien, amets guztien alegoria izatea bereganatzen du. Azken finean, Genesiak dioenez, emakumea ez da gizona bezala buztinez egina, gizon ametsez baizik.

Begininia, erraz ugaltu genitzakeen iraganeko eskema hauetan zorrozturik, oraingo ikuskizunera itzultzen da eta berehala antzematen du gure garaia, gaztetasun garaia ez ezik, gizonezkoaren gaztetasun garaia ere badela. Munduaren jabe gaur egun mutil gaztea da. Eta horrela da, ez konkistatu duelako, erdeinuaren erdeinuz baizik. Gaztetasun arrak bere burua finkatzen du, bere nahi eta egarrietara ematen da, bere ariketa eta zaletasunetara, bestetaz arduratu gabe, bere gaztetasuna ez den ezer onartu edo gurtu gabe. Harrigarria da gaztetasunaren ideia bera izan ezik, ez ezer ez inor ez "zerbitzatzeko" gazteen erabakia eta adostasuna. Gaur egun ezerk ez luke zaharkituagoa emango 1890.eko zaldun harroputzak emakume bati lausengu hitz bat, txirbila baino kiribilagoa, esatera hurbiltzean egin ohi zuen keinu errendatu eta makurtu hura baino. Neskatzek lausenguak hartzeko ohitura galdu dute, eta duela hogeita hamar urte gizontasunaren erretxina guztiak zerizkion keinu horri emekeria kutsua hartuko liokete.

"Ematu" hitzak bi adiera baititu, oso bestelakoak. Batean gizon berezia esan nahi du, fisiologiak eme samarra dena. Gizaki-mustro hauek garai guztietan dira, gizadiaren fisiologiazko desbideratze gisa, eta beren izate patologikoak ezein garaiko normaltasunaren agerpen izatea eragozten die. Baina beste adieran, "ematu" hitzak homme à femmes esan nahi du, emakumeaz oso kezkaturik dagoen gizona, haren inguruan jiraka dabilena eta bere jarrera eta pertsona ikuslego eme bati begira moldatzen dituen. Sexu honen garaian, halako gizonak oso gizon dirudite; baina gizonen aldia datorrenean beroiengan dagoen emetasuna agertzen da, bere fanfarroieria gora-behera.

Egun, gizon balioak nagusitu diren guztietan bezala, gizonak estimatuagoa du bere irudia beste sexuarena baino eta, ondorioz, bere gorputza zaindu egiten du eta erakusteko joera du. Agure "ematuak" gizonaren gorputzaren aldeko gazteen zaletasunari eta zaintzeko duten ardurari emetasuna deritza, baina erabat alderantziz da. Mutilak elkarrekin bizi dira estadio eta kiroldegietan. Ez zaie axola beren jolasa besterik, eta jarrera edo trebetasunaren egokitasuna. Beraz, etengabeko lehian eta norgehiagokan bizi dira, gizonezko dohainei buruz. Gorputza ariketetan oihalestallirik gabe behin eta berriz ikusita, gizonaren edertasun fisikoaren oharren zorrotza lortzen dute, bere begietan balio izugarria hartzen duelarik. Gogoan hartu ulertzen diren gauzen bikaintasuna bakarrik ederresten dela. Bikaintasun horiek bakarrik, argiro atzemanak, erakartzen dute eta kokiltzen gogoat¹²⁰.

Hau dela eta, gizonezkoen modak urte hauetan gizon gaztearen arkitektura nabarmentzen saiatu dira, XIX. mendetik jasotako jazkera soilduz, desegokia baitzen horretarako. Premiazkoa zen jantzi ikaragarri hori osatzen duten oihalezko hodi edo zilindro horien azpian futbolariaren gorputza agertzea.

Beharbada greziarren denboretatik ez da gizonezkoen edertasuna orain adina preziatu. Eta begirale zorrotzak sumatzen duenez, emakumeak ez dira orain beste eta honen lotsagabeki gizon egokiez mintzatu. Lehen bazekiten gizonaren edertasunarekiko miresmena isiltzen, halakorik sentitzen bazuten. Baina, gainera, esan beharra dago orain baino askoz ere gutxiago sentitzen zutela. Psikologo zahar batek, gai hauetaz gogoeta egiten ohitua, badaki emakumeak gizonaren gorputz edertasunarekiko duen miresmena,

atleta egokitasunean oinarritutako edertasunaz batez ere, ez dela inoiz berezkoa. Gizon egokiarentzako gorespen zinikoa emakumearen ezpainetatik jaulkitzen hain maiz entzutean, inozoki eta besterik gabe honako ondorio hau atera beharrean: "1927ko emakumeari gizon egokiak izugarri gustatzen zaizkio", aurkikunde sakonagoa egiten du: 1927ko emakumeak balioak berorrek sortzeari utzi dio eta gizonezkoek garai honetan sentitzen duten ikusmoldea bereganatu du, hau da, atletaren irudi bikainarekiko miresmena. Beraz, gizonaren ikusmoldearen nagusitasuna azaltzen duen lehen mailako agerpen bat ikusten du bertan.

Ez litzateke horretarako eragozpena izango, emakume irakurleren batek, bere barnea zinez arakatuta, gizonen edertasunaz zuen estimua mutil gazteen iritziak eragina zela ohartzen ez zela aitortuko balu. Eragin kolektiboa izan eta bizitza historikoa alde batera zein bestera bultzatzen duen ezertaz ez gara inoiz konturatzen, gure izarbel honek daraman izar mugimenduaz konturatzen ez garen bezala, edota gure zelulak obratzen ari diren eginkizun kimikoaz ere. Norberak, bere-bereak omen diren arrazoiak direla bide, bere kasa bizi dela uste du. Baina gure kontzientziaren azal horren azpian izengabeko indar handiak ari dira, historiako alisio ahaltsuak, beren apetaz garabiltzaten haize ufada larriak.

Gaurko emakumeak ez daki ere zergatik erretzen duen, zergatik jazten den jazten den bezala, zergatik lehiatzen den kirol fisikoetan. Emakume bakoitzak bere arrazoi berezia emango du, egiaren bat izango duena, baina ez nahikoa. Halabehar handiskoa da presentean emakumearen jarduerak maila guztietan honako berdintasun hau izatea: gizonaren antz-azturak hartzea. XII. mendean gizona emakumearen antzera jazten bazen eta haren eraginez bertset ezti-gozaok egiten bazituen, gaur egun emakumeak gizona imitatzen du jazkeran eta honen jolas zakarrak bereganatzen ditu. Emakumea bere gorpuztasunean beste sexuaren eiteak bilatzen saiatzen da. Horregatik, oraingo modetan bereziena, ez da estaltze urria, horren alderantzizkoa baizik. Aski da egungo jantzia beste Direktorio nagusi -1800- bateko garaian erabiliarekin alderatzea funtsezko aldaketa ikusteko, are adierazgarriagoa antz handiaren arabera. Direktorioko jantzia ere tunika soil bat zen, aski motza, ia oraingoa bezalakoa. Hala ere, biluzi hura, emakume biluzi gaizto bat zen. Orain, emakumea mutiko bat bezala doa biluzirik. Direktorioko dama emakumearen berezko ezaugarria nabarmentzen, lotzen eta erakusten zuen: tunika hura txortetik soilena zen bularreko loreari eusteko. Oraingo jantziak, itxuraz hain oparoa biluztasunean, ezkutatu, suntsitu, gorde egiten du emearen bularra.

Oker psikologikoa da indarrean dauden modak, nagitu edo egin direla eta, gizasemearen zentzuak zirikatze gogoaren bidez azaldu nahi izatea. Nagitasun hau horrela da, eta nik ez dut ukatzen jazkeren eta jarreraren atalean asmo zirikatzaile horrek eragina duenik; baina egungo emakumearen irudia alderantzizko asmo batek eragina da: gizon gaztearen antz pixka bat izatearenak. Egungo emakumearen ausartzia eta lotsagabezia, emaztekiarenak baino areago, bere haragi malgua egurasten duen mutilaren ausartzia eta lotsa falta dira. Erakuts-nahi lizun eta lohi baten erabat alderantzizkoa, beraz. Seguru aski, sexu-harremanak ez dira inoiz orain baino sanoagoak, paradisutarragoak eta neurtuagoak izan. Arriskua, egia esan, kontrako joeran dago. Beti gertatu izan denez, historian gizasemeen aldiek, emakumeaz axolagabeturik, gurtza harrigarria opa izan baitiote maitasun dorikoari. Horrela Periklesen denboran, Zesarren denboran, Pizkundean.

Zozokeria da, beraz, moralaren izenean, oraingo gona moztasunaren aurka aritzea. Apaizen artean milaka urtetako ezinikusia dago modagileen aurka. XIII. mendearen hasieran, dio Luchaire-k, "sermoi-liburuek atergabe erasotzen diote gonon gehiegizko luzeerari, diotenez, deabruak asmatuak baitira"¹²¹. Zertan gelditzen gara? Zein da deabruzko gona? Motza ala luzea?

Gaztaroa emakumearen aldi batean igaro duenari, atsekabea eragiten dio ikusteak nolako apaltasunez emakumea, tronua galdurik, saiatzen den arreta erakartzen eta gizonen artean onartua izaten. Ildo horretatik, mutilek maite dituzten gaiak onartzen ditu elkarrizketan eta kirolez eta automobiler hitz egiten du, eta cocktail-en erronda pasatzen denean ausarki edaten du. Emakumeak gizartean izan duen botere murrizte hau da elkarbizitza gure egunotan honen zakarra izatearen arrazoia. Cortezia-ren asmatzailea emakumea delarik, berau gizarteko lehen mailatik aldentzeak deskortesiaren agintepea ekarri du. Egun ulergaitza litzateke XVI. mendean, Espainiako santu batzuk dohatsu egin behar zituztela eta -tartean San Inazio, San Frantzisko Xabierrekoa eta Santa Teresa Jesusena- gertatu zen harako hura. Elizkizuna dexente atzeratu zen kardinalen artean sortu zen eztabaida zela eta, ea zeinek sartu behar zuen lehendabizi dohatsutasun ofizialean: Cepeda damak ala gizonezko jesuitek.

El Sol, 1927ko uztailaren 3an.

II. Eraskina

[Masen erreboltaz]122

Nahiago nuen Ingalaterrako neure bidaia labur honetan inoren aurrean mintzatu behar izan ez banu. Nire bidaia isila izatea nahiago nuen. Argitu beharra baitaukat, harrigarria bada ere, hauxe dela nire lehen bidaia erresuma honetara. Atzerapen estonagarri honen arrazoiak ez dira hemen eta orain aipatzekoak. Bakarrik esango dut, Ingalaterrako lehen bidaia bat, neure bizitzaren luzapena neure buruaren aurrean justifikatzeko gordea neukan birjintasun susmagaitzen bilduman zegoela, birjintasun ororen zentzua noizbait galtzean dagoenez gero, etorkizuneko promesa antzeko zer bait adierazten baitu.

Baina Canning House-k behin eta berriz eskatu dit zuei informalki hitz egiteko eta neure burua proposamen horretatik babesten saiatu banaiz ere, amore eman dut azkenean Livermore jauna nitaz kexu ez dadin. Bere zoritxarrerako, ni egun hauetan pieza bat izan naiz Glasgow-eko Unibertsitateak bere bosgarren mendeurrena ospatzeko antolatutako duen festa bikain baina gupidagabe horretan. Egunotan ez dut minutu bat ere izan bakardadera bildu eta hitzaldi hau behar bezala aurretik hausnartzeko. Unibertsitateko jantzi biziki koloretsuez jantzita ibili behar izan dut, Irletako txori bihurtzen nindutelarik, hamaika mintzaldi entzun behar izan dut, ezin konta ahal elkarriketari ekin, eta honengatik guztiagatik akiturik eta husturik iristen naiz zuengana. Ez ezazue, beraz, deus baliokorik espero ene jardun honetan. Besterik gabe, pixka bat mintzatuko naiz nire liburu batez, ingeles hiztunen interesa pizteko zoriona edo zoritxarra, nik ez dakit, izan baitu. Gertakariaren berezitasun bakarra da, hauxe izatea hain ezaguna den liburu horretaz neure bizitzan mintzatzen naizen lehenengo aldia. Irla zorrotz honetan galduko dudana beste birjintasun bat.

Nire entzule asko, espainola ikasten ari diren arren, eroso aditzen ez dutenez gero, nire esanak astiro esaten eginahala egingo dut, hitzak elkarrengatik bakanduz. Hemen diren hispano-amerikarrek barkatuko didate horrek sortuko dien nekea. Espainiarrak, berriz, gogait eginik daude niri entzuten, beraz, egotea daukate, sakrifizio txiki batekin propagandaren kontura. Honek, noski, hitzaldiaren tempo-a eta doinua kentzen ditu.

Bego argi bakarriketa moduko solasaldi honetako gaia Livermore jaunak agindua dudala, adeitsuki bada ere. Asmoa zen duela mende laurdena "Masen errebolta" izendatu nuen auziaren egungo egoeraz mintzatzea. Oso labur ariko naiz, gaiak -alegia, zer gertatzen den masekin egun, duela hogeitau urte pasatxo nik barrundatu uste nuenarekin alderatuta- naharoki jorratzeko oso garapen zabala behar bailuke.

Bereziki egin behar dudana aurkezpeneko azken ohar bat. Gogoan har ezazue gaur -gauzak daudenean daudela- neure liburu zaharraz esan behar nukeenaz hitz egiteko deitu didatela -beraz, nirea den zerbaitetaz eta neure buruaz hitz egitera behartua nago. Ongi dakit ingelesek debekatu egiten dutela nork bere buruaz hitz egitea edo idaztea. Izengabetasuna nahiago dute. Izango nuke gaiak zer esan aski, baina horrek neure buruaz mintzatzea baino gauza desegokiagorik egitera behartuko ninduke, alegia: ingelesei buruz mintzatu behar nuke eta sakon mintzatu ere, horrelako gauzarik agian -iradokitzen ausartzen naiz- inoiz egin ez delarik. Gizaki ingelesa, irla honetan gauzatu den gizon-izaera, mendebaleko giza mota berezien eta bitxienetakoa, argitzeko eta azalpen bat emateko dago oraindik, hori irispidean balego ere.

Has gaitezen, bada, nire liburutik eta nigandik. Ikusiko duzue, hori egitean, nola moldatuko naizen neure burutik aldentzeko, objektu bihurtzeko, hor kanpoan gertatu den zerbait, mundu zabalean, neure burua jirafa edo ornitorrinko bat aipa nezakeen bezalaxe aipatuko dudalarik.

Nire liburua, La rebelión de las masas, 1927an hasi zen agitaratzen, baina bertako gogoeta asko aurreratuta daude lehengo beste batean, 1921ean España Invertebrada izenburuaz agertua. Beraz, duela hogeita hamar urteko ideiak, erdi aurrikuspenak, dira.

Oso aspaldiko ideiak dira, beraz, eta harritu egiten nau liburu hura gaur inoiz baino gehiago irakurtzen jarraitzeak. Hizkuntzarik ezberdinenetara itzulita, dagoeneko milioi erdi ale baino gehiago saldu direla uste dut. Horrek, ordea, ez nau batere harropuzten. Aitzitik, liburuak munduan zehar izan duen arrakasta, sinetsiezadazue, munduaren aurkako salaketa bat da, nire ustez, urte haietan, gertatzen hasia zena nik baino hobeto eta obra helduago eta osoagoan inork ez zuela ikusi erakusten baitu. Izan ere, Masen errebolta nire liburuak inoiz ez zuen izan, nire aldetik, liburu ospetsua izateko asmorik. Areago, ez zuen liburua izateko asmorik ere. Zabalkunde handiko egunkari herrikoi batean, El Sol, argitaratutako artikulua sorta soil bat da. Artikulu horiek, gaur horren kapituluak direnak, arrapaladan idatziak dira -inprimategira berehala eraman beharrak eragindako premia, zenbaitetan orrialdez orrialde, hurrengo egunean argitara emateko. Premia honek, bestalde, Ingalaterrako intelektualen artean maiz gertatzen ez den arrazoi bat zuen: artikulugatik ordaintzen zizkidaten metal preziatu urriak lehenbailehen kobratu beharra, munduaren tortikan ezartzen lagundu nituen ondorengo batzuk elikatu ahal izateko. Agian, intelektuala, ikuspenak izatea, ideiak sortzea dagokion intelektuala bederen, ez dela lainezaz erabili behar uste dut nik. Bere eginkizunak ingurunearen zampaketa latza jasatea eskatzen du beharbada, haren aurka ekin beharra, harekin borroka egitea. Baliteke aurrerago erakusteko aukera izatea horrela sortu zela historian izan den benetako intelektualtasunaren lehen agerpen handia, han Grezian, duela hogeita sei mende.

Zalantzarik gabe, zientziak eta letrak babestu beharrak dira, zientziazko eta literaturazko emaitzak, hein handi batez, ez baitira eta ez baitute izan behar, adimen sortzailearen fruitu, eguneroko lan jarraituarena baizik. Baina adimena, adimen den aldetik, ezin da ofizio, lanbide, bihurtu. Adimena, berez, ez da lan bat eta ezin da magistratura bat izan. Inork ez dakien noiz gertatuko diren, ezta gertatuko diren ere ustegabeko, bat-bateko ikuspen eta erdi ikuspenetan datza. Adimenaren dohainik handiena, berorren jardunaren baldintza ere badena, bere buruaz inoiz seguru ez egotea da. Gizon argiak, argia delako hain zuzen ere, inoiz ez du jakiten hurrengo momentuan ere argia izango den. Bere zorroztasunaren iraupenean segurtasunez sinesten duena, ergela izaten da hain zuzen ere. Argia, burura dakizkiokeen ergelkeriak gogoan dauzkala ibiltzen da beti eta horrexegatik ez ditu egiten.

Norbaitez esaterik badago argia izan zela, Descartes handia dugu delako hori. Horra bada, berorrek esaten digu bai matematikan eta bai filosofian halako ondorio handietara iritsi baldin bazen, urtean zehar oso aste gutxi matematikako auzietan pentsatzen eta filosofiaz pentsatzen ere oso ordu gutxi eman zituelako iritsi zela. Honek -behar adina azpimarratu ez bada ere- zerikusia du berorren bona mens delakoarekin, bat-bateko oharretan, ustegabeko distiraldietan bakarrik bere fruituak ematen dituen adimenarekin. Horregatik esaten dut, jaunak, adimena ezin dela magistratura bat izan, eta burokratizatu ere ez, alferrik dela hura babestu nahi izatea, eta adimena bera ere bere oldez, izan daitekeen deialdirik menturazkoenak eta sakonenak eutsita, saiatzen dela bizitzako malkarretan eta zailtasunetan barrena, bere kabuz, gauza guztietatik aske -are babesetik ere aske- beti ustegabeko diren argialdi horiek jasotzen.

Nire liburuak, neroni bila ibili gabe, munduan irabazi duen sinesgarritasuna, han egiten ziren iragarpen larri batzuk dagoeneko, zoritxarrez, bete izanari zor zaio.

Jendeek beti miretsi izan dituzte, begirunea eta ezinegonaren zimikoa nahasirik, etorkizunari igertzen zioten gizon horiek. Etorkizuna baita gizonok, egiazki, bizi garen denboraren eremua. Bizitza, ez ahaztu gero, aurrerantz egiten den lan bat baita. Datorren momentuan, hurrenean edo urrunekoan, gerta daitekeena dugu axola eta kezka. Gizona uneoro jaurtikia dago etorkizuna den hutsune beldurgarri horretarantz. Dena den, geroa, etorkizuna, gure aurrean dagoen hutsunea dela diot, gure bizitzaren alde korapilatsua

delako. Inoiz ez dakigu zer ekarriko digun, zer gertatuko zaigun. Funtsez kolokan dagoena da.

Horra bada, ulertzekoa da jendeek etorkizuna aurrikusi nahi izatea eta ulertzekoa da, horren ezinean, iragarpen, aurrean eta asmakuntza antza duen orotaz jakinminez egotea. Horri zor zaio nire liburuari egun opa zaion arreta. Baina hemen ere berriro egiaztatzen da igerleen hutsaltasuna. Greziako adimenei zegokien eguerdiko argitasunaz, Eskilo orduko esanarazten diote Kasandra lehen igarlesari iragarketa jardunik hutsalena dela, biotako bat gertatzen baita: etorkizuneko gaitzen bat iragartzeak gizonek hura saihesteko balio izango balu eta iragarpena bete gabe gelditu, ez litzateke iragarpena izango, baina beteko balitz esan behar da etorkizun beltza iragarri izanak ez zuela ezertarako balio izan. Horregatik Apolok baldintza batekin eman zion Kasandrari etorkizuna ikusteko dohaina: inork jaramonik egingo ez ziolakoa.

Bestenaz, nik duela hogeita hamar urte, ondokoetan gertatuko zena barrundatu izanak ez du deus berezirik.

Gauza normala izan da historia iragarria izatea. Giza historia, halabeharraren etengabeko eragina gorabehera, doinu baten antzekoa da; ordura arte jo den doinu zatia indarrez eta gardentasunez jasotzen jakin duenak, bere baitan sumatzen du gainerako doinuaren jarioa, etorkizuneko soinua duena. Horretarako aski da nork bere izatearen sustraiak erabat libre edukitzea; baina handiak diren herriak aldi jakin batean orainaldiaren menpean presoegi daudenez, lanpetuegi orainaldiko arazo eta gatazkekin, ez da ohikoa beraietan erabat gizon askatuak eta etorkizuneko ikuspen lainotsu horietara behar bezain irekiak egotea. Horregatik, igerpenak usuago dira handiak izan ziren eta handi izateari utzi zioten bazterreko herrietan, bizkarrean esperientzia guztiak daramatzatenak, dagoeneko kolore guztietakoak ikusi dituztenak, zorionen eta zorigaitzenugarretan garbitu diren herrietan. Horra, bada, ez ezazue ahanztu portugaldarrak eta espainiarrak Mendebaleko antzinako txinarrak garela. Espainiarrok batik-bat, Mendebalean agindu zuen lehen herria izatearen abantaila dugu, Ingalaterra azkena den bezala, eta zorrotz denak beti antz ematen dio bere aurrean agertzen den gizakiari noizbait agindu zuen herri bateko partaidea den. Horrelaxe gertatzen da espainiarrarekin.

Honekin guztiarekin esan nahi dut, nire iragarpenak ez direla nire bakarkako lana, nire arraza zahar-zaharrak eraginak baizik. Nik horretan arreta-izpi bat jarri besterik ez nuen egin -horixe baita nire herrikide maiteek jarri ohi ez dutena.

Bi iragarpen nagusi zeuden nire ia liburu horretan. Batak iragartzen zuen masak -ez bakarrik eta ez nagusiki ere langile-masak-, beren askatasuna aldarrikatzera zihoazela ordura arte gidatu zituzten gutxiengoaren aurrean eta beren nagusigoa ere maila guztietan ezartzera zihoazela. Baina nire liburuak bazuen bigarren parte bat ingeles argitalpenean izenburuagatik behar bezain nabarmen gelditzen ez dena. Honela zioen izenburu horrek: "Nork agintzen du munduan?". Beharrezkoa baita munduan beti norbaitek agintzea. Honen halabeharraren arrazoia emateak luze joko liguke baina honela laburbil daiteke: giza elkarbizitzari gizarte esateak -edozein delarik hau- benetako egia ezkutatu ohi digu, hots: ez dagoela inongo kolektibitatearik edo giza elkarbizitzarik zinetako gizarte denik. Aristotelesengandik hartu dugun ideiaren arabera, gizona berez da gizartekoa, baina beste aldeia estaltzen duen egiaren alde bakar bat erakusten duenez, arras ideia faltsua da. Egia baita, noski, giza elkarbizitza orotan indar eta joera sozialak daudela -bestela gizonak sakabanaturik biziko lirateke- baina horiekin batean beti daude sakabanatze indar eta joera disozialak edo antisozialak. Hiltzailea ez da horretan gertakari lodiena eta axola gutxiena duena baizik. Sozietate oro da, berez eta batean, di-sozietate; edota bestela adieraztekotan, gizarte oro, gizarte izateko asmoaren aldetik, porrot bat da, hau da, errealtate gaixo bat. Hortik dator, indar eta joera disoziatiboei elkarbizitzak edo

kolektibitateak artifiziaiki antolatutako indar bat kontrakarrean jarri beharra, botere publikoa alegia, Estatua. Anarkisten inozokeria da Estatua edo botere publikoa alde batera utz daitekeela uste izatea, baina, bestetik ere, txatxukeria da, juristen utopia, Estatua, berez, gauza ona eta osasungarria dela uste izatea. Inola ere ez: Estatua egotea eta nahitaezkoa gertatzea, gizartea, gehiago edo gutxiago, beti gaixorik egotetik eta sendagarri gisa indar sakabanatzaileen garaipena ito eta eragotziko duen botere publiko baten beharrizanetik dator. Estatua, kolektibitateak iraun ahal izateko bere buruari ipintzen dion tramankulu ortopedikoa da. Baina tramankulu ortopedikoa, bere horretan eta besterik gabe, oker bat da, eta bikaina izanik ere akastuna beti. Gizarte barruko borrokak eragozteko, ordena ezartzeko, sortua delarik, bere baitan dakar gizarteko talde bakoitzak botere publikoaz, hau da, Estatuaz, jabetu nahi izatea, eta horrekin borroka berriak eragiten ditu. Botere publikoaren jabe egiteko borroka, zer esan nahi duen zehazki ia inork ez dakien oso hitz lausoz, Politika deritzana da. Beraz, Estatua, gizartegorputzaren eritasun sendagaitz eta osagaia delarik, Politika, lehengoei gaineratzen zaien beste gaixotasun bat da. Pentsalariak, ezin sinetsizko arinkeriaz, zein litzatekeen Politika ona, txarraren aurrean, definitzen saiatu dira, baina, nik dakidala, orain arte inor ez da hausnartzen saiatu -zuzen eta ihespiderik gabe- zer den Politika bera, ona nahiz txarra. Saiatu izan balira, erreparatuko zuten, Gizarte guztietako gaixotasun iraunkorrari lotua dagoenez, ezinezkoa dela politika onik egotea eta aukera bakarra horren txarra ez den politika egotea dela. Horrelakoa da etengabeko giza esperientzia, eta ulergaitza da pentsalariak milaka urtetako esperientzia hori adierazten jakin ez izana. Horrela, bada, honek erakusten digunez -honen laburki aipatuta bada ere- gizarte guztietan agindu behar du norbaitek; eta beti hainbat gizarte beste gizarte bat, ahulagoa baina zabalagoa, aldi bakoitzean "mundu" bat zena, osatuz elkarrekin bizi izan direnez gero, beti izan da beharrezkoa norbaitek munduan agintzea¹²³.

III. Eraskina

[XVIII. mendea]¹²⁴

XIX. mendearen ohorea, erabat bizitza publiko berria eta funtsean garai guztietakoei kontrajarria sortzen zuten oinarri batzuen ezarpena izan da. Mende hori gobernatzen duen gizonak ez zuen oinarri horiek asmatu beharrik izan ezta bere ezarpenaren lehen hasikinak ere. XVIII. mendean hezita, bertatik jasotzen ditu altxor hori eta bere gogoari barnetik eragiten dion oldar ideala ere. Ez du, bada, halako meritu handirik bizi-egitarau bikain horri indartsu atxiki izanak. Gauza bakar batean erakus zezakeen gizon horrek bere jenialtasuna, bere arima goitasuna: bere zeregina burutzean jarritako arduran, bere ibileran zehar izandako ernetasun eta erantzukizunean. Hiru mende -Europako historia guztia- akitu ziren bere eskuan ipini den egitasmo miresgarri hori harilkatzeko. Deus ez errazagorik bertatik abiatzea baino. Ezartzen hasi bezain laster fruitu miragarriak emateari ekiten dio.

XVIII. mendeko gizonak ez ditu indar osoan funtzionatzen ikusi ez demokrazia, ez espermentazioa, ez berak asmatutako industrialismoa. Ez zuen, beraz, ezagutzen horren ondoriorik giza naturaren baitan. XIX. menderako gelditzen zen oinarri-sistema hura jardunean sustraitutako zuzenketa eta osagarri-sistema batekin osatzeko zeregina. Ikusgarria da benetan nolako setaz huts egiten duen joan den mendeak betebeharrak hori. Ez du ulertzen gizakiari, demokraziako erregimen berrian heztean demokrazia baino zerbait gehiago irakatsi behar zaiola, hau da, bere eskubideak baino zerbait gehiago, bere betebeharrak alegia. Ez du ulertzen, zientziak, bide espermentala hartzean, ezinbestean espezialismo mekanikoan sakabanatzea jotzen zuela, eta hori nolabait berdindu beharrekoa zela, zientzia horren muina bera gordeko bazen, hots, bere batasuna. Ez du ulertzen, industrialismoak, bere kabuz utziz gero, ekoizpenaren jopu egiten duela gizadia eta horrekin nagusitasuna bizitza publikoan arazo ekonomikoari ematen zaiola eta, pribatuan, gizakiaren desitxuratzeko beldurgarria datorrela. Edo hobeki esan: ulertzen du hau dena, nola ez, baina ez ditu betetzen ulertze horrek zuzenean bizkarreratzen dizkion eginbeharrak.

Zenbat eta gehiago aztertu joan den mendea orduan eta argiago ageri da bertako ia on guztia ez dela berea, aurreko mendekoa baino, eta bere-berea zuena historiarekiko desleialtasun setatsua izan zela¹²⁵. Ohartuki huts egin zuen bere zeregin historikoan asmatu beharra eskatzen zuten guztietan. Jasoari ez zion funtsezko ezer gehitu, aitzitik, lehendik hartutako oinarriek adierazten zuten maldan behera joaten utzi zuen bere burua. Horiek erabiltzean behin ere ez zen, gizon arduratsu orori dagokionez, berorien gainean mantendu, beren funtzionamenduarekiko nagusitasuna gordeta, bere halabehar propioaren jabe eta, beraz, etorkizun historikoaren jabe izanik. Aitzaki moduan, haren gabeziak ezin zirela mendearen barrutik ikusi esateak ez du balio, garai hartako goi mailako gizabanakoek -zoko-gizon gogoetatsu batzuek- txit garden aurrikusi eta ozenki aldarrikatu baitzituzten.

Arrazoibide erraz-erraz batek eramaten zuen aurrikuspen horretara. Demokrazia ezarlea ez zen demokrazian hezia izan "erregimen zaharrean" baizik, edota oraindik bazirauren haren giro etikoaren hondakinean. Espezialismoari ekin ziona ez zen bere aldetik espezialista, artean bere zientziaren entziklopedia baitzuen. Industria gailen hura ez zen berorrek sortutako aire publikoaz elikatzen, aitzitik, industria-aurreko girotik gizartearen irauten zuen orotaz baliatzen zen. XIX. mendeak, beraz, oinarri berrien abantailak eta aurreko mendeko iraupen onuragarriak elkartzen zituen. Ez zen bere buruaren seme. Bere obran berri-berria zenak -bizitzaren antolaketa berriak- ez zuen artean eraginik bere bizian. Baina begien bistan zegoen, belaunaldiz belaunaldi, XVIII. mendearen aztarnak lurrunduz zihoazela eta idorrean, isolaturik, oinarri berriak geratzen ari zirela. Oinarri hauen indar betean, eta hauetxek indarrean bakarrik, jaiotako gizakia zen

Iraultzaren semea, Adan berri-berria. Nola ez, bada, zuzen-zuzenean galdetu gizaki-mota berri horrek baldintzarik ote zuen XIX. mendeak hasitako asmo historikoari segida emateko? Nola galdetu gabe egon ea demokrazia hutsean hezitakoa demokrata izateko gai izango den etika osagarriarik gabe? Ea jaiotzetiko espezialista benetako "zientzia-gizona" izan litekeen ala jakitearen erroekin berekin harreman guztia galduko ote lukeen? Azkenik, ea industrialismoak, bere kabuz utzita, ez ote lukeen -arrazoi askorengatik- bere burua deuseztatuko?

xix. mendeak ez zien galdera hauei arraposturik eman nahi izan eta horregatik erantzunak kalean barrena dabilta beren hanka bien gainean. Horiek dira ehunkada lorios hark utzi zigun arazo larria, paregabea historian zehar. Demokrazia liberalaren semeak asmo anti-liberala du eta, berez, anti-demokrata (batean, bata eta bestea izanik). Espezialismo zientifikoaren semeak ez du zientziarekiko berotasunik sentitzen. Garaitu zuen industrialismo haren ondorengoa bere burua galtzen hasia da. Eta gizon berria hau dena da, txairoki, zinikoki, hutsalki. Ez baitu gauza horiek guztiak bizi-arau zorrotzagoen eta zehatzagoen sistema berri batean gainditu izanaren usterik ere erakusten. Idorrean bizitzeko prest ematen du, inolako arau eta asmorik gabe.